

NAFARROAKO  
ESKOLA  
KONTSEILUA  
CONSEJO  
ESCOLAR  
DE NAVARRA

Txostena  
Informe

2015  
2016



Nafarroako Gobernua  
Gobierno de Navarra



Nafarroako Eskola Kontseilua  
Hezkuntzako Batzorde Nagusia  
Consejo Escolar de Navarra  
Junta Superior de Educación

## 2015-2016ko NHSTko edukien aurkibidea

1. SARRERA .....	7
2- HEZKUNTZAREN TESTUINGURUA .....	11
2.1. Alderdi demografikoak .....	14
2.1.1. Biztanleria eta haren osaera .....	14
2.1.2. Hiri- eta landa-eremuetako biztanleria .....	22
2.1.3. Atzerritarrak.....	24
2.1.4. Familia-egitura.....	30
2.1.5. Eskola-adineko biztanleria... ..	34
2.2. Alderdi sozioekonomikoak .....	37
2.2.1. Barne-produktu gordina .....	37
2.2.2. Sektore ekonomikoak .....	39
2.2.3. Lan-merkatua .....	41
2.2.4. Familien ekonomia... ..	52
Familia-errenta.....	52
Desberdintasuna.....	53
Pobrezia eta gizarte-bazterketa... ..	56
Etxebizitza bakoitzak hezkuntzan egiten duen gastua .....	66
2.2.5. Hezkuntza eta ekonomia .....	69
2.3. Alderdi soziokulturalak .....	70
2.3.1. Ezaugarri orokorrak.....	70
2.3.2. Nafarroako hizkuntzak .....	72
2.4. Hezkuntza-alderdiak .....	79
2.4.1. Biztanleria helduaren ikasketa-maila .....	79
2.4.2. Hezkuntzaren interesa alor instituzionalean .....	85
Nafarroako Parlamentua.....	85
Nafarroako Arartekoa .....	86
2.4.3. Hezkuntzaren interesa alor sozialean.....	86
Komunikabideak .....	86
Baliabide profesionalak.....	86
3.- HEZKUNTZAKO BALIABIDE MATERIALAK ETA LANGILEAK.....	87
3.1. Hezkuntzaren finantzaketa publikoa.....	87
3.1.1. Hezkuntza Departamentuaren aurrekontua .....	87
Hezkuntza Administrazioaren gastu komunak .....	90
Irakaskuntzako gastu komunen aurrekontua .....	93
Sare publikoko gastuen aurrekontua.....	97
Sare pribatuko gastuen aurrekontua. ....	102
Laburpena .....	105
3.1.2. Konparatzeko datu orokorrak .....	111

3.2. Baliabide materialak .....	117
3.2.1. Baliabideak 0-3 urteetan.....	117
3.2.2. Ikastetxe publikoak. Araubide orokorreko irakaskuntzak .....	121
Ikastetxe- eta unitate-kopuruaren oinarritzko datuak .....	121
Azpiegiturak hobetzeko programak .....	124
Ekipamenduak .....	129
3.2.3. Ikastetxe pribatu eta itunduak Araubide orokorreko irakaskuntzak .....	130
Ikastetxe- eta unitate-kopuruaren oinarritzko datuak .....	130
3.2.4. Araubide bereziko irakaskuntzako ikastetxeak .....	133
Arte-irakaskuntzak .....	133
Hizkuntza-irakaskuntzako zentroak .....	134
3.2.5. Zerbitzu osagarriak .....	134
Eskola-garraioa .....	134
Eskola-jangelak .....	134
3.3. Hezkuntza-arloko langileak .....	135
3.3.1. 0-3 urtekoekin diharduten langileak .....	135
3.3.2. Ikastetxe publikoetako irakasleak .....	136
Plantillaren bilakaera. Datu orokorrak. ....	136
Araubide bereziko irakasleak .....	137
Orientazioko langileak .....	137
Hezkuntza-beharretarako irakasleak .....	138
Hizkuntza irakasleak .....	139
Helduen Hezkuntzako irakasleak.....	139
Erljio-irakasleen kontratazioa .....	140
Erretiroak .....	140
Lehen Hezkuntzako ikastetxeak laguntzeko berariazko programa.....	140
Irakaskuntzako funtzio publikorako sarbidea, mugikortasuna eta espezialitate berriak eskuratzea .....	141
Irakasleen administrazio araubidepeko kontratazioak. ....	142
Irakasleen ordainsarien bilakaera .....	145
Administrazioko eta zerbitzuetako langileak .....	146
Laneko osasuna .....	146
3.3.3. Itunpeko ikastetxeetako irakasleak .....	149
Itunpeko ikastetxeetako irakasle-plantillen bilakaera .....	149
Itunpeko irakaskuntzaren soldata-taulak .....	150
Enpresa erakundeak eta sindikatuak, Nafarroako itunpeko irakaskuntzan ....	151
3.3.4. Irakasleei buruzko ezaugarri interesgarriak: Europako eta Espainiako esparruak .....	152
Ikastetxeetako irakasleak .....	152
Araubide orokorreko ikasketak ematen dituzten irakasleak .....	153
Araubide bereziko irakaskuntzak ematen dituzten irakasleak .....	156
Helduentzako hezkuntza ematen duten irakasleak .....	158
Irakasleen sexuaren aldagaia.....	160

Irakasleen adinaren aldagaia .....	164
3.3.5. Ikasle/talde ratioen bilakaera .....	169
4.- HEZKUNTZA-PROZESUAK ETA -POLITIKAK .....	175
4.1. Foru Komunitateko Hezkuntza Administrazioaren antolamendua .....	175
4.2. Irakaskuntzen antolamendua.....	176
4.2.1. Haur Hezkuntzako Lehen Zikloa.....	182
4.2.2. Haur Hezkuntzako bigarren zikloa eta Lehen Hezkuntza.....	183
4.2.3. DBH .....	184
4.2.4. Batxilergoa.....	184
4.2.5. Lanbide Heziketa.....	184
4.2.6. Arte eta Musika Ikasketak.....	186
4.2.7. Helduen irakaskuntza.....	186
4.2.8. Kirol ikasketak.....	187
4.2.9. Hizkuntzak ikastea.....	187
Euskara.....	187
Atzerriko hizkuntza .....	189
4.2.10. Eskolako egutegia eta laneguna .....	195
4.3. Inklusibitatea eta dibertsitatea .....	199
4.3.1. Ikasleen aniztasuna kontuan hartzea .....	199
4.3.2. Hezkuntza-konpentsazioa .....	202
Desgaitasuna.....	202
Atzerriko ikasleak eta/edo berandu txertatutakoak.....	203
Absentismoa eta ikasketak garaiz aurretik uztea .....	205
Errefortzua, orientazioa eta hezkuntzako laguntza .....	206
Adimen-gaitasun handiko ikasleak .....	208
Ospitaleratutako ikasleak eta etxeko arreta .....	208
Aniztasunarekiko hezkuntza-arretako beste programa batzuk.....	209
Ikastetxe publiko eta itunduentzako laguntza ekonomikoak .....	209
Bekak eta ikasketa-laguntzak .....	209
4.4. Hezkuntza-sistemetako aurreko ikasketen baliokidetasunak.....	213
4.5. Genero-berdintasuna.....	217
4.5.1. Araudia... ..	217
4.5.2. Irakasleentzako prestakuntza, berdintasunaren alorrean.....	217
4.5.3. Jarduera-ildoak.....	219
4.5.4. Baliabide didaktikoak.....	219
4.5.5. Parte-hartze eta lankidetzaren beste erakunde batzuekin.....	220
4.6. Hezkuntzaren kalitatea eta hobekuntza .....	221
4.6.1. Eskola-zuzendaritza.....	221
4.6.2. Kalitatearen kudeaketa ikastetxeetan.....	225
Ikastetxe publikoak .....	225
Ikastetxe itunduak.....	235
4.6.3. Irakasleen etengabeko prestakuntza .....	236

4.7. Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologia	244
4.7.1. Teknologia Berriak eta Hezkuntza Programa (PNTE)	244
4.7.2. Konektagarritasuna	245
4.7.3. Informatikako ekipamendua	246
4.7.4. IKTak curriculumean txertatzea	250
4.8. Bizikidetz	251
4.8.1. Bizikidetzarako Aholkularitza	251
4.8.2. Eskola barruko jazarpena	253
4.9. Landatasuna	253
4.10. Udalak eta hezkuntza	258
4.11. Parte-hartzea	260
4.11.1. Nafarroako Eskola Kontseilua	260
4.11.2. Ikastetxeetako eskola-kontseiluak	262
4.11.3. Unibertsitatez kanpoko irakasleen Mahaia Sektoriala eta 2001eko maiatzaren 31ko itunaren jarraipen batzordea	264
4.11.4. Gurasoen Mahaia	265
4.11.5. Ikasleen gurasoen elkarteak eta konfederazioak	266
4.12. Europar Batasuneko hezkuntza-programak	270
5.- ESKOLA-SISTEMAREN EMAITZAK	273
5.1. Hezkuntza-sistemara sarbidea	273
5.1.1. Eskolatze-prozesuaren emaitzak	273
Eskolatze-prozesuaren arauketa	274
5.1.2. Araubide orokorreko ikasketetan eskolaturiko ikasleak	274
Eskolatzeari buruzko zifra orokorrak Nafarroako Foru Komunitatean	274
Ikasleak, hizkuntza-ereduen arabera	278
Haur Hezkuntzako lehen zikloa	281
Batxilergoko ikasleak	283
Lanbide Heziketako ikasleak	284
Hezkuntza-premia bereziak dauzkaten ikasleak	292
Atzerritar jatorriko ikasleak	300
Helduen hezkuntzako ikasleak	302
5.1.3. Araubide bereziko ikasketetan eskolaturiko ikasleak	306
Hizkuntza-irakaskuntzako ikasleak	306
Nafarroako Gobernuaren Euskararen Gaitasun Agiria (EGA)	309
5.1.4. Arte-irakaskuntzako ikasleak	310
Musika	310
Dantza	311
Arte Plastikoak eta Diseinua	311
Diseinuko Goi Mailako Arte Irakaskuntzak	312
5.2. Progresioa sistema arautuan	312
5.2.1. Lehen Hezkuntza	312
5.2.2. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza	317

Talde arruntak .....	317
Curriculum egokituko programak – Curriculum aniztasuna .....	321
5.2.3. Batxilergoa .....	323
5.2.4. Selektibitateko emaitzak – Unibertsitaterako sarbide-probak .....	326
5.3. Errendimendu-emaitzak.....	330
5.3.1. Lehen Hezkuntzako 3. ikasmailaren ebaluazioa .....	330
5.3.2. Lehen Hezkuntzako 6. ikasmailaren ebaluazioa .....	331
5.3.3. IIPren ebaluazioa lehen hezkuntzako 6. mailan .....	352
5.3.4. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 2. mailako ebaluazioa.....	358
5.4. Hezkuntza-sistemaren emaitza konparatiboak.....	375
5.5. Sariak eta sari bereziak .....	382
1. eranskina. Nafarroako Parlamentua .....	387
2. eranskina. Nafarroako Arartekoa.....	405
3. eranskina. Komunikabideak.....	415
4. eranskina. Baliabide profesionalak .....	419



## 1.- SARRERA


Nafarroako Eskola Kontseiluak, 2016ko abenduaren 21ean izandako osoko bilkuran, aho batez onartu zuen 2015-2016 ikasturteko Nafarroako unibertsitatez kanpoko hezkuntza-sistemari buruzko txosten hau. Horrela, bete egin du Nafarroako Eskola Kontseilua arautzen duen 12/1997 Foru Legean jasotako agindua, eta bere helburu nagusietako bat lortzen laguntzen du, gizarteari gure foru-erkidegoko hezkuntzaren errealitatearen deskribapen oso, egiaztatu eta ordenatu bat eskainita.

Aurreko ikasturteetan bezala, txostenaren edizio honetan ikuspegi sistemikoa hartu da azalpenerako. Ikuspegi honek gure hezkuntza sistemaren funtzionamendu konplexu eta dinamikoa hobeki ulertzen lagunduko du, sistemari egiten zaizkion ekarpen multzo baten konbinazio gisa deskribatuz. Horiek, barneko prozesu jakin batzuen bidez, erdietsitako emaitza edo lorpen bihurtzen dira eta errealitate sozial eta ekonomikoan eragiten dute. Hori guztia testuinguru jakin batean gertatzen da: ekarpenetan eragiten duen, prozesuei eragiten dien eta emaitzak baldintzatzen dituen testuinguruan, hain zuzen. Emaitzek, gainera, aldatu egiten dute testuingurua bera. Hezkuntza sistema faktore anitzeko erlazio baten gisan aztertu behar da. Bertan, ekarpenak eraginkortasunez kudeatzen badira hezkuntza prozesu eta politika egoki eta iraunkorren bidez, eginahal horren emaitzak hobetu egingen dira eta horrek era berean bere eragina izanen du testuinguruaren baldintzak hobetuko dituelako eta, ondorioz, gizarte garapena eta aurrerabidea sortuko dituelako.

Ikuspuntu honen abantaila da bat egiten duela hezkuntzako adierazle-sistema gehienek hartutako oinarriko eskemarekin. Beraz, errazago erka daitezke Nafarroako Foru Komunitateko datuak beste erkidego eta herrialde batzuetako hezkuntza errealitateekin.

Hona, hurrengo taulan, txosten honen egitura, modu eskematikoan azalduta.

1. taula:





Nafarroako Eskola Kontseiluak gogoeta sakona egin du, 2015-2016 ikasturtean, txosten honen egiturari eta formari dagokionez. 2016ko urtarrilaren 18an Batzorde Iraunkorren bileran aurkeztu zen helburu horrekin Batzorde espezifikoko bat sortzeko proposamena eta otsailaren 3ko osoko bilkuran berretsi zen. Otsailaren 15ean, Batzorde Iraunkorra «2015-2016 NHST txostena lantzeko gida»ren lehen zirriborroa jorratu zuen. Martxoan eta apirilean, hainbat bilera izan ziren, Batzorde Iraunkorrean adostutako aditu-taldeekin (Nafarroako Gobernuaren Argitalpenen Zerbitzua, NUPeko Soziologia Saila, Berdintasunaren Nafarroako Institutua, Nafarroako Estatistikaren Institutua). Ekainaren 22an, Batzordeko kideek egindako ekarpenak jasotzen zituen txostena aurkeztu zen Batzorde Iraunkorrean. Ekainaren 28an, osoko bilkurak NHST Batzordean landutako testua onartu zuen, eta ildo horri jarraikiz egina da honako txosten hau. Edonola ere, hobetu egin nahi dugu txostena, alderdi hauek aintzat hartuz:

- Arinago kudeatzea; horretarako, era mailakatuan eskatuko dizkiegu datuak iturriei, eskura egon daitezkeen eran. Gainera, prozesuaren egutegi bat ezarri dugu, eraginkortasuna hobetzeko, eta epe batzuk zehaztu ditugu, hainbat kapitulu idazteko zein berrikusteko.
- Idazketa hobetzea, hizkuntza ulergarriagoa erabilita, inklusiboa generoaren ikuspuntutik, eta bateratua taulak lantzeko eta grafikoak aurkezteko irizpideetan, eta laburpen partzial motzak egiteko aukerarekin.
- Datuak ahalik eta gehien eguneratzea, datuak bereiztea, denbora-serie zabalagoak txertatzea behar diren tokian.
- Edukien egitura orokorra mantentzea, aldaketa partzialekin, baina hezkuntza-testuinguruaren analisia (II. kapitulu dago) zabaldua eta IV. kapitulu Prozesuen eta Politiken gaiak berrantolatuta eta sakonduta.

Bestetik, nahiz eta txostenaren denborazkotasunak bat egiten duen 2015-2016 ikasturtearen hasiera eta amaiera formalki adierazten duten datekin, datu eta informazio batzuek, euren ezaugarri espezifikoengatik, gainditu egiten dituzte ikasturtearen erreferentzia edo adierazitako denbora-muga zehatzak.

Ohikoa den bezala, txostena aurreko urteetako erreferentzia eta alderaketekin osatuta dago. Hala, eskainitako datu segiden bidez, sistemaren askotariko adierazleak bilakaera konparatiboki azter daitezke. Bestetik, gerta daitezke testuko zati jakin batzuetan ematen diren irakasleen, ikasleen edo unitateen gaineko datuak bat ez etortzea, iturri desberdinetatik datozelako eta data desberdinetan erregistratu direlako.

Horrela, adibidez, Nafarroako edo Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratutako xedapen arauemailetan 2015-2016 ikasturteari buruzko arauak egon daitezke, argitaratze-data lehenagokoa delako xedapen horiek eragiten duten ikasturtea baino.


Beste kasu batzuetan, informazioak lotura du informazio hori eman duen iturriak berak erabiltzen dituen erreferentzia tenporalekin. Hori da, hain zuzen ere, Hezkuntza Departamentuak gauzatutako gastuei buruzko atalarekin gertatzen dena, datu horiek Nafarroako kontu orokorretatik hartuak baitira eta kontu horien izaera urtekoa baita. Hala da Parlamentuaren eta Arartekoaren jarduerari dagokien atalean ere, bi erakunde horietako memorietatik jaso baitira datuak. Inguruabar berezi batzuk direla eta, mugatuta dago Hezkuntza Ministerioko estatistika eta adierazleetatik datorren informazioa; azken datuak, oro har, 2014-2015 ikasturteari dagozkio eta, kasu batzuetan, atzeragoko ikasturteei. Horrek zaildu egiten du Nafarroako erakundeek bertako lurraldeari dagokionez eskainitako datuak beste interes-iturri batzuekin erkatzea.

Duela hainbat urtetik hona, zabaldu egiten da Nafarroako ikasleek diagnostikorako ebaluazioetan (bai Nafarroako hezkuntza-sistemak egindakoetan, bai estatuko eta nazioarteko prozesuetan lortutako emaitzak) lortutako emaitzak era deskriptiboan azaltzen dituen atala. 2015-2016 ikasturteari dagokionez, Lehen Hezkuntzako 6. mailako ebaluazio diagnostikoari, IIPko ebaluazioari eta DBHko 2. mailako ebaluazioari buruzko informazioa dago. PISA ebaluazioa 2015ean egin zen, baina haren behin betiko txostena oraindik kaleratu gabe zegoen Nafarroako Hezkuntza Sistemari buruzko txosten hau ixteko unean.

Ezinbestekoa da lan honen garrantzia ulertzen duten eta txostena prestatzen laguntzen duten pertsona eta erakunde orori aitortzea egin eta eskerrak ematea. Txostena egiteko datuak biltzen aritzeak ahalegin handia eskatzen du, eta eginkizun horretan behar-beharrezkoa izan da Hezkuntza Departamentuaren lankidetzak, bere Zuzendaritza Nagusi, Zerbitzu, Atal eta Bulegoa, bai eta Idazkaritza Teknikoaren koordinazio-lana ere. Bidezkoa da, halaber, hauei guztiei ere eskerrak ematea: Arartekoari, Nafarroako Gobernuko Argitalpen Atalari, Estatistika Zerbitzuari, Nafarroako Enplegu Zerbitzuari, Nafarroako Berdintasunaren Institutuari, NUPeko Soziologia Sailari, gurasoen elkarteei, sindikatuei, Corellako arte-eskolari eta, bereziki, Nafarroako Eskola Kontseiluaren osoko bilkura osatzen duten kideei.

Gainerako dokumentuetan ohikoa den bezala, Kontseiluak euskaraz eta gaztelaniaz argitaratzen du txosten hau ere. Hala ere, esan beharra dago, hainbat grafikoen testua ezin izan dugula garaiz euskaratu txostena lehenbailehen publikoan egin izan nahi dugulako.

Espero dugu txosten hau erabilgarria izatea gure hezkuntzaren errealitatea hobetu ezagutu nahi duten pertsona eta erakunde guztientzat, eta, berebat, ezagutza hori baliagarria izanen dela, hezkuntza hobetzeko ideiak eta ekimenak sustatzeko partaidetza eta konpromisorako testuinguru batean.



Aitor Etxarte Berezibar



## 2- HEZKUNTZAREN TESTUINGURUA

Testuinguruaren aldagaiek baldintzatu egiten dute hezkuntzak pertsonengan duen inpaktua, hezkuntzaren azpiegiturei eta politikei eragiten diete, eta zerikusia daukate hezkuntzaren emaitzetan. Gogoeta hori egiteko, gainera, gero eta garrantzi handiagoa daukaten beste hainbat faktore ere hartu behar dira kontuan, hala nola migrazioak, populazioen joan-etorriak eta ezagutzak etengabe garatu eta aplikatzea, edota faktore ekonomikoak (esaterako, merkatuen globalizazioa edo krisialdi ekonomikoaren ondorioak). Begien bistakoa da, bestalde, esparru europarrean garrantzi handia dutela Europar Batasuneko kide diren herrialdeek hartzen dituzten erabakiek. Kapitulu honetan, hezkuntzaren testuinguruaren ikuspegi orokorra izateko parametroak aurkeztuko ditugu, hainbat mailatakoak. Lehenik eta behin, Europa 2020 Estrategia aurkeztuko dugu, eta, segidan, Nafarroako hezkuntza-sistema eta bere bilakaera interpretatzeko testuinguruaren faktoreen multzo bat aztertuko dugu. Multzo horretan, faktore esanguratsu asko hartuko ditugu kontuan, baina ez guztiak.

### Europa 2020 Estrategia

Europa 2020 Estrategiak (ET2020) erantzun politiko bat eman nahi die Europar Batasuneko herrialdeetako arazo komunei, eta erantzun horrek hezkuntza-politikari buruzko erabakiei ere eragiten die, noski. Hori dela eta, Hezkuntza Sistemak azken urteotan plazaratu dituen txostenetan, Europako testuinguruari buruzko erreferentziak ere badira aztertuko parametroei dagokienez, Espainiakoekin eta Nafarroakoekin alderatuta.

Komenigarria da ET2020ren lau helburu estrategiko handiak gogora ekartzea, Europako Batzordeak gomendioen eta proposatutako aldagaiei eginiko jarraipen zehatzen bidez definitutakoak. Lau helburu horiek Europar Batasuneko herrialde guztietarako erreferentzia-esparru komuna ezartzen dute, eta, ondorioz, baldintzatu egiten dituzte Estatuetan eta horien barneko autonomia-erkidego eta eskualdeetako hezkuntza-administrazioetan garatzen diren hezkuntza-politikak. Hona hemen aipatutako helburuak zein diren:

1. Etengabeko ikaskuntza eta mugikortasuna egia bihurtzea.
2. Hezkuntzaren eta prestakuntzaren kalitatea eta eraginkortasuna hobetzea.
3. Ekitatea, kohesio soziala eta herritartasun aktiboa sustatzea.
4. Hezkuntzaren eta prestakuntzaren maila guztietan sormena eta berrikuntza sustatzea, enpresa-espirtua barne.

Esparru estrategiko horrek hainbat printzipio ditu irizpide. Horietako bat hezkuntzaren eta prestakuntzaren alorreko europar lankidetzak da, etengabeko ikaskuntzaren ikuspegi integratu batekin, horretarako koordinazio-metodo irekia erabiliz eta ukitutako sektoreen arteko sinergiak garatuz.

Estatu kideek eta Batzordeak lankidetzak estuan aritu nahi dute prozesua zuzendu, bultzatu eta ebaluatzeko orduan, bai eta emaitzak aztertzean ere. Hezkuntza eta prestakuntzaren alorreko europar lankidetzak sektoreartekoa eta gardena nahi du izan, eta horrekin harremana duten esparru politiko eta alderdi interesdun guztiak bildu nahi ditu.

Hezkuntzaren alorreko europar lankidetzaren lan-metodoak eraginkorrak eta malguak izan daitezten, esparruak hainbat lan-ziklo ezartzen ditu, 2020ra arte. Ziklo bakoitzean, alor jakin batzuk lantzen dira, aipaturiko helburu estrategikoetan oinarrituta.

Aldi berean, Estatu kideek neurriak hartu behar dituzte, helburu estrategikoak betetzeko eta Europako erreferentzia-balioak lortzen laguntzeko. Ziklo bakoitza amaitzean, Kontseiluak eta Batzordeak txosten bateratu bat idazten dute, helburu estrategikoak betetzeko bidean egindako aurrerapen orokorrak ebaluatzeko xedez. Txosten horiek egiteko oinarria Estatu kideek prestatutako txosten nazionalak izaten dira, bai eta eskura dauden informazio eta datu estatistikoak ere. Gainera, hurrengo ziklorako lehentasunak ezartzeko ere balio dute.

### **ET2020 strategiaren eguneratzea**

ET2020 Esparruak Europa 2020 Strategiaren helburuak lortzen lagundu nahi du 2012az geroztik; horregatik, eguneratu egin ditu haren laneko lehentasunak, tresnak eta egitura. ET2020 esparru estrategikoa 2015. urtean heldu da bere erdibidera. Hori horrela izanik, Kontseiluak eta Batzordeak ebaluatu egin dituzte helburu estrategiko orokorrak lortzeko aurrerapenak eta azken lan-zikloan adostutako lehentasunak.

Estatuek beharrezkotzat jo dituzten neurriak Hezkuntza Batzordearen bidez bideratu dira. Kontseiluak 2015eko maiatzaren 18an eta 19an egindako bileran, hezkuntzaren eta prestakuntzaren alorreko lankidetzaren arloan izandako lorpenak aztertu zituzten, eta, era berean, lankidetzak aurrera begira izan beharreko jarraibideak erabaki zituzten. Honela laburbiltzen dira:

1. ET2020 esparru estrategikoaren lan-zikloa bost urtera luzatu behar da, Europa 2020 estrategia guztiarekin hobeto koordinatzeko.
2. Lehentasun gutxiagori zuzendu behar zaie arreta, horrek balio erantsi handia emanen bailioke Europari.
3. Europar Batasunean eskuragarri dauden finantza-tresnak (esaterako, Erasmus+ eta Gazte Bermea) eraginkortasun handiagoz erabili behar dira.
4. Indartu egin behar da hezkuntzaren eta prestakuntzaren sektorearen eta enplegu-politiken sektorearen arteko lankidetzak.
5. Hezkuntza ez da laneratzeko gaitasuna hobetzera mugatu behar; aitzitik, garapen pertsonala eta herritartasun aktiboa ere sustatu behar ditu.

Kontseiluak eta Batzordeak 2015eko azaroan argitaratu zuten beren txostena, eta hiru ondorio estrategiko nagusi aurkeztu zituzten:

1. Baliozkoa da maila guztietako hezkuntza eta prestakuntza biltzen dituen esparru bateratua, eta oraindik ere badago ikaskuntzaren esperientzien egungo malgutasun eta iragazkortasuna mantentzeko beharra.
2. 2009an formulatutako lau helburu estrategikoen baliozko izaten jarraitzen dute, baina jarduteko ikuspuntua birdefinitu egin behar dago, premiazko erronka ekonomikoak eta enpleguarekin lotutakoak jasotzeko. Gainera, zehaztu egin behar da hezkuntzari zer egitea dagokion ekitatea eta integrazioa sustatzeko, eta, halaber, Europako balio komunak, kultura arteko gaitasunak eta herritartasun aktiboa transmititzeko.
3. ET2020 strategiak ekarpen garrantzitsua egiten dio Europar Batasunaren estrategia orokorrari enpleguaren, hazkundearen eta inbertsioaren alorretan. Horren harira, proben oinarria eta erreformaren erronken inguruko elkarrekiko ikaskuntza indartu behar dira, bai eta esparruak herrialde bakoitzean duen garrantzi espezifikoak ere.

Hori guztia aintzat hartuta, 2020ra arteko lankidetzak bideratzea erabaki zuten, lan-zikloa 3 urtetik 5 urtera luzatuta. Gai horren ikuspegi historikoa duzue taula honetan.

2. taula: ET2020ren lehentasunezko alor eta esparruak

ET2020ren helburu estrategikoetan oinarritutako lehentasunezko alor eta esparruak, lan-zikloen arabera.			
Helburu estrategikoak	Lehentasunezko alorrak. 2009-2011 zikloa	Lehentasunezko alorrak. 2012-2014 zikloa	Lehentasunezko esparruak*. 2015-2020 zikloa
Etengabeko ikaskuntza eta mugikortasuna egia bihurtzea.	Etengabeko ikaskuntzari buruzko estrategiak	Etengabeko ikaskuntzari buruzko estrategiak	1.- Kalitate altuko ezagutza, gaitasun eta eskumen egokiak, etengabeko ikaskuntzaren bidez eskuratutakoak eta ikaskuntzaren emaitzetan ardaztutakoak, enplegarritasunaren, berrikuntzaren herritartasun aktiboaren eta ongizatearen alde
	Kualifikazioen Europako esparrua	Europako erreferentzia-tresnak	
	Ikaskuntzako mugikortasuna zabaltzea	Mugikortasuna ikaskuntzan	
Hezkuntzaren eta prestakuntzaren kalitatea eta eraginkortasuna hobetzea	Hizkuntzak ikastea	Oinarrizko gaitasunak (irakurtzea eta idaztea, matematikak, zientzia eta teknologia) eta hizkuntzak	2.- Hezkuntza inklusiboa, berdintasuna, ekitatea, diskriminaziorik eza eta gaitasun zibikoien sustapena  3.- Hezkuntza eta prestakuntza irekiak eta berritzaileak, aro digitalean guztiz txertatutakoak  4.- Laguntza sendoa irakasleentzat, prestatzaileentzat, ikastetxeke zuzendarientzat eta hezkuntzako gainerako langileentzat  5.- Gaitasun eta titulazioen gardentasuna eta onarpena, ikaskuntza eta laneko mugikortasuna errazteko
	Irakasle eta hezitzaileen garapen profesionala	Irakasleen, hezitzaileen eta irakasleetako arduradunen garapen profesionala	
	Gobernamendua eta finantzaketa	Goi-mailako hezkuntza modernizatzea eta hirugarren mailako hezkuntzako titulazioen kopurua handitzea	
	Irakurketako, matematiketako eta zientzietako oinarrizko gaitasunak	Lanbide Heziketaren egokitasuna eta erakargarritasuna	
	Enplegu berrientzako kualifikazio berriak	Finantzaketa eraginkorra eta hezkuntza	
Ekitatea, kohesio soziala eta herritartasun aktiboa sustatzea	Hezkuntza eta prestakuntza behar baino lehenago uztea	Eskola uztea	6.- Hezkuntza- eta prestakuntza-sistemen inbertsio jasangarria, kalitatea eta eraginkortasuna
	Eskolaurreko hezkuntza	Lehen haurtzaroko hezkuntza eta zainketa	
	Migratzaileak		
	Hezkuntza-premia bereziko ikasleak	Ekitatea eta aniztasuna	
Sormena eta berrikuntza sustatzea eta prestakuntzaren esparru guztietan, enpresa-espirtua barne.	Zeharkako gaitasun giltzarriak	Akordioak enpresekin, ikerketa-erakundeekin eta gizarte zibilarekin	
	Berrikuntza sustatzen duten erakundeak	Zeharkako gaitasun giltzarriak, ekintzailetzari buruzko irakaskuntza, alfabetatze elektronikoa, alfabetatze mediatikoa eta ikaskuntza-eremu berritzaileak	
	Enpresa-munduaren eta hezkuntza, prestakuntza eta ikerketaren maila eta sektoreen arteko akordioak		

\* Helburu estrategikoak oraindik ere baliagarriak diren arren, lehentasunezko eremuak seira mugatu dira ziklo honetan. Eremu horietako bakoitzak 2020ra arteko epealdirako ezarritako helburu estrategiko bat edo batzuk lortzen laguntzen du, guztiz koherenteak dira Europar Batasunaren jarduteko lehentasun orokorrekin, eta horiek erdiesteko ekarpena egiten dute. Batasuneko kideek hautatuko dute zehazki zein lan-arlotan eta zein lankidetzaren eremutan hartu nahi duten parte, beren lehentasunen arabera.

Iturria: Guk geuk egina, Eurydice España-REDIEn datuekin

Planteamendu estrategiko horren inplikazioek lehenetsuzko jarduketan multzo berri baterantz bidera ditzakete hezkuntza-jarduerak. Argi dago etengabeko hobekuntzaren kultura, prestakuntza, ebaluazioa eta kontu-ematea, bai eta kudeaketaren eta emaitzen gardentasuna ere, lagungarri izanen direla hezkuntzako eragile guztientzat, sistemaren kudeaketa orokorra hobeto koordinatzeko eta hobetzeko, eta eragina izanen dutela dagokion administrazioek (tartean, Nafarroako Foru Komunitateak) hezkuntza-politikaren arloan hartzen dituzten erabakietan.

## 2.1. Alderdi demografikoak

Biztanleriarekin harremana duten adierazleek oso garrantzi handia daukate irakaskuntza antolatzeko orduan; horregatik, behar-beharrezkoa da haien azterketa egitea.


### 2.1.1. Biztanleria eta haren osaera

Hezkuntza-politiketan garrantzi erabakigarria duten aldagaiak honako hauek dira: herrialde edo eskualde bateko biztanleria, horren guztizko kopurua, lurraldean duen banaketa geografikoa, adin-piramidea, epe jakin bateko migrazio-fluxuak eta datu horien ondorengo urteetako proiektzioak. Aldagai horiek zuzeneko eragina dute plangintzan, erabili beharreko baliabideetan eta horiek banatzeko moduan.

#### Biztanleriaren tamaina

Europar Batasuneko (EB) guztizko biztanleriak gora egin du 2007 eta 2016 arteko epean: 498.300.775 biztanletik 510.056.011 biztanle izatera igaro da (+11.756.236). Dinamika hori, baina, ez da berdina herrialde eta eskualde guztietan; izan ere, badira hazkunde handia duten herrialde batzuk, eta egonkor mantentzen direnak nahiz atzera egiten ari direnak. Gero eta biztanle gehiago dauzkaten herrialdeen artean, Espainia, Frantzia, Italia eta Erresuma Batua aipa ditzakegu. Biztanleriari eutsi diotenak, berriz, Alemania, Holanda, Poloniak eta Txekiar Errepublika ditugu; biztanleak galdu dituztenak, berriz, Bulgaria, Grezia, Hungaria eta Portugal.


1. grafikoa: EBko biztanleriaren bilakaera. 2007 - 2015



Iturria: Guk geuk egina, Eurostaten datuekin

Biztanleriaren egituran ere erraz ikus litezke desberdintasunak, biztanleen adinari erreparatzen badiogu. Estonian, Erresuma Batuan eta Italian, gazteen ehunekoa (0-14 eta 15-24 adin-taldeetako) handiagoa da Bulgarian, Kroazian, Grezian, Errumanian eta beste herrialde batzuetan baino. Espainia erdibideko egoeran dago, horri dagokionez (% 18,6 eta % 11,8)


2. grafikoa: EBko biztanleria, adin-taldearen arabera. 2016ko urtarrilaren 1ean



Iturria: Guk geuk egina, Eurostaten datuekin

Azken urteetan Espainiako biztanleriak izan duen bilakaerak goranzko kurba bat izan du 2012ra arte. Urte horretan lortu zuen mailarik altuena (48.818.216 biztanle), eta jaisten ari da ordutik hona. Espainiako Etengabeko Erroldan, 2016ko urtarrilaren 1ean, 46.524.943 biztanle zeuden inskribatuta; hau da, 2015eko urtarrilaren 1ean baino 99.439 gutxiago.

3. grafikoa: Biztanleriaren bilakaera Espainian eta Nafarroan. 1996 – 2016



Iturria: Guk geuk egina, Nafarroako Estatistika Institutuaren datuekin



2015ean, inskribatutako pertsonak 28.933 gehiago izan ziren (% 0,1); atzerritarrak, berriz, 128.372 gutxiago (-% 2,7). Azken horien artean, EB-28tik etorritakoen kopuruak 111.526 egin du behera (guztira, 1.835.584 pertsona), eta Europar Batasunetik kanpokoaren kopurua 16.846 pertsonatan murriztu da (guztira, 2.765.688).

Biztanleen % 86,9 Espainian jaio da, eta % 13,1 atzerrian. Nazionalitateari dagokionez, Espainiako nazionalitatea daukatenen % 95,3 Espainian jaio da. Atzerritarren kasuan, % 10,1ekoa da zifra hori.

Erroldako hainbat alderdi biltzen dituen 3. taula erreferentzia bezala hartuta, 2015ean izandako bilakaeraren inguruko ondorio batzuk atera ditzakegu. Biztanle gehien dituzten autonomia-erkidegoak Andaluzia, Katalunia, Madril eta Valentzia, ordena horretan. 2015eko urtarrilaren 1ean bezala, hain zuzen. Biztanle gutxien dituztenak ere ez dira aldatu: Errioxa, Kantabria eta Nafarroa.

Foru Komunitateak hazkunde txiki bat izan du eta 637.002 biztanle ditu. Espainiako guztizko biztanleriaren % 1,3 da hori; aurreko hamabost urteetako ehuneko bera, alegia. Ondorioz, Nafarroako biztanleriaren pisu erlatiboa ia ez da aldatu ere egin.

3. taula: Autonomia-erkidegoen bilakaera demografikoa. 2015

Autonomia-erkidegoa	Biztanleria 2015-1-1ean	Biztanleria 2016-1-1ean	2015eko saldoak		
			Begetatiboa	Kanpoko migrazioa	Barneko migrazioa
Guztira	46.449.565	46.438.422	-2.753	-8.389	0
Andaluzia	8.399.618	8.401.760	8.546	-66	-6.338
Aragoi	1.326.403	1.317.921	-2.998	-4.477	-1.007
Asturias	1.049.875	1.040.681	-7.089	-1.104	-1.001
Balear Uharteak	1.124.972	1.134.657	2.174	4.194	3.316
Kanariak	2.126.144	2.133.667	1.067	6.419	38
Kantabria	585.359	582.571	-1.671	-702	-415
Gaztela eta Leon	2.478.079	2.454.870	-11.883	-3.061	-8.265
Gaztela-Mantxa	2.062.767	2.049.829	-1.713	-2.589	-8.636
Katalunia	7.396.991	7.403.879	5.092	-2.130	3.927
Ceuta	84.692	84.632	-1.009	-5.818	58
Extremadura	1.091.623	1.085.189	-2.641	-836	-2.957
Galizia	2.734.656	2.720.668	-12.269	163	-1.882
Errioxa	313.569	312.622	17.912	8.203	21.809
Madril	6.385.298	6.433.221	4.817	-3.066	-266
Melilla	84.570	84.464	338	-919	1.181
Murtzia	1.463.773	1.465.258	-2.663	-1.847	2.036
Nafarroa	636.402	637.002	-355	-439	-154
Euskadi	2.165.100	2.162.626	597	44	-702
Valentzia	4.939.674	4.932.906	995	-359	-742

Iturria: Guk geuk egina, Estatistikako Institutu Nazionalaren datuekin

### Biztanleria, sexuaren eta adinaren arabera

Espainian, 4. taulak erakusten duenez, erroldan inskribatutakoen % 49,1 gizonak dira, eta % 50,9 emakumeak. Espainiar nazionalitateko pertsonen artean, emakume gehiago daude proportzioan (% 51,1). Beste nazionalitate batzuk dituztenen artean, aldiz, gizonak dira nagusi, baina gutxigatik (% 50,7).

Adinari dagokionez, biztanleen % 19,6k 20 urte baino gutxiago ditu; % 34,3k 20 eta 44 urte artean ditu; % 27,5ek 45 eta 64 urte artean, eta % 18,6k 65 urte edo gehiago. Beraz, Europako beste herrialde batzuetan bezala, biztanleria zahartua dago oro har.

Nazionalitatearen arabera, nabarmentzekoa da 16 eta 44 urte artekoen kasuan dagoela alderik handiena, adinaren ehunekoari dagokionez, espainiarren eta atzerritarren artean. Izan ere, espainiarren % 35,9 dago adin-tarte horretan, eta atzerritarren % 56,6. Migratzaileek, oro har, lan-bizitza aktiboan aritzeko adina daukate, eta gaztetu egiten dute piramide orokorra.

Bestalde, hazkunde begetatiboak (jaiotzak ken heriotzak), kanpoko migrazioaren saldoak (atzerrikoa) eta barneko migrazioaren saldoak (autonomia-erkidegoen artekoa) duten eraginaren ondorioz, biztanleriak gora egin zuen Andaluzian, Balear Uharteetan, Kanarietan, Murtzian eta Nafarroan, bai eta Ceutan eta Melillan ere. Nafarroako biztanleria % 0,03 hazi zen 2015ean, aurreko urtearekin alderatuta. Eta negatiboa izan arren kanpoko migrazioaren saldoa (emigrazioa handiagoa da immigrazioa baino), positiboak dira saldo begetatiboa eta barneko migrazioaren saldoa.

4. taula: Biztanleria, adin-taldearen eta sexuaren arabera. Espainia. 2016ko urtarrilaren 1ean

	Biztanleria			Ehunekoa		
	Bi sexuak	Gizonak	Emakumeak	Bi sexuak	Gizonak	Emakumeak
Guztira	46.524.943	22.829.325	23.695.618	100,0	49,1	50,9
0-4	2.161.836	1.112.894	1.048.942	4,6	2,4	2,3
5-9	2.475.976	1.274.124	1.201.852	5,3	2,7	2,6
10-14	2.337.886	1.198.056	1.139.830	5,0	2,6	2,4
15-19	2.181.655	1.122.696	1.058.959	4,7	2,4	2,3
20-24	2.315.823	1.181.027	1.134.796	5,0	2,5	2,4
25-29	2.615.280	1.311.130	1.304.150	5,6	2,8	2,8
30-34	3.152.935	1.584.326	1.568.609	6,8	3,4	3,4
35-39	3.886.597	1.979.045	1.907.552	8,4	4,3	4,1
40-44	3.939.481	2.008.314	1.931.167	8,5	4,3	4,2
45-49	3.714.788	1.873.068	1.841.720	8,0	4,0	4,0
50-54	3.458.378	1.719.863	1.738.515	7,4	3,7	3,7
55-59	3.068.157	1.506.741	1.561.416	6,6	3,2	3,4
60-64	2.561.040	1.241.516	1.319.524	5,5	2,7	2,8
65-69	2.339.046	1.109.837	1.229.209	5,0	2,4	2,6
70-74	1.964.601	907.398	1.057.203	4,2	2,0	2,3
75-79	1.572.715	683.024	889.691	3,4	1,5	1,9
80-84	1.425.655	572.945	852.710	3,1	1,2	1,8
85 eta +	1.353.094	443.321	909.773	2,9	1,0	2,0

Iturria: Guk geuk egina, Estatistikako Institutu Nazionalaren datuekin

Biztanleria adin-tartearen eta sexuaren arabera banatzean, oso antzekoak dira Nafarroako eta Espainiako datuak (ikus 5. taula). Adinari dagokionez, biztanleriaren % 20,6k 20 urte baino gutxiago ditu; % 32,7k 20 eta 44 urte bitartean; % 27,6k 45 eta 64 urte arteko adina, eta % 19,1ek 65 urte edo gehiago.

5. taula: Biztanleria, adin-taldearen eta sexuaren arabera. Nafarroa. 2016ko urtarrilaren 1ean


	Biztanleria			Ehunekoa		
	Bi sexuak	Gizonak	Emakumeak	Bi sexuak	Gizonak	Emakumeak
Guztira	640.339	317.678	322.661	100,0	49,6	50,4
0-4	31.991	16.425	15.566	5,0	2,6	2,4
5-9	35.134	18.006	17.128	5,5	2,8	2,7
10-14	33.337	17.065	16.272	5,2	2,7	2,5
15-19	31.417	16.034	15.383	4,9	2,5	2,4
20-24	30.664	15.734	14.930	4,8	2,5	2,3
25-29	32.908	16.634	16.274	5,1	2,6	2,5
30-34	40.531	20.336	20.195	6,3	3,2	3,2
35-39	51.799	26.690	25.109	8,1	4,2	3,9
40-44	53.524	27.609	25.915	8,4	4,3	4,0
45-49	51.026	26.182	24.844	8,0	4,1	3,9
50-54	47.493	24.146	23.347	7,4	3,8	3,6
55-59	42.005	21.113	20.892	6,6	3,3	3,3
60-64	35.576	17.776	17.800	5,6	2,8	2,8
65-69	32.873	16.015	16.858	5,1	2,5	2,6
70-74	27.721	13.285	14.436	4,3	2,1	2,3
75-79	20.913	9.344	11.569	3,3	1,5	1,8
80-84	20.028	8.258	11.770	3,1	1,3	1,8
85 eta +	21.399	7.026	14.373	3,3	1,1	2,2

Iturria: Guk geuk egina, Nafarroako Estatistika Institutuaren datuekin

Laburbilduz, ikusten da biztanle gazteen kopurua nabarmen jaitsi dela, 20 eta 60 urte arteko erdiko adin-taldeetan dauden biztanleekin alderatuta. Horrek ondorio ekonomiko eta sozial handiak ditu, hala hezkuntza-plangintzari dagokionez nola erabaki sozial guztien alorrean; izan ere, biztanleriaren zahartze orokorraren ondorioz, datozen urteotan 65 urtetik gorako pertsonen tasa altuenak dituzten munduko herrialdeen parean egonen da Nafarroa.

Aurkeztutako datuek erakusten digutenez, Espainian eta Nafarroan antzekoak dira biztanleriaren dinamikak; hori horrela, gizarterik gazteenetako piramideekin zerikusi txikia daukate bi lurralde-eremu horietako grafikoek, aurrez adierazi duzun moduan.

4. grafikoa: Biztanleria, adin-taldearen eta sexuaren arabera. Espainia eta Nafarroa. 2016ko urtarrilaren 1ean



Garrantzitsua da, halaber, adin-taldeek azken urteetan izan duten bilakaera aztertzea. Horrela, ikusiko dugu egonkortzeko edo txikitzeko joera dutela jaiotza-kopuruaren bilakaerak (6. taula) eta 0-4 / 5-9 / 10-14 / 15-19 adin-taldearen tamainak (7. taula). Etorkizuneko hezkuntza-premiak antolatzean, kontuan hartu beharko dira joera horiek.

6. taula: Jaiotzak autonomia-erkidegoaren arabera, 2000-2015

Autonomia-erkidegoa	2000	2005	2010	2014	2015
Guztira	397.632	466.371	486.575	427.595	419.109
Andaluzia	80.579	91.807	92.201	82.195	80.523
Aragoi	9.921	11.628	12.940	11.602	11.330
Asturias	6.731	7.482	7.763	6.600	6.457
Balear Uharteak	9.502	10.925	11.967	10.673	10.580
Kanariak	18.981	20.127	18.305	16.398	16.161
Kantabria	4.341	5.267	5.575	4.565	4.368
Gaztela eta Leon	17.874	19.425	20.486	17.886	17.366
Gaztela-Mantxa	16.723	19.007	21.998	18.392	18.175
Katalunia	63.807	79.766	84.368	71.589	69.902
Ceuta	996	1.065	1.192	1.202	1.093
Extremadura	10.133	9.993	10.128	9.167	8.854
Galizia	19.418	21.097	22.047	19.630	19.412
Errioxa	2.346	3.038	3.374	2.834	2.734
Madril	56.623	69.367	73.878	65.505	64.681
Melilla	1.103	1.012	1.359	1.625	1.518
Murtzia	14.195	17.330	18.039	16.308	15.947
Nafarroa	5.262	6.149	6.778	6.183	6.013
Euskadi	17.316	19.698	21.170	19.379	18.840
Valentzia	40.775	50.628	51.684	44.343	43.311
Atzerrian bizi direnak	1.006	1.560	1.323	1.519	1.844

Iturria: Guk geuk egina, Estatistikako Institutu Nazionalaren datuekin

7. taula: Espainiako biztanleriaren hazkundera, adin-taldearen arabera. 2015

Adin-taldeak	Biztanleria urtarrilaren 1ean		Urteko hazkundera	
	2015	2016	Absolutua	Erlatiboa (%)
Guztira	46.449.565	46.438.422	-11.142	-0,02
0-4 urte	2.256.693	2.200.892	-55.800	-2,47
5-9 urte	2.484.376	2.476.890	-7.486	-0,30
10-14 urte	2.308.009	2.345.166	37.157	1,61
15-19 urte	2.153.295	2.185.067	31.771	1,48
20-24 urte	2.319.300	2.280.074	-39.226	-1,69
25-29 urte	2.640.339	2.562.881	-77.458	-2,93
30-34 urte	3.269.864	3.098.744	-171.120	-5,23
35-39 urte	3.949.790	3.847.932	-101.858	-2,58
40-44 urte	3.889.668	3.924.265	34.597	0,89
45-49 urte	3.691.008	3.712.227	21.219	0,57
50-54 urte	3.408.997	3.460.752	51.755	1,52
55-59 urte	2.978.374	3.073.635	95.261	3,20
60-64 urte	2.507.836	2.568.517	60.680	2,42
65-69 urte	2.357.513	2.348.384	-9.129	-0,39
70-74 urte	1.949.028	1.975.841	26.814	1,38
75-79 urte	1.553.066	1.584.541	31.475	2,03
80-84 urte	1.425.565	1.431.100	5.535	0,39
85 a 89 años	855.423	889.533	34.109	3,99
90-94 urte	357.162	371.283	14.121	3,95
95 urte eta gehiago	94.256	100.698	6.442	6,83


Iturria: Guk geuk egina, Estatistikako Institutu Nazionalaren datuekin

### Bilakaeraren aurreikuspenak

INEren datuek iragartzen dutenaren arabera, aldaketa gertatuko da Nafarroako bilakaera demografikoan: azken hamarkadan izandako % 15eko hazkunderatik biztanleriaren % 0,2ko jaitsierara igaroko gara 2014-2029 epealdian.

Epe horretan, jaiotzek 5. grafikoan adierazitako ildoari eutsiko diotela dirudi, eta haien kopurua 2015eko 5.593etatik 2028rako aurreikusten diren 4.412ra pasako dela.


5. grafikoa: Nafarroako jaiotzak eta 2015-2028 aldirako proiektzioak



Iturria: Guk geuk egina, Nafarroako Estadistika Institutuaren datuekin

Autonomia-erkidegoen multzorako egindako aurreikuspenei erreparatuz, ikusiko dugu urte horietan Nafarroako biztanleria ez dela kopuruz handituko, eta erkidego gehienetan biztanleriak behera egiten duela.

6. grafikoa: 2014-2029 aldirako proiektatutako hazkunde erlatiboa, autonomia-erkidegoaren arabera



Iturria: Guk geuk egina, Estadistikako Institutu Nazionalaren datuekin

Epealdi horretan, Europako herrialde eta eskualdeetan, bi izanen dira joera nagusiak: egonkortasuna (Alemania, Espainia eta Italia) eta galera demografikoa (Bulgaria, Polonia, Errumania...). Dirudenez, hazkunde demografikoa herrialde bakan batzuetan baino ez da gertatuko (Danimarka, Frantzia, Irlanda, Suedia eta Erresuma Batua).

8. taula: Europar Batasuneko biztanleriaren proiektzioak 2015-2030 aldirako

	2015	2020	2025	2030
Alemania	80.689.000	80.392.000	79.960.000	79.294.000
Austria	8.545.000	8.656.000	8.763.000	8.844.000
Belgika	11.299.000	11.634.000	11.837.000	12.019.000
Bulgaria	7.150.000	6.884.000	6.603.000	6.300.000
Zipre	1.165.000	1.218.000	1.262.000	1.300.000
Kroazia	4.240.000	4.163.000	4.072.000	3.977.000
Danimarka	5.669.000	5.776.000	5.892.000	6.003.000
Eslovakia	5.426.000	5.435.000	5.414.000	5.353.000
Eslovenia	2.068.000	2.075.000	2.070.000	2.054.000
Espainia	46.122.000	46.194.000	46.095.000	45.920.000
Estonia	1.313.000	1.295.000	1.272.000	1.243.000
Finlandia	5.503.000	5.585.000	5.656.000	5.706.000
Frantzia	64.395.000	65.720.000	66.896.000	68.007.000
Grezia	10.955.000	10.825.000	10.657.000	10.480.000
Hungaria	9.855.000	9.685.000	9.492.000	9.275.000
Irlanda	4.688.000	4.874.000	5.048.000	5.204.000
Italia	59.798.000	59.741.000	59.486.000	59.100.000
Letonia	1.971.000	1.919.000	1.865.000	1.806.000
Lituania	2.878.000	2.795.000	2.725.000	2.655.000
Luxenburgo	567.000	605.000	644.000	678.000
Malta	419.000	423.000	426.000	428.000
Herbehereak	16.925.000	17.185.000	17.419.000	17.605.000
Polonia	38.612.000	38.407.000	37.924.000	37.207.000
Portugal	10.350.000	10.161.000	9.991.000	9.845.000
Erresuma Batua	64.716.000	66.700.000	68.527.000	70.113.000
Txekiar Errepublika	10.543.000	10.573.000	10.550.000	10.461.000
Errumania	19.511.000	18.848.000	18.229.000	17.639.000
Suedia	9.779.000	10.120.000	10.463.000	10.766.000

Iturria: Guk geuk egina, Estatistikako Institutu Nazionalaren datuekin

### 2.1.2. Hiri- eta landa-eremuetako biztanleria

Biztanleria hirietan edo landa-eremuen kokatua dagoen, oso ezberdinak izaten dira arazoak, zerbitzuen egiturak eta kostuak.


Espainian erroldatutako pertsonen % 39,4 100.000 biztanletik gorako udalerrietan bizi da. Autonomia-erkidegoaren arabera, Madrilen (% 72,0) eta Aragoian (% 50,6) daude ehunekorik altuenak. Txikiak, ordea, Gaztela-Mantxa (% 8,4) eta Extremadurakoak (% 13,8) dira.

Bestalde, 10.000 biztanletik beherako udalerrietan bizi da biztanleriaren % 20,8. Ehunekorik altuenak Extremadura (% 51,2) eta Nafarroari (% 45,4) dagozkio, eta txikiak, berriz, Murtzian (% 4,5) eta Madrilen (% 5,8) jaso ditugu.

## Landatasun-indizea

Landatasun-indizea 2.000 biztanletik beherako udalerrietan bizi diren biztanleen ehunekoa da. Espainia osorik hartuz gero, biztanleria osoaren % 6 bizi da landa-eremuan. Nabarmentzekoak dira, beren indize altua dela eta, Gaztela eta Leon (% 25,9), Extremadura (% 20,5) eta Aragoi (% 16,3). Autonomia-erkidegoetan laugarrena da Nafarroa, landatasun-indizeari dagokionez (% 13,8). Beste muturrean daudenak Murtzia, Madril, Kanariak eta Balear Uharteak dira, % 1etik beherako datuekin, eta egoera horretan daude Ceuta eta Melilla hiriak ere.

7. grafikoa: Landa-eremuko biztanleen ehunekoa, autonomia-erkidegoetan. 2015



Iturria: Guk geuk egina, Estatistikako Institutu Nazionalaren datuekin

Nafarroan, 2002-2015 aldian, bilakaera negatibo motela izan du 2.000 biztanletik beherako udalerrietan bizi diren biztanleen ehunekoa, 10. taulan ikus daitekeen bezala. Alabaina, udalerririk horietako 17 urtetik beherako biztanleriak eutsi egin dio lehendik zeukan mailari (12.720 gazte), eta, ehunekoei dagokienez, haien proportzioa zertxobait handiagoa da biztanle gehiago dituzten udalerrietakoa baino. Errealitate horrek garrantzi handia du landa-eremuko zerbitzu ugariaren etorkizuna erabakitzeke orduan (besteak beste, hezkuntza-zerbitzuena).

9. taula: 2.000 biztanle arteko udalerrietako biztanleria. Nafarroa


	Biztanleria, guztira			17 urtetik beherakoak			17 urtetik beherakoak (%)		
	Guztira	2.000 biztanle arteko udalerririk	2.000 biztanletik gorako udalerririk	Guztira	2.000 biztanle arteko udalerririk	2.000 biztanletik gorako udalerririk	Guztira	2.000 biztanle arteko udalerririk	2.000 biztanletik gorako udalerririk
2002	569.628	98.230	471.398	59.655	12.471	47.184	10,5	12,7	10,0
2003	578.210	96.791	481.419	61.777	12.572	49.205	10,7	13,0	10,2
2004	584.734	97.320	487.414	63.470	12.775	50.695	10,9	13,1	10,4
2005	593.472	94.566	498.906	65.521	12.539	52.982	11,0	13,3	10,6
2006	601.874	91.426	510.448	67.292	12.145	55.147	11,2	13,3	10,8
2007	605.876	92.072	513.804	69.255	12.472	56.783	11,4	13,5	11,1
2008	620.377	91.157	529.220	72.362	12.511	59.851	11,7	13,7	11,3
2009	630.578	91.642	538.936	75.178	12.856	62.322	11,9	14,0	11,6
2010	636.924	92.361	544.563	77.884	13.206	64.678	12,2	14,3	11,9
2011	642.051	92.805	549.246	79.845	13.433	66.412	12,4	14,5	12,1
2012	644.566	90.696	553.870	81.114	13.162	67.952	12,6	14,5	12,3



2013	644.477	90.186	554.291	81.953	13.299	68.654	12,7	14,7	12,4
2014	640.790	86.995	553.795	81.819	12.809	69.010	12,8	14,7	12,5
2015	640.476	86.250	554.226	82.140	12.720	69.420	12,8	14,7	12,5

Iturria: Guk geuk egina, Nafarroako Estadistika Institutuaren datuekin

**8. grafikoa: Hiri- eta landa-eremuetako biztanleen ehunekoa. Nafarroa**



Iturria: Guk geuk egina, Nafarroako Estadistika Institutuaren datuekin

**2.1.3. Atzerritarrak**


Hezkuntza-sisteman, azken urteotan, faktore zehatz batzuek eragin handia izan dute; faktore horietako bat jatorriz atzerritarrak diren biztanleak dira. 2016ko urtarrilaren 1ean, 4.601.272 atzerritar bizi ziren Espainian; hots, guztizko biztanleriaren % 9,89 inguru. Nafarroan, data horretan, atzerriko nazionalitatea zuten biztanleak 54.666 ziren; guztizko biztanleriaren % 8,5, beraz.

**10. taula: Biztanleria, nazionalitatearen eta sexuaren arabera. Behin-behineko erroldako datuak. 2016ko urtarrilaren 1ean**

	Espainia			Nafarroa		
	Bi sexuak	Gizonak	Emakumeak	Bi sexuak	Gizonak	Emakumeak
Guztira	46.524.943	22.829.325	23.695.618	640.339	317.678	322.661
Espainiar nazionalitatea	Guztira	41.923.671	20.495.242	21.428.429	585.673	289.288
	%	90,11	44,05	46,06	91,46	45,18
Atzerriko nazionalitatea	Guztira	4.601.272	2.334.083	2.267.189	54.666	28.390
	%	9,89	5,02	4,87	8,54	4,43


Iturria: Nafarroako Estadistika Institutua

9-1. grafikoa: Biztanleriaren jatorria autonomia-erkidegoetan eta hiri autonomoetan. 2016



Iturria: Guk geuk egina, Estatistikako Institutu Nazionalaren datuekin

9-2. grafikoa: Atzerriko biztanleria Espainian. 2016




Iturria: Guk geuk egina, Estatistikako Institutu Nazionalaren datuekin

Adin-taldean araberako banaketari dagokionez, espainiarren eta Espainian bizi diren atzeritarren biztanleria-piramideak alderatuta, ikusiko dugu txikiagoa dela atzeritarren adinaren batez bestekoa. 20 urtetik 44 urtera bitarteko biztanleak hartuz gero, atzeritarren kasuan atzeritarren guztizko biztanleen % 53,3 dira horiek; biztanle autoktonoen kasuan, berriz, % 32,8.

Nazionalitatearen arabera, nabarmentzekoa da 16 eta 44 urte artekoen adin-taldea, hortxe ageri baitira espainiar nazionalitateko biztanleen eta atzerriko nazionalitateak dituztenen arteko alderik handienak; gainera, handiagoa da atzeritarren ehunekoa, espainiarrena baino. Izan ere, espainiarren % 35,9 da adin-talde horretakoa; atzeritarren kasuan, ostera, % 56,6raino heltzen da ehuneko hori.


10. grafikoa: Espainiako biztanleriaren piramidea. 2016ko urtarrilaren 1ean



Iturria: Estatistikako Institutu Nazionala

Atzeritarrak autonomia-erkidego bakoitzeko biztanleriaren zer ehunekotara heltzen diren jasotzen du 11. grafikoa. Nafarroan, % 8,5koa da datu hori; batez bestekoa baino txikiagoa, beraz (% 9,9). Atzeritarren ehuneko handiena duten autonomia-erkidegoak hauek dira: Madril (% 23,3), Balear Uharteak (% 17,0), Murtzia (% 13,7) eta Katalunia (% 13,6). Ostera, Extremadurak (% 3,1), Galiziak (% 3,2) eta Asturiasek (% 3,9) dute atzeritarren proportziorik txikiena.

11. grafikoa: Atzeritarren ehunekoa etengabeko erroldan, autonomia-erkidegoaren arabera. 2016




Iturria: Guk geuk egina, Estatistikako Institutu Nazionalaren datuekin

2015ean, atzerritarren kopuruak behera egin zuen autonomia-erkidego guztietan; ez, ordea, Euskadin (+1.209), Melillan (+66) eta Ceutan (+84). Hiru igoera horiek, nolahi ere, oso txikiak izan ziren. Zenbaki absolutuetan, atzerritar gehien galdu zituzten autonomia-erkidegoak Valentzia (-32.535), Madril (-20.210) eta Andaluzia (-19.528) izan ziren. Bestalde, jaitsierarik txikiak Extremaduran (-969), Asturiasen (-1.111) eta Nafarroan (-1.227) erregistratu ziren. Termino erlatiboetan, jaitsierarik handienak Gaztela-Mantxan (-% 5,8), Aragoian (-% 5,7) eta Gaztela eta Leonen (-% 5,5) izan dira.

Prozesuaren joera globala grafiko honetan ikus dezakezue.

12. grafikoa: Atzerritarren ehunekoaren bilakaera. Espainia eta Nafarroa. 1998-2016



Iturria: Guk geuk egina, Estatistikako Institutu Nazionalaren datuekin

Xehetasunei erreparatuz, ikusiko dugu Espainiako Etengabeko Erroldan inskribatutako atzerritarren artean 1.835.584 direla EB-28ko herrialdeetakoak. Horien artean ugarienak errumaniarrak (715.136), britainiarrak (253.928) eta italiarrak (181.848) dira. Europako Erkidegokoak ez diren atzerritarren artean, Marokokoak (753.425), Txinakoak (199.661) eta Ekuadorkoak (158.070) nabarmentzen dira. Nazionalitate nagusien artean, 2015ean ugaritu egin da Espainian bizi diren Txinako herritarren kopurua (8.023 pertsona gehiago), bai eta Ukraina (7.850), Maroko (2.542), Italia (2.485), Errusia (2.203) eta Pakistango (376) herritarren kopurua ere. Jaitsiera absoluturik handienak, berriz, jatorriz Errumaniakoak (-37.132), Erresuma Batukoak (-29.315) eta Ekuadorkoak (-18.327) direnek izan dute.

Udalerrien arabera banaketari dagokionez, 1.000 biztanletik beherako udalerrietan, biztanleriaren % 5,8 da atzerritarra. Alabaina, 100.000 biztanle baino gehiagoko hirietan, % 10,2ra iristen da ehuneko hori. Dena den, atzerritarren ehunekorik handiena 50.001 eta 100.000 biztanle arteko udalerrietan erregistratu da (% 11,9).

Udalerrietako atzerritarren ehunekoari erreparatuz, udalerrien erdiek baino gehiagok (4.696) % 5,0tik behera duten atzerritarren ehunekoa, beren guztizko biztanleriarekiko. Espainiari dagokionez, 189 udalerrian dira atzerritarrak biztanleriaren % 25,0 baino gehiago, eta 19tan % 50,0 baino gehiago.

**Atzerriko biztanleria Nafarroan**

Lehen esan bezala, Nafarroako atzerritarren kopuruak behera egin du azken urteotan; gehienbat bi arrazoirengatik: batzuek Espainiako nazionalitatea eskuratu dutelako eta beste batzuk beren sorlekura itzuli direlako.

Lehenengo arrazoia dela eta (espainiar nazionalitatea eskuratzea, alegia), biztanleriaren osaerak aniztasun handiagoa dauka, eta zailagoa egiten da nazionalitateari buruzko estatistiken bidez aniztasun hori identifikatzea. Horrenbestez, beste informazio batzuk erabili behar dira biztanleriaren aniztasuna ulertzeko; esate baterako, jaiolekua –2015ean Nafarroan bizi ziren atzerritarren % 10,3 Espainian jaiotakoa zen–.

11. taula: Nafarroan bizi diren biztanleak, urte bakoitzeko urtarrilaren 1ean, nazionalitatearen eta jaiolekuaren arabera.

	Nazionalitatea - Datu absolutuak				Nazionalitatea - Ehunekoak			
	Espainiarrak		Atzerritarak		Espainiarrak		Atzerritarak	
	Espainian jaiotak	Atzerrian jaiotak	Espainian jaiotak	Atzerrian jaiotak	Espainian jaiotak	Atzerrian jaiotak	Espainian jaiotak	Atzerrian jaiotak
2002	532.015	6.938	910	29.765	98,7	1,3	3,0	97,0
2003	532.442	7.027	1.150	37.591	98,7	1,3	3,0	97,0
2004	533.947	7.411	1.385	41.991	98,6	1,4	3,2	96,8
2005	535.826	7.764	1.708	48.174	98,6	1,4	3,4	96,6
2006	537.564	8.866	1.982	53.462	98,4	1,6	3,6	96,4
2007	539.161	10.794	2.458	53.463	98,0	2,0	4,4	95,6
2008	541.147	14.185	3.054	61.991	97,4	2,6	4,7	95,3
2009	543.023	16.928	3.725	66.902	97,0	3,0	5,3	94,7
2010	545.162	20.393	4.447	66.922	96,4	3,6	6,2	93,8
2011	547.044	23.407	5.187	66.413	95,9	4,1	7,2	92,8
2012	548.063	26.880	5.676	63.947	95,3	4,7	8,2	91,8
2013	548.189	28.396	6.215	61.677	95,1	4,9	9,2	90,8
2014	548.392	32.848	5.994	53.556	94,3	5,7	10,1	89,9
2015	549.064	35.519	5.792	50.101	93,9	6,1	10,4	89,6

Iturria: Estatistikako Institutu Nazionala

Nafarroan bizi diren migratzaileen jatorriari dagokionez, behera egin du Iberoamerikatik etorritakoen kopuruak; batik bat, Ekuadortik etorritakoenak, herrialde hori izan baita azken urteotan atzerritar gehienek sorlekua. Aitzitik, nabarmentzekoa da Europa ekialdeko herrialde batzuetatik (Errumania eta Bulgaria) etorritako pertsonen kopuruak izandako gorakada, bai eta Marokotik etorritakoena ere.


Datu horiek berebiziko garrantzia dute hezkuntzaren plangintzan; etorkinen kolektibo bakoitzaren ezaugarri sozial, kultural eta linguistikoengatik, bereziki.

12. taula: Nafarroako nazionalitate atzerritar nagusien aldaketak. 2000-2015. Urte bakoitzeko urtarrilaren 1ean

	2000	2005	2010	2014	2015	2000-2014 %	2005-2014 %	2010-2014 %
Maroko	1.300	5.121	9.694	10.419	10.081	701,5	103,5	7,5
Errumania	193	1.969	6.599	7.530	7.571	3.801,6	282,4	14,1
Bulgaria	82	2.768	6.492	6.570	6.308	7.912,2	137,4	1,2
Portugal	1.597	2.588	5.912	4.150	3.777	159,9	60,4	-29,8
Ekvador	643	14.011	9.494	3.979	3.253	518,8	-71,6	-58,1
Aljeria	640	2.774	3.141	2.598	2.467	305,9	-6,3	-17,3
Kolonia	530	4.825	4.384	2.247	1.938	324,0	-53,4	-48,7
Bolivia	8	1.049	3.227	2.007	1.570	24.987,5	91,3	-37,8
Txina	300	501	871	1.378	1.424	359,3	175,0	58,2
Brasil	229	883	1.876	1.515	1.389	561,6	71,6	-19,2
Aurreko herrialdeen batura	5.522	36.489	51.690	42.393	39.778	667,7	16,2	-18,0
Gainerako herrialdeak	3.666	13.393	19.679	17.157	16.115	368,0	28,1	-12,8

Iturria: Estatistikako Institutu Nazionala

13. grafikoa: Nafarroan bizi diren atzerritarren nazionalitate nagusiak. 2000-2015. Urte bakoitzeko urtarrilaren 1ean



Iturria: Guk geuk egina, Nafarroako Estatistika Institutuaren datuekin

Aipatutakoez gain, badira Nafarroan kopuru esanguratsua duten eta jatorriz atzerrikoak diren beste komunitate batzuk; esate baterako, Peru (3.370), Dominikar Errepublika (3.030), Frantzia (2.291) eta Argentina (2.104) dituztenak sorteri. Bestalde, atzerritarrak jatorri geografikoaren arabera taldekatuz gero, talderik ugariak Europar Batasunetik, Afrikatik eta Hego Amerikatik etorritakoak dira. Talderik txikiak, aldiz, Ipar Amerikatik eta Ozeanitik etorritakoak dira.

13. taula: Nafarroan bizi diren atzeritarrak, jatorriaren arabera multzokatuta. 2016ko urtarrilaren 1ean

Jatorria	Pertsona-kopurua
Europar Batasuna (Espainia kanpo)	19.878
Europako gainerako herrialdeak	2.830
Afrika	13.432
Ipar Amerika	770
Erdialdeko Amerika eta Karibea	2.334
Hego Amerika	9.091
Asia	2.348
Ozeania	34
Aberrigabeak	4

Iturria: Estatistikako Institutu Nazionala

#### 2.1.4. Familia-egitura

Familia-egiturek aldaketa handiak izan dituzte azken urteetan, Europar Batasuneko testuinguruan gertatu diren fenomeno globalagoen ondorioz.

Europarren bizimoduan izandako aldaketa nabarmenetako bat hauxe da: bakarrik bizi diren pertsonen kopuruak izandako gorakada. Hein batean, hala hautatu dutelako bizi dira pertsona asko bakarrik. Alabaina, badaude beste arrazoi batzuk ere: batetik, gero eta dibortzio eta banaketa gehiago gertatzen dira; bestetik, biztanleria gero eta denbora gehiago bizi da –batik bat emakumeak–, eta, horren ondorioz, adineko pertsona askok alargunduta eta bakardadean ematen dituzte beren bizitzako azken urteak.

#### Europako etxebizitzak

Hori dela eta, Europar Batasuneko etxebizitzan ia heren batean (% 31,4) pertsona bakarra bizi da. Proporzio hori handiagoa da hirietan eta hiriburuetan, herrialdeetako batez bestekoaren gainetik egoten baita.


Bakarrik bizi direnen ehuneko bat alargunek eta dibortziatuek osatzen dute, berriz ezkondu ez badira edo izatezko bikote bezala berriz erregistratu ez badira. EB-28ko biztanleriaren % 12,9 bizi da egoera horretan. Zehatzago aztertuta, ikusiko dugu EB-28ko biztanleriaren % 7,0 alargunduta dagoela, berriz ezkondu gabe edo izatezko bikote bezala berriz erregistratu gabe, eta biztanleriaren % 5,9 dibortziatuta dagoela, berriz ezkondu gabe edo izatezko bikote bezala berriz erregistratu gabe.

Familia-egiturarik ohikoena ezkonduko bikotearena da, baina dibortzioen kopuruak oso azkar egin du gora, eta ezkontzeko batez besteko adinak ere bai, gero eta gehiago baitira bakarrik edo bikotekidearekin emantzipatzeko hautua egiten duten gazteak, gurasoen etxea uzten dutenean. 2011n, EB-28ko familia guztien % 71,2 ezkonduko bikoteek osatzen zuten. Izatezko bikoteek, ezkondu gabe batera bizi diren bikoteek eta guraso bakarreko familiek familien % 28,8 osatzen zuten.

Gutxienez ondorengo bat zeukaten ezkonduko bikoteak EB-28ko familien % 33,2 ziren, eta haien ehunekoa askoz handiagoa zen ezkondu gabe elkarrekin bizi eta gutxienez haur bat zuten bikoteen ehunekoa baino (familia guztien % 5,6, hain zuzen). Familia-antolamendurik ohikoena ezkonduko bikotearena izanik ere, gero eta pertsona gutxiago bizi dira senar-emazteek eta haien seme-alabek osatutako familia nuklear tradizionaletan, gero eta gehiago direlako erregistratutako izatezko bikoteak, ezkondu gabe elkarrekin bizi diren bikoteak eta guraso bakarreko familiak.

Horrela, aitarekin edo amarekin bizi zen 25 urtetik beherako haur bat edo gehiago zuten guraso bakarreko 15,5 milioi familia zeuden 2011n (familia guztien % 11,0). Europar Batasuneko hiriburu askotan eta hiri garrantzitsu batzuetan, nahiko altua da guraso bakarreko familien proportzioa; familia horien ehunekoa baxuagoa izan ohi da landa-eremuan eta biztanleriaren dentsitate txikiagoa duten eskualdeetan. Laburbilduz, esan behar da fenomeno honen banaketa geografikoa ez dela homogeneoa Europako eremu guztietan.

14. grafikoa: 25 urtetik beherako seme-alabak dituzten etxebizitzaren tipologia Europar Batasunean. 2011



Iturria: Guk geuk egina, Eurostaten datuekin

**Espainiako etxebizitza motak**

Espanian, 18.346.200 etxebizitza izan ziren 2015ean; hots, aurreko urtean baino % 0,2 gehiago. Igoerarik handienak Melillan (% 2,2), Ceutan (% 0,8), Kanarietan (% 0,8) eta Madrilen



(% 0,7) izan ziren. Jaitsierarik handienak, aldiz, Asturiasen (% 0,5), Valentzian eta Gaztela eta Leonen izan ziren (% 0,3 bietan).

Etxebizitzan bizi den pertsona kopuruari dagokionez, Ceuta eta Melilla hiri autonomoetan erregistratu ziren datu handienak, bi kasuetan hiru pertsonatik gorako emaitzak jaso baitziren. Jarraian, Murtzia (2,73 pertsona) eta Andaluzia (2,62) ageri zaizkigu. Kopururik txikienak, ordea, Asturiasen (2,26), Gaztela eta Leonen (2,35), Euskadin eta Errioxan (2,39 bietan) ditugu.

Etxebizitzarik ohikoenak bi pertsonak osatutakoak izan ziren 2015ean; aurreko urteetan bezalaxe, beraz (gutzizko kopuruaren % 30,6). Pertsona bakarreko etxebizitzak zetozen ondoren (% 25,0). Hala eta guztiz ere, bi kasu horietan bizi diren pertsonak biztanleriaren % 10,0 baino ez dira. Bestalde, bost kide edo gehiago zituzten etxebizitzak guztizkoaren % 5,8 ziren, haien batez besteko tamaina 5,3 pertsonakoa zen, eta biztanleriaren % 12,2 biltzen zuten. Zuzenbideko edo izatezko bikoteen inguruan osatutako etxebizitzaren kopurua izan zen ugariena 2015ean: 10,1 milioi etxebizitza, seme-alabak dituzten edo ez dituzten bikoteez osatuak.

Bikoteekin bizi diren seme-alaben kopuruari erreparatuz gero, Espainian seme-alabarik gabeko bikoteek osatutako 3,87 milioi etxebizitza zeuden, seme edo alaba bat zuten bikoteek osatutako 2,91 milioi etxebizitza, eta bi seme-alaba zituzten bikoteek osatutako 2,78 milioi etxebizitza. 2014ko datuekin alderatuta, seme-alabarik gabeko bikoteek osaturiko etxebizitzaren kopuruak % 2,6 egin zuen behera. Seme-alabak zituzten bikoteek osatutako etxebizitzaren kopuruak, berriz, % 1,3 egin zuen behera. Bi seme-alaba zituzten bikoteek osaturiko etxebizitzaren kopuruak izan zuen jaitsierarik txikiena (% 0,5). Bestalde, hiru seme-alabarekin edo gehiagorekin bizi ziren bikoteek osatutako etxebizitzak 569.000 izan ziren (% 4,4 gutxiago); hau da, etxebizitza guztien % 3,1. Bikoteaz gain beste kide batzuk ere badituzten etxebizitzak gehituz gero, 10,7 milioi etxebizitzatan bizi zen bikoterik. Horri bikote bat baino gehiagoko etxebizitzak bateratuz, 11,2 milioiko guztizko kopurua lortzen zen.

Guraso bakarreko etxebizitzak aita edo amak eta seme-alabek osatzen dituzte. Horien artean, gehienak amak eta seme-alabek osatzen dituzte (1.541.700; guztizkoaren % 81,3, alegia; aitak eta seme-alabek osatutako 355.700 etxebizitzaren aurrean). Guraso bakarreko hiru etxebizitzatik bitan (% 67,4), seme edo alaba bakararekin bizi zen gurasoa. Amak eta seme-alabek osatutako etxebizitzaren kopurua % 6,3 hazi zen 2014ko datuekin alderatuta; aitak eta seme-alabek osatutakoena, berriz, % 16,9. Guztira, % 8,1 egin zuen gora etxebizitza mota horrek. Amak eta seme-alabek osatutako etxebizitzaren % 38,5ean, alarguna zen ama; % 36,4ean banandua edo dibortziatua zegoen; % 13,1ean ezkongabea, zen eta % 12,1ean ezkondua zegoen. Adinari erreparatuz, ezkondu gabeko ama zuten etxebizitzaren 201.300 etxebizitzetako % 75,7an emakumeak 35 urte edo gehiago zituen.

Guraso bakarreko familien ia heren batean (% 32,8), aitak edo amak 65 urte edo gehiago zituen. Ez ziren % 5,0ra iristen, ordea, 35 urtetik beherako gurasoen etxebizitzak. Aitak eta seme-alabek osatutako etxebizitzaren % 17,6ean, gurasoak 45 urte baino gutxiago zituen. Amak eta seme-alabek osatutako egoera horretako etxebizitzaren kasuan, aldiz, ehuneko hori % 26,4koa zen.

Espainiako eta Nafarroako familien tipologia 14. taulan jasota dago, datu absolutuetan, eta 15. grafikoan, ehunekotan.


14. taula: Etxebizitzaren kopurua, tipologiaren arabera. Espainia eta Nafarroa. 2015

	Espainia	Nafarroa
Guztira	18.346.200	252.900
Pertsona bakarreko etxebizitza	4.584.200	67.300
Guraso bakarreko etxebizitza, seme-alabekin	1.897.500	23.300
Bikotea, seme-alabarik gabe	3.874.800	53.000
Bikotea, seme-alabekin	6.253.100	85.400

Familia eta familiatik kanpoko pertsonak	786.100	9.500
Elkarrekin familia bat osatzen ez duten pertsonak	570.500	10.200
Bi familia edo gehiago	380.000	4.100


Iturria: Estadística Instituto Nacionala

15. grafikoa: Espainiako etxebizitza motak. 2015



Iturria: Guk geuk egina, Estadistikako Institutu Nazionalaren datuekin


16. grafikoa: Nafarroako etxebizitza motak. 2015



Iturria: Guk geuk egina, Estadistikako Institutu Nazionalaren datuekin

Hogeita bost urtetik beherako seme-alabak dituzten familiak aztertuz gero, ikusten da bikoteak askoz gehiago direla guraso bakarreko familiak baino, eta autonomia-erkidegoen arteko banaketa oso heterogeneoa dela.

17. grafikoa: 25 urtetik beherako seme-alabak dituzten familiak, familia motaren eta autonomia-erkidegoaren arabera. 2015




Iturria: Guk geuk egina, Estatistikako Institutu Nazionalaren datuekin

### 2.1.5. Eskola-adineko biztanleria

Eskola-adineko biztanleria 0 eta 24 urte arteko pertsonak osatzen dute. Adin-tarte horretan daudenez hezkuntza zerbitzuak jaso ditzaketen pertsonak, hezkuntzarako garrantzi handieneko adierazle demografikoa da.

Europar Batasunean, aniztasun handia dago guztizko biztanleriaren bilakaeraren eta adin-tarte horretako biztanleen arteko proportzioari dagokionez. Batez besteko balioa % 26,8koa da, baina badira % 30etik gorako ehunekoak dauzkaten herrialde batzuk, askoz ere gazteagoak, hala nola Irlanda, Zipre, Frantzia eta Erresuma Batua. Espainia maila txikiena duten herrialdeen artean dago (% 24,8).


18. grafikoa: 24 urtetik beherako biztanleak EBn. 2016ko urtarrilaren 1ean



Iturria: Guk geuk egina, Eurostaten datuekin

2015ean, Espainiako biztanleriaren % 24,7 zegoen 0-24 urte arteko adin-tartean. Adierazle horren baliorik txikiak Asturiasen (% 18,4) eta Galizian (% 20,1) jaso ditugu; handienak, berriz, Andaluzian (% 27,2) eta Murtzian (% 28,7). Nafarroan, eskola-adinean dagoen biztanleriaren ehunekoa % 25,3koa da.

19. grafikoa: 0 eta 24 urte arteko biztanleriaren ehunekoa, autonomia-erkidegoaren arabera. 2016ko urtarrilaren 1ean




Iturria: Guk geuk egina, Estatistikako Institutu Nazionalaren datuekin

Espainiako eskola-adineko biztanleriak hamabost urteko epean izandako bilakaerari erreparatuz gero, ikusiko dugu 2001 eta 2015 artean % 1,8 jaitsi dela; izan ere, 2001ean 11.719.863 pertsona zeuden eskola-adinean, eta 2015ean 11.473.176. Alabaina, epe horretan % 13,3 areagotu da Espainiako biztanleria, eta, ondorioz, eskola-adineko biztanleriaren pisu erlatiboa 4 puntu txikiagoa da (2001ean % 28,5 eta 2015ean % 24,66).

Faktore hori autonomia-erkidegoka aztertuz, ikusiko dugu 2001etik 2015era bitartean autonomia-erkidego gehienetan positiboa izan dela biztanleriaren gorakada erlatiboa; salbuespen izan dira, nolana ere, Asturias (-% 2,3), Gaztela eta Leon (-% 0,4) eta Galizia (-% 0,1). Alabaina, eskola-adinean dagoen biztanleriaren joera oso aldakorra izan da autonomia-erkidegoen artean. Hala, jaitsiera erlatibo handia izan dute Asturiasen (-% 22,5) eta Galizian (-% 22,3). Aitzitik, Melillak (% 16,7), Nafarroak (% 10,5) eta Balear Uharteek (% 10,3) hazkunde erlatibo handiagoa izan dute 2001 eta 2015 artean. Nafarroaren kasuan, aipatutako urte horietan adin guztietako biztanleen kopurua %15,1 igo zen arren, eskolatzeko garaian zeudenak %10,5 igo ziren, arestian esan den moduan.

Dagoeneko esan den gisan, hezkuntza sistemen plangintza ezinbestekoa da datozen urteetan eskolatzeko adineko biztanleriak izanen duen bilakaeraren datuen aurreikuspena aztertzea. EB-28n, oro har, agertoki posibleak oso egonkorak dira, grafiko honetan ikus daitekeenez.


20. grafikoa: 14 urtetik beherako biztanleriaren hazkundearen bilakaera EBn. 2016-2026



Iturria: Guk geuk egina, Eurostaten datuekin

«Biztanleriaren proiektzioak» izeneko estatistika-operazioak eskaintako datuei erreparatuz, ikusten dugu datorren hamarkadan (2016-2026) autonomia-erkidego guztietan txikituko dela 0 eta 24 urte arteko biztanleria. Aurreikuspenen arabera, adin horretako biztanleriak bi lurraldetan baino ez du gora egingen: Ceutan eta Melillan. Espainian behera egingen du biztanleria horrek; Nafarroan, berriz, jaitsiera % 6 ingurukoa izanen dela iragartzen dute aurreikuspenek.

21. grafikoa: 25 urtetik beherako biztanleriaren hazkunde erlatiboaren bilakaera. 2002-2026



Iturria: Guk geuk egina, Estatistikako Institutu Nazionalaren datuekin

Aipatu behar dugu, ordea, hezkuntza bizitza guztian zehar jasotzen den prestakuntza gisa ulertzen duen ikuspuntua ari dela gailentzen. Ikuspegi hori eredu tradizionala baino malguagoa da, eta ezagutzaren gizartearen ezaugarri diren beste hezkuntza-behar batzuk azpimarratzen ditu; besteak beste, honako hauek: pertsona guztien etengabeko prestakuntza, batik bat lanean ari direnena; eguneratze zientifiko eta tekniko; hezkuntza-sistema behar baino lehenago utzi zutenentzako bigarren aukerak; eta modu informalean edo laneko esperientziaren bidez lortutako kualifikazio profesionalak egiaztatzea. Gauzak horrela, nabarmen zabaltzen da prestakuntza jasotzeko adinean dagoen biztanleria.

Ildo horretan, txosten honetan, helduen prestakuntzari buruzko atalean, lanbide-heziketako ikastetxe bateratuetan eta beste zentro edo programetan emandako prestakuntza okupazionala eta jarraituko datuak ere jaso ditugu.

## 2.2. Alderdi sozioekonomikoak

Alderdi sozioekonomikoak funtsezkoak dira hezkuntzaren testuingurua definitzeko orduan, haiek konfiguratu eta lehenesten dituztelako jarduerak etengabe aldatzen ari diren gizartearen eta lan-munduaren beharren arabera, eta hezkuntzaren arloko inbertsioa modu egokiago baten egiteko aukera ematen dutelako.

### 2.2.1. Barne-produktu gordina

Barne-produktu gordina (BPGd) adierazle makroekonomiko nagusietako bat da. Herrialde edo eskualde batek epe zehatz batean (normalean, urtebeteko epean) ekoizten dituen ondasun eta

zerbitzuen diru-balioa neurtzen du. Gizarte baten ongizatea eta garapen materiala neurtzeko erabiltzen da barne-produktu gordina, beste adierazle batzuekin batera.

Nafarroako barne-produktu gordinak oso hazkunde positibo moderatua izan du 2015-2016 ikasturtari dagokion epean (2015eko 4. hiruhilekoan % 0,9; 2016ko 1. hiruhilekoan % 0,6), eta % 3,1eko hazkundera izan du 2015eko 2. hiruhilekotik 2016ko 1. hiruhilekora doan aldian. Datu horiek Espainian epe horretan bertan erregistratutakoen antzekoak dira.

15. taula: Espainiako eta Nafarroako barne-produktu gordina


Aldia	Nafarroa				Espainia				
	Indizea	Aurreko aldiarekiko aldakuntza (%)	Aurreko urteko aldi berberarekiko aldakuntza (%)	Urteko batezbesteko higikorra (aurreko 4 hiruhilekoak)	Indizea	Aurreko aldiarekiko aldakuntza (%)	Aurreko urteko aldi berberarekiko aldakuntza (%)	Urteko batezbesteko higikorra (aurreko 4 hiruhilekoak)	
2014	I	98,13	0,4	0,6	0,6	95,29	0,4	0,4	0,4
	II	98,59	0,5	1,6	1,1	95,75	0,5	1,2	0,8
	III	99,03	0,5	1,8	1,3	96,32	0,6	1,7	1,1
	IV	99,81	0,8	2,1	1,5	96,97	0,7	2,1	1,4
2015	I	100,48	0,7	2,4	2,4	97,86	0,9	2,7	2,7
	II	101,31	0,8	2,8	2,6	98,80	1,0	3,2	2,9
	III	102,10	0,8	3,1	2,8	99,61	0,8	3,4	3,1
	IV	103,06	0,9	3,3	2,9	100,41	0,8	3,5	3,2
2016	I	103,63	0,6	3,1	3,1	101,18	0,8	3,4	3,4

Iturria: Nafarroako Estatistika Institutua

Espainiako ekonomia % 0,8 hazi zen 2016ko lehen hiruhilekoan. Tasa hori berbera erregistratu zen 2015eko laugarren hiruhilekoan. Aurreko urteko hiruhileko berberarekiko hazkundera % 3,4koa izan zen, eta aurreko hiruhilekoan % 3,5ekoa.

Barne-produktu gordinak 2001-2015 aldian izandako bilakaera ikus daiteke EB-28ko, Espainiako eta Nafarroako datuak biltzen dituen grafiko alderatzaile honetan.

22. grafikoa: Barne-produktu gordinaren bilakaera Europar Batasunean, Espainian eta Nafarroan. 2001-2015



Iturria: Guk geuk egina, Estatistikako Institutu Nazionalaren eta Nafarroako Estatistika Institutuaren datuekin

### 2.2.2. *Sektore ekonomikoak*

Jardueraren indize orokorraren bilakaera adierazle nagusietan ere erregistratzen da (esate baterako, etxebizitzaren gastuan, barne-eskarian eta esportazioetan). Aldakuntzak 16. taulan daude jasota.

16. taula: Espainiako jardura ekonomikoaren adierazleak. Urte arteko aldaketaren tasak. Bolumen metatua, erreferentzia-urtea: 2010. 2016ko 1. hiruilekoa

	2014	2015	2016ko 1H
Azken kontsumoko gastua	0,9	3,0	3,4
Kapital finkoaren eraketa gordina	3,5	6,4	5,2
Ondasun eta zerbitzuen esportazioak	5,1	5,4	3,7
Ondasun eta zerbitzuen inportazioak	6,4	7,5	5,4
Nekazaritza, abeltzaintza, basogintza eta arrantza	-3,7	1,9	5,5
Industria	1,2	3,4	2,6
Eraikuntza	-2,1	5,2	2,6
Zerbitzuak	1,9	3,1	3,5
BARNE-PRODUKTU GORDINA, merkatuko prezioetan	1,4	3,2	3,4

Iturria: Estatistikako Institutu Nazionala

Ikuspegi makroekonomikoa eskaintzaren aldetik aztertuta, ikusiko dugu industria eta eraikuntzaren sektoreen hazkunde-tasa txikiagoa dela 2015eko laugarren hiruilekoko baino. Bestalde, nekazaritzan eta zerbitzuetan hazkunde handiagoa erregistratu da.

Ondoko taulan daukazue Foru Komunitateko adierazleen bilakaera.

17. taula: Nafarroako hiruileko kontabilitatea. Eskaintza eta eskaria. Barne-produktu gordinaren bilakaera. Bolumen metatuko indizeak, erreferentzia-urtea: 2008

OSAGAIK	2014				2015				2016
	1. H	2. H	3. H	4. H	1. H	2. H	3. H	4. H	1. H
Azken kontsumoko gastua	-0,1	0,9	0,8	1,6	2,8	2,9	3,3	3,4	3,6
Etxebizitzaren eta EZIAGEen* azken kontsumoko gastua	0,1	0,9	0,7	1,8	3,1	3,0	3,4	3,3	3,5
APen** azken kontsumoko gastua	-0,5	0,6	1,3	0,6	1,7	2,4	2,8	3,6	3,8
Kapitalaren eraketa gordina	-1,5	-0,3	-0,3	0,3	0,5	1,2	1,8	1,5	0,9
Kapital-ondasunak eta beste produktu batzuk	2,0	3,4	2,8	2,3	1,4	1,5	1,8	1,3	0,5
Eraikuntza	-4,7	-4,3	-3,9	-2,2	-0,4	0,9	1,8	1,8	1,5
Izakinen aldakuntza	0,0	0,1	0,0	0,1	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0
BARNE-ESKARIA	-0,5	0,8	0,6	1,4	2,3	2,5	2,9	2,9	3,0
Ondasun eta zerbitzuen esportazioak	0,6	4,7	6,1	4,9	1,9	2,3	2,8	2,4	1,4
Ondasun eta zerbitzuen inportazioak	-0,5	3,7	4,9	4,0	1,7	2,0	2,5	2,0	1,0
KANPO-ESKARIA	1,1	0,8	1,2	0,7	0,1	0,3	0,2	0,4	0,1
Nekazaritza, abeltzaintza eta basogintzako BEM op***	0,5	1,0	1,5	1,8	2,4	2,8	2,2	2,4	2,0
Industria-sektoreko BEM op	2,7	3,5	3,5	2,4	2,4	3,1	3,3	2,9	2,2
Eraikuntzako BEM op	-4,7	-4,1	-3,6	-2,0	-0,2	1,2	1,9	1,9	1,6
Zerbitzuetako BEM op	0,6	1,4	1,8	2,2	2,9	3,1	3,2	3,5	3,8



Merkatu-zerbitzuen BEM op	0,7	1,7	2,1	2,7	3,3	3,4	3,5	4,0	4,2
Merkatuz kanpoko zerbitzuen BEM op	0,1	0,3	0,7	0,9	1,6	1,8	2,0	2,4	2,3
Produktuen gaineko zerga garbiak	0,2	1,2	0,9	1,1	0,7	2,8	3,0	3,2	3,2
Guztizko BPGd mp	0,6	1,6	1,8	2,1	2,4	2,8	3,1	3,3	3,1

\*EZIAGE: Etxebizitzen zerbitzura dauden irabazi-asmorik gabeko erakundeak

\*\* AP: Administrazio Publikoak

\*\*\*BEM op: Balio erantsi metatua oinarrizko prezioetan; BPGd mp: Barne-produktu gordina, merkatuko prezioetan

Iturria: Nafarroako Estadistika Institutua

Nafarroako egitura ekonomikoak ezaugarri espezifikoak ditu, beste autonomia-erkidegoekin alderatzen dugunean. Nabarmenezkoa da industriaren pisu erlatiboa, barne-produktu gordinaren % 28,6 sortu baitzuen 2015ean. Hori horrela, Nafarroak du, arlo horretan, ehunekorik handiena, atzetik Errioxa eta Euskadi dituela, eta Espainiako tasa (% 15,5) ia bikoiztu egiten duela. Garrantziari dagokionez, sektore horren ondoren ageri zaizkigu gainerako zerbitzuak (% 20,3), merkataritza eta ostalaritza (% 17,5), sektore publikoa (% 16,6), eraikuntza (% 4,8) eta lehen sektorea (% 2,9). Nabarmenezkoa da, bestalde, sektoreen garrantzi erlatiboaren egonkortasuna.


18. taula: Nafarroako ekoizpen-sektoreen bilakaera. 2012-2015

Sektoreak	2012	2013	2014	2015
Lehen sektorea	2,7	2,5	3,2	2,9
Industria	28	28,6	28,9	28,6
Merkataritza eta ostalaritza	18,2	18,8	17,1	17,5
Eraikuntza	9,4	6,5	4,8	4,8
Gainerako zerbitzuak	18,2	18,9	20,2	20,3
Sektore publikoa	15,4	16	17,1	16,6

Nafarroako guztizko BPGd-ren gaineko pisua, ehunekotan.

Iturria: Guk geuk egina, Estatuko Ekonomia eta Gizarte Kontseiluaren datuekin

23. grafikoa: Nafarroako ekoizpen-sektoreen bilakaera. 2012-2015



\* Nafarroako guztizko BPGd-ren gaineko pisua, ehunekotan.

Iturria: Guk geuk egina, Estatuko Ekonomia eta Gizarte Kontseiluaren datuekin

### 2.2.3. Lan-merkatua

Agerikoa da herrialde bateko egitura ekonomikoa garrantzitsua dela hezkuntza eskaintzaren plangintzarako, testuinguruko elementu gisa, besteak beste, gizarte sistemari eta ekoizpen sistemari loturik dagoenez, hezkuntza eskaintza baldintzatzen duelako.

#### Okupazioa eta langabezia

Lan-merkatuaren adierazleetan oinarritzkoenetako bat enpleguari eta langabeziari dagokiona da. Espainian, % 3,2ko erritmoan hazi da enplegua 2016ko lehen hiruhilekoan (2015eko laugarren hiruhilekoko tasa baino bi hamarren handiagoa da zifra hori). Horrek esan nahi du lanaldi osoko 533.000 lanpostu baliokide sortu direla urtebetean.


64.600 pertsona gutxiago daude okupatuta 2016ko lehen hiruhilekoan, eta guztizko kopurua 18.029.600 pertsonakoa da. Enpleguaren hiruhileko arteko aldakuntza-tasa -% 0,36koa da. Enplegu-tasa (16 urtetik gorako biztanleen okupazioaren ehunekoa, alegia) % 46,84koa da; aurreko hiruhilekoan baino % 0,17 txikiagoa, beraz.

Sexuaren arabera, enpleguak behera egin du bai emakumeen kasuan (-48.600 okupatu gutxiago hiruhileko horretan), bai gizonen kasuan (-15.900). Nazionalitatearen arabera, Espainiako nazionalitatea duten 35.100 pertsona gutxiago eta 29.400 atzerritar gutxiago ari dira lanean.

Adinari dagokionez, enpleguaren igoerarik handienak 54 urtetik gorakoen artean (39.800 okupatu gehiago hiruhileko honetan) eta 40-49 urteko adin taldekoen artean (30.700) erregistratu dira. Okupazioak behera egin du, aldiz, 20 eta 40 urte artekoen kasuan. Jaitsierarik esanguratsuena 35-39 urtekoen adin-taldean gertatu da (40.600 pertsona gutxiago).


Azken 12 hilabeteetan, 574.800 pertsona gehiago hasi dira lanean (327.200 gizon eta 247.600 emakume); 2007ko hirugarren hiruhilekoaz geroztik gertatu den igoerarik handiena dugu hori. Okupazioak industrian egin du gora (+18.000 pertsona) hiruhileko honetan; behera egin du, ordea, zerbitzuetan (-53.400), eraikuntzan (-26.900) eta nekazaritzan (-2.300).

24. grafikoa: Okupazioaren banaketa Nafarroan eta Espainian. 2016ko 1. hiruhilekoa



Iturria: Guk geuk egina, Nafarroako Estadistika Institutuaren datuekin

25. grafikoa: Gizarte Segurantzako afiliatuak Nafarroan, sektorearen arabera. 2011-2015



Iturria: Guk geuk egina, Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiaren eta Nafarroako Estatistika Institutuaren datuekin.

Europar Batasuneko enpleguak jardueraz jarduera duen banaketak garbi erakusten digu zer nolako aniztasuna dagoen Europar Batasuna bera osatzen duten herrialdeen egitura ekonomikoan. Herrialde batzuetan, pisu benetan handia du nekazaritzak (Bulgaria, Grezia); beste batzuetan, berriz, oso txikia (Belgika, Alemania). Badira oso industrializatuta dauden herrialdeak (Eslovakia, Estonia, Eslovenia, Alemania, Austria), eta industria txikiagoa dutenak (Grezia, Irlanda, Espainia); zerbitzuen sektorea oso dimentsionatuta dutenak (Belgika, Zipre, Danimarka) txikiagoa dutenak (Bulgaria, Eslovenia, Eslovakia).

19. taula: Europar Batasuneko enpleguaren datuak, jardueraren arabera. 2014

	Nekazaritza		Industria		Zerbitzuak	
	Gizonak	Emakumeak	Gizonak	Emakumeak	Gizonak	Emakumeak
EB	6,0	3,8	31,4	10,9	62,5	85,3
Alemania	2,0	1,1	35,9	12,2	62,1	86,8
Austria	4,7	4,1	34,0	11,2	61,3	84,7
Belgika	1,7	0,9	28,4	6,9	70,0	92,2
Bulgaria	24,5	13,2	29,0	20,2	46,5	66,7
Zipre	5,8	1,8	23,7	6,6	70,6	91,6
Kroazia	10,8	7,9	36,7	15,3	52,5	76,8
Danimarka	4,2	0,9	25,7	8,3	70,1	90,8
Eslovakia	4,8	1,5	43,1	16,9	52,1	81,5
Eslovenia	8,4	8,2	40,1	16,7	51,5	75,1
Espainia	5,7	2,1	26,5	7,6	67,8	90,3
Estonia	5,3	2,2	40,7	16,6	54,1	81,2
Finlandia	6,4	2,5	35,2	8,9	58,4	88,6
Frantzia	3,9	1,6	26,7	8,2	69,3	90,2


## HEZKUNTZAREN TESTUINGURUA

Grezia	13,0	11,9	19,0	7,0	68,0	81,2
Hungaria	9,2	3,7	35,8	16,9	55,0	79,3
Irlanda	9,2	1,5	26,5	8,5	64,2	90,0
Italia	4,7	2,4	32,9	11,6	62,4	86,0
Letonia	10,5	4,4	34,9	12,8	54,6	82,7
Lituania	11,7	6,7	33,6	16,2	54,7	77,1
Luxenburgo	1,5	0,7	28,0	8,1	70,5	91,1
Malta	2,4	0,5	25,3	9,2	72,3	90,2
Herbehereak	3,0	1,3	22,9	5,4	74,1	93,2
Polonia	12,5	10,2	41,5	16,3	46,0	73,5
Portugal	14,1	8,3	30,6	14,4	55,3	77,3
Erresuma Batua	2,0	0,8	24,3	6,5	73,8	92,8
Txekiar Errep.	4,3	1,9	47,6	22,7	48,0	75,3
Errumania	28,5	30,2	34,9	20,3	36,6	49,4
Suedia	3,3	1,1	31,6	8,1	65,1	90,8

Iturria: Estatistikako Institutu Nazionala

Lehen esan dugun bezala, biztanleriaren lan-jarduerak oso eragin handia dauka hezkuntzan, eta hezkuntzak, era berean, eragina du lan-jardueran. Ziklo ekonomiko honetan, bestalde, bada arreta berezia merezi duen faktore bat: langabezia. Langabeziari buruzko datuetan alde handiak daude EBN eta Europako beste herrialde batzuetan, herrialde batetik bestera. Batez bestekoa % 8,9koa bada ere, herrialde batzuetan % 5etik beherakoa da (Islandia, Alemania, Txekiar Errepublikak, Norvegia, Erresuma Batua), eta beste batzuetan % 20tik gorakoa (Grezia eta Espainia).

26. grafikoa: Langabeziaren ehunekoa EBN eta Europako beste herrialde batzuetan. 2016ko 1. hiruhilekoa



Iturria: Guk geuk egina, Eurostaten datuekin


Lan-merkatua definitzen duten datuak jarduerari, okupazioari, langabeziari eta enpleguaren kalitateari buruzkoak dira, eta datu horiek, Nafarroan, krisi ekonomikoa gertatu baino lehenagoko mailetatik urrun daude oraindik. Zenbaki absolutuetan, 2016ko 1. hiru hilabetean 43.700 pertsona zeuden lanik gabe. Horrek esan nahi du gure autonomia-erkidegoko langabezia-tasa % 14,25ekoa dela, Espainiako % 21eko tasaren aldean.

20. taula: Okupazioaren eta langabeziaren datuak, autonomia-erkidegoaren arabera. 2016ko 1. hiru hilabetea

	Lana duten pertsonak	Langabeak
Guztira	18.029.600	4.791.400
Andaluzia	2.814.300	1.189.200
Aragoi	548.300	98.900
Asturias	375.400	90.900
Balearr Uharteak	491.100	110.800
Kanariak	811.800	285.200
Kantabria	222.100	51.800
Gaztela eta Leon	932.800	209.400
Gaztela-Mantxa	733.200	250.300
Katalunia	3.127.600	660.000
Ceuta	28.100	10.000
Extremadura	357.500	147.000
Galizia	1.021.100	227.900
Errioxa	130.300	21.900
Madril	2.817.000	569.400
Melilla	24.400	10.800
Murtzia	542.000	153.800
Nafarroa	262.800	43.700
Euskadi	896.800	131.600
Valentzia	1.892.800	529.000

Iturria: Estatistikako Institutu Nazionala

27. grafikoa: Langabezia-tasa, autonomia-erkidegoaren arabera. 2016ko 1. hiru hilabetea




Iturria: Guk geuk egina, Estatistikako Institutu Nazionalaren datuekin

Langabeziaren urteko aldaketak erakusten digunaren arabera, oro har behera egin du langabeziak, autonomia-erkidego ia guztietan. Hiruhileko horretan, Nafarroak (% 14,25) eta Errioxak (% 14,38) dute langabezia-tasarik baxuena. Guztiz bestelako egoeran, tasarik altuenak Andaluzian (% 29,70), Extremaduran (% 29,13) eta Kanarrietan (% 26,00) erregistratutakoak dira.

Nafarroako egoera Estatuko gainerakoarekin konparatuz gero, antzeko egoera ikusten da bilakaerari, ukitutako sektoreei eta enplegu tasetan gizonen eta emakumen artean dauden diferentziei dagokienez. Ondoko grafikoan, adinaren eta sexuaren arabera zehaztuta dauzkagu langabeziari buruzko datuak.

28. grafikoa: Espainian eta Nafarroan erregistratutako langabeziaren ehunekoa, adin-taldearen eta sexuaren arabera. 2015




■ Mujeres Navarra ■ Mujeres España ▲ Hombres Navarra ▲ Hombres España

Iturria: Guk geuk egina, Nafarroako Estadística Institutuaren datuekin


2016ko lehen hiruhilekoko datuek xehetasun handiagoa erakusten digute, ondorengo grafikoetan, Espainiako eta Nafarroako errealitatea.

29. grafikoa: Espainian erregistratutako langabezia, adinaren eta sexuaren arabera. 2016ko 1. hiruhilekoa



Iturria: Guk geuk egina, Estatistikako Institutu Nazionalaren datuekin

30. grafikoa: Nafarroan erregistratutako langabezia, adinaren eta sexuaren arabera. 2016ko 1. hiruhilekoa



Iturria: Guk geuk egina, Nafarroako Estatistika Institutuaren datuekin

Nabarmentzekoa da biztanleriaren sektorerik gazteenak pairatzen duen langabezia-tasa, handia baita, hala gizonen nola emakumeen artean, bai Espainian baita Nafarroan ere. Aurrerago zehaztuko dugun bezala, hezkuntza-maila altuena duen biztanleriaren sektoreari eragiten dio batez ere, eta Europar Batasuneko batez besteko balioetatik oso urrun gaude, gai horri dagokionez. Horrela, Europar Batasunean, Bigarren Hezkuntza gainditu dutenen % 7,5 eta

## HEZKUNTZAREN TESTUINGURUA

goi-mailako hezkuntza dutenen % 5,2 daude langabezian. Espainian, aldiz, % 19,2 eta % 12,4koak dira datu horiek.


21. taula: Europar Batasunean erregistratutako langabeziaren ehunekoak, ikasketa-mailaren arabera. 2015

	Bigarren Hezkuntzako lehen zikloa baino gutxiago (0-2. maila).	Bigarren Hezkuntza (3-4. maila)	Goi-mailako hezkuntza (5-8. maila)
EB	16,3	7,5	5,2
Alemania	11,4	4,3	2,3
Austria	10,6	4,9	3,6
Belgika	14,8	7,5	4,1
Bulgaria	24,7	7,6	3,7
Zipre	17,9	14,6	10,7
Kroazia	21,6	14,8	8,9
Danimarka	8,5	4,7	4,8
Eslovakia	34,4	9,9	5,6
Eslovenia	13,6	9,4	5,7
Espainia	28,9	19,2	12,4
Estonia	12,5	6,2	3,8
Finlandia	12,3	8,8	6
Frantzia	15,6	9,1	5,7
Grezia	26,2	25,5	19
Hungaria	15,5	5,7	2,2
Irlanda	15,9	9,9	5,1
Italia	14,2	8,9	6,8
Letonia	22,4	10,7	4,5
Lituania	26,2	11,5	3,2
Luxenburgo	8,2	5,4	4,6
Malta	7,3	2,5	1,3
Herbehereak	9,3	6,8	3,7
Polonia	15,5	7,2	3,5
Portugal	13	11,4	8,2
Erresuma Batua	7,3	4,2	2,5
Txekiar Errep.	20,7	4,4	2,2
Errumania	7,7	6	3,5
Suedia	14,1	4,8	4

Iturria: Guk geuk egina, Eurostaten datuekin



31. grafikoa: Europar Batasunean erregistratutako langabeziaren ehunekoak, ikasketa-mailaren arabera. 2015




Iturria: Guk geuk egina, Eurostaten datuekin

**Soldatak**

Batez besteko soldatari dagokionez, alde handia dago EB-28 barruan, soldatarik altuenak dituzten herrialdeen eta soldatarik txikienak dituztenen artean. Soldatarik altuenak dituztenak Luxemburgo, Belgika, Herbehereak, Alemania, Frantzia, Irlanda eta Erresuma Batua dira; beste muturrean, berriz, soldata txikienekoak, Bulgaria, Hungaria, Lituania, Txekiar Errepublika eta Errumania. Espainia EB-28ren batez bestekoaren azpitik dago.

32. grafikoa: Europar Batasuneko hilabeteko batez besteko soldata. 2015\*

## HEZKUNTZAREN TESTUINGURUA




\* 2015ean, ez zegoen gutxieneko soldata nazionalik Austrian, Zipren, Danimarkan, Finlandian, Italian eta Suedian. Zipren, Gobernuak ezartzen du lanbide zehatz batzuetarako gutxieneko soldata. Austrian, Danimarkan, Finlandian, Italian eta Suedian, sektore zehatzei eragiten dieten hitzarmen kolektiboen bidez ezartzen da gutxieneko soldata. Europar Batasuneko batez besteko soldata informazio hori eskuragarri duten herrialdeen datuak erabiltuta kalkulatu dugu.

Iturria: Guk geuk egina, Eurostaten datuekin

Bestalde, sektore ekonomikoaren eta langileen adinaren arabera, urteko batez besteko soldatak ezaugarri bereziak ditu Espainian. Urteko batez besteko soldata 23.698 eurokoa da, baina aldeak daude ekoizpen-sektorearen arabera. Industrian daude batez besteko soldata handienak (28.639 euro), eta zerbitzuetan, aldiz, txikiak (21.698 euro).


### 33. grafikoa: Espainiako batez besteko urteko soldata, sektore ekonomikoaren arabera. 2015



Iturria: Guk geuk egina, Estatistikako Institutu Nazionalaren eta Nafarroako Estatistika Institutuaren datuekin

Adinaren arabera, azpimarragarriak dira 45-54 urteko pertsonen diru-sarrerak, haiek baitute urteko batez besteko soldatarik altuena (26.720 euro). bestalde, askoz ere soldata txikiagoak dituzte 35 urtetik beherakoek (21.516 euro) eta, bereziki, 25 urtetik beherakoek (11.560 euro).

**34. grafikoa: Espainiako urteko batez besteko soldata gordina, adinaren arabera. 2014**



Iturria: Guk geuk egina, Estatistikako Institutu Nazionalaren eta Nafarroako Estatistika Institutuaren datuekin

Azken urteetako bilakaerari erreparatuz, Nafarroako urteko batez besteko soldata % 0,1 jaitsi zen 2015ean, eta 2010ekoaren azpitik dago. Lan Erreformatik soldatak jaitea erraztu zuenetik, lau urtean hiru aldiz jaitsi dira soldatak Nafarroan. 2012an egin zuten behera lehen aldiz soldatek Nafarroan modu orokorrean, % 2,7ko jaitsierarekin. Gero, 2013an, % 0,3ko beste jaitsiera bat izan zen. 2014an, batez beste % 1,9ko igoera izan zen soldatetan.

Oro har, zenbat eta handiagoa izan laneko antzinatasuna eta esperientzia, orduan eta altuagoa izaten da soldata. Hala erakutsi zuen Nafarroako Estatistika Institutuak 2014an soldaten egiturari buruz egindako inkestak, beste hainbat ondorioren artean. Batez besteko soldatetik beherakoa dute 25 urtetik beherakoek eta 25 eta 34 urte artekoek (soldata % 40,4 txikiagoa da lehen taldearen kasuan, eta % 12,9 txikiagoa bigarrean). 35-44 urte artekoen, 45-54 adin-taldekoen eta 54 urtetik gorakoek soldata, aldiz, batez besteko urteko soldata gordina baino % 3,1, % 8,2 eta % 5,5 handiagoa da, hurrenez hurren.

Ikerlanaren beste ondorioetako bat honako hau da: kontratu finkoa dutenek diru gehiago irabazten dute urtean batez beste, aldi baterako kontratua dutenek baino. Iraupen jakin bateko kontratua zuten pertsonak batez besteko soldata baino % 31,2 txikiagoa zen soldata jaso zuten urtean batez beste; kontratu mugagabea zutenek, aldiz, batez bestekoa baino % 7,5 gehiago irabazi zuten.

Sexuaren arabera, alde hori handiagoa da gizonen kasuan (% 36,9 eta % 8,3, hurrenez hurren), emakumeenean baino (% 21,2 eta % 5,5). Aurreko urtearekiko igoerari dagokionez, kontratu mugagabea zuten gizonen soldata % 1,8 igo zen aurreko urteko soldatarekiko, eta % 4,9 emakumeena. Iraupen jakineko lan-kontratua zuten langileen kasuan, aldiz, urteko irabaziaz % 8 igo ziren gizonen kasuan, eta % 1,7 emakumeen kasuan.


**Errenten arteko desberdintasuna**

Desberdintasun ekonomikoa soldatek eragiten dute hein batean, eta horren inguruko datuak oso garrantzitsuak dira pobrezia erlatiboa estimatzeko. Izan ere, baliabide ekonomikoaren banaketak zuzeneko eragina izan dezake pobrezia norainokoa eta garrantzian.

2014ko datuei erreparatuz, ikusiko dugu Europar Batasunean desberdintasun handiak daudela errentei dagokionez. Horrela, errenta erabilgarri baliokide handiena zuen biztanleriaren % 20k errenta erabilgarri baliokide txikiena zuen % 20k baino 5,2 aldiz errenta handiagoa jaso zuen, grafikoa ikus daitekeen bezala. Proporzio horretan ere aldeak izan ziren herrialdeen artean.

Txekiar Errepublikan 3,5ekoa izan zen; Lituanian, Portugalen, Letonian, Grezian, Estonian, Espainian eta Bulgarian 6,0koa, eta baliorik handiena Errumanian erregistratu zen: 7,2.


35. grafikoa: Errentaren banaketako desberdintasunak Europar Batasunean, 2014an (diru-sarrerak kintiletan banatuta\*)



\* Kintila: herrialde edo eskualde bateko biztanleria txiroenetik aberatsenera ordenatzen da, eta gero pertsona-kopuru bera duten bost taldetan zatitzen. Zati bakoitza kintil bat da. Iturria: Guk geuk egina, Eurostaten datuekin

Enpleguaren kalitateak eta langabeziak Nafarroan ere areagotu egin dituzte soldata-errenten arteko desberdintasunak, beste faktore batzuen artean, eta desberdintasun horiek azken sei urteetako mailarik altuenean daude. Horrela, 2008 eta 2014 arteko epean gehien irabazi dutenak gutxien irabazten dutenek baino 8 aldiz diru-sarrera gehiago izatetik 11 aldiz diru-sarrera gehiago izatera pasatu dira. Tarterik baxuenetako hileroko diru-sarrerak % 14,4 jaitسي dira, eta tarterik altuenetakoak % 13,1 handitu.

36. grafikoa: Nafarroako soldata altuenera eta baxuenera bilakaera. 2008-2014



Iturria: Guk geuk egina, Estatistikako Institutu Nazionalaren datuekin

## Gizonen eta emakumeen arteko soldata arraildura

Zerbait hurbildu diren arren, oraindik alde handia dago EBn gizonen eta emakumeen batez besteko irabazietan. 2014an, EB-28 osoa hartuta, emakumeen soldata gizonena baino % 16,1 txikiagoa izan zen, batez beste. Gizonen eta emakumeen batez besteko ordainsarien artean diferentziarik txikiak izan zituzten herrialdeak Eslovenia, Malta, Italia, Polonia, Luxenburgo eta Belgika izan ziren (% 10,0 baino gutxiago). Gizonen eta emakumeen arteko soldata arraildura handieneko herrialdeak, berriz, Estonia (% 28,3), Austria (% 22,9), Txekiar Errepublikak (% 22,1), Alemania (% 21,6) eta Eslovakia (% 21,1) izan ziren.

Soldata arraildura horiek areagotu ditzaketen hainbat eragile daude, konparazio batera: biztanleria aktiboko parte-hartze indizeetan dauden diferentziak; nagusiki gizonen edo nagusiki emakumeen bete ohi dituzten lanbide eta jardueren artean dauden diferentziak; lanaldi partzialean diharduten emakumeen eta gizonen ehunekoen artean dauden diferentziak; eta, orobat, erakunde publiko eta pribatuaren langileria departamentuek dituzten jarrerak, lanbide karreraren garapenari, soldatarik gabeko baimenei eta amatasun lizentziei dagokienez. Zati batean behintzat gizonen eta emakumeen arteko soldata arraildurak azal ditzaketen sakoneko faktoreak dira, besteak beste, sektore eta lanbideetako segregazioa, hezkuntza eta prestakuntza, sentsibilizazioa eta gardentasuna, bai eta zuzeneko diskriminazioa ere. Era berean, soldata arraildurak bestelako desberdinkerien isla dira. Esaterako, oso maiz (neurrigabe ere esan liteke) familiako erantzukizunak emakumeen gain izaten dira eta lana bizitza pribatuarekin bateratzeko arazoak izaten dira. Emakume askok lanaldi partzialean egiten dute lan, edota ezohiko kontratuekin: nahiz eta horrek aukera ematen dien lan merkatuan segitzeko familiako erantzukizunaz arduratzen diren bitartean, kaltegarria izan daiteke beren ordainsarirako, karreraren bilakaerarako, gora egiteko itxaropenetarako eta pentsioetarako.

Nafarroan, 2014ko datuen arabera, gizonen eta emakumeen arteko soldata arraildurak aurreko urteetako joerari jarraitzen dio, emakumeen soldaten balioa 0,70ekoa baita, soldatapeko guztien batez besteko irabazi gordinarekin (1eko balioa) alderatuta.

### 2.2.4. Familien ekonomia

- **Familia-errenta**


Hona zer den herritar bakoitzaren familia-errenta erabilgarria: herritar bakoitzak, batez beste, zergak ordaindu ondoren, bizitzeko, aurrezteko eta inbertitzeko jasotzen dituen urteko diru-sarrerak. Familien testuinguru ekonomikoa irudikatzeko adierazlerik esanguratsuenetakoa da. Enplegutik eta bestelako iturrietatik etorritako diru-sarrerak hartzen ditu kontuan. Ez du bat egiten biztanleko BPGarekin, izan ere, azken horrek ez baititu aintzat hartzen subsidioak edo laguntzak, eta aldiz, kontabilizatu egiten baititu enpresetan gelditzen diren irabaziak, ez direnak familiendako errenta eskuragarria. Alabaina, eta alderaketak egiteko aukera emateko, grafiko batean jaso dugu azken zortzi urteetako Europar Batasuneko, Espainiako eta Nafarroako biztanle bakoitzeko barne-produktu gordina.

22. taula: Per capita barne-produktu gordina. 2008-2015

	2008	2009	2010	2011	2012	2013	2014	2015
EB-28	25.888	24.340	25.329	26.034	26.472	26.652	27.394	28.700
Espainia	24.274	23.271	23.214	22.903	22.300	22.134	22.412	23.290
Nafarroa	30.128	28.892	28.752	28.533	27.437	27.399	27.709	28.682
% Nafarroa/Espainia	% 124,1	% 124,2	% 123,9	% 124,6	% 123,0	% 123,8	% 123,6	% 123,2
% Nafarroa/EB-28	% 116,4	% 118,7	% 113,5	% 109,6	% 103,6	% 102,8	% 101,1	% 99,9

Iturria: Guk geuk egina, Nafarroako Estadistika Institutuaren eta Eurostaten datuekin

37. grafikoa: Per capita barne-produktu gordina. 2008-2015



Iturria: Guk geuk egina, Nafarroako Estatistika Institutuaren eta Eurostaten datuekin


Adierazle honen bilakaerari dagokionez, bai Nafarroan bai Espainian, ia etengabeko beherakada izan da adierazitako aldian zehar (2008-2013). Dena den, txosten honi dagokion aldian (2015-2016) pixka bat hazi dela ikusi da.

- **Desberdintasuna**

**Diru-sarrerak eta banaketa**

Pertsona bakoitzeko urteko diru-sarrera garbietan, alde handiak izan ziren autonomia-erkidegoen artean, 2014ko INEren datuen arabera: Euskadiko batez bestekoa 13.836 eurokoa izan zen; Murtziakoa, aldiz, 7.924 eurokoa. Nafarroak bigarren postua zuen autonomia-erkidegoen artean pertsona bakoitzeko diru-sarrera garbiari dagokionez, 13.300 eurokoa baitzen balio hori.

38. grafikoa: Pertsona bakoitzeko urteko diru-sarrera garbiak, autonomia-erkidegoaren arabera. 2014



Iturria: Guk geuk egina, Estatistikako Institutu Nazionalaren datuekin

Batez besteko diru-sarrera horiek banaketa desberdina izan zuten. Giniren koefizientea edo indizea erabiliz azter daiteke hori. Giniren koefizientea 0 eta 1 arteko zenbaki bat da, non 0k berdintasun perfektua adierazten duen (pertsona guztiek diru-sarrera berdinak dituzte) eta 1ek desberdintasun perfektua adierazten duen (pertsona batek diru-sarrera guztiak ditu eta besteek ez dute ezer ez). Datu hori bera Giniren indizearen bidez adierazi daiteke. Kasu horretan, gehieneko balioa 100 izanen da, 1 beharrean, eta, datua lortzeko, 100ekin biderkatu behar da Giniren koefizientea.


EB-28ren esparruan, Giniren indizeak ez du 2009-2014 aldian aldaketa handirik izan, eta 30,6 eta 30,9 arteko balioak izan ditu. 2014ko datuen arabera, desberdintasun handienak dituzten herrialdeak Estonia (35,6), Espainia eta Errumania (34,7) eta Grezia (34,5) dira. Kontrako egoeran, berriz, indize baxuenak Eslovenian (25) eta Txekiar Errepublikan (25,1) erregistratu dira. Denbora-tarte horretan, Espainiako balioa 32,9tik 34,7ra pasatu da; hau da, krisialdi ekonomikoa izan dugun bost urte hauetan, areagotu egin da desberdintasuna.

23. taula: EBko Giniren koefizientea. 2009 eta 2014 arteko bilakaera.

	2009	2014
EB	30,5	30,9
Alemania	29,1	30,7
Austria	27,5	27,6
Belgika	26,4	25,9
Bulgaria	33,4	35,4
Zipre	29,5	34,8
Kroazia		30,2
Danimarka	26,9	27,7
Eslovakia	24,8	26,1
Eslovenia	22,7	25
Espainia	32,9	34,7
Estonia	31,4	35,6
Finlandia	25,9	25,6
Frantzia	29,9	29,2
Grezia	33,1	34,5
Hungaria	24,7	28,6
Irlanda	28,8	30,8
Italia	31,8	32,4
Letonia	37,5	35,5
Lituania	35,9	35
Luxenburgo	29,2	28,7
Malta	27,4	27,7
Herbehereak	27,2	26,2
Polonia	31,4	30,8
Portugal	35,4	34,5
Erresuma Batua	32,4	31,6
Txekiar Errep.	25,1	25,1
Errumania	34,5	34,7
Suedia	24,8	25,4

Iturria: Guk geuk egina, Eurostaten datuekin

39. grafikoa: Giniren koefizientea Europar Batasunean. 2009 eta 2014 arteko bilakaera.




Iturria: Guk geuk egina, Eurostaten datuekin

Espanian, oro har, desberdintasuna % 5,6 hazi da azken bost urteetan, 32 puntutik 34ra igota. Nafarroa da Giniren indizek txikiena duen autonomia-erkidegoa (27,98); Kantabria (28,38) eta Euskadi (28,48) ditu atzetik. Indizek altuenak, berriz, Balear Uharteetan (33,13), Murtzian (33,39) eta Andaluzian (34,69) jaso ditugu.

Adierazle hori 2009tik 2014ra gehien hazi den autonomia-erkidegoa Aragoi izan da (% 18,5eko igoera, 27,03 puntutik 32,03 puntura), eta bigarren postuan Gaztela-Mantxa dago (% 10,9ko igoera, 29,26 puntutik 32,46 puntura). Beste autonomia-erkidego batzuetan, aldiz, errenten arteko desberdintasuna txikitu egin da. Kantabrian, esate baterako, % 6,6 jaitsi da desberdintasuna, eta Giniren indizea 29 puntutik beherakoa da. Nafarroan, epe horretan, % 0,6ko igoera erregistratu da (% 27,8tik % 27,98ra).

40. grafikoa: Giniren indizea, autonomia-erkidegoei aplikatuta. 2009 eta 2014 arteko bilakaera.




Iturria: Estadística Instituto Nacionala



• **Pobrezia eta gizarte-bazterketa**

Pobrezia-arriskuaren tasak ia ez du aldaketarik izan EB-28n 2011 eta 2014 artean; oro har, biztanleriaren % 24,4ri eragiten dio arrisku horrek. Ehuneko hori emaitzen batez bestekoa kalkulatu lortu da, eta kontuan izan behar da alde esanguratsuak daudela Europar Batasuneko estatuen artean. Bost estatutan, populazioaren % 30 baino gehiago zegoen pobrezia-arriskuan: Bulgarian (% 40,1), Errumanian (% 39,5), Grezian (% 36), Letonian (% 32,7) eta Hungarian (% 31,8). Aitzitik, pobrezia-arriskuaren maila baxuena zuten herrialdeak hauek izan ziren: Herbehereak (% 16,5), Suedia (% 16,9), Finlandia (% 17,3) eta Danimarka (% 17,9). Espainia lehen taldetik gertuago dago bigarrenetik baino, pobrezia-maila altuarekin (% 29,2).


41. grafikoa: Pobrezia-arriskuaren tasa eta atalasea, EB-28n. 2014



Iturria: Guk geuk egina, Eurostaten datuekin

Pobrezia edo gizarte-bazterketa jasateko arriskuan dauden pertsonen batez bestekoa % 28,6 da Espainian. Balio bereziki altuak jaso dira Andaluzian (% 43,2), Ceutan (% 41,7), Murtzian (% 38,8), Kanarietan (% 37,9), Gaztela-Mantxan (% 36,7) eta Extremaduran (% 35,2). Pobrezia-arrisku txikiena zuten autonomia-erkidegoak Nafarroa (% 13), Euskadi (% 17,6), Aragoi (% 17,7) eta Katalunia (% 19,8) izan ziren, aurrekoetatik urrun geratzen diren datuekin.

42. grafikoa: Pobrezia-arriskuan edo gizarte-bazterketa arriskuan dauden pertsonen ehunekoa, autonomia-erkidegoaren arabera. 2015



Iturria: Guk geuk egina, Estatistikako Institutu Nazionalaren datuekin

### Pobreziaren aldagaiak: sexua, adina, lanbidea, etxebizitza, ikasketak

Pobrezia-arriskua ez da talde sozial guztietan berdina. 2014an, alde txikia egon zen EB-28n gizonen eta emakumeen artean, pobrezia-arriskuaren tasari dagokionez: % 16,7koa zen gizonentzat eta % 17,7koa emakumeentzat. Urte hartan, sexuen arteko alderik handiena (% 3,2) Estonian erregistratu zen. Era berean, emakumeen pobrezia-arriskuaren tasa gizonetzkoa baino % 2,0 handiagoa izan zen Letonian, Zipren, Lituanian, Suedian eta Italian. Bestalde, Europako herrialde batzuetan, pobrezia-arriskuaren tasa zertxobait handiagoa izan zen gizonen artean, emakumeen artean baino: Danimarkan, Hungarian, Polonian, Errumanian, Espainian, Grezian eta Eslovakia gertatu zen hori, baita Serbian, Islandian eta Mazedonian ere.


Adinari dagokionez, pobrezia edo gizarte-bazterketa arrisku handiena zutenak 6 eta 17 urte arteko pertsonak ziren. Espainian, 2013ko datuen arabera, 12 eta 17 urte arteko pertsona bat pobrezia edo gizarte-bazterketa arriskuan egoteko probabilitatea % 37,6koa zen. Ehuneko hori Europar Batasunari dagokion datuaren gainetik dago (% 30,2). Europar Batasuneko sei herrialdetan, Espainian baino balio handiagoa erregistratu da adin-talde horren kasuan; zehazki, Lituania (% 40,3), Grezian (% 43,6), Hungarian (% 44,1), Letonian (% 47,7), Bulgarian (% 51,3) eta Errumanian (% 52,1).

6 eta 11 urte arteko adin-taldeari erreparatzen badiogu, Espainiako tasa (% 28,2) altuagoa da Europar Batasuneko batez betekoa baino (% 27,1). Adin-talde horri dagokionez, Europar Batasuneko herrialde hauetan dago pobrezia edo gizarte-bazterketa arrisku handiena: Lituania (% 28,7), Letonia (% 29,5), Irlanda (% 31,4), Grezia (% 32,7), Erresuma Batua (% 33,8), Hungaria (% 42,4), Errumania (% 43,0) eta Bulgaria (% 50,8).

Nafarroan, pobreziaren arrisku-faktore bat da adina, eta gazteen artean du eragin handiena; alegia, eskola-adinean dagoen biztanleriak du pobrezia pairatzeko arrisku handiena.

Europako joera orokorrek bat, sexua ez da funtsezko desberdintasun-iturri, 65 urtetik gorakoen artean izan ezik. Talde horretan, hala ere, hemen kontuan izan ez ditugun beste faktore batzuek dute eragina.


43. grafikoa: Pobrezia-arriskuaren tasa Nafarroan, adinaren eta sexuaren arabera. 2014



Iturria: Guk geuk egina, Nafarroako Estatistika Institutuaren datuekin

Pobrezia-tasen arteko aldeak handitu egiten dira biztanleria jarduera profesionalaren arabera sailkatzean. Langabeen egoera oso ahula da arrisku horren aurrean. EB-28ko langabeen ia erdiak (% 47,2) pobrezia-arriskuan zeuden 2014an. Mailarik altuena Alemanian erregistratu zen (% 67,4), eta Europar Batasuneko beste zortzi herrialdetan (Estonia, Letonia, Lituania, Erresuma Batua, Hungaria, Errumania, Bulgaria eta Luxenburgoko) langabeen erdiak baino gehiago zeuden pobrezia-arriskuan.

44. grafikoa: Gizarte-transferentzien osteko pobrezia-arriskuaren tasa, egoera profesional ohikoaren arabera. 2014 \*



\* 18 urtetik gorakoentzat  
Iturria: Guk geuk egina, Eurostaten datuekin

Enplegua zeukaten pertsonak askoz ere pobrezia-arrisku txikiagoa zeukaten (% 9,5 batez beste, EB-28 osoan). Hala eta guztiz ere, talde horrek pobrezia-arriskuaren tasa handiak izan zituen Errumanian (% 19,6) eta, neurri txikiago batean, Grezian (% 13,4), Espainian (% 12,5) eta Estonian (% 11,8).

Pobrezia-arriskuaren tasek ez dute banaketa bera helduek eta beren kargura dituzten adingabeek osatutako etxebizitzaren osaera guztietan. Kargupeko adingaberik ez duten etxebizitzaren kasuan, ondoko taulan ikus daitekeen bezala, bakarrik bizi diren pertsonak pobrezia-arriskuan egoteko probabilitate handiagoa dute. Egoera horretan zeuden, 2014an, beren kargura seme-alabarik ez zuten etxebizitzaren % 17,2, Europar Batasunean. Aitzitik, pobrezia-arriskuaren tasa txikiagoa da heldu bakar batek eta bere kargura dituen seme-alabek osatutako etxebizitzaren (% 11,5) edo bi heldu edo gehiagok eta beren kargupeko adingabeek osatutako etxebizitzaren (% 6,8).

24. taula: Pobrezia-arriskuan dauden etxebizitza motak Europar Batasunean. 2014

Herrialdea	Kargupeko seme-alabarik gabeko etxebizitzak	Heldu bakarra eta bere kargupeko seme-alabak	Bi heldu edo gehiago eta beren kargupeko seme-alabak
EB	17,2	11,5	6,8
Alemania	16,7	7,3	8,1
Austria	14,1	18,9	8,2
Belgika	15,5	10,1	2,0
Bulgaria	21,7	6,9	4,3
Zipre	14,4	16,9	4,9
Kroazia	19,4	8,2	9,7
Danimarka	12,1	19,0	9,0
Eslovenia	14,5	12,5	4,4
Espainia	22,2	8,4	7,3
Estonia	21,9	2,6	5,2
Finlandia	12,8	8,8	8,9
Frantzia	13,2	13,5	6,9
Grezia	22,1	10,8	4,9
Hungaria	15	5,6	5,2
Irlanda	15,6	16,3	8,5
Italia	19,4	13,9	5,9
Letonia	21	25,8	4,5
Lituania	19,2	5,2	2,5
Luxenburgo	16,4	3,1	7,6
Malta	15,9	12,1	6,9
Herbehereak	11,6	9,3	6
Polonia	16,8	11,1	5,8
Portugal	19,5	9,4	4,9
Txekiar Errepublika	9,7	13,5	8,1
Eslovakia	12,6	21,1	6,6
Erresuma Batua	16,8	17,2	3
Errumania	25,3	9,9	3,3
Suedia	15,1	17,4	2,7


Iturria: Guk geuk egina, Eurostaten datuekin

Beren kargura adingabeak dituzten etxebizitzetara dagokienez, pobrezia-arriskuaren tasa handiena beren kargura adingabeak dituzten ezkongabeen kasuak erregistratu zen EB-28n (% 32,5). Bi helduko etxebizitzetako ehunekoak alderatuta, beren kargura adingabe bakar dutenen pobrezia-arriskuaren tasa (% 13,6) beren kargura hiru adingabe edo gehiago dituzten familien tasaren (% 26,9) bikoitza da ia.

Europar Batasuneko herrialde guztietan, pobrezia-arriskurik txikiena zeukaten etxebizitzak hauek ziren: bi helduk eta beren kargurako adingabe bakar batek osatutakoak. Ondoko grafikoan ikus dezakegu hori. Erregistratutako datuen arabera, gainera, pobrezia-arriskuaren tasa handiagoa zen beren kargura adingabeak zituzten ezkongabeen kasuan, Europar Batasuneko herrialde gehienetan.

Salbuespenik bada, hala ere: beren kargura hiru adingabe edo gehiago dituzten bi helduk osatutako etxebizitzetako pobrezia-arriskua altuagoa izan zen Errumanian eta Bulgarian, eta, hein txikiago batean, Polonian, Grezian, Erresuma Batuan, Espainian, Hungarian eta Kroazian.

45. grafikoa: Pobrezia-arriskua familia motaren arabera, beren kargura adingabeak dituzten etxebizitzetan. 2014



Iturria: Guk geuk egina, Eurostaten datuekin

Hemezortzi urtetik beherakoen pobrezia-arriskuan edo gizarte-bazterketa arriskuan eragina duen beste faktore bat gurasoen ikasketa-maila da. Europar Batasuneko herrialde guztietan, 18 urtetik beherakoen artean pobrezia-arriskuan dauden proportzioak korrelazio negatiboa du beren gurasoen ikasketa-maila altuenarekin; hau da, gurasoek zenbat eta ikasketa-maila altuagoa izan, orduan eta txikiagoa izaten da pobrezian egoteko arriskua.


Europar Batasunean, gurasoek gehienez ere oinarritzko ikasketak dauzkaten ikasleen kasuan, pobrezia-arriskuaren tasa % 65,2koa da 6 urtetik beherakoen artean, eta % 60,1ekoa 12 eta 17 urtekoen artean. Espainian, bestalde, nabarmentzekoa da gurasoek goi-mailako ikasketak dituztenean (ISNI 5-8), proportzio hori % 11,5ekoa dela 6 urtetik beherako haurren kasuan, eta % 19,5ekoa Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza egiteko adin teorikoan daudenen kasuan (12 eta 17 urte artean). Europar Batasunean, proportzio horiek % 10,2 eta % 11,5ekoak dira, hurrenez hurren.

25. taula: Europar Batasunean 18 urtetik beherakoek duten pobrezia-arriskuaren ehunekoa, gurasoen ikasketamailaren arabera. 2014

	Bigarren Hezkuntzako lehen zikloa baino gutxiago (0-2. maila).	Bigarren Hezkuntza (3-4. maila)	Goi-mailako hezkuntza (5-8. maila)
EB	66,4	33,1	10,5
Alemania	79,5	28,6	10,5
Austria	72,1	27,9	13,3
Belgika	68,5	30,5	8,0
Bulgaria	93,9	34,8	13,8
Zipre	50,4	31,2	15,2
Kroazia	83,1	25,5	6,6
Danimarka	69,1	19,8	6,3
Eslovenia	60,0	27,6	8,8
Espainia	67,2	42,5	13,5
Estonia	53,6	34,2	10,5
Finlandia	65,8	25,1	8,1
Frantzia	64,7	33,7	7,1
Grezia	81,7	42,1	11,6
Hungaria	90,4	47,2	6,4
Irlanda	66,7	41,1	13,8
Italia	59,6	29,0	13,5
Letonia	75,4	39,2	12,5
Lituania	53,0	34,6	7,8
Luxenburgo	55,6	20,8	9,2
Malta	55,1	12,5	7,3
Herbehereak	44,0	19,9	5,2
Polonia	70,7	38,3	8,7
Portugal	48,5	23,5	6,1
Txekiar Errepublika	83,7	21,0	3,7
Eslovakia	89,9	24,1	10,5
Erresuma Batua	59,9	39,3	15,3
Errumania	81,9	49,3	7,0
Suedia	74,5	17,7	11,2

Iturria: Guk geuk egina, Eurostaten datuekin

46. grafikoa: Europar Batasunean 18 urtetik beherakoek duten pobrezia-arriskuaren ehunekoa, gurasoen ikasketak-mailaren arabera. 2014



◆ Inferior a primera etapa de Secundaria (nivel 0-2) ■ Secundaria (nivel 3-4) ▲ Enseñanza Superior (nivel 5-8)

Iturria: Guk geuk egina, Eurostaten datuekin

2014an, Espainian bizi diren 18 urtetik beherako biztanleen pobrezia-arriskua % 67,2koa izan da prestakuntza-maila txikia duten familietan; Europar Batasunean, % 66,4koa izan da ehunekoa. Goi-mailako ikasketak dituzten familietan, ordea, % 13,5 daude pobrezia-arriskuan, eta batez beste % 10,5 Europar Batasunean.

Horrek adierazten du harreman zuzena dagoela gurasoen prestakuntza-mailaren eta pobrezia-arriskuaren artean; hau da, ikasketek babes handia ematen dutela pobrezia eta gizarte-bazterketa jasateko arriskuen aurrean.

### Pobrezia eta eskola uztea

Lehen esan dugun bezala, Europa 2020 Estrategiaren ardatzetako bat da hezkuntza. Europar Batasunaren aurrerapena neurtzeko helburuetatik biren arabera, ikasketak behar baino lehenago uzten duten pertsonen kopuruak % 10etik beherakoa izan behar du 2020an, eta, horrez gain, 30 eta 34 urte arteko pertsonen % 40k gutxienez hirugarren mailako hezkuntza edo horren baliokidea egina behar du izan urte horretarako.


Bi helburu horiek Europar Batasun guztirako ezarri diren arren, ez dira herrialde- edo eskualde-mailan espezifikoki aplikatzen. Izatez, ET2020ren erreferentzia-puntu bakoitza herrialde eta, kasu batzuetan, eskualde bakoitzean lortu beharreko helburuekin osatu da. Horiek egiterakoan, estatu bakoitzaren egoera eta ezaugarriak izaten dira kontuan. Espainian, esaterako, altua denez eskola uzten dutenen tasa, kopuru hori % 15etik jaitea litzateke asmoa.

2014an, EB-28ko 18 eta 24 urte arteko gazteen % 11,1ek behar baino lehenago utzi zuten hezkuntza eta prestakuntza; 2013an baino % 0,8 gutxiagok, beraz. Europa 2020ko helburu hori lortzeko, beheranzko joerari eutsi zitzaion, bada; 2002an erregistratutako % 17,0tik hona, hamabi urtez egon da adierazle hori behera egiten.

Europar Batasunean, hezkuntza edo prestakuntza behar baino lehenago uzteko probabilitatea handiagoa izaten da gizonen artean (% 12,7, 2014an) emakumeen artean baino (% 9,5). Probabilitate hori handiagoa da, halaber, atzerrian jaiotakoen taldean (% 20,1) edo desgaitasun fisikoren bat dutenen artean (% 25,1).

Hezkuntza eta prestakuntza behar baino lehenago uzten dutenen proportziorik txikiena Europar Batasuneko ekialdean erregistratu zen, batik bat (Polonia, Txekiar Errepublikak, Eslovakia, Austria, Eslovenia eta Kroazia). Ehunekorik altuenak, aldiz, Espainian, Portugalen, Errumanian, Bulgarian eta Erresuma Batuko zenbait eskualdetan erregistratu ziren.

47. grafikoa: Hezkuntza behar baino lehenago uztearen eta pobrezia-arriskuaren edo gizarte-bazterketaren tasaren arteko harremana Europar Batasunean. 2015




Iturria: Guk geuk egina, Eurostaten datuekin

Aurreko erreferentziak betez, ondoko grafikoan ikus dezakegun moduan, pobrezia-arriskuaren eta hezkuntza behar baino lehenago uztearen arteko harremanean alde handiak daude autonomia-erkidego batzuetatik besteetara. Bi faktore horien kasuan, Nafarroa egoera hobean ageri zaigu.



48. grafikoa: Hezkuntza behar baino lehenago uztearen eta pobrezia-arriskuaren edo gizarte-bazterketaren tasaren arteko harremana, autonomia-erkidegoaren arabera. 2015



Iturria: Guk geuk egina, Estatistikako Institutu Nazionalaren datuekin


Bestalde, 2008-2015 epealdian, gazteen langabeziak oso azkar egin zuen gora, eta, horren eraginez, litekeena da gazte batzuek ikasten eta prestakuntza jasotzen jarraitzea erabaki izana, lan-aukerarik ez zutelako. Urte horietan, hezkuntza eta prestakuntza behar baino lehenago utzi zutenen kopuruak % 3,5 egin zuen behera. Beheranzko joera nahiko orokorra da, datu zehatzak bildu zituzten 256 eskualdeen lau bostenetan baino gehiagotan (% 82,8) erregistratu baitzen. Izatez, hezkuntza eta prestakuntza behar baino lehenago uzten duen 18 eta 24 urte arteko pertsonen kopuruaren jaitsiera aipagarrienak alderdi horretan ehuneko altuenak zituzten eskualdeetan eman ziren, 2008 eta 2014 artean. Hain zuzen ere, Espainian eta Portugalen gertatu zen hori.

### Gizarte-babesa eta pobrezia

Azkenik, azpimarratu behar da gizarte-babeseko neurriak funtsezko tresna direla pobrezia eta gizarte-bazterketa murrizteko eta horiekin lotutako fenomenoak gutxitzeko. Gizarte-babeseko neurrien arrakasta ebaluatzeako moduetako bat haxe da: gizarte-transferentzien aurreko eta ondorengo pobrezia-arriskuaren adierazleak alderatzea. 2014an, gizarte-transferentzietik % 26,1etik (transferentzien aurretik) % 17,2ra jaitsi zuten (transferentzien ondoren) EB-28n pobrezia-arriskuaren tasa. Alegia, biztanleriaren % 8,9 jarri zuten pobrezia-arriskuaren atalasearen gainetik. Gizarte-transferentziarik gabe, pertsona horiek pobrezia-arriskuan leudeke.

Gizarte-transferentzien aurreko eta ondoko pobrezia-arriskuaren tasak aztertuta, ikus genezake gizarte-prestazioen eragina txikia izan zela Errumanian, Grezian, Italian, Bulgarian, Letonian, Polonian eta Estonian. Irlandan, Danimarkan, Finlandian, Islandian eta Norvegian, ordea, pobrezia-arriskuan zeuden pertsonen erdiak baino gehiago gizarte-laguntzei esker geratu ziren arrisku horretatik salbu. Laburbilduz, gizarte-babeserako programak egoteak eragin nabarmena du pobrezia sortzen duen arrakalaren tamainan eta sakontasunean.

49. grafikoa: Pobrezia-arriskuaren tasak, gizarte-transferentzien aurretik eta ondoren. 2014



Iturria: Guk geuk egina, Eurostaten datuekin

### Hezkuntzan egindako gastua

Hezkuntzan gehien erabiltzen den adierazleetako bat, eta esanguratsua dena oso, barne-produktu gordinarekin alderaturik hezkuntzara bideraturiko gastu publikoaren bolumena neurtzen duena da. 2014an, Europar Batasuneko estatuen batez besteko gastua % 4,9 zen. Estatu bakoitzaren ehunekoaren bilakaerari erreparatuz gero, denetarik ikusiko dugu: herrialde batzuetan, handitzen ari da (Polonia, Txekiar Errepublikak); beste batzuetan, berriz, behera egiten ari da (Frantzia, Irlanda, Erresuma Batua).

26. taula: Hezkuntzako gastu publikoaren bilakaera barne-produktu gordinarekiko, Europar Batasunean


	2002	2005	2008	2011	2014
EB	5	5,1	5,1	5,2	4,9
Alemania			4,4	4,8	4,3
Austria	5,5	5,3	5,3	5,6	5
Belgica	6,0	5,8	6,3	6,4	6,3
Bulgaria	3,4	4,2	4,3	3,7	4,1
Zipre	5,6	6,3	6,8	6,6	5,8
Kroazia	3,8		4,3	4,2	4,7
Danimarka	8,2	8,1	7,5	8,5	7,2
Eslovakia	4,2	3,8	3,5	4,0	5,9
Eslovenia	5,7	5,6	5,1	5,6	4,1
España	4,1	4,1	4,5	4,8	5,6
Estonia	5,5	4,8	5,5	5,1	6,4
Finlandia	6,0	6,0	5,8	6,5	5,5
Frantzia	5,4	5,5	5,4	5,5	4,4
Grecia	3,4	4,0			5,2
Hungaria	5,2	5,4	5,0	4,6	4,3
Irlanda	4,1	4,5	5,5	5,9	4,1

Italia	4,4	4,2	4,4	4,1	5,9
Letonia	3,3		3,8	3,5	5,4
Lituania		16,8	16,7	17,7	5,2
Luxenburgo					5,8
Malta	4,3		5,8	8,0	5,4
Herbehereak	4,9	5,2	5,1	5,5	5,3
Polonia	5,4	5,5	5,1	4,9	6,2
Portugal	5,3	5,1	4,7	5,1	5,2
Erresuma Batua	5,0	5,2	5,1	5,8	4,1
Txekiar Errep.	4,0	3,9	3,8	4,3	5,2
Errumania	3,5	3,5		3,1	3
Suedia	7,0	6,6	6,4	6,5	6,6

Iturria: Guk geuk egina, UNESCOren datuekin

Herrialde batzuek Europar Batasuneko barne-produktu gordinaren batez besteko % 4,9 baino gehiago bideratzen dute hezkuntzara; horren erakusle dira Danimarka (% 7,2), Suedia (% 6,6), Finlandia (% 6,4), Belgika (% 6,3) eta Portugal (% 6,2). Espainia proportzioan gastu txikiena egiten dutenen artean dago (% 4,1); zehazki, Bulgariaren, Italiaren eta Eslovakiaren maila berean, eta atzetik Errumania (% 3) baino ez duela.

50. grafikoa: Guztizko barne-gastua barne-produktu gordinarekiko Europan. 2014



\* Daturik ez zeukaten herrialdeak ezabatu egin ditugu.  
Iturria: Estatistikako Institutu Nazionala

### Etxebizitza bakoitzak hezkuntzan egiten duen gastua

Etxebizitza bakoitzak hezkuntzan egindako batez besteko gastua guztizko gastuaren % 1,1 eta % 1,2 artekoa da EB-28n. Aldagai horrek denboran zehar izan duen bilakaera ondoko taulan jaso dugu, estatu bakoitzari dagozkion datuekin. Espainian, balio horiek % 1,5 eta % 1,8 artekoak izan dira 2010-2014 aldian.


27. taula: Etxebizitzek hezkuntzan egindako batez besteko gastua Europar Batasunean. Guztizkoaren %

	2010	2011	2012	2013	2014
EB	1,1	1,1,	1,1	1,1	1,2
Alemania	0,8	0,8	0,8	0,8	0,8
Austria	0,7	0,7	0,7	0,8	0,8
Belgika	0,4	0,4	0,4	0,4	0,4
Bulgaria	0,8	0,9	0,9	0,9	0,9
Zipre	2,6	2,6	2,6	2,7	2,6
Danimarka	0,8	0,7	0,7	0,8	0,8
Eslovenia	1,2	1,2	1,3	1,4	1,3
Espainia	1,5	1,5	1,6	1,8	1,8
Estonia	0,8	0,7	0,6	0,5	0,4
Finlandia	0,4	0,4	0,4	0,4	0,4
Frantzia	0,9	0,9	0,9	0,9	0,9
Grezia	2,4	2,4	2,4	2,2	2,3
Hungaria	1,5	1,4	1,5	1,6	1,7
Irlanda	3,5	3,3	3,5	3,4	3,3
Italia	1	1	1	1	1
Letonia	1,9	2,1	2	2,1	2,1
Lituania	0,7	0,6	0,6	0,5	0,5
Luxenburgo	0,8	0,9	0,9	1	
Malta	1,4	1,3	1,5	1,6	1,6
Herbehereak	0,7	0,7	0,7	0,8	0,8
Polonia	1,2	1,2	1,1	1,1	1
Portugal	1,3	1,4	1,4	1,3	1,3
Txekiar Errepublika	0,6	0,6	0,6	0,5	0,5
Eslovakia	1,5	1,5	1,6	1,6	1,6
Erresuma Batua	1,6	1,5	1,6	1,7	1,8
Errumania	1,1	2,3	2,1	2,1	2
Suedia	0,3	0,3	0,3	0,3	0,3

Iturria: Eurostat

2014ko datuak kontuan hartuta, ikusiko dugu gasturik handiena Irlandan egin zela (% 3,3); gasturik txikienak, berriz, Suedian (% 0,3), Belgikan (% 0,4), Estonian (% 0,4) eta Finlandian (% 0,4) erregistratu ziren.


51. grafikoa: Etxebizitzek hezkuntzan egindako batez besteko gastua Europar Batasunean. Guztizkoaren %. 2014



\* Daturik ez zeukaten herrialdeak ezabatu egin ditugu.  
Iturria: Guk geuk egina, Eurostaten datuekin

Estatistikako Institutu Nazionalak emandako datuen arabera, 2015ean irakaskuntzan gastu portzentual handiena egiten duten autonomia-erkidegoak hauek dira: Madril, Katalunia, Euskadi eta Nafarroa dira; % 1,5etik gorako gastua egin dute laurretan. Gasturik txikiena, aldiz, Gaztela-Mantxan, Extremaduran eta Murtzian egin dute (% 0,85etik behera).

52. grafikoa: Etxebizitzek hezkuntzan egindako batez besteko gastua, autonomia-erkidegoaren arabera. 2015



\* 2006 eta 2010 artean, Ceuta eta Melillako datuak bateratuta argitaratu dira. 2011tik aurrera, bananduta argitaratu dira; hortaz, laginketa-akatsak handiagoak dira bi kategoria horietan.  
Iturria: Guk geuk egina, Estatistikako Institutu Nazionalaren datuekin

### 2.2.5. Hezkuntza eta ekonomia

Ezagutzan oinarritutako ekonomia mundu guztian ari da indarra hartzen. Adostasun handiz onartzen da informazioaren eta komunikazioaren teknologiak (IKT) daudela ekonomian gaur egun gertatzen ari diren aldaketaren muinean.

Baina ekonomia mota horren garapena IKTen aurrerapen soiletik haratago doa. Izan ere, aldaketak sartzan ditu eskariaren eta eskaintzaren nolakotasunean, eta ezagutzari eta berrikuntzari balio berria ematen die, baliabide nagusi gisa. Ikusmolde horren erdigunean hezkuntza, berrikuntza eta ikerketa daude. Elementu horiek elkarri eragiten badiote ere, hezkuntza da, bizitza osoko ikaskuntzaren ikuspuntutik ulertuta, beste bien euskarri-lanak egiten dituen elementuetan funtsezkoena.


#### Berrikuntza eta ikerketa

Berrikuntzak eta ikerketak garrantzi handia dute ET2020ren barruan, hazkunde adimendun, jasangarri eta integratzaile baten alde formulatutako estrategiaren oinarria bera osatzen dutelako. Estrategia horren helburuen artean dago I+G gastua barne-produktu gordinaren % 3raino igotzea 2020rako (inbertsio publikoko BPGd-ren % 1 eta inbertsio pribatuko % 2).

ET2020k zera proposatzen du: barne-produktu gordinaren % 3 inbertitzea I+G gastuan. 2014an, Danimarkak (% 3,05), Suediak (% 3,16) eta Finlandiak (% 3,17) bete zuten helburu hori. Suediak eta Finlandiak, hortaz, barne-produktu gordinaren % 4ko inbertsioa gaintitzea ezarri dute 2020rako helburu gisa. Espainian, % 1,22koa zen I+Gn egindako gastua.

Nafarroan, berriz, % 1,75ekoa zen barne-gastu hori. Inbertsio altuenak egiten dituzten herrialdeen ehunekoen azpitik dago, beraz, gure erkidegoa, bai eta Europar Batasuneko batez bestekoaren azpitik ere (% 1,94), baina Espainiako balioaren gainetik (% 1,22).

53. grafikoa: Guztizko barne-gastua barne-produktu gordinarekiko Europan, 2014an\*



\* Daturik ez zeukaten herrialdeak ezabatu egin ditugu.  
Iturria: Estatistikako Institutu Nazionala

## 2.3. Alderdi soziokulturalak

### 2.3.1. Ezaugarri orokorrak

Alderdi soziokultural ugari dute eragina hezkuntzaren arloan. Horien artean dauzkagu etxean irakurtzeko ohitura, musika edo antzerkigintzarekin lotutako kultura gertukoa izatea edo eduki kulturala duten esperientzietan parte hartzea. Halakoen garrantzia gutxietsi gabe, esanguratsuak dira, gaur egun, konektibitatea eta Interneten erabilera, eta nazioartean oso zabaldua dauden adierazle bilakatu dira.

Europar Batasunean, Interneteko sarbideari buruzko datuak asko aldatzen dira herrialdeetik herrialdera, baina, betiere, goranzko bilakaera antzematen da haietan guztietan. Herrialde batzuetan, Interneteko sarbidea duten etheen ehunekoa oso handia da; zehazki, % 90etik gorakoa (Alemania, Danimarka, Finlandia, Luxenburgo, Herbehereak, Erresuma Batua, Suedia). Beste batzuetan, aldiz, konexio horrek ez du % 70eko langa gainditzen (Bulgaria, Grezia, Lituania, Portugal, Errumania).

28. taula: Interneteko sarbidea duten etxebizitzien ehunekoa Europar Batasunean. 2016ko urtarrilaren 1ean


	2011	2012	2013	2014	2015
Alemania	83	85	88	89	90
Austria	75	79	81	81	82
Belgika	77	78	80	83	82
Bulgaria	45	51	54	57	59
Zipre	57	62	65	69	71
Kroazia	61	66	65	68	77
Danimarka	90	92	93	93	92
Eslovakia	71	75	78	78	79
Eslovenia	73	74	76	77	78
Espainia	63	67	70	74	79
Estonia	69	74	79	83	88
Finlandia	84	87	89	90	90
Frantzia	76	80	82	83	83
Grezia	50	54	56	66	68
Hungaria	63	67	70	73	76
Irlanda	78	81	82	82	85
Italia	62	63	69	73	75
Letonia	64	69	72	73	76
Lituania	60	60	65	66	68
Luxenburgo	91	93	94	96	97
Mazedonia		58	65	68	69
Malta	75	77	79	81	82
Herbehereak	94	94	95	96	96
Polonia	67	70	72	75	76
Portugal	58	61	62	65	70
Erresuma Batua	83	87	88	90	91
Txekiar Errepublika	67	65	73	78	79
Errumania	47	54	58	61	68
Suedia	91	92	93	90	91

Iturria: Guk geuk egina, Eurostaten datuekin

Espanian, 12,6 milioi familiek dute etxean Interneterako sarbidea. Horrek esan nahi du etxebizitza guztien ia % 79k izan duela sarerako sarbidea 2015ean, aurreko urteko % 74,4ren aldean.

Interneteko sarbide motari dagokionez, etxebizitzen % 77,8k (hau da, ia 12,5 milioi etxebizitzak) banda zabala erabiltzen dute (ADSL, kable bidezko sarea). Aurreko urtean baino 830.000 etxebizitza gehiago dira, beraz. Banda zabaleko Interneterako sarbide mota nagusia eskuko gailu baten bidezkoa da (azken belaunaldiko telefono mugikorra –3G, gutxienez–, etab.). Etxebizitzen % 77,1ek dute hori. Horren atzetik ditugu ADSL lineak (etxebizitzen % 58,4an), kable edo zuntz optiko bidezko sarea (% 27,9), banda zabaleko beste konexio finko batzuk -satelite, WiFi publiko edo WiMax bidezkoak- (% 7,0) eta banda zabaleko konexio mugikorrak, txartel edo USB modem bidezkoak –ordenagailu eramangarrietan, adibidez– (% 6,6).

54. grafikoa: IKT ekipamenduen bilakaera Espainiako etxebizitzetan. 2006-2015 seriea.



Iturria: Guk geuk egina, Estatistikako Institutu Nazionalaren datuekin

Interneterako sarbiderik ez duten etxeetan bizi diren pertsonen, bestalde, hainbat arrazoi ematen dituzte egoera hori azaltzeko: Interneten beharrik ez dutela (% 66,5), Internet erabiltzeko nahikoa ezagutza ez dutela (% 40,3), ekipamenduaren kostuak handiegiak direla (% 29,1) eta konexioaren kostuak altuegiak direla (% 26,7).

Nafarroako etxebizitzetan, konektibitatea % 66tik % 81era igo da 2011 eta 2015 artean; lehen aipatutako punta-puntako Europako herrialdeetako datuetatik urrun dago oraindik.

Espanian, IKTak etxean erabiltzen dituzten haurren (10-15 urte) ehunekoa oso altua da, oro har. Ia guztiek erabiltzen dute ordenagailua (% 95,1), eta antzeko datuak ditugu Interneten ohiko erabilerari dagokionez (% 93,6). Jarduera horiek ere oso zabaldua daude 10 urtetik beherakoan artean. Horrek guztiak agerian uzten du gero eta zabalduagoa dagoela interes handiko aplikazio eta erabilera horietako sarbidea. Aldi berean, ordea, indartu egin da erabiltzaile adingabeen mugei eta teknologia digitalen erabilerarekin lotutako gatazkei buruzko eztabaida.



29. taula: IKT erabiltzen duten adingabeen ehunekoa Espainian, sexuaren eta adinaren arabera. 2015

	Ordenagailuaren erabilera	Interneten erabilera
Guztira	95,1	93,6
Gizonak	95,3	93,0
Emakumeak	94,9	94,2
Adina		
10	90,8	88,0
11	93,9	94,5
12	96,6	92,0
13	96,1	96,2
14	96,5	95,8
15	96,3	94,8

Iturria: Estatistikako Institutu Nazionala


### 2.3.2. Nafarroako hizkuntzak

Nafarroako hizkuntzen errealitatea aberatsa eta konplexua da. Garai historikoetan hiztun-komunitateak sortu zituzten hizkuntzen garapenak ez du etenik izan, eta oraindik ere irauten dute berezko hizkuntza gisa gaztelania edota euskara duten bi komunitateak. Sakontasunez aztertu diren arrazoi soziolinguistiko eta historikoak direla medio, autonomia-erkidegoko biztanle ia guztiek dakite gaztelaniaz gaur egun. Euskal hiztunak elebidunak dira gutxienez, eta gaztelania ere menderatzen dute. Badira, gainera, beste hizkuntzen hiztunek osaturiko komunitate batzuk, nazioarteko migrazioen, gizarte-fluxuen edo ikaskuntzaren ondorioz sortuak. Horiek beste hizkuntza batzuk erabiltzen dituzte, baina fenomeno hori ez da nahikoa ikertu orain artean.

Daturik eguneratuenak V. Mapa Soziolinguistikoan jasotakoak ditugu. Mapa hori egiteko, Estatistikako Institutu Nazionalaren biztanleria eta etxebizitzetarako buruzko erroldak erabili ziren. Nafarroan euskarak 1991ko eta 2011ko errolden artean izan duen bilakaeraren jarraipena egiteko datuak eskaintzen dizkigu mapak, biztanleria osoa aintzat hartuta. Aipatzekoa da 2011ko erroldako analisia lagin handiago batean gainean egin zela.

Mapako datuak hainbat irizpideren arabera daude banakatuta. Horien artean, 1986ko Euskararen Legeak ezarritako hizkuntza-eremuen arteko banaketa aipatu behar dugu, eremu euskalduna, eremu mistoa eta eremu ez-euskalduna bereizi baitzituen, grafiko honetan ikus daitekeen moduan.

55. grafikoa: Euskararen Legeak ezarritako eremuak. 1986



Iturria: Euskarabidea


Hiru eremu horietako biztanleriak bilakaera desberdina izan du 1991-2015 aldian. Nafarroako biztanleria hazi egin da, oro har: 121.199 pertsona gehiago dauzka, guztira. Azpimarratzekoa da eremu mistoko biztanleriaren igoera; izan ere, 1991n Nafarroako biztanleen % 52,28 bizi zen bertan, eta 2015ean % 57,07. Beste bi eremuen pisu erlatiboak behera egin du, bien bitartean.

30. taula: Biztanleria, hizkuntza-eremuen arabera. 1991-2015

	1991	1996	2011	2015
Eremu euskalduna	56.673	55.263	59.207	58.534
Eremu mistoa	271.459	299.094	360.938	365.536
Eremu ez-euskalduna	191.145	201.472	219.985	216.406
Guztira	519.277	555.829	640.129	640.476

Iturria: Nafarroako Estatistika Institutua

56. grafikoa: Biztanleriaren ehunekoa, hizkuntza-eremuen arabera. 1991-2015



Iturria: Guk geuk egina, Nafarroako Estadistika Institutuaren datuekin

Bestalde, aipatutako ikerlanean erabilitako hizkuntza-tipologiak euskara ulertu, hitz egin, irakurri eta idazteko gaitasunekin lotuta daude. Jasotako erantzunetatik abiatuz, Mapa Soziolinguistikoa ezartzen diren hizkuntza-gaitasuneko kategoriak hauexek dira:

1. Elebidunak: euskara eta gaztelania ondo ulertzeko eta hitz egiteko gauza direla dioten pertsonak.
2. Elebidun hartzaileak: gaztelaniaz gainera, euskara ere ulertzen dutenak, nahiz eta ez duten hitz egiten edo hitz egiteko zailtasunak dituzten.
3. Erdaldun elebakarrak: gaztelania-hiztunak daude talde horretan, eta euskaraz hitz egin edo ulertzeko gai ez diren atzeritarrak.


Aztertutako hogeiturogei urteko epealdian (1991-2011), positiboa izan da hizkuntza-komunitate euskaldunaren bilakaera, taula honetan jasota dagoen moduan.

31. taula: Euskararen ezagutzaren bilakaera. 1991-2011

	Elebidunak		Elebidun hartzaileak		Erdaldun elebakarrak		Erantzunik ez		Guztira
	Abs.	%	Abs.	%	Abs.	%	Abs.	%	Abs.
1991	49.484	9,90	23.414	4,68	412.910	82,60	14.061	2,81	499.869
2001	62.826	11,87	43.391	8,20	415.158	78,46	7.754	1,47	529.128
2011	82.101	13,68	62.881	10,48	444.657	74,08	10.574	1,76	600.213

Iturria: Euskarabidea

57. grafikoa: Euskararen ezagutzaren ehunekoa. 2011



Iturria: Guk geuk egina, Euskarabidearen datuekin

Hizkuntza-gaitasunen bilakaera adin-taldeen arabera aztertzerakoan, ikusiko dugu bi ikerketen artean dauden hogeitun urteetan gaztetu egin direla euskal hiztunak. Beste faktore batzuk gorabehera, dudarik ez dago euskara nahitaezko hezkuntzan irakaskuntza-hizkuntza gisa edo irakasgai gisa txertatu izana urrats erabakigarria izan dela prozesu honetan. Hori agerikoa da 1991ko datuak eta 2011koak alderatzean.

32. taula: Euskararen ezagutzaren bilakaera, adin-taldeen arabera. 1991

	Elebidunak		Elebidun hartzaileak		Erdaldun elebakarrak		Erantzunik ez		Guztira
	Abs.	%	Abs.	%	Abs.	%	Abs.	%	Abs.
5-14 urte artekoak	9.669	14,50	3.047	4,57	53.484	80,21	477	0,72	66,677
15-24 urte artekoak	8.015	9,31	4.459	5,18	70.625	82,06	2.965	3,45	86,064
25-34 urte artekoak	7.405	9,16	5.730	7,09	66.857	82,69	859	1,06	80,851
35-44 urte artekoak	6.320	9,06	4.424	6,34	58.271	83,53	748	1,07	69,763
45-54 urte artekoak	4.770	8,31	2.154	3,75	48.953	85,33	1.491	2,60	57,368
55-64 urte artekoak	5.387	9,26	1.575	2,71	49.361	84,83	1.862	3,20	58,185
65 urtekoak edo gehiagokoak	7.918	9,78	2.025	2,50	65.359	80,73	5.659	6,99	80,961
Guztira	49.484	9,90	23.414	4,68	412.910	82,60	14.061	2,81	499,869

Iturria: Euskarabidea


33. taula: Euskararen ezagutzaren bilakaera, adin-taldeen arabera. 2011

	Elebidunak		Elebidun hartzaileak		Erdaldun elebakarrak		Erantzunik ez		Guztira
	Abs.	%	Abs.	%	Abs.	%	Abs.	%	Abs.
5-14 urte artekoak	19.421	30,05	10.636	16,46	33.010	51,08	1.555	2,41	64.622
15-24 urte	14.080	22,89	6.954	11,30	39.265	63,83	1.220	1,98	61.519

artekoak									
25-34 urte artekoak	13.414	14,75	8.389	9,23	67.377	74,10	1.746	1,92	90.926
35-44 urte artekoak	11.747	10,90	12.295	11,41	81.906	76,01	1.807	1,68	107.755
45-54 urte artekoak	8.689	9,35	10.932	11,76	72.065	77,52	1.279	1,38	92.965
55-64 urte artekoak	6.013	8,36	7.044	9,79	57.937	80,55	934	1,30	71.928
65 urtekoak edo gehiagokoak	8.737	7,91	6.631	6,00	93.097	84,25	2.033	1,84	110.498
Guztira	82.101	13,68	62.881	10,48	444.657	74,08	10.574	1,76	600.213

Iturria: Euskarabidea

58. grafikoa: Euskararen ezagutzaren bilakaera, adin-taldean arabera. 1991-2011



Iturria: Guk geuk egina, Euskarabidearen datuekin

Euskal hiztunen banaketa geografikoan eta banaketa horrek 1991 eta 2011 artean izan duen bilakaeran ere desberdintasun handiak ageri zaizkigu; besteak beste, eremu batzuetan euskal komunitateak jarraitasun historikoa izan duelako, eta eremuaren eta eskariaren arabera hezkuntza-sisteman euskaraz ikasteko aukerak oso desberdinak direlako.

34. taula: Euskararen ezagutzaren bilakaera eremu euskaldunean. 1991-2011

	Elebidunak		Elebidun hartzaileak		Erdaldun elebakarrak		Erantzunik ez		Guztira
	Abs.	%	Abs.	%	Abs.	%	Abs.	%	
1991	31.859	60,18	4.791	9,05	15.468	29,22	819	1,55	52.937
2001	32.553	61,45	6.868	12,97	12.894	24,34	656	1,24	52.971
2011	32.277	58,20	7.239	13,05	14.993	27,04	947	1,71	55.456

Iturria: Euskarabidea

35. taula: Euskararen ezagutzaren bilakaera eremu mistoan. 1991-2011

	Elebidunak		Elebidun hartzaileak		Erdaldun elebakarrak		Erantzunik ez		Guztira
	Abs.	%	Abs.	%	Abs.	%	Abs.	%	Abs.
1991	16.172	5,60	16.284	5,64	232.466	80,55	10.213	3,54	275.135
2001	26.472	7,84	30.444	9,02	227.998	67,53	3.686	1,09	288.600
2011	41.907	12,41	39.827	11,80	249.130	73,79	6.737	2,00	337.601

Iturria: Euskarabidea

36. taula: Euskararen ezagutzaren bilakaera eremu ez-euskaldunean. 1991-2011

	Elebidunak		Elebidun hartzaileak		Erdaldun elebakarrak		Erantzunik ez		Guztira
	Abs.	%	Abs.	%	Abs.	%	Abs.	%	Abs.
1991	1.453	0,85	2.339	1,36	164.976	96,03	3.029	1,76	171.797
2001	3.800	2,03	6.079	3,24	174.266	92,91	3.412	1,82	187.557
2011	7.918	3,82	15.813	7,63	180.534	87,15	2.889	1,39	207.154

Iturria: Euskarabidea

Mapan aztertutako lau hizkuntza-gaitasunek oso banaketa garbia daukate, Nafarroako eremuaren arabera.

37. taula: Euskarazko gaitasunak, hizkuntza-eremuaren arabera. 2011

	Nafarroa	Eremu euskalduna	Eremu mistoa	Eremu ez-euskalduna
Ulertzen du				
Ondo	16,5	61,6	15,2	3,3
Apur bat	12,7	15,1	13,7	10,4
Ezer ez edo hitz solteak bakarrik	70,4	23,1	70,7	85,2
Ez du erantzunik zehaztu	0,7	0,1	0,5	1,1
Hitz egiten du				
Ondo	13,6	56,2	22,9	3,1
Apur bat	8,3	11,0	10,1	4,3
Ezer ez edo hitz solteak bakarrik	77,2	31,8	77,4	91,4
Ez du erantzunik zehaztu	0,9	0,9	0,7	1,3
Irakurtzen du				
Ondo	13,4	44,0	13,2	3,9
Apur bat	7,2	16,0	6,8	5,1
Ezer ez edo hitz solteak bakarrik	78,4	38,3	79,3	89,8
Ez du erantzunik zehaztu	1,0	1,7	0,7	1,3
Idazten du				
Ondo	11,9	38,7	11,9	3,4
Apur bat	7,0	15,2	6,7	4,8

Ezer ez edo hitz solteak bakarrik	80,1	44,3	80,6	90,6
Ez du erantzunik zehaztu	1,0	1,8	0,7	1,3

*Iturria: Euskarabidea*

Gaztelaniaz eta euskaraz gain, badira Nafarroan presentzia esanguratsua duten beste hizkuntza batzuk ere. Txosten honen beste kapitulu batean aztertu dugun moduan, migrazio-fluxuen ondorioz beste hizkuntza batzuen komunitateak sortu dira Nafarroan (arabiera, errumaniera, bulgariera, ukrainera, eta abar), edota gaztelaniaren dialekto latinoamerikarrak hitz egiten dituztenak. Gauza handirik ez dakigu komunitate horien ezaugarrien eta beren hizkuntza-erabileren inguruan, eta, beraz, presente daudela eta bizitasuna daukatela suposatzea mugatuko gara, ikerketa soziolinguistiko zabalagorik ez dugun bitartean.

Halako ikerlanik ez izatean, interesekoak suertatuko zaizkigu Europako testuinguruan harrera-herrialdeko hizkuntzaren ezagutza-mailari buruz dauzkagun datuak.

**38. taula: Harrera-herrialdeko hizkuntzaren ezagutza-maila etorkinen lehen belaunaldian\*. 2014**

	Ama-hizkuntza	Oso ondo	Nahiko ondo	Oinarritzkoa
Alemania	13,1	42,2	24,7	14,7
Austria	37,8	25,4	23,3	13,5
Belgika	30,8	32,4	15,6	21,2
Bulgaria	23,9	38,4	26,3	
Zipre	24,6	17,8	21,9	35,7
Kroazia	89,2	6,9	2,8	
Eslovenia	7,7	43,3	43,0	6,0
Espainia	49,5	25,5	16,2	7,4
Estonia	6,4	14,8	24,1	54,7
Finlandia	33,7	22,1	23,9	17,8
Frantzia	25,6	39,3	24,6	10,5
Grezia	10,2	43,8	29,0	3,4
Hungaria	79,5	10,4	3,3	4,1
Italia	29,1	36,9	22,6	11,2
Letonia	6,2	30,0	42,1	20,6
Lituania	23,1	32,9	31,3	12,7
Luxenburgo	58,5	12,1	7,1	1,1
Malta	18,2	6,0	7,2	68,6
Polonia	20,9	49,2	24,9	
Portugal	76,1	11,9	8,2	1,9
Txekiar Errepublika	43,7	31,8	18,1	5,9
Eslovakia	51,0	33,3		
Erresuma Batua	30,1	36,5	21,1	10,7
Suedia	32,5	31,7	24,6	9,9

\* Daturik ez zeukaten herrialdeak ezabatu egin ditugu  
*Iturria: Guk geuk egina, Eurostaten datuekin*

Nafarroako hezkuntza-sistemak, batzuetan irrika biziarekin baina bitarteko gutxirekin, erantzun bat eskaini die bertaratu diren guztiei, gaztelaniaren –eta, batzuetan, euskararen– ezagutza unibertsal eta egokia bermatzen saiatuz. Zalantzarik gabe, badira hor konponbidea eskatzen duten hainbat alderdi; esate baterako, testuinguru formalean eta familian migratzaileen komunitateen berezko hizkuntzei eman beharreko tratamendua.

Bestalde, ukaezina da atzerriko hizkuntzekiko interesa –ingelesarekiko, bereziki– nabarmen hazi dela, hala gizartean nola hezkuntzan. Gai horren inguruan ere, biztanleria guztiari dagozkion adierazleak ez daude ondo eguneratuta, eta, ondorioz, Mapa Soziolinguistikora jo behar dugu, datu fidagarri zabalagoak eskuratzeko. Bertan, oso korrelazio altua ikusiko dugu goi-mailako ikasketak dauzkaten gazteen eta beste hizkuntza batzuk erabiltzeko erraztasunaren artean, besteak beste.

39. taula: Beste hizkuntza batzuk erabiltzeko erraztasuna, adin-taldearen arabera. 2011

	Nafarroa	15-24	25-34	35-44	45-54	55-64	65 baino gehiago
Bai	31,4	64,9	48,1	36,4	24	15,6	11,5
Ez	68,6	35,1	51,9	63,6	76	84,4	88,5

Iturria: Euskarabidea

40. taula: Euskaraz eta gaztelaniaz gain, beste hizkuntza batzuk erabiltzeko erraztasun-maila, amaitutako ikasketen arabera. 2011

	Nafarroa	Lehen Hezkuntza	DBH	Batxilergoa, erdi-eta goi-mailako zikloak	Diplomatura	Lizentziatura	Graduondokoa, doktoretza, masterra
Bai	31,4	5,7	19,3	30,6	49,5	59,4	54,6
Ez	68,6	94,3	80,7	69,4	50,5	40,6	45,4

Iturria: Euskarabidea

Txosten honetako beste kapitulu batzuetan zehaztasunez aztertu dugu zer-nolako presentzia eta bilakaera daukaten atzerriko hizkuntzek hezkuntza-sisteman, eta eguneratutako datuak eskaini ditugu.

Azkenik, egokia litzateke hemen aurkeztu ditugun datu orokorrak etorkizun hurbilean eguneratzea, analisi zehatzagoak egiteko modua izateko. Nafarroako gizartea gero eta aberatsagoa eta konplexuagoa da hizkuntza-profilei dagokienez. Ia guztiek menderatzen dute gaztelania, eta euskararen garrantzia handitzen joan da pixkanaka. Gero eta herritar gehiagok ezagutzen ditu atzerriko hizkuntzak –batik bat ingelesa, frantsesa atzean utziz–, eta migratzaileen komunitateek beste hizkuntza eta erregistro batzuk ekarri dituzte.

## 2.4. Hezkuntza-alderdiak

Gizartearen hezkuntza maila eta hezkuntzarekiko eta prestakuntzarekiko itxaropenak, bistan denez, hezkuntza sistemaren prozesuetan, politiketan eta emaitzetan erabat eragiten duten testuinguruaren gizarte eta hezkuntza aldagaiak dira. Aurreko hezkuntza-politiken emaitza pilatua ere dira, gainera.

### 2.4.1. Biztanleria helduaren ikasketa-maila

Biztanleria helduak erdietsitako ikasketa-mailak hezkuntza-sistemak errealitate sozialean duen eragin geroratua erakusten digu. Adierazle horretarako, bi kategoria berezi ohi dira: ohikoa (25-64 urte), lan egiteko adinean dauden biztanle helduak jasotzen dituena, eta partziala (25-34 urte), lan-mundura sartu berriak diren edo sartzeko moduan dauden biztanle helduak biltzen dituena.

Datuak 1997ko Irakaskuntzaren Nazioarteko Sailkapen Normalizatuaren arabera eman ditugu (ISNI 97). Sailkapen hori UNESCOk egin zuen, eta hezkuntza-maila hauek ezartzen ditu:




41. taula: Hezkuntza-mailak. ISNI

Hezkuntza-maila	Edukia
0. maila- Lehen maila aurreko hezkuntza	Antolatutako hezkuntzaren lehen fasea. Helburu nagusia ikasle gaztetxoei eskola-giroa ezagutaraztea da; hau da, etxearen eta eskolaren arteko zubi-lana egitea.
1. maila- Lehen Hezkuntza edo oinarrizko hezkuntzaren lehen zikloa	Bertan hasteko legezko edo ohiko adina ez da izaten 5 urtetik beherakoa, ez 7 urtetik gorakoa. Maila horrek, oro har, egun osoko eskolaldiko 5-7 urte irauten du.
2. maila- Bigarren Hezkuntzako lehen zikloa edo oinarrizko hezkuntzako bigarren zikloa	Maila honetan, guztiz menderatzen dituzte ikasleek oinarrizko gaitasunak. Ziklo honen amaierak bat egiten du legezko derrigorrezko hezkuntzaren amaierarekin.
3. maila- Bigarren Hezkuntzako bigarren zikloa	Derrigorrezko hezkuntza-sistema duten herrialdeetan eskolaldi osoko nahitaezko hezkuntzaren ondoren hasi ohi da. Hasteko ohiko adina 15 edo 16 urte dira
4. maila- Bigarren Hezkuntzaren ondoko hezkuntza, hirugarren mailakoa ez dena	Bigarren Hezkuntzako bigarren zikloa eta bigarren hezkuntzaren ondoko hezkuntza lotzen dituzten programak
5. maila- Hirugarren mailako hezkuntzako lehen zikloa	Maila honetan, hezkuntza-programa aurreratuagoak lantzen dira
6. maila- Hirugarren mailako hezkuntzako bigarren zikloa	Ikerketa aurreratuko kalifikazio bat edo ikerketa originalak dakartzaten hezkuntza-programak, ikastaroetan bakarrik oinarrituta ez daudenak

Iturria: Guk geuk egina, Eurostaten datuekin


Europar oso desberdintasun handiak daude biztanleria orokorrak (25-64 urte) eta biztanleria heldu gazteak (25-34 urte) ikasketa-mailaren arabera duten banaketaren ehunekoei, ondoko grafikoetan ikus dezakezuen bezala.

59. grafikoa: 25 eta 64 urte arteko biztanleen banaketaren ehunekoa, prestakuntza-mailaren arabera, Europar Batasuneko herrialdeetan. 2015



Iturria: Guk geuk egina, Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioaren datuekin

60. grafikoa: 25 eta 34 urte arteko biztanleen banaketaren ehunekoa, prestakuntza-mailaren arabera, Europar Batasuneko herrialdeetan. 2015



Iturria: Guk geuk egina, Eurostaten datuekin

Ikasketa-mailaren araberako konparazioa egitean nabarmendu beharreko elementuen artean, ezarritako talde bakoitzak dituen balioak dauzkagu. Europar Batasuneko batez bestekoan, erdiko mailak (ISNI 3 eta 4) lortu dituztenek osatutako taldea da nagusi, alderantzikatutako V baten forman. Espainian, berriz, banaketak V itxura du, ehunekorik txikiena duen taldea hain zuzen ere tartekoa delako. Europar Batasunean, % 50era iristen da ia; Espainian, doi-doi heltzen da % 25era. Nafarroan, are nabarmenagoa da banaketa hori, mailak % 34,8 (ISNI 1 eta 2), % 22,9 (ISNI 3 eta 4) eta % 42,3 (ISNI 5 eta 6) baitira.

Datu horiek faktore garrantzitsua dira prestakuntza-mailak inguru sozioekonomikoaren beharretara egokitzeko. Izan ere, erdi-mailako titulatu gutxi egoteak baldintzatu egiten du prestakuntza enplegu-mailetara egokitzea, eta ehuneko handiak aritzen dira beren prestakuntza baino maila apalagoetako lanetan.

61. grafikoa: Europar Batasunean ISNI 3-4 mailan dagoen 25-64 urte arteko biztanleria. 2015




Iturria: Guk geuk egina, Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioaren datuekin

Espainiako 2015eko datuei erreparatuta, ikusiko dugu autonomia-erkidego batzuek batez bestekoaren gainera daudela, hirugarren mailako titulazio bat dutenen pertsonen kopuruari dagokionez. Honako hauek, zehazki: Aragoi, Asturias, Kantabria, Katalunia, Errioxa, Madril, Nafarroa eta Euskadi.

Beste muturrean berriz, autonomia-erkidego batzuetan Espainiako batez bestekoaren gainera dago Bigarren Hezkuntzako lehen mailatik beherako ikasketa-maila duten 25-64 urteko biztanleen ehunekoa; erkidego hauetan, hain zuzen: Ceuta, Melilla, Andaluzia, Balear Uharteak, Kanariak, Gaztela-Mantxa, Valentzia, Extremadura eta Murtzia.

62. grafikoa: Biztanleria helduaren (25 eta 64 urte artean) prestakuntza-maila, autonomia-erkidegoaren arabera. 2015



Iturria: Guk geuk egina, Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioaren datuekin

Goi-mailako ikasketak dituzten 25-64 urte arteko biztanleei dagokienez, maila altuan da Nafarroa, % 42,3rekin. Espainiako egoera orokorra baino hobea du, beraz, Espainiako batez bestekoa % 35,1 baita. Maila baxuenei dagokionez ere (ISNI 1 eta 2), Foru Komunitateko datuak (% 34,8 eta % 22,9, hurrenez hurren), Espainiako batez bestekoaren azpitik daude (% 42,6 eta % 22,4), 25 eta 64 urte artekoen artean.

Gizonen eta emakumeen prestakuntza-mailari erreparatzean, kroniko bihurtzen ari den hezkuntza-diferentziaren arazoaz ohartuko gara. Estatuan, emakumeen prestakuntza-maila gizonena baino dezente altuagoa izan da 2015ean. Diferentzia hori autonomia erkidego guztietan ikusten da, indar handiagoarekin edo txikiagoarekin, bai goi mailako hezkuntzaren kategorian, bai Bigarren Hezkuntzako 2. etaparen azpiko prestakuntza dutenen artean.


42. taula: Biztanleria helduaren prestakuntza-maila, autonomia-erkidegoaren eta sexuaren arabera. 2015

	Gizonak			Emakumeak		
	Bigarren Hezkuntzako bigarren etapatik beherakoak	Bigarren Hezkuntzako bigarren etapa.	Goi-mailako ikasketak	Bigarren Hezkuntzako bigarren etapatik beherakoak	Bigarren Hezkuntzako bigarren etapa	Goi-mailako ikasketak
GUZTIRA	44,7	22,7	32,7	40,4	22,0	37,5
Andaluzia	53,7	20,0	26,3	49,2	20,5	30,3
Aragoi	40,9	26,1	33,0	37,0	24,8	38,2
Asturias	39,5	23,3	37,2	34,0	23,9	42,0
Balear Uharteak	48,8	27,3	23,9	41,9	27,4	30,7
Kanariak	52,1	23,6	24,3	46,6	24,6	28,9
Kantabria	40,0	24,0	36,0	35,3	24,6	40,1
Gaztela eta Leon	46,1	23,3	30,6	38,8	22,2	39,0
Gaztela-Mantxa	53,0	21,2	25,7	47,7	22,9	29,4
Katalunia	43,2	22,4	34,4	39,3	20,1	40,6
Ceuta eta Melilla	48,9	21,9	29,3	54,4	18,9	26,7
Extremadura	60,1	16,2	23,7	52,7	17,8	29,4
Galizia	47,2	20,6	32,1	42,1	19,7	38,1
Errioxa	39,5	23,7	36,8	34,4	23,9	41,8
Madril	29,2	25,7	45,1	27,8	23,6	48,5
Murtzia	52,0	21,1	26,9	49,2	22,0	28,8
Nafarroa	36,1	23,4	40,5	33,4	22,5	44,2
Euskadi	30,3	23,0	46,8	29,8	21,4	48,8
Valentzia	45,8	24,0	30,2	41,6	23,5	34,8

Iturria: Guk geuk egina, Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioaren datuekin

Nafarroan, gizonen eta emakumeen arteko prestakuntza-mailaren banaketa zorrotzagoa da autonomia-erkidego guztien batez bestekoa baino; izan ere, emakumeen % 44,2k eta gizonen % 40,5ek daukate goi-mailako ikasketak. Denborak aurrera egin ahala, sendotzen ari da joera hori. Bestalde, bigarren mailako bigarren etapatik beherako ikasketak dituzten emakumeak % 33,4 dira. Gizonen artean, handiagoa da kopuru hori (% 36,1).


63. grafikoa: Biztanleria helduaren prestakuntza-maila Espainian eta Nafarroan, sexuaren arabera. 2015



Iturria: Guk geuk egina, Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioaren datuekin

Denboran izandako bilakaerak erakusten duenez, prestakuntza-mailek gora egin dute etengabe. Belaunaldi batetik bestera heziketa-maila handiagoetara jo den baloratzeko, Derrigorrezkoaren ondoko Bigarren Hezkuntzako maila (ISNI 3-6) gutxienez osatu duten helduen proportzioa konparatzen da bi adin-tarte hauetan: 25-34 urtekoak eta 25-64 urtekoak. Bilakaera positibo hori autonomia-erkidego guztietan gertatu da, Asturiasen, Ceutan eta Melillan izan ezik. Nafarroan, talderik gazteenak % 22,9tik % 26,1era arteko aurrerakuntza egin du. 52. grafikoa duzue konparazio horren emaitza, 2015eko datuekin.

64. grafikoa: ISNI 3-4 duen biztanleriaren ehunekoa, adin-taldearen arabera (25-34 urte eta 25-64 urte). 2015




Iturria: Guk geuk egina, Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioaren datuekin

la autonomia-erkidego guztietan, gero eta prestakuntza-maila handiagoa dute gazteek, eta horrek hobekuntza nabaria dakar guztizko zenbaketan. 25etik 34 urte bitarteko biztanleen %64,8k gutxienez erdi edo goi mailako ikasketak dituzte eta, aitzitik, 25etik 64 urte bitartekoan %55,4k. Inguruabar horrek adierazten du batez besteko prestakuntza-maila hobetu egin dela belaunaldi batetik bestera.

Gazteenek, beraz, prestakuntza-maila altuagoa izan ohi dute, eta Nafarroan ere bai. Horrela, % 64,2tik % 72,2ra pasatu gara, aztertutako adin-taldeetan. Zergatik den guztizko batez bestekoarekiko aldea txikiagoa? Bada, Nafarroako biztanleria orokorrak (25-64 urte-taldea) Espainiako prestakuntza-mailarik altuena duelako, Madrilekin eta Euskadirekin batera. Alabaina, nabarmendu behar da biztanleriaren hezkuntza-mailak oro har hobera egin duen arren, 25 eta 34 urte arteko biztanleen % 27,8k ez duela nahikoa hezkuntza-gaitasun gizarteratzean eta laneratzean erabateko autonomiaz aritzeko.

65. grafikoa: 25-64 eta 25-34 urteko biztanleria, hezkuntza-mailaren arabera. 2015



Iturria: Guk geuk egina, Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioaren eta Eurostaten datuekin

**2.4.2. Hezkuntzaren interesa alor instituzionalean**

Atal honetan bildu dugun informazioa Nafarroako bizitza politiko eta sozialeko bi erakunde garrantzitsuk hezkuntzaren alorrean egin dituzten jardueri buruzkoa da: Nafarroako Parlamentuak eta Arartekoak, alegia. Gainera, ale gehien saltzen dituzten bi egunkariek (*Diario de Navarra* eta *Diario de Noticias*) hezkuntzari buruz argitaratu dituzten albisteak ere aipatuko ditugu. Hezkuntzaren testuinguru diren beste adierazle sozial batzuk ere islatzea da asmoa.

- **Nafarroako Parlamentua**

Epigrafe honetan, erakunde horrek unibertsitatekoa ez den hezkuntzari buruz egin dituen jarduera guztiak bildu ditugu. Eskaintzen ditugun datuak Nafarroako Parlamentuaren Jardueren Memoriatik atera ditugu, IX. legegaldiari dagokion 2015eko maiatzaren 22tik 2016ko ekainaren 30era bitarteko epean.

Ikus 1. eranskina

- **Nafarroako Arartekoa**

Epigrafe honetan, erakunde horrek unibertsitatekoa ez den hezkuntzari buruz egin dituen jarduerak jaso ditugu. Eskaintzen ditugun datuak Nafarroako Arartekoaren Jardueren Memoriatik atera ditugu, IX. legealdiari dagokion 2015eko maiatzaren 22tik 2016ko ekainaren 30era bitartekoepean.

Ikus 2. eranskina

#### **2.4.3. Hezkuntzaren interesa alor sozialean**

- **Komunikabideak**

Ikus 3. eranskina

- **Baliabide profesionalak**

Ikus 4. eranskina

### 3.- HEZKUNTZAKO BALIABIDE MATERIALAK ETA LANGILEAK

Pertsonak eta baliabide materialak funtsezko osagaiak dira hezkuntza-sistemak dituen ekarpenei dagokienez; izan ere, bere funtzionamenduaren euskarria dira, eta eragin erabakigarria dute emaitzetan.

Kapitulu honetan Nafarroako hezkuntza sistemak dituen baliabide nabarmenenak deskribatzen dira. Horien artean daude hezkuntza administrazioaren egiturarekin, egindako inbertsioarekin, azpiegiturekin eta zerbitzuekin loturikoak, eta baita sistemaren funtzionamendurako lanean ari diren pertsonekin loturikoak.

#### 3.1. Hezkuntzaren finantzaketa publikoa

Epigrafe honek aztertutako epean unibertsitate kanpoko Nafarroako hezkuntza sisteman inbertitutako baliabide ekonomikoen gaineko informazioa biltzen du. Taula bakoitzaren oinean adierazitako salbuespen-kasuetan salbu, oro har Hezkuntza Departamentua izan da informazio-iturria, Nafarroako Parlamentuak onartutako Nafarroako kontu orokorretan oinarrituta. Datuak, beraz, gauzatutako aurrekontuei dagozkie. Epigrafeak ez du ez tokiko administrazioen ez familien hezkuntza-gastua biltzen; gai esanguratsua da, egindako hezkuntza-gastu osoa ezagutu nahi baldin bada.

Nafarroako Parlamentuak onartutako kontuak dira oinarria; hori dela eta, zuhurtziaz hartu behar dira partiden arteko konparaketak. Beraz, aurrekontu-partidaren bat desagertzeak ez du esan nahi gastu hori beste partida batzuetan bilduta ez dagoenik, eta aipaturiko laukitxoan datu ekonomiko hori agertzen ez den urtean egiten ari denik.

3.1.1. atalean aurrekontua osatzen duten kapituluetako kontzepturik esanguratsuenen bilakaera aurkeztzen du. Zenbateko ekonomikoak eguneko milaka eurotan adierazi dira. Zifren azken zenbakia gorantz biribildu da aurrekoa bostetik gorakoa bazen.

3.1.2. atalean, alderdi estatistiko nagusien bilakaera agertzen da.

Azkenik, 3.1.3. atalak Nafarroako hezkuntza-gastuaren berri ematen du, ELGEko herrialdeen, Espainiaren eta beste autonomia-erkidego batzuen aldean.

Nabarmendu behar da zenbait epigrafetan 1991n –Nafarroan hezkuntza-kompetentzia osoak baliatu ziren lehen urtean–, 2000n edo 2005ean exekutututako aurrekontuaren zenbait datu tartekatu direla, datu-serie zabalagoak izateko.

#### 3.1.1. Hezkuntza Departamentuaren aurrekontua

Hezkuntza Departamentuaren aurrekontuak hainbat kapitulari esleitutako gastu-kontzeptuak biltzen ditu. I. kapitularia langileen gastuari dagokio; II.a administrazioaren funtzionamendu arruntari; IV.a gastu arruntetarako hirugarren pertsonen eginiko transferentziei; VI.a administrazioaren inbertsioei; VII.a inbertsio-gastuetarako hirugarren pertsonen eginiko transferentziei.

2009ra arte, hezkuntzara bideratutako aurrekontua igotzeko joera egon zen (591.459 mila euro); alabaina, urte horretatik aurrera, behera egin zuen, 2011-2012ko gutxieneko erlatiboetara arte (495.967 mila euro). 2015ean, pixka bat gora egin zuen (526.091 mila euro), baina 2009an egindako gastutik urruti zegoen, hala ere.



Horren guztiaren zergatia aurrekontu-murrizketa izan da, Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enpleguko Kontseilaritzaren urriaren 18ko 701/2012 Foru Aginduko jarraibideekin bat –2/2013 Foru Aginduaren bidez luzatu zen–.


**43. taula: Hezkuntzako gastuaren aurrekontu gauzatuen bilakaera, Hezkuntza Departamentuaren unibertsitatez kanpoko ikasketetan (milaka eurotan)**

Kapitulua	I	II	IV	VI	VII	Guztira	Guztira, Gobernua	Hez./Gov. %
2001	206.893	23.689	85.285	16.275	3.141	335.283	2.368.068	14,2
2002	219.550	25.293	92.543	13.490	5.895	356.771	2.565.790	13,9
2003	235.926	26.140	98.705	14.000	5.874	380.645	2.688.511	14,2
2004	253.860	29.076	101.748	14.499	2.899	402.082	2.808.133	14,3
2005	269.826	30.680	108.816	12.687	2.588	424.597	3.148.222	13,5
2006	285.614	32.555	115.703	12.997	8.133	455.001	3.699.800	12,3
2007	301.470	36.266	127.079	15.251	13.571	493.638	4.294.301	11,5
2008	340.487	38.513	140.400	13.560	16.663	549.624	4.402.455	12,5
2009	366.825	38.759	142.456	18.469	24.950	591.459	4.372.680	13,5
2010	364.439	36.993	136.571	28.031	9.489	570.671	4.301.249	13,8
2011	359.587	33.012	134.322	7.674	2.095	495.967	3.968.892	14,4
- 66/2016 FORU AGINDUA, ekainaren 6koa, Hezkuntzako kontseilariak emana. Honen bidez arautzen dira Oinarrizko Lanbide Heziketaren antolaketa eta garapena Nafarroako Foru Komunitatean.
- 65/2016 FORU AGINDUA, ekainaren 6koa, Hezkuntzako kontseilariak emana. Honen bidez arautzen dira Nafarroako Foru Komunitatearen eremuko lanbide-heziketako prestakuntza-programak, hezkuntza-premia berriazkoak dituzten ikasleentzat, hain zuzen ere uztailaren 29ko 1147/2011 Errege Dekretuaren V. kapituluaren aipatuak, baita otsailaren 28ko 127/2014 Errege Dekretuaren laugarren xedapen gehigarrian aipatuak ere.
- 76/2016 FORU AGINDUA, ekainaren 27koa, Hezkuntzako kontseilariak emana, Lanbide Heziketako titulu ofizialak lortzeko proben deialdiak egiteko baldintza orokorrak ezartzen dituena.
- 82/2016 FORU AGINDUA, uztailaren 5koa, Hezkuntzako kontseilariak emana, indarrak gabe uzten dituena martxoaren 4ko 37/2010, ekainaren 18ko 103/2010, abuztuaren 31ko 146/2010 eta irailaren 22ko 88/2014 foru-aginduak, horiek guztiak Hezkuntzako kontseilariarenak.

#### Estatuko Aldizkari Ofiziala

- 1058/2015 Errege Dekretua, azaroaren 20koa, zeinaren bidez arautzen baitira Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoan ezarritako Lehen Hezkuntzako azken ebaluaziorako proben ezaugarri orokorrak.
- Ebazpena, 2016ko martxoaren 30koa, Hezkuntza, Lanbide Heziketa eta Unibertsitateko Estatu Idazkaritzarena; horren bidez, definitu egiten dira Lehen Hezkuntzako amaierako ebaluaziorako testuinguruko galdetegiak eta ikastetxeko adierazle komunak.
- 310/2016 Errege Dekretua, uztailaren 29koa, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko amaierako azterketak arautzen dituena.

#### **4.2.1. Haur Hezkuntzako Lehen Zikloa**

Haur Hezkuntzako lehen zikloa borondatezkoa da eta haren helburua da 16 astetik 3 urte bitarteko haurren afektu-, mugimendu- eta ezagutza-gaitasunen eta komunikazioaren eta hizkuntzaren garapen orekatua lortzen laguntzea.

Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoak Haur Hezkuntzaren izaera borondatezkoa dela nabarmentzen du, eta bi ziklotan antolatutako etapa bezala deskribatzen du. Hezkuntza-asmoa dute horiek, ez nahitaez eskola-asmoa, eta lehen ziklotik proposamen pedagogiko zehatz bat izatera behartzen ditu ikastetxeak.

Lege horrek, 15. artikuluan, administrazio publikoak premiatzen ditu poliki-poliki lehen zikloko ikaspostuen eskaintza handitzera, administrazioen artean koordinatzera, eta ezartzera zein baldintzatan egin daitezkeen hitzarmenak toki entitateekin, beste administrazioekin eta irabazi asmorik gabeko entitate pribatuekin. Halaber, hezkuntza administrazioek Haur Hezkuntzako lehen zikloko hezkuntza edukiak zehaztu behar dituzte eta ziklo hori ematen duten ikastetxeek bete beharreko baldintzak arautu, irakasleko ikasle kopuruari, instalazioei eta ikaspostu kopuruari dagokienez.

Nafarroan, martxoaren 26ko 28/2007 Foru Dekretuak arautzen du Haur Hezkuntzako lehen zikloa, eta hori eskaintzen duten ikastetxeek bete beharreko baldintzak zehazten ditu, bai eta ziklo horren hezkuntzako edukiak ere.

Foru Dekretu horrekin eta horren ondorengo aldaketekin, Nafarroako Gobernuak zera lortu nahi du: Haur Hezkuntzako lehen zikloko ikastetxeak kalitateko hezkuntza-zentroak izatea, hiru urtetik beherakoei, familiekin lankidetzan arituz, beren izaera eta gaitasun guztiak garatzeko prozesu ezin hobe bat eskaini diezaieten, ongizatea eta segurtasuna bermatzen dituen inguru batean.

Horrekin batera, Nafarroako Gobernuaren nahia da ikastetxeak Foru Komunitateko aniztasun geografiko eta kulturalari egokitutako zerbitzua izatea, antolaketa malgua izanen duena, familiei erantzuteko gai izanen dena, familiako eta laneko eginbeharrak bateratzeko erraztasunak emanez.

Aipatutako foru dekretu horrek, hezkuntza edukiez gainera, ezartzen du zein izanen diren Haur Hezkuntzako zikloa emanen duten ikastetxeek bete beharreko baldintzak ikasle-irakasle ratioari, instalazioei eta ikaspostu kopuruari dagokienez. Gainera, haur eskola publikoak sortzeko prozedura ezartzen da, eta Haur Hezkuntzako ikastetxe pribatuak baimentzeko prozedura.

### **4.2.2. Haur Hezkuntzako bigarren zikloa eta Lehen Hezkuntza**

Haur Hezkuntzako bigarren zikloaren xedea da haurren garapen fisikoan, afektiboan, sozialean eta intelektualean laguntzea. Ziklo horretan, hauek landuko dira era mailakatuan: garapen afektiboa, mugimendua eta gorputza kontrolatzeko ohiturak, komunikatzeko adierazpenak eta mintzamena, bizikidetzako eta gizarte-harremanetako oinarrizko jarraibideak eta ingurunearen ezaugarri fisikoak eta sozialak aurkitzea. Gainera, haurrei beren buruaren irudi positibo eta orekatua sortzen eta beren adinarentzako egokia den norberaren autonomia-maila lortzen lagunduko zaie.

Lehen Hezkuntzaren helburua, bestalde, ikasleei honako hauek irakastea da: ahozko adierazpena eta ulermena, irakurketa, idazketa, kalkulua, kulturaren oinarrizko ideiak, elkarrekin bizitzeko ohitura, ikasten eta lan egiten, zentzu artistikoa, eta sormena eta afektibitatea. Horren guztiaren helburua ikasleen nortasuna garatzen lagunduko duen prestakuntza integrala bermatzea eta haiek Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzari etekina ateratzeko moduan prestatzea da. Etapa honetan, hezkuntza-jardueraren bidez ikasleen esperientziak eta ikaskuntzak bateratzeko ahalegina eginen da, eta hezkuntza-jarduera hori ikasleen lan-eritmoetara egokituko da.



#### **4.2.3. DBH**

##### **Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza (DBH)**

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren xedea da ikasleek kulturaren oinarriko elementuak eskuratzea, batez ere haien alderdi humanistiko, artistiko, zientifiko eta teknologikoak; ikasteko eta lan egiteko ohiturak garatzea eta sendotzea; ondoko ikasketak egiteko eta lan munduan sartzeko prestatzea; eta herritar bezala dituen eskubideak eta betebeharrak gauzatzeko prestatzea.

#### **4.2.4. Batxilergoa**

Batxilergoaren helburua ikasleei prestakuntza, heldutasun intelektuala eta gizatiarra, ezagutzak eta gaitasunak ematea da, gizarte-funtzioak betetzeko gauza izan daitezen eta bizitza aktiboari arduraz eta gaitasun egokiekin ekiteko gai izan daitezen. Era berean, ikasleak goi mailako ikasketetan sartzeko gaituko ditu.

#### **4.2.5. Lanbide Heziketa**

Kualifikazioei buruzko ekainaren 19ko 5/2002 Lege Organikoak ezarritako lege-esparruan, Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoak, hezkuntzaren kalitatea hobetzeko abenduaren 9ko 8/2013 Lege Organikoak ematen dion idazkeran, Lanbide Heziketaren eredia etengabe aldatzen eta egokitzen ari dela adierazten du. Nafarroan, gure inguruko beste eskualdeetan bezalaxe, aldaketa estrategikoak txertatzen ari gara. Horrela, lanerako prestakuntza eta kualifikazioak ekoizpen- eta zerbitzu-sektoreen eskarien aldaketetara egokitzen dira, bai eta horren ondorioz langileen kualifikazio-beharrek izaten dituzten aldaketetara ere, eta Lanbide Heziketako irakasgaiekin lotutako prestakuntzaren goranzko eskariari ere.

Ildo horretan, Hezkuntza Departamentuko Lanbide Heziketaren Zerbitzuak badaki herritarren lanbide-kualifikazioak garrantzi estrategikoa duela gure erkidegoko garapen ekonomikorako, eta horrek Lanbide Heziketako Sistema egokitu eta ezartzea eskatzen du, erronka berriei erantzun ahal izateko.

Nafarroako Lanbide Heziketako irakaskuntzaren garapena hainbat ekintzaren bidez egiten da: ikasketa horiek hedatzeko eta horien kalitatea hobetzeko, kualifikazioen sistema garatzeko edo lanbide-heziketako ikastetxe bateratuen sarea ezartzeko ekintzak; gaitasun profesionalak ebaluatu eta egiaztatzeko prozesuarekin lotutako ekintzak; Lanbide Heziketako ikasketak malguago egiteko neurriak, bizi guztiko prestakuntza hobetzeko asmoz; eta aniztasunarekiko hezkuntza-arretaren garapena lanbide-heziketan.

Gaitasun profesionalak ebaluatu eta egiaztatzeko prozedurari dagokionez, nabarmendu behar da lehen aldiz antolatu duela enpresa batek gaitasun profesionalak ebaluatu eta egiaztatzeko prozedura bat, 66/2014 Foru Dekretuan aurreikusitakoaren arabera (66/2014 FORU DEKRETUA, abuztuaren 27koa, pertsonen lan-esperientzian edo prestakuntza bide ez-formaletan lortutako lanbide-gaitasunak ebaluatzeko eta egiaztatzeko prozedura Nafarroako Foru Komunitatean ezartzeko arauak eta horretaz arduratuko den antolaketa egitura finkatzen dituena). Izan ere, arau horrek aukera ematen die administrazio publikoaren parte ez diren erakunde eta kolektiboei gaitasun profesionalak ebaluatu eta egiaztatzeko deialdiak egiteko.

Bizitza osoko prestakuntza hobetzen duten neurri malgutzailak garatzeari dagokionez, Lanbide Heziketako tituluak lortzeko aukera ematen duten proba libre modularren eskaintza zabaldu egin da. Nafarroan dagoeneko martxan dauden beste biei gaineratzen zaie hau: lanean ari diren langileei zuzendutako Lanbide Heziketaren eskaintza eta urrutiko Lanbide Heziketaren eskaintza (online).

Aniztasunarekiko hezkuntza-arreta oinarriko Lanbide Heziketako lehen promozioan islatu da 2015-2016 ikasturtean. Tituludunek erdi-mailako heziketa-zikloa egiteko aukera izan dute.

Ikasturte honetako aldaketa esanguratsu bat izan da ikasleak Lanbide Heziketako zikloetan onartzeari dagokiona. Hari esker, sartzeko talde eta azpitalde bakoitzarentzat, sarrera-nota izan da postua lortzeko irizpidea. Horri esker datu esanguratsu batzuk lortuko dira, «mugako nota» delakoa. Hori datu orientagarria da ikasketa horietan matrikulatu nahi duten ikasleentzat.

Azkenik, 2015-2016 ikasturtean Hezkuntza Departamentuak Lanbide Heziketako ikasketetarako ezarri dituen gainerako ildo estrategikoak garatzen jarraitu dugu: berrikuntza teknologikoa eta didaktikoa, nazioartekotzea eta ekintzailtza, besteak beste. Gainera, Nafarroako Gobernuaren beste plan estrategikoei ere ekarpena egin zaie.

127. taula: Lanbide Heziketako ikastetxe bateratuetako ikasleak. 2015-2016

Ikastetxe bateratua	Ikasleak
«ETI» IBP	1.031
«Donapea» IBP	779
«María Ana Sanz» Administrazio, Merkataritzako eta Informatikako IB	794
«Virgen del Camino» IBP	580
«Burlata LH» IB	586
«Nafarroako Lanbide Eskola Tekniko Sanitarioa» IB	619
«Tafalla» IBP	454
«Escuela de Educadores – Hezitzaile Eskola» IB	442
Lizarrako Politeknikoa IB	467
«Agroforestal» IB	326
«San Juan – Donibane» IB	355
«FP Sakana LH» IBP	120
Energia Berriztagarrien IB	143
«Politécnico Salesianos» IB pribatua	625
«Cuatrovientos» IB pribatua	496
Guztira	7.287

Iturria: Lanbide Heziketaren Plangintza, Antolamendu eta Garapenerako Atala

Eskainitako titulazioak eta heziketa-zikloak eta horiek azken urteetan izan duten bilakaera ondoko taulan jasota dago.

128. taula: Eskainitako teknikari- eta goi-mailako teknikari-tituluak. 2008-2016

Ikasturtea	Erdi maila (Teknikari titulua)	Goi maila (Goi mailako teknikari titulua)	Guztira
2008-2009	31	46	77
2009-2010	32	46	78
2010-2011	34	48	82
2011-2012	32	47	79
2012-2013	32	48	80
2013-2014	34	51	85
2014-2015	37	51	88
2015-2016	38	52	90

Iturria: Lanbide Heziketaren Plangintza, Antolamendu eta Garapenerako Atala

#### **4.2.6 Arte eta Musika Ikasketak**

Arte-ikasketen helburua da ikasleei kalitatezko prestakuntza artistikoa ematea eta musikaren, dantzaren, arte plastikoaren eta diseinuaren etorkizuneko profesionalen kualifikazioa bermatzea.

Lehen Hezkuntzan eta Bigarren Hezkuntzan, Arte Ikasketetarako eta Musikaren Hiria Kudeatzeko Atala arduratzen da musika hezkuntzaren garapena sustatzeaz araubide orokorreko irakaskuntzako etapetan eta, era berean, Arte ikasketei dagozkien berrikuntza programak eta hezkuntza-esperimentazioko proiektuak planifikatzeaz, sustatzeaz, koordinatzeaz eta horien jarraipena egiteaz.

Musika-ikasketak hiru etapatan antolatzen dira:

- Hezkuntza ez-arautuak. Nafarroan, hastapeneko prestakuntza berariazko musika-eskoletan ematen da. Horiek Erkidego guztian zehar barreiatuta daude, eta gehienentz titulartasuna udalena da.
- Musika-ikasketa profesionalak. Kontserbatorio profesionaletan egiten dira. Sei ikasturteko iraupena dute, eta irakasgaiak espezialitateko instrumentuaren arabera dira.
- Goi mailako musika ikasketak. Lau ikasturtetan antolatzen dira, eta bakoitzak 60 ECTS kreditu ditu. Amaitzerakoan musikako goi-mailako titulua lortzen dute ikasleek, dagokien espezialitatean. Graduaren baliokidea da titulu hori.

Dantzaren sustapena dantza-eskoletan emandako ikasketen bidez egiten da. Horien iraupena ez dago finkatua, eta eskola bakoitzak berea ezartzen du bere plan pedagogikoan. Ez dago adin mugarik ikasketa hauek egiteko eta ez daude bideratuak balio akademiko eta profesionaleko tituluak erdiestera.

Arte plastikoari eta diseinuari buruzko arte-ikasketak hainbat mailatan antolatuta daude:

- Erdi-mailako gradua. Lanbide jakin baterako prestakuntza eskaintzen duten ikasketak dira. Ikasketa hauek amaitutakoan, teknikari-titulua lortzen da.
- Goi-mailako gradua. 3. mailako kualifikazioa duten profesionalak prestatzen dituzte ikasketa horiek. Bukatzean, goi mailako teknikari titulua lortzen da.
- Diseinuko goi-mailako ikasketak. Lau ikasturtetan antolatzen dira, eta bakoitzak 60 ECTS kreditu ditu. Bukatzean, Diseinuko goi mailako titulua lortzen da, dagokien espezialitatean.

#### **4.2.7. Helduen irakaskuntza**

Helduen irakaskuntzaren xedea da hemezortzi urte baino gehiago dituztenei beren garapen pertsonal eta profesionalerako ezagutzak eta gaitasunak lortu, eguneratu, osatu eta zabaltzeko aukera ematea.

Hezkuntza horrek honako helburu hauek ditu:

- Oinarrizko prestakuntza bat lortzea; ezagutzak, gaitasunak eta trebetasunak modu jarraituan zabaltzea eta berritzea; eta hezkuntza-sistemako gainerako irakaskuntzetarako sarbidea erraztea.
- Kualifikazio profesionala hobetzea edo beste lanbide batzuetan aritzeko prestakuntza lortzea.
- Gaitasun pertsonalak garatzea, espresioaren, komunikazioaren, pertsonen arteko harremanen eta ezagutzaren eraikuntzaren arloetan.

- Bizitza sozial, kultural, politiko eta ekonomikoan parte hartzeko gaitasuna garatzea eta herritartasun demokratikoaren eskubidea gauzatzea.
- Gizarte-bazterkeriaren arriskuak (sektorerik ahulenenak bereziki) zuzentzea.
- Zaharrenei beren gaitasunak gehitzeko eta eguneratzeko aukera ziurtatzea.
- Gatazka pertsonalak, familiakoak eta sozialak aurreikustea eta modu baketsuan konpontzea. Gizonen eta emakumeen arteko berdintasun eraginkorra sustatzea eta horien arteko desberdintasunak kritikoki aztertzea eta balioestea.

Atentzio berezia ematen zaie gizarteratzeko eta laneratzeko aukera berriak behar dituzten eta kualifikaziorik ez duten edo oso kualifikazio txikia duten kolektiboak, batik bat honako hauei:

- nahitaezko hezkuntzaren baliokideak diren oinarrizko gaitasunak ez dituzten helduei,
- laneratzeko eta gizarteratzeko lortzeko beren gaitasunak hobetu behar dituzten gizarte-egoera ahuleko taldeei, etorkinei eta desgaitasuna duten pertsonak,
- beren kualifikazio profesionalaren ziurtagiririk ez duten herritar aktiboak, edo hori hobetu nahi dutenei,
- nahitaezko eskolatzea DBHko titulua lortu gabe amaitzen duten gazteei edo ikasketak behar baino lehen utzi dituzten gazteei.

### **4.2.8. Kirol-ikasketak**

Araubide bereziko kirol-ikasketek kirol-sisteman lanbide-jarduera batean aritzeko prestakuntza ematen diete ikasleei, kirol-modalitate edo -espezialitate bati loturik, eta enplegurako sarbidea izateko gaitzen dituzte.

Bi mailako kirol-zikloetan antolatzen dira: Erdiko maila eta goi maila. Nafarroan ikasketa horiek arautzen dituen abenduaren 28ko 248/2011 Foru Dekretuan ezarritakoa betez, ikasketa horien plangintza eta eskaintza hezkuntza eta kirolaren eskumena duten Nafarroako Gobernuko Departamentuen eta Nafarroako kirol-federazioen arteko lankidetzan oinarritzen da. Bi aldagai nagusiren arabera antolatzen da ereduak, malgutasunaren eta eskaintzaren behin-behinekotasunaren arabera, hain zuzen, kirol-sektorearen beharrei erantzuna emateko xedearekin. Zentzu horretan, 2015-2016 ikasturtean honako kirol hauei dagozkien ikasketak eskaini dira:

- mendiko kirolak eta eskalada (erdi-mailako mendiak),
- neguko kirolak (iraupen-eskia),
- diziplina hipikoak eta futbola.

### **4.2.9. Hizkuntzak ikastea**

- **Euskara**

Nafarroako irakaskuntza ez-unibertsitarioan euskararen sartzeko eta erabiltzeko arautzen duen maiatzaren 19ko 159/1988 Foru Dekretuak, Euskarari buruzko Foru Legea garatuz, A, B eta D hizkuntza-ereduak definitzen ditu.

A hizkuntza-ereduan gaztelaniaz ematen da irakaskuntza eta euskara irakasgai bezala izaten da, maila, etapa eta modalitate guztietan. B hizkuntza-ereduan euskaraz ematen da irakaskuntza eta gaztelania irakasgai bezala eta irakaskuntza-hizkuntza bezala erabiltzen da irakasgai batean edo batzuetan, irakaskuntzaren, zikloaren edo etaparen arabera. D hizkuntza-

ereduan euskaraz ematen da irakaskuntza, gaztelaniako irakasgaia izan ezik. Aurrekoetz gain, hizkuntza eremuaren arabera, bada G izeneko beste eredu bat, non ez dagoen ez euskarazko ez euskararen irakaskuntzarik.

Aipatutako Foru Dekretuan A, B eta D ereduak onartzen dira eremu euskaldunean (euskara irakastea nahitaezkoa da, beraz); A, B, D eta G ereduak onartzen dira eremu mistoan eta A, G eta, 2015-2016 ikasturtetik aurrera, D ereduak onartzen dira eremu ez-euskaldunean.


Kontuan izanik txosten honen beste atal batzuetan euskarak Nafarroako hezkuntza-sisteman duen presentziaren berri ematen dela zehetasun handiagoarekin, 2015-2016 ikasturteko ereduari buruzko datuak aurkeztuko ditugu:

129. taula: A, B eta D euskara duten ereduaren eta euskararik gabeko G ereduaren eskolatzeko datuak. 2015-2016

	G ereduak		A ereduak		B ereduak		D ereduak		Ikasl., guztira**
	Ikasl.	%	Ikasl.	%	Ikasl.	%	Ikasl.	%	
Haur Hezkuntza	10.034	50,37	4.356	21,87	56	0,28	5.475	27,48	19.921
Lehen Hezkuntza	21.497	52,65	8.193	20,07	125	0,31	11.017	26,98	40.832
DBH	17.092	65,47	2.418	9,26	34	0,13	6.564	25,14	26.108
Batxilergoa	6.494	72,30	402	4,48			2.086	23,22	8.982
Heziketa-zikloak	7.797	97,41					207	2,59	8.004
Oinarrizko LH	819	100,00							819
Guztira	63.733	60,89	15.369	14,68	215	0,21	25.349	24,22	104.666

Iturria: Ikastetxeetako Informazioa Kudeatzeko Bulegoa

111. grafikoa: A, B eta D euskara duten ereduaren eta euskararik gabeko G ereduaren eskolatzeko datuak. 2015-2016



Iturria: Nafarroako Eskola Kontseiluak prestatua, Ikastetxeetako Informazioa Kudeatzeko Bulegoaren datuekin

• **Atzerriko hizkuntzak**

Atzerriko hizkuntzetan ikasteko programa eleaniztunetan indarreko curriculumak bi hizkuntzatan edo gehiagotan koordinaturik ematen da. Horien artean daude Haur eta Lehen Hezkuntzako ingelesez ikasteko programak (IIP), HKKMren eta British Councilen arteko hitzarmenari atxikiriko ikastetxeak barne, Bigarren Hezkuntzako ingeleseko eta frantseseko atal elebidunak eta, 2013-14 ikasturtetik aurrera, alemanez ikasteko programak (AIP) eta Batxilergoko titulazio bikoitzerako Bachibac programa.

Puntu hauek nabarmendu behar dira:

- IIP programetan ingelesez gutxienez curriculumeko %35 ematen da (10 saio) A/G ereduan.
- IIPko A ereduko ikasleek, gainera, euskara ere ematen dute.
- D ereduan % 18 (5 saio) izanen da Haur Hezkuntzan eta % 21 eta % 28 artean Lehen Hezkuntzan.
- IIPko D ereduko ikasleek, gainera, euskara ere ematen dute.

Bigarren Hezkuntzako ikasketa-programetan, MEC-BCn eta ingelesezko eta frantseseko atal elebidunetan, hizkuntzakoak ez diren hainbat irakasgai ingelesez edo frantsesez ematen dira. Ikasleak ikasketa mota hauetan sar daitezke DBHko 1. mailan, behar den hizkuntzan duten jakite-maila zein den gutxi gorabehera neurtu ondoren.

Frantseseko ataletan, atzerriko bigarren hizkuntza baita, programan Frantsesa irakasgaia sendotzen da DBHko 1. eta 2. mailetan, ordu gehiagorekin. DBHko 3. eta 4. mailetan irakasgai bat edo batzuk ematen dira frantsesez.

**130-1. taula: Haur, Lehen eta Bigarren Hezkuntzan programa eleanitzak ematen dituzten ikastetxeak**

Ikastetxea Lehen Hezkuntza	Programan ari diren ikasle kopurua			Zein mailalara arte ematen den
	Haur H.	LH	Guztira	
Elvira España IP (Tutera)	181	411	592	6. LH
Cardenal Ilundáin IP (Iruña)	265	459	724	6. LH
Azpilagaña IP (Iruña)	130	253	383	6. LH
Añorbe IP (Añorbe)	19	38	57	6. LH
Lorenzo Goikoa IP (Atarrabia)	153	324	477	5. LH
José M.ª de Huarte IP (Iruña)	76	159	235	6. LH
Catalina de Foix IP (Zizur Nagusia)	162	350	512	6. LH
Camino de Santiago IP (Zizur Nagusia)	159	282	441	6. LH
Doña Mayor de Navarra IP (Iruña)	203	410	613	6. LH
Hilarión Eslava IP (Burlata)	133	196	329	5. LH
Beriaingo IP	105	182	287	5. LH
San Miguel IP (Noain)	254	319	573	5. LH
Otero de Navascués IP (Cintruénigo)	293	510	803	5. LH
Remontival IP (Lizarra)	126	284	410	5. LH
Huertas Mayores IP (Tutera)	155	242	397	5. LH
Ermitagaña IP (Iruña)	130	189	319	5. LH
San Francisco Javier IP (Elizondo)	75	113	188	4. LH
Buztintxuri IP (Iruña)	354	328	682	4. LH
Sarrigurengo IP	619	412	1.031	4. LH

Rochapea IP (Iruña)	136	144	280	3. LH
Griseras IP (Tutera)	149	147	296	3. LH
Monte San Julián IP (Tutera)	134	119	253	2. LH
Mendillorri IP (Iruña)	122	106	128	2. LH
Iturrama IP (Iruña)	59	62	173	2. LH
Los Sauces-Sahats IP (Barañain)	66	68	134	2. LH
Luis Gil IP (Zangoza)	120	83	203	3. LH
San Juan IP (Irunberri)	10	28	38	4. LH
Mendialdea I IP (Berriozar)	164	121	285	2. LH
San Juan de la Cadena IP (Iruña)	151	42	193	1. LH
El Lago de Mendillorri IP (Iruña)	71	23	94	1. LH
Eulza IP (Barañain)	83	47	130	1. LH
Urraca Reina IP (Artaxoa)	29	20	49	1. LH
Félix Zapatero IP (Valtierra)	48	19	67	1. LH
Blanca de Navarra IP (Lerin)	30	14	44	1. LH
Virgen del Soto IP (Caparroso)	97	35	132	1. LH
Alfonso X El Sabio IP (San Adrián)	173	62	135	1. LH
Santa Bárbara IP (Elo)	17	16	33	3. LH
Juan de Palafox IP (Fitero)	50	28	78	1. LH
Cerro de la Cruz IP (Cortes)	84	28	112	1. LH
Nuestra Señora del Rosario IP (Sartaguda)	29	10	39	1. LH
San Babil IP (Ablitas)	68	0	68	5 urte
San Juan de Jerusalén IP (Cabanillas)	29	12	41	1. LH
Teresa Bertrán de Lis IP (Cadreira)	52	0	52	5 urte
Virgen de La Oliva IP (Zarrakaztelu)	67	0	67	5 urte
Santa Vicenta María IP (Cascante)	122	0	122	5 urte
Jose Luis Arrese IP (Corella)	203	0	203	5 urte
Doña Álvaro Álvarez IP (Faltzes)	60	0	60	5 urte
Ángel Martínez Baigorri IP (Lodosa)	62	0	62	5 urte
Santa María IP (Los Arcos)	33	10	43	1. LH
Nuestra Señora de los Dolores IP (Mendabia)	98	0	98	5 urte
San Pedro IP (Mutiloa)	125	0	125	5 urte
Obanosko IP	10	5	15	1. LH
Juan Bautista Irurzun IP (Azkoien)	186	0	186	5 urte
Garesko IP	124	0	124	5 urte
Virgen de las Nieves IP (Sesma)	23	0	23	5 urte
Marqués Real de la Defensa IP (Tafalla)	96	0	96	5 urte
Ricardo Campano IP (Viana)	106	0	106	5 urte
El Castellar IP (Alesbes)	96	0	96	5 urte
San Veremundo IP (Villatuerta)	31	0	31	5 urte
San Bartolomé IP (Martzilla)	82	0	82	5 urte
Virgen de la Cerca IP (Andosilla)	35	0	35	4 urte
Francisco Arbeloa IP (Azagra)	82	0	82	4 urte
Elías Teres IP (Funes)	74	0	74	5 urte
Santos Justo y Pastor IP (Fustiñana)	47	0	47	4 urte
Virgen Blanca IP (Uharte)	78	0	78	5 urte
Santa Ana IP (Mélida)	19	0	19	5 urte
Ntra. Sra. del Patrocinio IP (Milagro)	62	0	62	4 urte

Honorio Galilea IP (Monteagudo)	12	0	12	4 urte
Raimundo Lanas IP (Murillo el Fruto)	5	6	11	1. LH
Príncipe de Viana IP (Erriberri)	66	0	66	4 urte
Ximénez de Rada IP (Arrada)	20	0	20	5 urte
Ntra. Sra. de la Asunción IP (Santakara)	15	0	15	5 urte
Beireko IP	5	2	7	1. LH
Amor De Dios (Burlata)	35	0	35	4 urte
Calasanz Eskolapioak (Iruña)	108	0	108	4 urte
Compañía de María (Tutera)	197	0	197	4 urte
Esclavas Del Sagrado Corazón (Iruña)	81	0	81	4 urte
Hijas de Jesús (Iruña)	104	0	104	4 urte
Irabia-Izaga (Iruña)	257	0	257	4 urte
La Milagrosa (Lodosa)	48	0	48	4 urte
La Presentación (Atarrabia)	47	0	47	4 urte
Liceo Monjardín (Iruña)	224	0	224	4 urte
Luis Amigó (Mutiloa)	219	0	219	4 urte
Mater Dei (Aiegi)	91	0	91	4 urte
Miravalles-El Redín	319	0	319	4 urte
Regina Pacis (Burlata)	42	0	42	4 urte
San Cernin (Iruña)	215	0	215	4 urte
Sta. Catalina Labouré (Iruña)	40	0	40	4 urte
Sta María la Real - Maristas (Sarriguren)	219	0	219	4 urte
Vedruna (Iruña)	111	0	111	4 urte
Gutzira	9.964	6.399	16.363	

*Iturria: Ingelesaren eta Atzerriko Beste Hizkuntza Batzuen Atala*

**130-2. taula: Programa eleanitzak ematen dituzten Haur, Lehen eta Bigarren hezkuntzako ikastetxeak. 2015-2016**

Bigarren Hezkuntza, ingelesa		
Ikastetxea	Ikasle-kopurua	Ezarpen maila
Arantza IP	11	2. DBH
Reyno de Navarra DBHI (Azagra)	60	1. BATX
Barañain BHI	91	4. DBH
Toki Ona BHI (Bera)	152	1. BATX
Ibaialde BHI (Burlata)	57	1. BATX
Valle del Aragón DBHI (Zarrakaztelu)	16	2. DBH
La Paz DBHI (Cintruénigo)	39	3. DBH
Alhama BHI (Corella)	81	1. BATX
Bardenas Reales DBHI (Cortes)	50	1. BATX
Pablo Sarasate BHI (Lodosa)	81	1. BATX
M. de Villena BHI (Martzilla)	171	1. BATX
Elortzibar BHI (Noain)	44	3. DBH
Plaza de la Cruz BHI (Iruña)	188	1. BATX
Basoko BHI (Iruña)	64	4. DBH
Navarro-Villoslada BHI (Iruña)	214	1. BATX
Julio Caro Baroja BHI (Iruña)	89	1. BATX
Eunate BHI (Iruña)	139	1. BATX



Padre Moret-Irubide BHI (Iruña)	302	2. BATX
Ribera del Arga BHI (Azkoien)	104	1. BATX
Río Ega BHI (San Adrián)	100	1. BATX
Benjamín de Tudela BHI	266	1. BATX
Valle del Ebro BHI (Tutera)	195	2. BATX
Zizur BHI	250	1. BATX
San Francisco Javier Ikastetxea	185	3. DBH
Calasanz-Eskolapioak Ikastetxea	94	1. BATX
Miravalles-El Redín Ikastetxea	157	1. BATX
Vedruna Ikastetxea	24	1. BATX
Irabia-Izaga Ikastetxea	291	1. BATX
Nuestra Señora del Huerto Ikastetxea	341	1. BATX
Guztira	3.827	

Iturria: Ingelesaren eta Atzerriko Beste Hizkuntza Batzuen Atala

**130-3. taula: Programa eleanitzak ematen dituzten Haur, Lehen eta Bigarren hezkuntzako ikastetxeak. 2015-2016**

Bigarren Hezkuntza, frantsesa		
Arantza IP	11	1. BATX
Toki Ona BHI (Bera)	118	1. BATX
Alhama BHI (Corella)	39	1. BATX
Mendaur DBHI (Doneztebe)	80	1. BATX
Eunate BHI (Iruña)	69	1. BATX
Benjamín de Tudela BHI	53	2. BATX
Valle del Ebro BHI (Tutera)	116	1. BATX
Zizur BHI	106	1. BATX
Guztira	592	

Iturria: Ingelesaren eta Atzerriko Beste Hizkuntza Batzuen Atala

**Frantziarekin eskola-trukea egiteko programa**

Martxoaren 12ko 87/2015 ebazpenak arautzen du programa, eta 2013-2014 ikasturtean egin zen deialdia lehen aldiz, 2014-2015 ikasturtean parte hartzeko. Trukeak 4 hilabeteko iraupena du eta DBHko 3. mailan egiten da. Ikasle nafarrek 2 hilabete ematen dituzte Frantzian (iraila eta urria), eta ikasle frantsesek beste bi hilabete ematen dituzte Nafarroan (azaroa eta abendua).

**131. taula: Frantziarekin eskola-trukea egiteko programan parte hartzen duten ikasleen bilakaera. 2014-2015**

	2014-2015 (DBHko 3. mailako ikasleak)	2015-2016 (DBHko 3. mailako ikasleak)
Parte hartu duten ikasleak	47	51
Eskaerak guztira	85	82
Esleitutako gastua	Programak honek ez dio inolako gasturik eragiten Hezkuntza Departamentuari.	

Iturria: Hizkuntzen eta Arte Ikasketen Zerbitzua

**Frantzian ikasturte osoa egiteko programa akademikoa**

Programa hau otsailaren 23ko 36/2015 ebazpenak arautzen du. Parte-hartzearen bilakaera azpiko taulan laburbildu dugu:

132. taula: Frantzia ikasturte osoa egiteko programan parte hartzen duten ikasleen bilakaera. 2014-2016

	2014-2015 (DBHko 1. eta 4. mailen arteko ikasleak)	2015-2016 (DBHko 1. eta 4. mailen arteko ikasleak)
Parte hartu duten ikasleak	82	124
Eskaerak guztira	152	138
Esleitutako gastua	Programak honek ez dio inolako gasturik eragiten Hezkuntza Departamentuari.	

Iturria: Hizkuntzen eta Arte Ikasketen Zerbitzua

**Lehen Hezkuntzako 5. mailako ikasle-taldeentzako ingelesezko English Week murgiltze-programa, ikasturtean zehar**


Programa hau abenduaren 5eko 640/2014 ebazpenak arautzen du.

133. taula: Ikasle parte-hartzaileen guztizkoaren eta aurrekontu globalaren bilakaera. WEEK. 2008-2016

	2008-09 (Lehen Hezkuntzako 5.a eta 6.a)	2009-10 (Lehen Hezkuntzako 4.a eta 5.a)	2010-2011	2011-2012	2012-2013	2013-14 (Lehen Hezkuntzako 5.a eta 6.a)	2014-15 (Lehen Hezkuntzako 5.a)	2015-16 (Lehen Hezkuntzako 5.a)
Eskaerak guztira	2.100	2.300	2.697	2.425	2.772	2.557	2.350	3.645
Parte hartu duten ikasleak	1.300	1.450	2.175	1.950	2.025	2.557	2.350	2.500
Esleitutako gastua	217.500	216.000	337.125	272.991	272.991	272.000	244.770	297.400

Iturria: Hizkuntzen eta Arte Ikasketen Zerbitzua

112. grafikoa: Ikasle parte-hartzaileen eta aurrekontu globalaren bilakaera. WEEK. 2008-2016



Iturria: Guk geuk egina, Hizkuntzen eta Irakaskuntza Artistikoen Zerbitzuen datuekin

**Atzerriko hizkuntzetako elkarrizketako laguntzaileak ikastetxe publikoetan**

2015-2016 urtean ez da elkarrizketako laguntzaileentzako deialdirik egin.

**Borders Down nazioarteko boluntariotza-programa**

Programak honek ez dio inolako gasturik eragiten Hezkuntza Departamentuari. Nazioarteko unibertsitate-ikasle boluntarioek ordubeteko hitzaldiak ematen dizkiete, hainbat hizkuntzatan, DBH eta Batxilergoko ikasleei, hainbat ikastetxe publiko eta itundutan.

134. taula: Boluntario-kopuruaren bilakaera. 2013-2016

Eskaerak				
Hizkuntza	2012-2013	2013-2014	2014-2015	2015-2016
Alemana	4	1	2	3
Frantsesa	14	10	8	9
Ingelesa	27	21	19	13
Guztira	45	32	29	25
Zerbitzua jaso duten ikastetxeak				
Alemana	4	1	2	2
Frantsesa	0	6	4	4
Ingelesa	13	10	13	10
Guztira	17	17	19	16

Iturria: Hizkuntzen eta Arte Ikasketen Zerbitzua

**Atzerriko hizkuntzetako irakasleentzako udako laguntzak**

135. taula: Atzerriko hizkuntzetako irakasleentzako laguntzak. 2012-2016

Irakasleak	2012	2013	2014	2015	2016
Haur Hezkuntza	10		15	11	11
Lehen Hezkuntza	23		18	18	15
Bigarren Hezkuntza	28		22	10	11
Hizkuntza Eskola Ofizialak	3			1	3
Guztira	64		55	40	40

Iturria: Hizkuntzen eta Arte Ikasketen Zerbitzua

**Atzerriko hizkuntzen irakasleentzako CLIL metodologiaren udako ikastaroak.**

136. taula: Atzerriko hizkuntzetako irakasleentzako ikastaroak. 2012-2016

Irakasleak	2012	2013	2014	2015	2016
Haur Hezkuntza		14	9		9
Lehen Hezkuntza		16	10	12	15
Bigarren Hezkuntza		16	13	6	
Guztira	55	46	22	18	24

Iturria: Hizkuntzen eta Arte Ikasketen Zerbitzua

**4.2.10. Eskolako egutegia eta laneguna****Araudia**

Eskolako egutegiak eta ordutegiak onartzeko prozesua arau hauen arabera egiten da:

- 25/2016 ebazpena, otsailaren 15ekoa, Hezkuntzako zuzendari nagusiak emana, Haur Hezkuntzako lehen zikloa ematen duten ikastetxeek egutegia eta ordutegia prestatzeko jarraibideak onesten dituena, 2016-2017 ikasturterako.
- 176/2016 Ebazpena, maiatzaren 18koa, Hezkuntzako zuzendari nagusiarena, jarraibideak ematen dituena 2016-2017 ikasturteko eskola egutegia eta ordutegi orokorra prestatzeko, Nafarroako Foru Komunitateko Haur Hezkuntzako bigarren zikloan, Lehen Hezkuntzan, Hezkuntza Berezian, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan eta Batxilergoan ikasketa arautuak ematen dituzten ikastetxeetarako.
- 172/2016 Ebazpena, maiatzaren 16koa, Hezkuntzako zuzendari nagusiak emana, 2016-2017 ikasturteko eskola-egutegia prestatzeko jarraibideak onesten dituena, hain zuzen, Helduen Oinarrizko Hezkuntzako ikastetxe publikoetan eta ikasgeletan emanen diren irakaskuntzetarako eta ikastetxe publiko baimenduetan emanen diren Helduentzako Bigarren Hezkuntzako irakaskuntzetarako.
- 194/2016 Ebazpena, ekainaren 1ekoa, Hezkuntzako zuzendari nagusiak emana, 2016-2017 ikasturtean Nafarroako Foru Komunitateko Lanbide Heziketako ikasketak eta Arte Plastikoetako eta Diseinuko lanbide-ikasketak ematen dituzten ikastetxeei dagozkien eskola-egutegia eta ordutegi orokorra prestatzeko jarraibideak onesten dituena.
- 186/2016 Ebazpena, maiatzaren 23koa, Hezkuntzako zuzendari nagusiak emana, Nafarroako Foru Komunitatean musikako goi-mailako ikasketa artistikoak ematen dituzten ikastetxeen eskola-egutegia arautzen duena, Europako Goi Mailako Hezkuntzaren Esparrura egokitua, 2016-2017 ikasturterako.
- 187/2016 Ebazpena, maiatzaren 23koa, Hezkuntzako zuzendari nagusiak emana, 2016-2017 ikasturtean Nafarroako Foru Komunitateko musikako lanbide-ikasketek eta dantzako ikasketa ez-arautuek izanen duten eskola -gutegia prestatzeko jarraibideak onesten dituena.
- 174/2016 Ebazpena, maiatzaren 18koa, Hezkuntzako zuzendari nagusiak emana, 2016-2017 ikasturtean Iruñeko eta Tuterako hizkuntza-eskola ofizialetan eta Nafarroako Urrutiko Hizkuntza Eskola Ofizialean emanen diren hizkuntza-ikasketek dagozkien eskola-egutegia prestatzeko jarraibideak onesten dituena.
- 188/2016 Ebazpena, maiatzaren 23koa, Hezkuntzako zuzendari nagusiak emana. Honen bidez «Creanavarra» diseinuko goi-mailako ikastetxe pribatu baimenduaren eskola-egutegia arautzen da, 2016-2017 ikasturterako, Europako Goi Mailako Hezkuntzaren Esparruari egokituta.
- 185/2016 Ebazpena, maiatzaren 23koa, Hezkuntzako zuzendari nagusiak emana, Nafarroako Foru Komunitatean diseinuko goi-mailako ikasketa artistikoak ematen dituzten ikastetxe publikoen eskola-egutegia arautzen duena, Europako Goi Mailako Hezkuntzaren Esparrura egokitua, 2016-2017 ikasturterako.
- 227/2016 Ebazpena, ekainaren 15ekoa, Hezkuntzako zuzendari nagusiak emana, 2015-2016 ikasturtean eskolaldi etengabea edo malgua baimenduta zuten ikastetxeei baimena luzatzen diena 2016-2017 ikasturterako.
- 268/2015 Foru Agindua, abenduaren 23koa, Lehendakarietzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako kontseilariak emana, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen zerbitzuko langileen 2016ko lan-egutegia onesten duena.
- 210/2015 Ebazpena, maiatzaren 15ekoa, Arriskuen Prebentziorako eta Lanaren zuzendari nagusiak emana. Honen bidez, Nafarroako Foru Komunitatearen esparruan ordaindu bai baina erreperatu behar ez diren 2016ko jaiegunen egutegi ofiziala ezartzen da.

- 486/2015 Ebazpena, azaroaren 25ekoa, Politika Ekonomiko eta Enpresarialaren eta Lanaren zuzendari nagusiak emana, Nafarroako Foru Komunitateko herrietako 2016ko jaiegun ordainduak, errekuperatu behar ez direnak, ezartzen dituena.

Dagokion herriko jaiak irailean ospatzen badira, onartu ahal izanen da Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxeetan klaseak egun bat edo bi lehenago hastea eta egun bat edo bi beranduago amaitzea; Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxeekin bateratuta funtzionatzen duten Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetan egun bat edo bi lehenago hasi ahal izanen dira klaseak eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako gainerako zentroetan egun bat lehenago hasi ahal izanen dira.

### **Emaitzak**

Eskola-egutegiak egiteko ebazpenaren arabera, Haur eta Lehen Hezkuntzan eskolak irailaren 7an edo beranduago hasiko dira, eta, Bigarren Hezkuntzan, irailaren 9an edo beranduago. EDUCAn jasotako informaziotik intereseko informazio batzuk atera ditzakegu.

- Eskolen hasiera Haur eta Lehen Hezkuntzan:
  - 21 ikastetxetan irailaren 7a baino lehen, herriko jaiak irailean dituztelako.
  - 171 ikastetxetan irailaren 7an.
  - 33 ikastetxetan irailaren 7aren ondoren.
- Haur eta Lehen Hezkuntzako 11 ikastetxek ekainaren 20aren ondoren amaitzen dituzte eskolak, herriko jaiak irailean dituztelako.
- Eskolen hasiera Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan, Batxilergoan eta lanbide-heziketan:
  - 9 ikastetxetan irailaren 9a baino lehen, herriko jaiak irailean dituztelako.
  - 97 ikastetxetan irailaren 9an.
  - 18 ikastetxetan irailaren 9aren ondoren.
- Helduentzako hezkuntza ematen duten ikastetxeetan eskolak irailaren 21ean edo 22an hasten dira.
- Nafarroako goi-mailako musika-kontserbatorioan eta Pablo Sarasate musika-kontserbatorio profesionalean irailaren 21ean hasten dira eskolak, eta irailaren 20an dantza-eskolan.
- Hizkuntza-eskola ofizialetan urriaren 3an hasten dira eskolak, eta irailaren 28an urrutiko hizkuntza-eskola ofizialean.

### **Lanaldi jarraitua eta malgua**

Hezkuntza Departamentuak lau deialdi egin ditu orain arte, ikastetxeek behin-behinean eskolaldi etengabea probatu dezaten. Hauexek izan dira deialdi horiek:

- 550/2007 Ebazpena, ekainaren 1ekoa, Eskola eta Lanbide Irakaskuntzaren zuzendari nagusiak emana, eskolaldi malgua Nafarroako Foru Komunitateko Haur eta Lehen Hezkuntzako lau ikastetxe publikotan modu esperimentalean ezartzeko prozedura arautzen duena, 2007-2008 ikasturterako.

Deialdi hori 9/2007 Ebazpenaren bidez onetsi zen (9/2007 ebazpena, irailaren 17koa, Antolamenduaren, Kalitatearen eta Berrikuntzaren zuzendari nagusiak emana, 2007-2008 ikasturtean zenbait ikastetxetan eskolaldia aldatzeko proiektua onesten duena).

Ikastetxe hauetan onartu zen ordutegi-aldaketa:

- Virgen de la Cabeza HLHIP, Tuteran
  - Urrotz-Hiria HLHIP
  - Ricardo Campano HLHIP, Vianan
  - Príncipe de Viana HLHIP, Erriberrin
- 280/2008 Ebazpena, ekainaren 16koa, Antolamenduaren, Kalitatearen eta Berrikuntzaren zuzendari nagusiak emana, Nafarroako Foru Komunitateko ikastetxe publikoetako eskolaldia 2008-2009 ikasturterako modu esperimentalean ezartzeko prozedura arautzen duena.

Deialdi hori 337/2008 Ebazpenaren bidez onetsi zen (337/2008 Ebazpena, Antolamenduaren, Kalitatearen eta Berrikuntzaren zuzendari nagusiak emana, 2008-2009 ikasturtean, Nafarroako Foru Komunitateko ikastetxeetan, eskolaldia modu esperimentalean aldatzea baimentzen duena).

Ikastetxe hauetan onartu zen ordutegi-aldaketa:

- Gabriel Valentín Casamayor HLHIP, Oibarren.
  - San Nicolás HLHIP, Zaren
- 100/2009 Ebazpena, martxoaren 11koa, Antolamenduaren, Kalitatearen eta Berrikuntzaren zuzendari nagusiak emana, Nafarroako Foru Komunitateko 4 ikastetxe publikotako eskolaldia 2009-2010 ikasturterako modu esperimentalean aldatzeko prozedura arautzen duena.

Deialdi hori 352/2009 Ebazpenaren bidez onetsi zen (352/2009 Ebazpena, ekainaren 29koa, Antolamenduaren, Kalitatearen eta Berrikuntzaren zuzendari nagusiak emana, 2009-2010 ikasturtean, Nafarroako Foru Komunitateko ikastetxe batzuetan, eskolaldia modu esperimentalean aldatzea baimentzen duena).

Ikastetxe hauetan onartu zen ordutegi-aldaketa:

- Faltzesko "Doña Álvaro Álvarez" HLHIP
  - San Benito HLHIP, Miranda Argan.
  - San Miguel HLHIP, Larragan.
- 210/2013 Ebazpena, apirilaren 26koa, Hezkuntzaren, Lanbide Heziketaren eta Unibertsitateen zuzendari nagusiak emana. Honen bidez arautzen da Nafarroako Foru Komunitatean zenbait ikastetxetan eskolaldi etengabea eta eskolaldi malgua modu esperimentalean ezartzeko prozedura. Eskolaldi etengabea gehienez sei ikastetxetan ezarriko da, eta eskolaldi malgua gehienez hogeitun ikastetxetan, Haur eta Lehen Hezkuntzan, bai publikoetan bai pribatu itunduetan, 2013-2014 ikasturtean.

Deialdi hori 337/2013 Ebazpenaren bidez onetsi zen (337/2013 Ebazpena, ekainaren 20koa, Hezkuntzaren, Lanbide Heziketaren eta Unibertsitateen zuzendari nagusiak emana, 2013-2014 ikasturtean Nafarroako Foru Komunitateko Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxe batzuetan eskolaldi etengabea edo eskolaldi malgua modu esperimentalean ezartzea onesten duena).

Ikastetxe hauetan onartu zen ordutegi-aldaketa:

- Santa Bárbara HLHIP, Elon.
- Pitillaseko HLHIP.
- Nuestra Señora del Rosario HLHIP, Sartagudan.
- Sagrado Corazón ikastetxea, Altsasun.
- Virgen del Soto HLHIP, Caparroson.
- Dos de Mayo HLHIP, Castejonon.

Eskolaldi malguari dagokionez:

- 280/2008 Ebazpena, ekainaren 16koa, Antolamenduaren, Kalitatearen eta Berrikuntzaren zuzendari nagusiak emana, Nafarroako Foru Komunitateko ikastetxe publikoetako eskolaldia 2008-2009 ikasturterako modu esperimentalean ezartzeko prozedura arautzen duena.

337/2008 ebazpenaren bidez, ikastetxe hauetan onartu zen eskolaldi malgua:

- La Cruz HLHIP, Allon.
  - San Fausto HLHIP, Antzinen.
  - La Balsa HLHIP, Arroitzan.
  - Virgen de las Nieves HLHIP, Deikaztelun.
  - Lezaungo HLHIP
- Hezkuntzaren, Lanbide Heziketaren eta Unibertsitateen zuzendari nagusiak emandako ekainaren 8ko 369/2012 ebazpenaren bidez arautu zen 2012/2013 ikasturtean modu esperimentalean eskolaldi malgua ezartzeko prozedura, Nafarroako Haur eta Lehen Hezkuntzako 20 ikastetxetan, gehienez ere.
  - 486/2012 Ebazpena, uztailaren 30ekoa, Hezkuntzaren, Lanbide Heziketaren eta Unibertsitateen zuzendari nagusiak emana, eskolaldi malgua Nafarroako Foru Komunitateko Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxe batzuetan modu esperimentalean ezartzea onesten duena, 2012-2013 ikasturtean.

Ikastetxe hauetan onartu zen ordutegi-aldaketa:

- Mardones y Magaña HLHIP, Murchanten.
  - Obanosko HLHIP.
  - Raimundo Lanas HLHIP, Murillo el Fruton.
  - José Luis Arrese HLHIP, Corellan.
  - Pitillaseko HLHIP.
  - Virgen de Nieves HLHIP, Sesman.
  - Nuestra Señora del Rosario HLHIP, Sartagudan.
  - San Veremundo HLHIP, Villatuertan.
  - Dos de Mayo HLHIP, Castejonan.
  - Francisco Javier Sáenz de Oiza HLHIP, Kasedan.
  - Auzperri HLHIP, Aurizperrin.
  - Auritz-Burguete HLHIP, Auritzen.
  - Río Arga HLHIP, Berbintzanan.
  - Elías Terés HLHIP, Funesen.
  - Blanca de Navarra HLHIP, Lerinen.
  - Murietako HLHIP.
  - Ximenez de Rada HLHIP, Arradan.
  - Virgen de Gracia HLHIP, Carcarren.
  - San Salvador HLHIP, Oteitzan.
- 210/2013 Ebazpena, apirilaren 26koa, Hezkuntzaren, Lanbide Heziketaren eta Unibertsitateen zuzendari nagusiak emana. Honen bidez arautzen da Nafarroako Foru Komunitatean zenbait ikastetxetan eskolaldi etengabea eta eskolaldi malgua modu esperimentalean ezartzeko prozedura. Eskolaldi etengabea gehienez sei ikastetxetan ezarriko da, eta eskolaldi malgua gehienez hogeitun ikastetxetan, Haur eta Lehen Hezkuntzan, bai publikoetan bai pribatu itunduetan, 2013-2014 ikasturtean.

Deialdi hori 337/2013 Ebazpenaren bidez onetsi zen (337/2013 Ebazpena, ekainaren 20koa, Hezkuntzaren, Lanbide Heziketaren eta Unibertsitateen zuzendari nagusiak emana, 2013-2014 ikasturtean Nafarroako Foru Komunitateko Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxe batzuetan eskolaldi etengabea edo eskolaldi malgua modu esperimentalean ezartzea onesten duena).

Ikastetxe hauetan onartu zen ordutegi-aldaketa:

- San Justo y Pastor HLHIP, Fustiñanan.
  - Juan de Palafox HLHIP, Fiteron.
  - Félix Zapatero HLHIP, Valtierran.
  - Nuestra Señora de la Asunción HLHIP, Santakaran.
  - Nicasio de Landa HLHIP, Etxabakoitzen.
  - Cerro de la Cruz HLHIP, Cortesen.
  - Otero de Navascués HLHIP, Cintruenigon.
  - Hilarion Eslava HLHIP, Burlatan.
  - Lago de Mendillorri HLHIP, Iruñean.
- Hezkuntzako zuzendari nagusiak emandako ekainaren 15eko 227/2016 ebazpenaren bidez, 2015-2016 ikasturtean eskolaldi etengabea edo malgua baimenduta zuten ikastetxeei baimena luzatu zitzairen 2016-2017 ikasturterako.

Eskolaldi etengabea 14 ikastetxetan luzatu zen, eta eskolaldi malgua 29 ikastetxetan luzatu zen.

Hauexek dira ikastetxe horiek:

- La Cruz HLHIP, Allon.
- San Fausto HLHIP, Antzinen.
- La Balsa HLHIP, Arroitzan.
- Virgen de las Nieves HLHIP, Deikaztelun.
- Lezaungo HLHIP
- Mardones y Magaña HLHIP, Murchanten.
- Obanosko HLHIP.
- Raimundo Lanás HLHIP, Murillo el Fruton.
- José Luis Arrese HLHIP, Corellan.
- Virgen de las Nieves HLHIP, Sesman.
- San Veremundo HLHIP, Villatuertan.
- Francisco Javier Sáenz de Oiza HLHIP, Kasedan.
- Auzperri HLHIP, Aurizperrin.
- Auritz-Burguete HLHIP, Auritzen.
- Río Arga HLHIP, Berbintzanan.
- Elías Terés HLHIP, Funesen.
- Blanca de Navarra HLHIP, Lerinen.
- Ximenez de Rada HLHIP, Arradan.
- Virgen de Gracia HLHIP, Carcarren.
- San Salvador HLHIP, Oteitzan.
- San Justo y Pastor HLHIP, Fustiñanan.
- Juan de Palafox HLHIP, Fiteron.
- Félix Zapatero HLHIP, Valtierran.
- Nuestra Señora de la Asunción HLHIP, Santakaran.
- Nicasio de Landa HLHIP, Etxabakoitzen.
- Cerro de la Cruz HLHIP, Cortesen.
- Otero de Navascués HLHIP, Cintruenigon.
- Hilarion Eslava HLHIP, Burlatan.
- Lago de Mendillorri HLHIP, Iruñean.

### **4.3. *Inklusibitatea eta dibertsitatea***

#### **4.3.1. *Ikasleen aniztasuna kontuan hartzea***

Aniztasunari erantzuteari buruzko Nafarroako araudi esparrua Hezkuntzako kontseilariaren ekainaren 13ko 93/2008 Foru Aginduan jasotzen da. Foru agindu horrek Nafarroako Foru Komunitateko Haur eta Lehen Hezkuntzako eta Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetan



aniztasunari nola erantzun arautzen du. II. kapituluari ikastetxeetan Aniztasunari Erantzuteko Plana prestatzeko irizpideak zehazten dira.

### Erreferentzia egiten dien ikasleak

Aniztasunari erantzuteko planak aniztasuna duten ikasle guzti-guztientzako arreta arautu behar du. Batik bat, kontuan izan behar dira arrazoi askorengatik irakaskuntza-ikaskuntzan aurrera egiteko arazoak dituzten ikasleak. Hezkuntza-erantzun irekiak eta malguak beharko dituzte, eta horretarako baliabide egokiak antolatu beharko dira.

Ikasle horien artean daude hezkuntza premia bereziak (iraunkorrak zein iragankorrak) dituztenak:


- Arrazoi soziokulturalak edo ekonomikoak direla eta egoera ahulean dauden ikasleak.
- Berandu txertatutako ikasleak, irakaskuntza-hizkuntza ezagutzen dutenak eta ezagutzen ez dutenak.
- Adimen-gaitasun handiko ikasleak
- Desgaitasunari lotutako hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleak. Ohiko ikastetxeetako ikasleak eta ikastetxe berezietara joaten direnak hartu dira kontuan.

137. taula: HPBak dituzten ikasleen eta ikasle kopuru osoaren arteko erlazioa

	2000	2010	2011	2012	2013	2014	2015
Ikasle kopuru osoa	80.098	99.053	100.610	106.462	103.400	106.387	115.402
HPBak dituzten ikasleen kopuru osoa	191	633	1.436	1.691	1.738	1.799	2.099
Ikasle guztien artean HPBak dituzten ikasleen ehunekoa	% 0,24	% 0,64	% 1,42	% 1,59	% 1,68	% 1,69	% 1,82

Iturria: Aniztasunarekiko Arretaren eta Hezkuntza Premia Berezien Atala

113. grafikoa: HPBak dituzten ikasleen eta ikasle kopuru osoaren arteko erlazioa ehunekotan. 2000-2015



Iturria: Guk geuk egina, Aniztasunarekiko Arretaren eta Hezkuntza Premia Berezien Atalaren datuekin

### **Aniztasunari erantzuteko planaren xedeak**

Aniztasunari erantzuteko planak xede hauek ditu:

- Ikasle guztien beharrei erantzuna emateko plangintza eta antolakuntza erraztea ikastetxeei, eta erabilgarri dauden baliabide pertsonalak lehenestea, ikasleen taldeko eta/edo banako beharren arabera.
- Hezkuntzak aniztasunari ikasgelan erantzun diezaion, lehentasunak ezartzeko irizpideen zehaztapena gidatzea; hezkuntza erantzun hori hainbat ekintza koordinatuz emanen da (orientazioa, tutoretza, irakasleen, tutoreen eta arloetako irakasleen jarduna, eta irakasle arrunten eta espezializatuen laguntza).
- Atzerritar jatorriko ikasleen eta egoera soziokultural ahulean dauden ikasleen harrerarako eta inklusiorako neurriak eta jarraibideak ezartzea, irakasle taldeak adostutako Harrera Planaren barruan.
- Ikasturtean zehar agertu daitezkeen premia berriei erantzuteko, aldaketak sartzeko ahalbidetzen duen planifikazioa aurreikustea, antolaketa neurri malguak sartuta, irakasle arrunten eta espezialisten esku-hartzeak unean uneko beharren arabera moldatu daitezzen.
- Aniztasunari erantzutearen eraginkortasunaren barneko ebaluazioa gidatzea, eta hobetu beharreko alderdiak identifikatzea.

### **Desgaitasunari lotutako hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleen eskolatzea**

Ikasle horiek nola eskolatu zehazteko erabakiak hartzeko prozesu jakin bat jarraitu behar da, bermatu dadin ikasle bakoitzaren ezaugarrientzat egokiena den hezkuntza erantzuna emanen dela, betiere, testuinguru ahalik eta normalizatuenean.

Oro har, ikaslea ikastetxe arruntean eskolatzea proposatuko da ikaslearen hezkuntza premia bereziei (HPB) ikastetxeetako ohiko baliabideekin erantzuten ahal bazaie (eskolako orientatzailea, Pedagogia Terapeutikoko irakasleak, Entzumenerako eta Hizkuntzako irakasleak eta, hala dagokionean, zainatzailea, fisioterapeuta eta NHBBZko kanpoko laguntzak).

Aldiz, ikaslearen HPBei erantzuteko eta etengabeko banakako laguntza baldintzak eta ikastetxe arrunt batek ezin eskaini dituen ekintza bereziak behar direnean, ikaslea Hezkuntza Bereziko ikastetxe batean eskolatzea proposatuko da. Hori gertatzen da ikasleak egokitzapen oso esanguratsuak behar dituztenean bere adinaren arabera dagokion curriculum ofizialeko arloetan eta, beraz, uste denean ikastetxe arrunt batean bere gizarte integrazioa eta ikasketetako lorpenak minimoak izanen direla.

### **Eskolatzeko modalitateak. Antolakuntzako aukerak**

Bi modalitate daude. Modalitate horiek curriculumaren egokitze maila desberdinei dagozkie, ikasle bakoitzak behar dituen laguntza mota eta mailaren arabera:

- Ohiko ikastetxeko eskolatzeko modalitatea/antolakuntzako aukerak:

Lehentasunezko ikastetxeak

Garapenaren nahasmendu orokorrak dituzten ikasleentzako berariazko ikasgelak.

Haur eta gazteen eguneko ospitaleko terapia- eta hezkuntza-programa.

Curriculum bereziko unitateak (CBU).

Hasierako Lanbide Kualifikazioko Programa Bereziak ikastetxe arruntean (HLKPB).

- Hezkuntza bereziko ikastetxeko eskolatzeko modalitatea/antolakuntzako aukerak:

Hezkuntza Bereziko ikasgela, landa eskualdeetan.

Hasierako Lanbide Kualifikaziorako Programa Bereziak (HLKPB) Hezkuntza Bereziko ikastetxean.  
Helduarora Igarotzeko Hezkuntza Programak (HIHP).

### **Eskolatz-modalitatea erabakitze irizpideak**

Ikastetxeetako orientazioko langileek identifikatu eta baloratuko dituzte HPBak. Ondoren, eskolatz-modalitatea eta jarduketa-planik egokienak proposatuko dituzte.

Ebaluazio psikopedagogikoaren bidez erabakitzen ahalko dira kasu-kasuan beharrezkoak diren egokitzapenen mota eta maila, baldintzak eta laguntzak (espezializatuak ala ez) eta, beraz, baldintza eta laguntza horiek ohikoagoak ala ezohikoagoak izanen diren. Balorazio hori erabakigarria izanen da eskolatz-modalitate bat ala beste, eta modalitate horren barruan antolaketara mota bat ala beste, proposatzeko.

### **Aniztasunari erantzuteko baliabide arruntak Haur, Lehen eta Bigarren Hezkuntzan.**

- Haur eta Lehen Hezkuntza.

Ikasleak ohiko ikasgeletan hasten dira, eta bertan ematen dute eskolaldi osoa ohiko baldintzetan. Lehen Hezkuntzan, arau orokor gisa eta hasierako ebaluazioa ikusirik, ikasturte bateko atzerapen orokorra duten ikasle sartu berriak adinagatik dagokien mailan sartu ordez, urtebete gazteagoen mailan sartuko dira. Curriculumeko atzerapena bi ikasturtetik gorakoa balitz, beharagoko maila batera bidaliko liriateke ikasleak, eta egokitutako hezkuntza-erantzun bat antolatuko litzateke.

3. maila eta 6. maila bitartean, ohiko irakasleek beharrezko errefortzu-lanak eskainiko dizkiete ikasle atzeritarrei, aniztasunarekiko hezkuntza-arretarako orduetan. Horretarako, harrera-hizkuntza eta irakaskuntza-hizkuntza irakasteko programak garatuko dituzte, eta curriculumeko atzerapena duten ikasleentzako laguntza-programak abiaraziko dituzte.

- Bigarren Hezkuntza.

Ikastetxeek, lehenik eta behin, etapa horretan aniztasunari erantzuteko baliabide eta neurri orokor arruntak izanen dituzte. Zuzendaritza taldeek zainduko dute horren premia duten atzeritar jatorriko ikasleei eta egoera ahulean dauden ikasleei erantzuteko programak ezarriko direla.

Hezkuntza erantzunaren neurrien artean dago aukerako irakasgaien eskaintza. Horri esker arlo instrumentaletan curriculumeko errefortzua egin daiteke eta, aldi berean, ikasleen interesen, motibazioen eta gaitasunen aniztasunari erantzun.

Behar duten ikasleak aurreikusitako neurri espezifikoek baliatu ahal izanen dira (ikaskuntza eta errendimendua hobetzeko programak, curriculum egokituko programak, oinarrizko lanbide-heziketako programak).

### **4.3.2. Hezkuntza-konpentsazioa**

- **Desgaitasuna**

Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoak atarikoan ezartzen du aniztasunari arreta ematearen printzipioak oinarrizko hezkuntza guztia gidatu behar duela. Horrela, ikasle guztiei beren ezaugarriari eta beharrei egokitutako hezkuntza emanen zaie.

Ikastetxeetan aniztasunari nola erantzun arautzen duen Hezkuntzako kontseilariaren 93/2008 Foru Aginduak ezartzen duenez, hezkuntza jasotzeko eskubidea gauzatzekoan berdintasuna bermatze aldera, hezkuntza-administrazioek konpentsazio-izaera duten jarduerak garatuko dituzte egoera ahulean dauden pertsona, talde eta lurralde-eremuei dagokienez, eta horretarako beharrezkoak diren baliabide ekonomikoak eta laguntzak emanen dituzte.

LOMCEk, 1. artikuluan, honako hau ezartzen du bere printzipioen artean: «Ekitatea, hezkuntzaren bidez nortasuna erabat garatzeko aukera-berdintasuna bermatuko duena; hezkuntzan txertatzeko aukera, bazterkeria gainditzeko laguntzen duten eskubide- eta aukera-berdintasuna eta hezkuntzarako irisgarritasun unibertsala bermatuko ditu, eta desberdintasun pertsonalak, kulturalak, ekonomikoak eta sozialak (urritasunen ondoriozkoak bereziki) konpentsatzeko tresna izanen da.»

• **Atzerriko ikasleak eta/edo berandu txertatutakoak**

Honako hau ezartzen du ekainaren 13ko 93/2008 Foru Aginduak 23. artikuluan: «Berandu sartzen diren ikasleak beste herrialde edo autonomia-erkidegoetatik etorrira sartzen dira gure hezkuntza sisteman, eta zenbaitetan ez dakite curriculumeko hizkuntza edo/eta atzerapena dute curriculumeko oinarriko gaitasunen garapenean»


LOMCEk, 78 artikuluan, zera ezartzen du: «Hezkuntza-administrazioek bermatuko dute hezkuntza-sisteman berandu txertatzen diren ikasleen eskolatzea egitean kontuan izanen direla haien inguruabarrak, ezagutzak, adina eta historia akademikoa, beren ezaugarri eta aurreko ezagutzen arabera egokiena den ikasturtean sar daitezela, beharrezko laguntzekin, eta horrela probetxuz hezkuntza jasotzen jarrai dezaten.»

138. taula: Berandu txertatutako ikasleak ikastetxearen titulartasunaren arabera. 2010-2015

	2010-2011	2011-2012	2012-2013	2013-2014	2014-2015	2014-2015
Publikoak	354	316	187	293	339	458
Itunduak	371	76	39	54	61	59
Guztira	725	392	226	347	400	517

Iturria: Antolamenduko eta Aukera Berdintasuneko Zerbitzua

114. grafikoa: Berandu txertatutako ikasleak ikastetxearen titulartasunaren arabera. 2010-2015



Iturria: Guk geuk egina, Antolamenduko eta Aukera Berdintasuneko Zerbitzuaren datuekin

### **Ikasleak gure hezkuntza sisteman sartzeko prozesua. Ikasle etorkinei harrera egiteko programa**

Ikasle etorkinek hainbat arazo izan ditzakete gure hezkuntza-sisteman txertatzerakoan, besteak beste:

- Ama-hizkuntza ez den hizkuntza bat ikasi eta egunero erabili beharra ikasketa prozesu osoan.
- Hainbat erreferente kultural izatea: eskolak eskaintzen duena eta etxean daukana. Izan ere, horiek bizitzeko eta jarduteko ikusmolde desberdinak izan ditzakete.
- Maila akademiko desberdinak: batzuetan ikasturte bateko edo batzuetako atzerapena dute curriculumean, beren adinan bereko ikasleen aldean.
- Bizi diren auzo edo herrira moldatzeko zailtasunak, sozializazioa baldintzatu dezaketenak: batzuetan ez dute lagunik, edo beti beren nazionalitate bereko pertsonekin ibiltzen dira.
- Beren erreferentzia sozial eta afektibo gehienak galtzea, horrek dakarren desoreka emozionalarekin.
- Prekarietate ekonomikoaren, langabeziaren, etxebizitza baldintzen eta abarren eragina.

Harrera Programaren lehentasunezko helburua ikasle guztien inklusioa lortzea da, ikastetxe bateko hezkuntza lanean esku hartzen duten guztien parte-hartzearen eta konpromisoaren bitartez. Hezkuntza sisteman lehenbizikoz sartzen diren ikasleei harrera egokia egitea da ikasle horiei garapen pertsonalerako, kulturalerako eta sozialerako espazio bat eskaintzea, ikastetxeek emandako balioen trukearen eta bultzadaren bidez.

«*Ikasle etorkinei harrera egiteko programa*»k orientazioa ematen die irakasleei programa bera egin edo eguneratzeko, arduradunak eta inplikaturako pertsonak zehazteko eta helburuak zedarritzeko. Proposamen hori Aniztasunari Erantzuteko Planean sartu behar da.

Programak ondoko alderdiak garatzen ditu:

- Hezkuntza erkidegoa kultura arteko hezkuntzan sentsibilizatzea.
- Ikastetxean familiari harrera egiteko orientabideak.
- Hasierako ebaluaziorako eta ikaslea talde bati atxikitzeko orientabideak.
- Ikasgelan harrera egitea.
- Curriculumean sartzea.
- Antolakuntza eta funtzionamendua.
- Kulturen arteko gaitasunak garatzea.
- Estrategia metodologikoak.
- Harrera Programaren autoebaluazioa.

Harrera-programa, «*ikasle etorkinentzako informazio-gida*» bezalaxe, Hezkuntza Departamentuko webgunean eskuratu daiteke ikastetxeek erabil dezaten, eta horiek aukera dute dokumentuan aldaketak egiteko, gidak egin edo berrikusteaz arduratzen den irakasle-

taldearen irizpideei jarraikiz. Gida hainbat hizkuntzatan dago argitaratua (gaztelaniaz, frantsesez, ingelesez, errusieraz, errumanieraz, bulgarieraz, arabieraz, euskaraz) eta familie ikastetxeetan lehen harrera egiteko erabilgarria izan daiteke, hezkuntza-sistema eta horren ezaugarriak deskribatzen dituelako eta ikastetxeen antolakuntzari buruzko alderdi batzuk azaltzen dituelako.

**Lehen Hezkuntzako ikastetxeak laguntzeko berariazko programa, egoera soziokultural ahulean dauden ikasleei eta atzerritar jatorriko ikasleei hezkuntza erantzuna emateko**

Egoera soziokultural ahulean dauden ikasleentzako eta atzerritar jatorriko ikasleentzako laguntza neurriak aniztasunari erantzuteko neurri arrunten osagarriak dira, eta haien berariazko premietan dute jatorria.

Neurri horiek Hezkuntzako kontseilariaren ekainaren 13ko 93/2008 Foru Aginduan jasotzen dira. Foru agindu horrek Nafarroako Foru Komunitateko Haur eta Lehen Hezkuntzako eta Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetan aniztasunari nola erantzun arautzen du.

Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxe jakin batzuek atzerritar jatorriko eta egoera ahuleko ikasleen kopuru esanguratsu bati erantzun behar izaten diotenez, Hezkuntza Departamentuak ikastetxe horiek laguntzako irakasleez hornitu ditu. Laguntzako irakasleek irakasle arruntei laguntzen diete curriculumeko atzerapen handia duten ikasleei eta gaztelania ez dakiten ikasleei erantzun egokia ematen.

**Gaztelania (edo euskara) irakaskuntza-hizkuntza bezala irakastea Lehen Hezkuntzan**

Irakasle laguntzaileak dituzten Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxeetan, irakasle horiek lagundu egiten dute hezkuntza-sistemako irakaskuntza-hizkuntza jakin gabe sisteman txertatzen diren atzerriko ikasleei hizkuntza hori irakasten.

Irakasle hauen lanak etapak berezko dituen curriculumeko alderdien irakaskuntzarekin ez ezik irakas-hizkuntzaren ikaskuntzaren jarraipenarekin du zerikusia. Irakasle laguntzaileek parte hartzen dute curriculumeko atzerapena duten ikasleei hezkuntza-erantzuna ematen Gaztelania eta Matematikako irakasgai instrumentaletan, horrekin tutorearen lana osatuz.

• **Absentismoa eta ikasketak garaiz aurretik uztea**

Absentismoa eta ikasketak garaiz aurretik uztea hezkuntza-sistemaren bi arazo garrantzitsu dira. Protokoloen kudeaketak ezaugarri nabarmen hauek izan ditu ikasturte honetan:

- Lehen hiruhilekoak 50 kasu hauteman ziren, eta ekain amaieran 126 kasu erregistratu ziren.
- Absentismoaren protokoloaren bidez lortutako datuak egiaztatzeko kontsulta bat egin zitzaion EDUCAn 2015-2016 ikasturteko lehen hiruhilekoko Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxeetako ikasleei buruz (ikastetxe publiko zein itunduak).
- Irakaste-ordutegiaren % 20 baino gehiagoko huts-egiteak zituzten ikasleen datuak lortu ziren: 80 huts-egite baino gehiago ikasturteko lehen hiruhilekoan (falta justifikatuak eta justifikatu gabeak). Egoera horretan zeuden 833 ikasle.
- Batzordera iritsitako protokoloen datuekin alderatu ziren datu horiek. Abendu bukaeran jasotako 50 absentismo-espedienteen erdia ez zen agertzen EDUCAn bidez lortutako datuetan.
- Beste kontsulta bat ere egin zen, EDUCAn huts-egiterik erregistratu ez duten ikastetxeak ezagutzeko (Huts-egiteen indizea 0 dutenak). Ondoko taulan jaso da horien banaketa, zentro publiko edo itunduen eta hezkuntza-etapen arabera antolatuta.

139. taula: EDUCAn absentismoaren banaketa, etapen eta mailen arabera. 2015-2016

	Ikastetxe publikoa	Ikastetxe itundua
Haur Hezkuntza	231	8

Lehen Hezkuntzako 1. eta 2. maila	99	5
Lehen Hezkuntzako 3. eta 4. maila	70	4
Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. maila	53	2
1. DBH	111	3
2. DBH	93	7
3. eta 4. DBH	139	8
Guztira	796	37

Iturria: Aniztasunarekiko Arretaren Atala

- Datu horiek osatzeko, Ikuskaritzako Zerbitzuari eskatu zitzaion absentismoari buruzko datuak jasotzeko bere erreferentzia-zentro guztietan. Lehen hiruhilekoan absentismoko huts-egiteak zituen ikasle bakoitza zegokion ikuskatzaileari esleitu zitzaion.
- Informazioen konparaziozko analisi bat egin zen. Aurreko informazioetan ageri ez ziren beste 182 kasu agertu ziren analisi horretan.
- Aztertu ostean, erreferentziako ikuskatzailearen esku utzi ziren datu horiek, huts-egiteak EDUCAn erregistratzen ari ez diren ikastetxe publiko eta itunduei dagokienez.

Absentismo-batzordearen ondorioa honako hau da:

- Huts-egiteak EDUCAn erregistratzen dituzten ikastetxeetan, eskolen % 20ra edo gehiagora joan ez ziren 833 ikasle izan ziren.
- Ikastetxe publikoen kasuan, ez dute huts-egiterik erregistratzen Haur Hezkuntzako 100 ikastetxek eta lehen mailako 73k.
- Bigarren Hezkuntzako 47 ikastetxe publikoetako 7k ez dute huts-egiterik erregistratzen DBHn.
- Ikastetxe itunduetan ez dute huts-egiterik erregistratzen: 47 ikastetxek Haur Hezkuntzan, 45en Lehen Hezkuntzan eta 34k DBHn.
- 126 protokolo iritsi dira Batzordera.
- Beste 182 ikasle absentista hauteman dira (ez daude ez EDUCAn ez protokoloan).

Horrela, bada, ikasle absentisten kopurua EDUCAko erregistroek diotena baino askoz handiagoa da (ikastetxeen ehuneko oso handi batek ez ditu huts-egiteak erregistratzen, eta zehaztu gabeko ehuneko batek huts-egite batzuk baino ez ditu erregistratzen...) eta beharrezkoa da fenomeno hori hobeto erregistratzea duen hedapenari buruzko datu zehatzagoak izateko.

- **Errefortzua, orientazioa eta hezkuntzako laguntza**

Honako hau ezartzen du ekainaren 13ko 93/2008 Foru Aginduak 8. artikuluan: «Ikastetxeak ikasle guztien hezkuntza premia orokorrei eta ikasle bakoitzaren premiei ahalik eta ongien erantzuteko diseinatzen, aukeratzen eta gauzatzen dituen neurriak (curriculum egokitzapenak, antolaketa neurriak, laguntzak eta indartze neurriak) Aniztasunari Erantzuteko Plana izeneko agirian biltzen dira.»

Foru Agindu horren 7.artikuluan, bestalde, honako hauek sailkatzen dira hezkuntza-arretako neurrien artean: «Hezkuntza-laguntza eta indartze programak: taldekatze desberdinak, taldeen banaketak, talde malguak, arlo edo irakasgaien indartzea, eta ezagutzak handitu edo sakontzeko neurriak.»

Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoaren atariko tituluan jasotzen denez, ikasleen hezkuntza eta lanbide orientabidea eskubide aitortua da, beharrezkoa baita banakako prestakuntza eta hezkuntza integrala lortzeko, eta ezartzen du kalitate faktorea ere badela, botere publikoen arreta berezia jasoko duena.

66/2010 Foru Dekretua, urriaren 29koa, Nafarroako Foru Komunitateko ikastetxeetan Hezkuntza eta Lanbide Orientazioa arautzen dituena 1. artikuluan. «Foru-dekretu honen xedea da hezkuntza orientabidea arautzea Nafarroako Foru Komunitatean funts publikoak jasotzen dituzten ikastetxeetan, Haur Hezkuntzan, Lehen Hezkuntzan, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan, Batxilergoan, Lanbide Heziketan, Arte Plastikoetako eta Diseinuko lanbide ikasketetan eta Helduen Hezkuntzan ikasketak ematen dituztenetan.»

Era berean, zera esaten da 2. artikuluan: «Hezkuntza-orientabidea kalitate- eta hobekuntza-elementua da eskola-erakundean, eta bere helburua da ikasleen hezkuntza integrala eta banakakoa bultzatzea, haien aniztasunari erreparatuz, aholkularitza eta laguntza teknikoa emanez ikasleei, gurasoei edo legezko tutoreei, seme-alaben hezitzaile lehen eta nagusi direnez, ikastetxeei eta irakasleei.»

Azkenik, LOMCEk, 80. artikuluan, zera ezartzen du: «Hezkuntzarako eskubidea erabiltzean berdintasun-printzipioa gauzatzeko, herri-administrazioek konpentsazio-ekintzak eginen dituzte egoera txarrean dauden pertsonentzat, taldeentzat eta lurralde-eremuentzat. Halaber, horretarako beharrezkoak diren baliabide ekonomikoak eta laguntzak emanen dituzte.»

Hezkuntza-sendogarria eta/edo -laguntza jasotzen duten Nafarroako ikasleen kopurua jaso dugu ondoko tauletan.

**140. taula: Hezkuntza-sendogarria duten ikasleak. 2010-2015**

	2010-11	2011-12	2012-13	2013-14	2014-15	2014-15
Itunduak	455	499	543	641	626	733
Publikoak	808	967	1089	1296	1378	1354
Guztira	1263	1466	1632	1937	2004	2087

*Iturria: Antolamenduko eta Aukera Berdintasuneko Zerbitzua*


**141. taula: Hezkuntza-laguntza duten ikasleak. 2010-2015**

	2010-11	2011-12	2012-13	2013-14	2014-15	2014-15
Itunduak	656	725	782	827	924	889
Publikoak	1389	1499	1518	1640	1653	1669
Guztira	2045	2224	2300	2467	2577	2558

*Iturria: Antolamenduko eta Aukera Berdintasuneko Zerbitzua*



115. grafikoa: Hezkuntza-sendogarria eta -laguntza duten ikasleak. 2010-2015



Iturria: Guk geuk egina, Antolamenduko eta Aukera Berdintasuneko Zerbitzuaren datuekin

- **Adimen-gaitasun handiko ikasleak**

Ekainaren 13ko 93/2008 Foru Aginduak honela definitzen ditu gaitasun handiko ikasleak: «Ikasle hauentzat ez dira egokiak adinkideen kurtsoko helburuak eta edukiak eta hezkuntza premia bereziak dituzte beren adimen gaitasun handiagatik, edo zenbait ikasgai goiz ikasi dituztelako, edo trebetasun bereziak nahiz sormen handia dutelako zenbait arlotan (arte, musika, matematika, hizkuntza etab.), ikasteko motibazio handiarekin batera, batzuetan.»

LOMCEk, 71 artikulua 2. lerrokan, zera ezartzen du: «Halaber, hezkuntza-administrazioek beharrezko diren baliabide guztiak ziurtatu behar dituzte, hezkuntza-premia bereziak izateagatik, ikasteko aparteko zailtasunak izateagatik, ADNH izateagatik, adimen-gaitasun handiak izateagatik, hezkuntza-sisteman berandu sartzeagatik, egoera pertsonalak edo eskolako historialak hala eskatzeagatik, arruntaz bestelako hezkuntza-arreta behar duten ikasleek euren gaitasun pertsonalak ahalik eta gehien garatu ahal izan ditzaten eta, nolabehere, ikasle guztientzat ezarritako helburu orokorrak lortu ahal izan ditzaten.»

- **Ospitaleratutako ikasleak eta etxeko arreta**

142. taula: Ospitaleratutako ikasleak. 2015-2016

	Haur Hezkuntza	Lehen Hezkuntza	DBH	Derrigorrezko hezkuntzaren ondokoa	Guztira
Virgen del Camino ospitaleko arretak	189	196	36		421
Haur eta gazteentzako eguneko ospitaleko eta ospitaleko unitate psikiatrikoko arreta-emateak:		16	35	18	69 ikasle 89 arreta-emate
Etxeko arretak	Ez da etxeko arretan sartzen	18	26	Ez da etxeko arretan sartzen	44

Guztira					
---------	--	--	--	--	--

Iturria: Aniztasunarekiko Arretaren eta Hezkuntza Premia Berezien Atala

- **Aniztasunarekiko hezkuntza-arretako beste programa batzuk**

Ekainaren 13ko 93/2008 Foru Aginduaren 30. artikuluan Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikasleentzako Curriculum Egokituko Programaren xedea definitzen da: «Portaeraren nahasteek eta moldatzeko ezintasunak irakaskuntza- ikaskuntza prozesua eragozten dieten ikasleen beharrei erantzutea, etapako helburu nagusiak lortzea ahalbidetuko duten oinarrizko gaitasunen garapena sustatuz.»

Era berean, ikasle hartzaileak ere definitzen ditu: «Gelako lanari ezin egokitzearen ondorioz eskola atzerapen larria duten ikasleak, eskola huts egiteko eta hezkuntza sistema uzteko arriskua dutenak.»

- **Ikastetxe publiko eta itunduentzako laguntza ekonomikoak**

Egoera ahulean dauden ikasleei arreta emateko laguntza ekonomikoetan ikastetxe publiko eta itunduek 1.212.356,56 euroko zenbatekoa jaso zuten 2015-2016 ikasturtean.

143. taula: Egoera ahulean dauden ikasleei arreta emateko laguntza ekonomikoak. 2015-2016

Xedapenaren epealdia Ebazpena	Ikastetxe onuradunak		Ikasle onuradunak		Guztira
	Haur eta Lehen Hezkuntza	Bigarren Hezkuntza	Haur eta Lehen Hezkuntza	Bigarren Hezkuntza	
144/2015 ebazpena Ikastetxe publikoak*	127	52	7.722	2.982	139.955,48
103/2015 ebazpena Ikastetxe itunduak**	350 ordu 58 ikastetxe				645.004,66
203/2015 ebazpena Ikastetxe itunduak***	54		1.552		409.396,42
Sinatu gabe Secretariado Gitano Fundazioa					
Guztira					1.212.356,56

\* Egoera sozioekonomiko ahulean dauden ikasleei laguntzeko, ikastetxe publikoei esleituriko diru-laguntzak.

\*\* Egoera ahulean dauden ikasleei laguntzeko, laguntza-irakasleen orduak kontratatzeko esleituriko diru-laguntzak.

\*\*\* Ikastetxe itunduei esleitutako laguntza ekonomikoak, egoera ahulean dauden eskolatutako ikasleen ekipamendurako eta jantokirako.

Iturria: Aniztasunarekiko Arretaren eta Hezkuntza Premia Berezien Atala

- **Bekak eta ikasketa-laguntzak.**

**Nafarroako Gobernuako laguntza osagarri orokorrak**

79/2015 ebazpena, irailaren 11koa, Unibertsitateen eta Hezkuntza Baliabideen zuzendari nagusiak emana, unibertsitateko ikasketak eta derrigorrezko ikasketen ondoko unibertsitatez kanpoko ikasketak egiten dituzten ikasleendako beken deialdi orokorra onesten duena, 2015-2016 ikasturterako.

144. taula: Erdi- eta goi-mailako ikasketetarako Nafarroako Gobernuaren deialdi orokorreko beka. 2010-2016


Ikasturtea	2010-11	2011-12	2012-13	2013-14	2014-15	2015-16
1. ESKARIAK, GUZTIRA (Ikasleak)	7.180	12.889	7.589	8.287	8.513	9.321
2. EMANDAKO BEKAK, GUZTIRA	3.147	3.331	3.756	4.295	4.384	4.548
2.1 Unibertsitatez kanpoko mailetan	1.298	1.441	1.383	1.591	1.577	1.713
2.2 Unibertsitateko mailetan	1.789	2.147	2.284	2.585	2.697	2.683
2.3. Master ikasketetan	60	73	89	119	110	152
3. EMANDAKO ZENBATEKOA, GUZTIRA	5.090.626	6.175.045	6.496.589	6.323.331	6.761.538	6.992.257
3.1 Unibertsitatez kanpoko mailetan	972.334	1.078.180	1.003.574	1.023.339	1.050.414	1.165.556
3.2 Unibertsitateko mailetan	3.951.072	4.941.700	5.216.967	4.961.232	5.401.531	5.461.191
3.3. Master ikasketetan	167.220	155.165	276.048	338.760	309.593	365.509
4. ORDAINDUTAKO ZENBATEKOA, GUZTIRA	2.408.637	2.928.240	3.208.153	2.902.253	3.060.256	3.314.214
4.1 Unibertsitatez kanpoko mailetan	380.458	398.228	394.841	378.714	395.161	497.437
4.2 Unibertsitateko mailetan	1.957.743	2.483.721	2.724.982	2.374.064	2.581.377	2.689.659
4.3. Master ikasketetan	70.436	46.291	88.330	149.475	83.716	127.118
<b>5. BEKA KOPURUA UNIBERTSITATEZ KANPOKO MAILETAN</b>						
<b>5.1 IRAKASKUNTZA</b>						
Beka kopurua	112	158	154	262	178	187
Zenbatekoa	28.710	49.814	47.971	102.302	60.173	54.161
<b>5.2 GARRAIOA</b>						
Beka kopurua	1.034	1.147	1.058	1.173	1.222	1.335
Zenbatekoa	499.720	530.042	477.308	502.416	559.024	642.507
<b>5.3 JANTOKIA</b>						
Beka kopurua	14	40	26	32	20	24
Zenbatekoa	6.604	18.102	10.898	10.795	7.913	9.858
<b>5.4 EGOITZA</b>						
Beka kopurua	207	222	208	241	200	175
Zenbatekoa	421.618	456.411	431.188	360.705	337.606	296.600
<b>5.5 APARTEKOA</b>						
Beka kopurua	18	27	43	66	91	164
Zenbatekoa	15.682	23.811	36.209	47.121	85.697	162.430
UNIBERTSITATEKOEZ KANPOKO ZENBATEKOA GUZTIRA	972.334	1.078.180	1.003.574	1.023.339	1.050.414	1.165.556
<b>6. BEKA KOPURUA UNIBERTSITATEKO MAILETAN, KONTZEPTUKA</b>						
<b>6.1 IRAKASKUNTZA</b>						
Beka kopurua	1.719	2.012	2167	2.471	2.595	2.582
Zenbatekoa	2.224.747	2.814.464	3.004.195	3.051.253	3.380.981	3.516.939
<b>6.2 GARRAIOA</b>						
Beka kopurua	288	435	457	449	466	455

**HEZKUNTZA-PROZESUAK ETA -POLITIKAK**

Zenbatekoa	156.282	253.128	266.024	237.709	268.840	251.857
6.3 JANTOKIA						
Beka kopurua	165	244	158	145	132	119
Zenbatekoa	58.406	97.823	61.579	54.137	53.151	49.960
6.4 EGOITZA						
Beka kopurua	798	898	954	1.087	1.050	982
Zenbatekoa	1.491.316	1.752.032	1.866.058	1.604.625	1.662.762	1.564.675
6.5 APARTEKOA						
Beka kopurua	14	17	13	10	23	45
Zenbatekoa	20.321	24.253	19.111	13.508	35.796	77.760
ZENBATEKOA UNIBERTSITATEKO IKASKETETAN, GUZTIRA	3.951.072	4.941.700	5.216.967	4.961.232	5.401.531	5.461.191
7. BEKA KOPURUA MASTER IKASKETETAN						
7.1 IRAKASKUNTZA						
Beka kopurua	59	72	83	117	109	149
Zenbatekoa	91.843	91.160	176.428	239.923	223.641	248.436
7.2. GARRAIOA						
Beka kopurua	14	17	16	26	14	17
Zenbatekoa	14.037	14.843	12.919	20.503	10.365	8.787
7.3. JANTOKIA						
Beka kopurua	9	8	1	12	4	8
Zenbatekoa	3.680	3.294	665	5.448	1.452	3.443
7.4. EGOITZA						
Beka kopurua	29	24	42	42	42	64
Zenbatekoa	57.660	45.868	86.036	66.746	72.494	103.045
7.5 APARTEKOA						
Beka kopurua					1	1
Zenbatekoa					1.642	1.800
ZENBATEKOA MASTER IKASKETETAN, GUZTIRA	167.220	155.165	276.048	338.760	309.593	365.509

*Iturria: Baliabide Ekonomikoen Zerbitzua*

116. grafikoa: Erdi- eta goi-mailako ikasketetarako Nafarroako Gobernuaren deialdi orokorreko beken bilakaera. 2010-2016



Iturria: Guk geuk egina, Baliabide Ekonomikoen Zerbitzuaren datuekin

## Hezkuntza Berezirako berariazko laguntzak

### Hezkuntza Ministerioaren laguntzak

145. taula: Hezkuntza-premia berezietarako Hezkuntza Ministerioaren laguntzak. 2010-2016

	2010-11	2011-12	2012-13	2013-14	2014-15	2015-16
Eskaera-kopurua	734	702	835	882	977	1052
Emandako diru-laguntzen kopurua	431	467	581	619	654	657
Laguntzen zenbatekoa	510.512,71	525.883,65	668.316,51	719.285,40	754.554,56	632.977,82

Iturria: Ikastetxeen, Finantzaketaren eta Ikasketetarako Laguntzen Atala

146. taula: Hezkuntza Ministerioaren beken eta ikasketetarako laguntzen bilakaera. 2001-2015

Ikasturtea	Bekak		Laguntzak	
	Zenbatekoa (milaka eurotan)	Onuradunak	Zenbatekoa (milaka eurotan)	Onuradunak
2001-02	638.629	499.661	88.271	788.923
2002-03	636.293	463.047	88.769	821.963
2003-04	647.881	458.892	91.385	833.685
2004-05	722.630	450.031	97.863	877.491
2005-06	732.393	435.721	104.061	923.694
2006-07	835.446	475.855	109.862	962.885

## HEZKUNTZA-PROZESUAK ETA -POLITIKAK

2007-08	917.302	503.412	114.449	955.979
2008-09	1.144.258	582.842	126.374	1.027.705
2009-10	1.276.158	677.794	127.981	998.564
2010-11	1.470.510	738.368	128.797	994.590
2011-12	1.618.570	793.358	129.872	975.330
2012-13	1.484.132	768.838	68.570	396.781
2013-14	1.408.158	777.394	64.766	298.261
2014-15 (behin-behinekoa)	1.410.238	757.027	46.313	122.508

*Iturria: Datuak eta zifrak. 2015-2016 ikasturtea. Hezkuntza Ministerioa*

### Hezkuntza berezirako laguntza espezifikoak

147. taula: Hezkuntza berezirako Nafarroako Gobernuaren beka eta laguntzak. 2015-2016

	Eskaerak		Emandako diru-laguntzen kopurua		Emandako zenbatekoa, guztira (eurotan)
	G	E	G	E	
Haur Hezkuntza	110	56	27	14	26.953,36
Lehen Hezkuntza	180	106	56	37	49.575,78
Hezkuntza Berezia	67	46	36	22	37.288,46
DBH	50	21	14	11	14.805,38
GMHZ	0	0	0	0	0,00
EMHZ	3	1	0	0	0,00
Batxilergoa	3	2	0	0	0,00
HLKP	30	25	12	14	13.121,26
CBU	10	7	2	2	3.624,48
Garapenaren erabateko nahasmenduak	6	1	4	0	1.066,14
Guztira	459	265	151	100	146.434,86

*Iturria: Aniztasunarekiko Arretaren eta Hezkuntza Premia Berezien Atala*

### **4.4. Hezkuntza-sistemetako aurreko ikasketen baliokidetasunak.**

Oro har, dagokion baliokidetasuna egiaztatzeko, nahikoa izanen da ikasketen edo proben titulua edo ikasketen ziurtagiria aurkeztu eta adierazitako araudia aipatzea, bestelako administrazio-izapideren beharrik gabe.

Ebazpen pertsonalizatua behar izanez gero, interesdunak Hezkuntza Departamentuko Titulu eta Baliozkotze Bulegoarekin jarri beharko du harremanetan.

148. taula: Ikasketen baliokidetasunak. 2015-2016

Titulua edo egindako ikasketak	Baliokidetasuna	Ondoreak	Betekizunak	Araudia
LOGSE aurreko eskola-ziurtagiria	Eskola Gradudun titulua	Profesionalak		ECD/1417/2012 Agindua, ekainaren 20koa
LOGSE aurreko nahitaezko eskolatzea (ziurtagirik gabe)			Hezkuntza Departamentuaren bana-banako ebazpena	Ekainaren 20ko ECD/1417/2012 Aginduaren 4. artikulua
Oinarrizko Batxilergoko 1. eta 2. maila, gainditu gabeko irakasgaiekin. 1961 baino lehen jaiotakoak	Eskola Gradudun titulua	Profesionalak	Hezkuntza Departamentuaren bana-banako ebazpena	Ekainaren 20ko ECD/1417/2012 aginduaren 5. artikulua
Lehen mailako ikasketen ziurtagiria - 45eko Legea - 65eko Legea	DBHko graduatuaren titulua.	Profesionalak		EDU/520/2011 Agindua, martxoaren 7koa. Art. bakarra 2.3
Lehen mailako ikasketak (ziurtagirik gabe)- 45eko Legea - 65eko Legea			Hezkuntza Departamentuaren bana-banako ebazpena	EDU/520/2011 Agindua, martxoaren 7koa. Art. bakarra 2.4
Eskola Gradudun titulua	DBHko graduatuaren titulua.	Profesionalak		LOEren 31.1 XG
	DBH 2.	Akademikoak		986/1991 ED, ekainaren 14koa (1. eranskina)
Teknikari laguntzailearen titulua	DBHko graduatu-titulua	Akademikoak		LOEren 31.3 XG
	Teknikari-titulua (dena delako lanbidekoa)	Profesionalak		
	Batxiler-titulua.			LOEren 31.3 XG + ekainaren 10eko EDU/1603/2009 Aginduaren 1. XG
REMen 1. zikloa	DBHko graduatuaren titulua.	Akademikoak eta profesionalak		986/1991 EDren II. eranskina
Humanitateetako 6 ikasturte oso eta gutxienez filosofiako 1, edo humanitateetako 5 ikasturte oso eta gutxienez filosofiako 2, elizako ikasketetan	DBHko graduatuaren titulua.	Akademikoak eta profesionalak		EDU/520/2011 Agindua, martxoaren 7koa. Art. bakarra 1.2
Ikasketa industrialak edo FP1, gainditu gabeko 2 irakasgairekin, gehienez ere.	DBHko graduatuaren titulua.	Profesionalak	Hezkuntza Departamentuaren bana-banako ebazpena	Hezkuntza Ministerioaren txostena (2009/12/09)
Teknikari laguntzailearen titulua	Goi-mailako teknikari-titulua (dagokion espezialitatean)	Akademikoak eta profesionalak		31.4 XG LOE
Arte aplikatu etako graduatu-titulua	Goi-mailako teknikari-titulua (dagokion espezialitatean)	Akademikoak eta profesionalak		Hezkuntza Ministerioaren 1999ko maiatzaren 14ko Agindua
Oinarrizko Batxiler tituluak	DBHko graduatuaren titulua.	Profesionalak		3.2. art. EDU/1603/2009 Agindua, ekainaren 10ekoa
70eko Legearen aurreko planetako Batxilergoko 4 kurtso oso				EDU/1603/2009 Agindua, ekainaren 10ekoa, 3.2.a) art.
Batxilergo Tekniko edo Laboraleko 5 kurtso, osotasun probarik edo errebalidarik gabe				3.3.b) art. EDU/1603/2009 Agindua, ekainaren 10ekoa
Eliza karrerako Humanitateetako 4 kurtso oso				EDU/1603/2009 Agindua, ekainaren 10ekoa, 3.3.c) art.
BBBko 1.a eta 2.a gainditu gabeko 2 irakasgairekin, gehienez	DBHko graduatuaren titulua.	Akademikoak eta profesionalak		EDU/520/2011 Agindua, martxoaren 7koa. Art. bakarra 1.1

**HEZKUNTZA-PROZESUAK ETA -POLITIKAK**

53/2/26ko Unibertsitate aurreko ikastaroa	Batxiler-titulua.	Akademikoak eta profesionalak		EDU/520/2011 Agindua, martxoaren 7koa. Art. bakarra 1.3
Lehen Hezkuntzako irakaslea	Batxiler-titulua.	Akademikoak eta profesionalak		EDU/520/2011 Agindua, martxoaren 7koa. Art. bakarra 1.4
Batxilergoko ikasketak (LOGSE aurreko planak, Oinarrizko Batxilergoa izan ezik)	Batxiler-titulua.	Profesionalak	Ikasketa ziurtagiria, goi graduko proba edo errebalida edo Batxilergo horretako gehienez 2 irakasgai gainditu gabe daudela egiaztatzen duena	EDU/1603/2009 Agindua, ekainaren 10ekoa, 4.4 art.
Batxiler-titulua (BBB) + UBI	Batxiler-titulua.	Akademikoak		986/1991 ED, ekainaren 14koa (1. eranskina)
Batxiler-titulua (BUP)	Batxiler-titulua.	Profesionalak		31.2 XG LOE
Goi mailan sartzeko proba gainditua (lanbide heziketa, arte plastikoak eta diseinua edo kirol ikasketak)	DBHko graduatuaren titulua.	Profesionalak	Baldintza hauetakoren bat egiaztatzea: a) DBHko lehen ikasturteetako irakasgai guztiak gaindituta izatea; b) Erdi-mailako zikloa egin izana eta gutxienez zikloaren erdiaren iraupena duten lanbide moduluak gaindituta izatea; c) Goi-mailako zikloa egin izana eta gutxienez zikloaren heren baten iraupena duten lanbide moduluak gaindituta izatea; d) Goi-mailako arte-irakaskuntzako 10 ECTS kreditu gaindituta izatea, gutxienez; e) Espainiako hezkuntza-sisteman DBHko 3. mailan sartzeko eskatzen den mailaren baliokidea atzerrian egin izana egiaztatzea; f) Helduentzako bigarren hezkuntzaren I. mailako alor guztiak gaindituta izatea.	EDU/520/2011 Agindua, martxoaren 7koa. Art. bakarra 2.1
			Baldintza hauetakoren bat egiaztatzea: a) DBHko 3. mailara pasatzen da irakasle-taldeak erabaki duelako eta ezin zuelako 2. maila berriz errepikatu; b) Gizarte Garantiako Programa bat edo HLKP nahitaezko moduluak gainditu izana, eta erdi-mailako heziketa-ziklo bat egin izana eta gutxienez zikloaren heren baten iraupena duten lanbide moduluak gaindituta izatea	Hezkuntza Ministerioaren txostena (2009/9/24)
Goi mailan sartzeko proba gainditua (lanbide heziketa, arte plastikoak eta diseinua edo kirol ikasketak)	Batxiler-titulua.	Profesionalak	DBHko graduatu-titulua edo baliokide akademikoa izatea.	EDU/1603/2009 Agindua, ekainaren 10ekoa, 4.1 art.
Hemeretzi urtetik gorakoentzako arte-	Batxiler-titulua.	Profesionalak	Baldintza hauetako bat betetzea: a) DBHko	EDU/1603/2009 Agindua, ekainaren



irakaskuntzetarako sarbide-proba gainditua izatea			graduatu-titulua edo baliokide akademikoa izatea; b) Erdi-mailako graduako sarrera-proba gainditua izatea, eta erdi-mailako heziketa-ziklo bat egin izana eta gutxienez zikloaren erdiaren iraupena duten lanbide moduluak gaindituta izatea edo 1. maila eta DBHko 1. maila gaindituak izatea; c) Goi-mailako arte-irakaskuntzen 15 ECTS kreditu gaindituta izatea, gutxienez.	10ekoa, 4.2 art.
	DBHko graduatuaren titulua.		Baldintza hauetakoren bat egiaztatzea: a) DBHko 1. eta 2. mailak guztiz gaindituta izatea; b) Erdi-mailako zikloa egin izana eta gutxienez zikloaren erdiaren iraupena duten moduluak gaindituta izatea; c) Goi-mailako zikloa egin izana eta gutxienez zikloaren heren baten iraupena duten lanbide moduluak gaindituta izatea; d) Goi-mailako arte-irakaskuntzako 10 ECTS kreditu gaindituta izatea, gutxienez; e) DBHko 2. mailaren baliokideak diren ikasketak gaindituta izatea atzerrian; f) Helduentzako bigarren hezkuntzaren I. maila gaindituta izatea.	EDU/520/2011 Agindua, martxoaren 7koa. Art. bakarra 2.1
Unibertsitatean 25 urtetik gorako helduak sartzeko proba gainditua	Batxiler-titulua.	Profesionalak	Baldintza hauetako bat egiaztatzea: a) DBHko titulua edo ondore profesional edo akademikoetarako baliokidea den titulua izatea; b) Unibertsitate-ikasketen 15 ECTS kreditu gaindituta izatea	EDU/520/2011 Agindua, martxoaren 7koa. Art. bakarra 3.3
	DBHko graduatuaren titulua.			EDU/520/2011 Agindua, martxoaren 7koa. Art. bakarra 2.5
Arte-irakaskuntzetako ikasketak	Batxiler-titulua	Profesionalak	Arte-irakaskuntzetako zenbait ikasketa gainditu izana egiaztatzea (II. eranskina)	EDU/520/2011 Agindua, martxoaren 7koa. Art. bakarra 4

Iturria: Titulu eta Baliozkotze Bulegoa

## 4.5. Genero-berdintasuna

Hezkuntza Departamentuko Hezkidetza Taldeak (Bizikidetza eta Hezkidetza Atalaren mendekoa da) nibeitatez kanpoko ikastetxeetarako eta irakasleentzako prestakuntza diseinatzen eta garatzen du, etapa eta maila guztietako ikaskuntza eta irakaskuntza prozesuetan zein ikastetxeen antolakuntzan eta ikastetxeen eta hezkuntza erkidegoaren arteko harremanetan berdintasuna txertatzeko. Gainera, gure autonomia-erkidegoan gauzatzen diren baterako hezkuntzako proiektu eta jarduerak ezagutzera eman eta dinamizatzen ditu eta, azkenik, behar duten ikastetxe eta pertsonei aholkularitza ematen die.

### 4.5.1. Araudia

14/2015 Foru Legea, apirilaren 10ekoa, emakumeen kontrako Indarkeriari aurre egitekoa. 2015-2016an izapidetutako Foru Dekretu baten zirriborroak sexu- eta ugalketa-osasunaren alorreko osasun-prestazioak arautuko ditu (laster argitaratuko da).

### 4.5.2. Irakasleentzako prestakuntza, berdintasunaren alorrean

Banako prestakuntzan 106 lagunek hartu dute parte (95 emakumek eta 21 gizonak):

- Ziberjazarpena, groominga eta sextinga: gure ikasleen integritatearen eta pribatutasunaren aurkako mehatxu berriak.
- Hezkuntza interkulturala baterako hezkuntzan.
- Askatasunetik tiraniara: Ikasleek irakasleekiko dituzten indarkeriazko jarrerei emandako begirada bat, genero-ikuspuntu batetik.
- Genero indarkeriari aurrea hartzea ikasgelan

Ikastetxeetan emandako prestakuntzan, 301 lagunek parte hartu dute guztira (244 emakumek eta 47 gizonak), honela banatuta:

- 0-3 urte artekoentzako haur-eskola bat.
- Haur eta Lehen Hezkuntzako 13 ikastetxe.
- DBHko eta Batxilergoko 3 institutu.

Taula honetan emandako prestakuntzaren datuak jaso dira:

149. taula: Irakasleentzako prestakuntza-jarduerak, berdintasunaren alorrean. 2015

Modalitatea	Jardueraren izena	Ikastetxe parte-hartzailea	Parte-hartzaileak		
			Guztira	Emakumeak	Gizonak
Mintegia ikastetxean	Baterako Hezkuntza integratzeko sentsibilizazioa eta hasierako diagnostikoa	1	23	20	3
Mintegia ikastetxean	Nire ikastetxean batera heziz:	3	78	70	8

	Hasierako urratsak				
Informazio-saioa ikastetxean	Baterako hezkuntzaren hastapenak I: Zer da batera heztea eta zergatik batera hezi?	8	161	140	21
Informazio-saioa ikastetxean	Baterako hezkuntzaren hastapenak II: Batera nola hezi?	2	18	17	1
Ikastetxean bertan eginen den ikastaroa.	Nesken eta mutilen arteko komunikazio trebetasunak lantzea	2	30	28	2
Ikastaroa linean	Ziberjazarpena, grooming-a eta sexting-a; gure ikasleen segurtasunerako eta pribatutasunerako mehatxu berriak		38	35	3
Ikastaroa linean	Ikasleak eskola erredimenduaren aurrean: Baterako hezkuntzaren ekarpena		17	16	1
Ikastaroa ILZn	Genero indarkeriari aurrea hartzea ikasgelan		31	25	6
Ikastaroa ILZn	Askatasunetik tiraniara: Ikasleek irakasleekiko dituzten indarkeriazko jarrerari emandako begirada bat, genero-ikuspuntu batetik.		11	10	1
Ikastaroa ILZn	Kulturarteko hezkuntza baterako hezkuntzan		8	7	1
Ikastaroa ILZn	Berdintasunerako hezkuntzarako ikus-entzunezko baliabideak		11	9	2
Ikastaroa ILZn (2)	Ipuinak berdintasunerako hezkuntzan.		43	38	5
Hitzaldi informatiboa	Genero indarkeria eskola eremuan		16	11	5
Hezkidetzako jardunaldia	Hezkidetzako jardunbide egokiak Nafarroako ikastetxeetan		50	48	8
		16	535	474	67

### 4.5.3. Jarduera-ildoak

Jarduera-ildoak honela laburbil daitezke:

- Ikastetxeen artean esperientzien eta jardunbide egokien trukea sustatzen jarraitzea.
- Irakasleentzako prestakuntza-jarduerak eskaintzea.
- Baterako hezkuntzako sentsibilizazioa, azterketa eta diagnostikoa eskaintzea eskatzen duten ikastetxeei edo pertsoneri.
- Interesa duten ikastetxeei baterako hezkuntzako mailetak eskaintzen jarraitzea, eta bloga erabili eta eguneratzea.
- Baterako hezkuntzaren gaineko informazioa edo baliabideak eskatzen dituzten ikastetxeei arreta ematen jarraitzea.
- Hezkuntza Departamentuaren BERDINTASUN PLAN bat egitea. Berdintasun-planaren helburua da gure Departamentuko jarduera-esparrua izatea berdintasunaren alorrean. Berdintasun-plan honekin baterako hezkuntzaren helburuak txertatu nahi ditugu era progresiboan gizon eta emakumeen arteko berdintasuna lortzeko bitarteko bezala.

Bestalde, arreta- eta aholkularitza-lanei dagokienez, baterako hezkuntzaren alorrean baliabideak edo unean uneko aholkularitza behar duten ikastetxeen eskariari erantzuten zaio. Hala:

- Banako erantzuna eman zaie informazioa eta materialak eskatu dituzten ikastetxeei.
- Ikastetxe horretan prestakuntza jakin batzuk ematearen egokitasunari buruzko aholkularitza eman da.
- Hezkuntzako baliabideak eman zaizkie genero-berdintasunarekin lotutako gai zehatzak lantzeko eskatu duten ikastetxeei.
- Bulegoko funtseko baliabideak utzi dira.
- *Coeducando* bloga eta eskaintzen dituen aukerak aurkeztu dira.
- Baterako hezkuntzako espezialistengana zuzendu dira eskari batzuk.

### 4.5.4. Baliabide didaktikoak

Azpiko taulan lantzen diren baterako hezkuntzako hedapen- eta dinamizazio-baliabideak eta jarduerak zehazten dira.

150. taula: Berdintasunaren arloko baliabide didaktikoak. 2015-2016

Baliabidea	Deskribapena	Balioespena
Coeducando bloga	<p>- Bloga dinamizatzea, edukiak kontsultatzeko tresna bezala eta Coeducando prestakuntzan parte hartzen ari diren ikastetxeen ekarpenak koordinatzeko gune bezala.</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Bloga erabili da esperientziak partekatu eta ezagutzera emateko, informazioa guztien eskura jartzeko eta iritziak emateko.</li> <li>• Era berean, mintegi eta prestakuntza-ikastaroetako materialak eta informazioa hedatu dira blogaren bitartez.</li> </ul>	<p>Edukiak aldi behin berrikusi eta eguneratu dira. Gainera, blogaren itxura zaindu eta hobetu da.</p> <p>Ikastetxe askotan oraindik ezagutzen ez duten plataforma bat da. Horregatik, prestakuntza-ikastaro guztietan eman dugu horren berri. Coeducando bloga ezagutzen duten ikastetxeek iritzi positiboa dute bertako edukiei buruz.</p>

<p>Baterako hezkuntzako maletak</p>	<p>Maletak aurkeztu ditugu ikasturte honetan baterako hezkuntzako taldeak antolatu dituen prestakuntza-jarduera guztietan.</p> <p>- Prestakuntzan parte hartu duten ikastetxe gehienek maleta bidaiariak erabili dituzte. Guztira, 11 ikastetxek eskatu dute baliabide hori. Ikastetxe guzti horietan, maletak erabiltzeko epearen iraupena hiru hilekoa izan da. Horrela, liburuak mailegatzeko aukera eman zaie bai irakasleei bai ikasleei ere.</p>	<p>la maleta guztien zerrendak berriro dira eta material berriak gehitu zaizkie.</p> <p>Ikasturte honetan euskarazko materialaren erosketa lehenesteko hautua egin dugu. Izan ere, D ereduko ikastetxeen eskariak gora egin du, eta maleta bakarra geneukan euskara hutsean. Une honetan, bigarren maleta bat osatu dugu ia.</p> <p>Maleten hedapen handiagoa egitea, haien eskaria sustatzeko.</p>
<p>Baterako hezkuntzako jardunbide egokien sariak eta baterako hezkuntzako jardunaldia.</p>	<p>Baterako hezkuntzako jardunaldiaren testuinguruan, otsailaren 24an baterako hezkuntzako jardunbide egokien V. sariak eman ziren. Hautatutako hiru ikastetxeek 2013-14 eta 2014-15 ikasturteetan gauzatutako jardunbide egokiak aurkeztu zituzten. Gainera, Daniel Gabarrók ere parte hartu zuen, hitzaldi bat emanez: «Maskulinitate eta feminitate berriak. Behar sozial bat». Azkenik, baterako hezkuntzako taldeak baterako hezkuntzako ikastetxeen sarearen proiektua aurkeztu zuen 2016-17 ikasturterako.</p>	<p>Jardunaldiaren balorazioa positiboa izan da, beraz. Kalitate handiko hitzaldia izan genuen, baterako hezkuntzaren arloko erreferente baten eskutik, eta gainera oso interesgarria izan da saritutako ikastetxeen esperientziak eta ibilbidea ezagutzea.</p> <p>Sariak bi urtean behin ematen jarraitzeko proposamena egin da.</p>
<p>Aukera-berdintasunerako emakumearen institutuak antolatu duen DIANA PROGRAMA kudeatzen laguntzea.</p>	<p>Autonomia-erkidegoek proposatuta ikastetxeetan esku hartuz neska eta emakume gazteek ikasketa teknologikoetan duten presentzia sustatzeko jardueramultzo bateko lehenengo ekintza da Diana programa.</p>	<p>Programa Nafarroako lau ikastetxetan garatu da eta oso balorazio positiboa izan du.</p>

Iturria: Bizikidetzeta eta Hezkidetzeta Bulegoa

#### 4.5.5. Parte-hartze eta lankidetzeta beste erakunde batzuekin

Honako lankidetzeta hauek nabarmendu nahi ditugu:

- Parte-hartzea Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioak deitzen duen autonomia erkidegoen arteko urteko «Intercambia» topaketan. Honako hau izan zen IX. Intercambia topaketaren leloa: «Genero-ikuspegi bat eskola-bizikidetzaren alde» Baterako hezkuntzako taldeko kide batzuen presentzia Madrilen 2015eko azaroaren 5ean eta 6an hezkuntzaren arloan proposamenak jasotzeko, materialak eskatzeko eta gure komunitatearekin lotutako beharrezko ekarpenak egiteko antolatu zen topaketan.
- Lankidetzeta Nafarroako Berdintasunerako Institutuarekin, Osasun, Gizarte Zerbitzu eta Berdintasun Ministerioaren eskutik ikastetxeetan egiten diren jardueretan lagunduz eta Institutuak eskatutako datu estatistikoak eskainiz.

- Lankidetzeta Madrilgo Emakumearen eta Aukera Berdintasunerako Institutuarekin, 2016-17 ikasturteko lehen hiruhilekoan Nafarroako bi ikastetxetan emanen den RELACIONA PROIEKTUA kudeatzeko.
- 14/2015 Foru Legearen jarduera-plana garatzeko parte hartzea, 2017rako lan-plangintza egiteko jarduerak lehenesten, hezkuntzako plan sektorialaren barruan.
- Osasun Departamentuarekin batera landu beharreko lehentasunezko ildoak egiteko parte hartzea, honako hauek garatzeko: a) gazteentzako programa espezifikoak, sexu- eta ugalketa-osasunaren alorreko osasun-prestazioen antolamendua ezartzen dituen Foru Dekretuak arautzen dituenak, eta b) hezkuntza afektibo-sexuala ezartzea hezkuntzan.
- Transexualitateari arreta emateko batzordean parte hartzea, LGTB kolektiboaren benetako eskubide-berdintasuna sustatzeko.
- Transexualitate-egoeran dauden adingabeen kasuak ikastetxeetan hauteman eta horien aurrean jokatzeko protokoloa egitea.
- Berdintasunarekin lotuta INAIk, Nafarroako Parlamentuak eta hainbat erakundek antolatutako jardunaldietan parte hartzea.

### **4.6. Hezkuntzaren kalitatea eta hobekuntza**

#### **4.6.1. Eskola-zuzendaritza**

2013-2014 ikasturteko Estatuko Eskola Kontseiluak egindako hezkuntza-sistemaren egoeraren txostenean zera esaten da: «Azken hamar urteetan egin diren azterlan eta ikerketa garrantzitsu batzuen arabera, eskola-zuzendaritzaren kalitatea da hezkuntza-sistemak hobetzeko ezinbesteko faktoreetako bat, hala heziketaren kalitatea helburu duen lidergo pedagogikoaren dimentsioan nola helburu komunak lortzeko pertsonak mobilizatzeko gaitasuna duen lidergo eraldatzailearen dimentsioan. Horren arrazoia zera da: lidergoak eragin garrantzitsua du ikasleen errendimenduaren hobekuntzan, batik bat gizarte-talde ahulenetatik datozen ikasleen kasuan».

Txosten honen beste atal batean azaldu den bezala, Europako Batzordeak ET2020 esparru estrategikoan sartu ditu politika horiek, esparru horren bigarren helburua lortzeko helburuarekin: «Hezkuntzaren eta prestakuntzaren kalitatea eta eraginkortasuna hobetzea».

Uneotan zuzendaritzaren funtzioa hezkuntzaren kalitatea hobetzeko abenduaren 9ko 8/2013 Lege Organikoak (LOMCE) arautzen du. Lege horrek hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoan (LOE) aldaketa partzialak egiten ditu. Itunpeko ikastetxe pribatuen zuzendaritza gai horren inguruan hezkuntzarako eskubidea arautzen duen uztailaren 3ko 8/1985 Lege Organikoak (LODE) esaten duenari jarraikiz arautzen da, itunpeko ikastetxeen zuzendaritzari buruz LOMCEk egindako aldaketak kontuan izanik.

Foru-esparruan, Hezkuntzako kontseilariak emaniko abenduaren 2ko 202/2010 Foru Aginduak arautzen du Nafarroako Gobernuak Hezkuntza Departamentuaren mendeko ikastetxe publikoetako zuzendariak hautatu, ebaluatu, berri eta izendatzeko prozesua.

Hezkuntzako kontseilariak emaniko martxoaren 3ko 24/2015 Foru Aginduaren bidez, aipatutako 202/2010 Foru Aginduaren 2. artikulua aldatu zen, eta horrela geratu zen idatzita: «Hezkuntza Departamentuak aldian behin deialdia egiten du zuzendari postuak hutsik gelditzen diren ikastetxeetako zuzendariak hautatzeko.»

2015-2016 ikasturtean zehar, Hezkuntza Departamentuak ez du Nafarroako Gobernuak Hezkuntza Departamentuaren menpeko ikastetxe publikoetako zuzendariak hautatu, ebaluatu edo haien izendapena berritzeko deialdirik egin.

## Emakumeen presentzia eskola-zuzendaritzan

2013-2014 ikasturtean, Espainiako araubide orokorreko ikastetxeetako zuzendarien % 61,8 emakumeak ziren. Bestalde, % 63,3 idazkariak ziren, eta ehuneko bera zuten ikastetxeetako emakumezko ikasketa-buruek. Azkenik, zuzendaritza-taldeetako kideen % 62,7 emakumezkoak ziren, eta epe horretan bertan araubide orokorreko irakaskuntzan lanean ari ziren irakasleen % 71,5 emakumeak ziren.

151. taula: Emakumezko zuzendarien, idazkariaren eta ikasketa-buruaren presentzia, termino absolutuetan, araubide orokorreko ikastetxeetan, ematen den irakasgai-motaren arabera. 2013-2014

	Zuzendariak		Idazkariak		Ikasketa-buruak	
	Guztira	Emakumeak	Guztira	Emakumeak	Guztira	Emakumeak
Haur Hezkuntzako ikastetxeak	5.237	4.886	710	660	466	441
Lehen Hezkuntzako ikastetxeak	9.476	5.728	8.094	5.546	7.666	5.682
Lehen Hezkuntza eta DBHko ikastetxeak	2.388	1.326	1.505	975	2.164	1.361
Lehen Hezkuntza, DBH eta Batxilergoko eta/edo lanbide-heziketako ikastetxeak	1.873	899	987	626	1.937	1.098
DBHko eta/edo Batxilergoko eta/edo lanbide-heziketako ikastetxeak	4.380	1.559	3.905	1.777	6.262	3.076
Hezkuntza Bereziko ikastetxe espezifikoak	394	270	215	168	260	209
Guztira	23.748	14.668	15.416	9.752	18.755	11.867

Iturria: Guk geuk egina Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioaren datuekin

Zuzendaritza-postuetan dauden emakumeen ehunekoak behera egiten du hezkuntza-sistemako etapa eta mailetan aurrera egin ahala. Kontuan izan behar da Haur eta Lehen Hezkuntzan lanean ari diren irakasleen % 83,1 emakumeak zirela, eta ondorengo mailetan behera egiteko joera duela proportzio horrek. Hala:

- Haur Hezkuntzan, emakumeak ziren zuzendarien % 93,3,
- Lehen Hezkuntzan, % 60,4,
- Lehen Hezkuntza eta DBHn, % 55,5,
- Lehen Hezkuntza, DBHn eta Batxilergoan eta/edo lanbide-heziketan, % 48,0,
- Bigarren Hezkuntza (DBHn eta/edo Batxilergoan eta/edo lanbide-heziketan), % 35,6,
- Hezkuntza Bereziko ikastetxe espezifikoetan, % 68,5.

Hezkuntza-maila guztietan, emakumeen eta emakumezko ikasketa-buru eta idazkariaren ehunekoa emakumezko zuzendariena baino handiagoa da, eta joera hori areagotu egiten da Bigarren Hezkuntzan, azpiko grafikoan ikus daitekeen bezala.


117. grafikoa: Emakumezko zuzendari, idazkari eta ikasketaburuen presentzia Espainian, ikastetxeak ematen duen hezkuntza-mailaren arabera. 2013-2014



Iturria: Guk geuk egina Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioaren datuekin

Autonomia-erkidego guztietan, emakumeen presentzia erlatiboa txikiagoa da ikastetxeetako zuzendaritza-postuetan irakasleen multzoan baino, araubide orokorreko irakaskuntzan. Zuzendaritza-postuetako emakumeen ehunetik txikiena Extremaduran erregistratu zen: % 50,6; hau da, lurralde horretan emakumeek irakaskuntzan duten presentzia erlatiboa baino 16 puntu gutxiago. Kontrako egoeran Madril dugu. Bertan, emakumezko zuzendarien ehunekoak % 69,7koa da, eta emakumezko irakasleak % 74,5 dira.

118. grafikoa: Emakumezko irakasle, zuzendari, idazkari eta ikasketaburuen presentzia erlatiboa unibertsitatez kanpoko araubide orokorreko ikastetxeetan, autonomia-erkidegoaren arabera. 2012-2013



Iturria: Guk geuk egina Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioaren datuekin



Nafarroan emakumeek zuzendaritza-postuetan duten presentzia honako taula hauetan jaso da.

152. taula: Ikastetxe publikoetako zuzendaritza-postuak, sexuaren arabera. 2015-2016

Gizonak	Emakumeak	Guztira
261	446	707


Iturria: Antolamenduko eta Aukera Berdintasuneko Zerbitzua

153. taula: Ikastetxeetako zuzendaritza-postuak, karguaren eta sexuaren arabera. 2015-2016

Kargua	Sexua	Guztira
Zuzendaritza (Hezkuntza)	Gizona	101
	Emakumea	138
Zuzendaritzaren ondokoa (Hezkuntza)	Emakumea	1
ILZren zuzendaritza	Gizona	1
	Emakumea	4
Ikasketa-burutza	Gizona	56
	Emakumea	116
Ikasketa-burutza (ondokoa)	Gizona	16
	Emakumea	40
Idazkaritza	Gizona	66
	Emakumea	122
Idazkaritza (ondokoa)	Emakumea	1
Zuzendariordetza	Gizona	21
	Emakumea	24
Guztira		707

Iturria: Antolamenduko eta Aukera Berdintasuneko Zerbitzua

119. grafikoa: Ikastetxeetako zuzendaritza-postuak, karguaren eta sexuaren arabera. 2015-2016



Iturria: Guk geuk egina, Antolamenduko eta Aukera Berdintasuneko Zerbitzua datuekin

Autonomia-erkidego guztietan, 2006-2007 eta 2013-2014 ikasturteen artean, zuzendaritza-postuetako eta irakasleen multzoko emakumeen proportzioak goranzko joera txikia izan du (% 67,8 2006-2007 ikasturtean eta % 71,5 2013-2014an).

Bestalde, 2006-2014 epean araubide orokorreko irakaskuntza ematen duten ikastetxeetako zuzendaritza-postuetan emakumeek duten presentzia erlatiboak ere gorako joera izan du, kasu horretan nabarmenagoa, zazpi urtetan 11,5 puntu igo baita (% 50,3 2006-2007 ikasturtean eta % 61,8 2013-2014an).

### **4.6.2. Kalitatearen kudeaketa ikastetxeetan**

- **Ikastetxe publikoak**

#### **Kalitate-sareak ikastetxe publikoetan**

Politika publikoak eta zerbitzu publikoen kalitatea ebaluatzeari buruzko abenduaren 29ko 21/2005 Foru Legeak ebaluazio-sistema publikoa sortu eta garatzeko behar diren neurriak ezartzen ditu, bai Nafarroako Administrazio Publikoak diseinatu eta gauzatutako politika publikoak, bai administrazio horiek -zeinek bere eskumenen esparruan- nafar herritarrei emandako zerbitzuen kalitatea ebaluatuko dituen.

Hezkuntza Departamentuari dagokio hezkuntza sistemaren kalitatea eta etengabeko hobekuntza zehaztu eta antolatzea, ikastetxe publikoek beren autonomiaz baliaturik egiten ahal dituzten ekintzak galarazi gabe.

Eskumen horren esparruan, Hezkuntza Departamentuak baimendu zuen "Kalitatea kudeatzeko sistemen hedapena" izeneko programa abian jartzea Nafarroako Foru Komunitateko ikastetxe publikoetan, Eskola eta Lanbide Irakaskuntzaren zuzendari nagusiak emaniko martxoaren 6ko 230/2006 Ebazpenaren bidez.

Antolamenduaren Kalitatearen eta Berrikuntzaren zuzendari nagusiaren azaroaren 23ko 458/2010 Ebazpenaren bidez, Nafarroako Foru Komunitateko ikastetxe publikoetan "Kalitatea kudeatzeko sistemen hedapena" izeneko programa jarraitzeko baimena eman zen eta "Kalitatearekiko konpromisoa" eta "Ikastetxe bikaina" aitortpenak emateko arauak ezarri ziren.

Era berean, Europako esparruan, Europar Batasuneko estatu kideen gobernuetako ordezkariak, 2007ko azaroaren 15ean egindako bilkuran, erabaki zuten beharrezkoa zela ahalegina egitea zuzentze-funtzioak betetzen dituzten irakasleek, irakasteko gaitasunak eta esperientzia izateaz gain, ikastetxeak kudeatu eta zuzentzeko kalitate handiko prestakuntza eskura dezaten bermatzeko.

Hezkuntzako kontseilariaren uztailaren 5eko 63/2013 Foru Aginduaren bidez, ikastetxeetan Kalitatea Kudeatzeko Sistema bat ezartzea ahalbidetuko duen eredia ezarri eta arautzen da; eredu hori arau propio baten arabera egiten da, hots, "Ikastetxeen Kalitatea Kudeatzeko Sistema-2013 Araua", zeinak "Kalitatearekiko konpromisoa", "Kalitatezko ikastetxea" eta "Ikastetxe bikaina" aitortpenak emateko bete beharreko gutxieneko baldintzak zehazten dituen.


Hezkuntzako kontseilariaren otsailaren 5eko 10/2015 Foru Aginduaren bidez, aitortpenen indarraldia aldatzen da eta «Kalitatezko ikastetxea» eta «Ikastetxe bikaina» aitortpenak berritzeko KKSaren kanpo ikuskapena ezartzen da. Kanpo ikuskapen hori Hezkuntza Departamentuko Ebaluazioaren eta Kalitatearen Atalak egiten du.

2015-2016 ikasturtean, Nafarroako araubide orokorreko 241 ikastetxe publikoetako 125ek parte hartzen zuten indarrean dauden 17 kalitate-sareetan, ondoko tauletan ikus daitekeen moduan.

154. taula: Ikastetxe publikoek sareetan duten banaketa, eskolatzeko-mailaren arabera. 2015-2016


Maila	Sareetan dauden ikastetxeen kop.	Sareetan dauden ikastetxeen guztizkoaren gaineko maila bakoitzeko ikastetxeen ehunekoa	Ikastetxe publikoek kop.	Maila bakoitzeko ikastetxe publikoek guztizkoaren gaineko sareetan dauden ikastetxeen ehunekoa
LH	68	54,4	159	42,77
LH-BH	8	6,4	11	72,73
BH	8	6,4	16	50,0
BH-B	14	11,2	22	63,64
LaH	12	9,6	13	92,31
BH-B-LaH	3	2,4	6	50,0
B-LaH	3	2,4	3	100,0
HEO	3	2,4	3	100,0
BAL	6	4,8	8	75,0
Guztira	125	100,0	241	51,87

120. grafikoa: Kalitate-sareetan dauden ikastetxe publikoek kopuruaren bilakaera. 2004-2016



Iturria: Guk geuk egina, Ebaluazio eta Kalitate Atalaren datuekin

121. grafikoa: Kalitate-sareetan dauden ikastetxe publikoek kopurua. 2015-2016



LH: Lehen Hezkuntza, BH: Bigarren Hezkuntza  
 LaH: lanbide-heziketa  
 HEO: hizkuntza-eskola ofizialak  
 B: Batxilergoa  
 BAL: baliabide-zentroak  
 Iturria: Guk geuk egina, Ebaluazio eta Kalitate Atalaren datuekin

## 1 155. taula: Kalitate-sareetan dauden ikastetxe publikoak, eskolatz-mailaren eta hizkuntza-ereduaren arabera 2015-2016

REDES AUTÓNOMAS / SARE AUTONOMOAK							
N1	N2	N3	N4C	N4E	N5C	N5E	N6T1
Bera - Toki-Ona BHI	Burlata - Burlada LH IB	Berriozar - Berriozarko DBHI	Altsasu - Sakana LH IBP	Elizondo - Elizondo Lanbide Eskola IBP	Uharte - Huarte BHI	Garralda - Nuestra Señora de Orreaga HLHIP DBHI	Zarrakastelu - Valle del Aragón DBHI
Iruña - B.H.I. Iturrama	Cintruénigo - La Paz DBHI	Corella - Alhama DBHI	Azagra - Reyno de Navarra DBHI	Iruña - Amaiur Ikastola HLHIP	Lerin - Doña Blanca de Navarra HLHIP		Cortes - Cerro de la Cruz HLHIP
Iruña - San Juan-Donibane IB	Cortes - Bardenas Reales DBHI	Lizarrar - Estella IBP	Beriain - Beriaingo HLHIP	Atarrabia - Atargi HLHIP	Lodosa - Angel Martínez Baigorri HLHIP		
Iruña - Donapea IBP	Azkoien - Ribera del Arga BHI	Martzilla - Marqués de Villena BHI	Cintruénigo - Otero de Navascués HLHIP	Zizur Nagusia - Erreniega HLHIP	Los Arcos - Santa María HLHIP		
Iruña - Julio Caro Baroja BHI	Zangoza - Sierra de Leyre BHI	Iruña - María Ana Sanz IB	Imarkoain - Energia Berriztagarrien Goi Mailako Ikastetxe Bateratua		Mendabia - Joaquín Romera DBHI		
Iruña - Navarro Villoslada BHI		San Adrián - Alfonso X El Sabio HLHIP	Irunberri - Lumbier LH BHI		Noain - Elortzibar DBHI		
Iruña - Plaza de la Cruz BHI		San Adrián - Ega BHI	Noain - San Miguel HLHIP		Iruña - Nafarroako Lanbide Eskola Tekniko Sanitarioa		
Tafalla - Tafallako IBP			Iruña - Virgen del Camino IBP				
Tutera - ETI IBP			Iruña - Mendillorri HLHIP				
Tutera - Benjamín de Tudela BHI			Iruña - Paderborn - Victor Pradera HLHIP				
Tutera - Valle del Ebro BHI			Ribaforada - San Bartolomé HLHIP				
			Atarrabia - Lorenzo Goicoa HLHIP				

REDES CON SEMINARIOS / MINTEGIAK DITUZTEN SAREAK								
N6EL	N6E	N6C	N6T2	N7C	N7E	N8C	N9C1	N9C2
Arantza - Arantza HLHIP	Altsasu - Zelandi HLHIP	Barañain - Eulza HLHIP	Ablitas - San Babil HLHIP	Artaxoa - Urraca Reina HLHIP	Arbizu - Arbizuko Ikastetxe Publikoa HLHIP	Milagro - Virgen del Patrocinio HLHIP	Berriozar - Berriozar Mendialdea I HLHIP	Lizarra - Lizarrako ILZ
Bera - Ricardo Baroja HLHIP	Antsoain - Ezkaba HLHIP	Barañain - Los Sauces-Sahats HLHIP	Arguedas - Sancho Ramírez HLHIP	Barasoain - Martín Azpilcueta HLHIP	Berriozar - Mendialdea II HLHIP	Iruña - Azpilagaña HLHIP	Burlata - Ibaialde BHI	Lekaroz - Lekarozko ILZ
Doneztebe - San Miguel HLHIP	Etxarri Aranatz - San Donato HLHIP	Iruña - «Agroforestal» IB	Azagra - Francisco Arbeloa HLHIP	Berbintzana - Río Arga HLHIP	Burlata - Ermitaberri HLHIP	Iruña - Hizkuntza Eskola Ofiziala	Lizarra - Remontival HLHIP	Iruña - Iruñeko ILZ
Elizondo - Elizondo HLHIP	Jauntsarats - Oihanzabal HLHIP	Iruña - Cardenal Ilundain HLHIP	Buñuel - Santa Ana HLHIP	Cadreita - Teresa Bertrán de Lis HLHIP	Iturmendi - Arrano Beltza HLHIP	Iruña - Padre Moret-Irubide BHI	Leitza - Erleta HLHIP	Iruña - Hezkuntza Berezirako Nafarroako Baliabide Zentroa.
Lesaka - Irain HLHIP	Lakuntza - Luis Fuentes HLHIP	Iruña - Ermitagaña HLHIP	Cabanillas - San Juan de Jerusalén HLHIP	Caparros - Virgen del Soto HLHIP	Larraintzar - Obispo Irurita HLHIP DBHI	Sarriguren - Sarrigurengo HLHIP	Murillo el Fruto - Raimundo Lanás HLHIP	Iruña - Urrutiko Hizkuntza Eskola Ofiziala
	Otsagabia - Otsagabiko HLHIP DBHI	Iruña - Iturrama HLHIP	Cascante - Santa Vicenta María HLHIP	Lizarra - Tierra Estella BHI	Lekunberri - Ibarberri HLHIP	Alesbes - El Castellar HLHIP	Peralta - Juan Bautista Irurzun HLHIP	Tafalla - Tafallako ILZ
	Iruña - Elorri HLHIP	Iruña - San Juan de la Cadena HLHIP	Fustiñana - Santos Justo y Pastor HLHIP	Faltzes - Doña Alvara Alvarez HLHIP	Olazti - Domingo Bados HLHIP	Atarrabia - Pedro de Atarrabia DBHI	Tafalla - Marqués de la Real Defensa HLHIP	Tutera - Tuterako ILZ
	Iruña - Mendigoiti HLHIP	Iruña - Basoko BHI	Tutera - Huertas Mayores HLHIP	Funes - Elías Teres HLHIP	Urdiain - Urdiaingo Herri Eskola HLHIP		Tutera - Griseras HLHIP	
	Erronkari - Roncal HLHIP DBHI	Iruña - Mendillorri BHI	Tutera - Hizkuntza Eskola Ofiziala	Martzilla - San Bartolomé HLHIP				
	Zubiri - Xabier Zubiri HLHIP		Valtierra - Félix Zapatero HLHIP	Erriberri - Príncipe de Viana HLHIP				
				Pitillas - Pitillasko HLHIP				

**Sareetako antolaketaren aldaketak**

Hona hemen nabarmentzeko moduko gertakari batzuk:

- Sarea uztea. Lau ikastetxek sarea utzi dute:
  - Uharteko Virgen Blanca HLHIP,
  - Murchanteko Mardones y Magaña HLHIP,
  - Mendigorriko Julian Maria Espinal Olcoz HLHIP,
  - Iruñeko Patxi Larrainzar HLHIP.
- Sarez aldatzea. 3 ikastetxe sare autonomoetara pasa dira (63/2013 FA, uztailaren 5ekoa, IV. kapitulua)
  - Elizondoko Lanbide Eskola IBP
  - Iruñeko Amaiur Ikastola HLHIP,
  - Uharteko Huarte BHI.

IKKS aitortpena ez duen N5E (euskara) sareko 4 ikastetxe N6E eta N7E sareetara pasa dira, IKKSren ezarpen-mailaren arabera.

- Iruñeko Elorri HLHIP,
- Erronkariko Roncal HLHIP DBHI,
- Otsagabiko HLHIP DBHI,
- Larraintzarko Obispo Irurita HLHIP DBHI.

**Kalitate-sareen mintegiak eta prestakuntza-ikastaroak**

Kalitate bulegoa - Kadinetek (Nafarroako ikastetxe publikoen kalitate-sareak) dituen helburu estrategikoen artea daude hauek:

- Ikasturte bakoitzean ikastetxeen lehentasunezko bost beharrei buruzko berariazko prestakuntza antolatzea.
- Ikasturte bakoitzean antolatzen den kalitateari buruzko berariazko prestakuntzan ikastetxe autonomoen % 80k baino gehiagok parte hartzea lortzea.
- Sareetan dauden ikastetxeetako irakasleen % 70ek oinarrizko *driveri* buruzko prestakuntza jasotzea lortzea.

Prestakuntza-jarduerak zehazteko, kalitate-sareetako ikastetxeek dituzten prestakuntza-beharrak detektatu dira, 2015eko ekainean. Lehentasunezko bost beharrak honako hauek izan dira: Hezkuntza-kudeaketako tresnak *google driven*: maila aurreratua; prozesuen arabera kudeaketa; zuzendaritza-proiektua: plan estrategiko bat egitea; hezkuntza-kudeaketako tresnak *google driven*: oinarrizko maila; dokumentuen kudeaketa datu-baseekin.

Kalitateari eta hezkuntza-kudeaketarako IKT tresnei buruzko berariazko prestakuntza kalitate-sareen mintegien bidez egin da 49 ikastetxeren kasuan, eta beste prestakuntza-ekintza batzuen bidez egin da kalitate-sareetan dauden 124 ikastetxeen kasuan. Datuak taula honetan jaso dira:

156. taula: 2015-2016 ikasturtean egindako prestakuntza-jarduerak

Jarduerak				
Izen-emateak	476			
Parte-hartzaile kop.	364			
Ziurtagiri kop.	320	Parte-hartzaileen	ehunekoa,	izena %76

Ziurtatutako ordu kopurua	11.186	Ziurtagirien ehunekoa, parte-hartzaileen kopuruarekin alderaturik	% 88
---------------------------	--------	---	------

Iturria: Ebaluazioaren eta Kalitatearen Atala

### Kalitatea Kudeatzeko Sistemen gaineko araudia

Ikastetxeetan IKKS-en garapena arautzen du otsailaren 5eko 10/2015 Foru Aginduaren bidez aldatutako 63/2013 Foru Aginduak (63/2013 Foru Agindua, uztailaren 5ekoa, Hezkuntzako kontseilariak emana, IKKS-2013 Araua onesten duena, hots, Nafarroako Foru Komunitateko unibertsitateaz kanpoko ikastetxe publikoetan kalitatea kudeatzeko sistemak garatu, ezarri eta aitortzeko baldintzak arautzen dituena).

### IKKSren kanpoko ikuskaritza

Ebaluazio eta Kalitate Atalak egiten ditu kanpoko lehen ikuskaritzak «Ikastetxe bikaina» aitortpena berritu nahi duten ikastetxeetan, uztailaren 5eko 63/2013 Foru Aginduaren 23. artikulua arabera.

2015-2016 ikasturtean egindako kanpoko ikuskaritzen emaitzak honako hauek izan dira:

- Ikuskaritza egin zaie Ebaluazio eta Kalitate Atalean horretarako eskaria egin duten bederatzi ikastetxeei.
- Hiru ikastetxeetan aitortpenaren iraunaldia (lau ikasturte) amaitu zen.
- Prozedura ez da horietako batean ere eten.
- Kanpoko ikuskaritza Ebaluazio eta Kalitate Atalak ezarritako prozeduraren arabera egin da.

Zazpi ikastetxek lortu dute Hezkuntza Departamentuaren IKKS-2013 arauaren araberako kudeaketa-sistema bat modu eraginkorrean mantentzea:

157. taula: «Ikastetxe bikaina» aitortpena berritu duten ikastetxeak. 2015-2016

Ikastetxea
- San Adriango Ega BHI
- Cintruenigoko La Paz DBHI
- Azkoiengo Ribera del Arga BHI
- Iruñeko Donapea IBP
- Berriozarko Berriozar DBHI
- Tafallako Ikastetxe Bateratu Politeknikoa
- Martzillako Marqués de Villena BHI

Iturria: Ebaluazioaren eta Kalitatearen Atala

### IKKSren aitortpenak

2015-2016 ikasturtean, Hezkuntza Departamentuko sareetan dauden hainbat ikastetxek beste erakunde batzuek emandako kanpoko aitortpenak lortu dituzte. Taula honetan jaso dira IKKSak direla eta aitortpenak lortu dituzten ikastetxeak, aitortpen motak eta erakundeak aipatuz.

158. taula: Ikastetxe publikoek kalitateagatik lortutako kanpoko aitortpenak. 2015-2016

Aitortpen mota	Luzatzen duen erakundea	Ikastetxe-kopurua	Ikastetxeak
----------------	-------------------------	-------------------	-------------

**HEZKUNTZA-PROZESUAK ETA -POLITIKAK**

«Bikaintasuneranzko konpromisoa»	Nafarroako Bikaintasunerako Fundazioa	1	- «Agroforestal» IB, Iruña
ISO 9001-2008 araua	Bureau Veritas Certification	2	- Tafalla IBP, Tafalla - CIP ETI, Tuterá
«Ikastetxe bikaina» IKKS 2013 Araua	Hezkuntza Departamentua	6	- Sakana LH IBP, Altsasu - Energia Berriztagarrien Goi Mailako Ikastetxe Bateratua - Plaza de la Cruz BHI, Iruña - San Bartolomé HLHIP, Ribaforada - Benjamín de Tudela BHI, Tuterá - Valle del Ebro BHI, Tuterá
"Kalitatezko ikastetxea" IKKS 2013 Araua	Hezkuntza Departamentua	2	- Santa Ana HLHIP, Buñuel - Elizondo Lanbide Eskola IBP, Elizondo
"Kalitatearekiko konpromisoa" IKKS 2013 Araua	Hezkuntza Departamentua	6	- Arantza HLHIP, Arantza - Ricardo Baroja HLHIP, Bera - Santa Vicenta María HLHIP, Cascante - Santos Justo y Pastor HLHIP, Fustiñana - Otsagabiko HLHIP DBHI, Otsagabia - Félix Zapatero HLHIP, Valtierra

*Iturria: Ebaluazioaren eta Kalitatearen Atala*

**159. taula: Ikastetxe publikoek kalitateagatik lortutako kanpoko aitortzen kopuruaren bilakaera. 2011-2016**

Kanpo aitortzenak	2011	2012	2013	2014	2015	2016
EFQM 200+ edo gehiago, Nafarroako Bikaintasunerako Fundazioa	1		1	5	6	2
ISO 9001:2008 ziurtagiria. Bureau Veritas	10	4	1	2		2
EFQM 400+ edo gehiago, Nafarroako Bikaintasunerako Fundazioa	2	1		1	1	
"Ikastetxe Bikaina", Hezkuntza Departamentua	4	3	2	5	8	13
"Kalitatezko ikastetxea", Hezkuntza Departamentua	4	4	5	4	2	2
"Kalitatearekiko konpromisoa", Hezkuntza Departamentua					5	6


*Iturria: Ebaluazioaren eta Kalitatearen Atala*

Hezkuntza Departamentuak emandako aitortzen-kopuruak gora egin duela ikusten da, batik bat «Ikastetxe Bikaina» ziurtagiriaren kasuan. Sei ikastetxek aurreneko aldiz lortu dute aitortzena, Hezkuntzako Ikuskaritza Zerbitzuak eginiko IKKSren kanpoko auditoretzaren bidez. Zazpi ikastetxek aitortzena berritu dute, Ebaluazio eta Kalitate Atalak eginiko IKKSren kanpoko ikuskaritza gainditu ondoren.



Jarraian, IKKSk aitorpenen bat indarrean duten ikastetxeen kopuruari buruzko datuak jaso dira.

122. grafikoa: Aitorpenak indarrean dituzten ikastetxeen kopurua. 2015-2016



ISO: Estandarizaziorako Nazioarteko Erakundea; EFQM: European Foundation for Quality Management; IKKS: Ikastetxeen Kalitatea Kudeatzeko Sistema; ZG: Zerbitzuen Gutuna; NTMP: «Pentacidad» arau teknikoaren eredia  
Iturria: Guk geuk egina, Ebaluazio eta Kalitate Atalaren datuekin

### Zerbitzuen gutunak

Politika publikoak eta zerbitzu publikoen kalitatea ebaluatzeari buruzko abenduaren 29ko 21/2005 Foru Legearen IV. kapituluak zerbitzuen gutunak arautzen ditu. Foru Lege horren 21. artikulua 3. atalari xedatzen duenez, zerbitzu-gutunaren onarpenak Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratuko dira (NAO), mundu guztiak ezagut ditzan. Kalitate-sareetan parte hartzen duten ikastetxe publikoek beren zerbitzu-gutunak egin eta onartzen dituzte kalitate-sareen mintegien bidez.

Zerbitzu-gutuna onartu duten 18 ikastetxeak aipatuko ditugu jarraian:

160. taula: Zerbitzu-gutuna onartu duten ikastetxeak. 2015-2016

Ikastetxea	Herria
Zelandi HLHIP	Altsasu
Ricardo Baroja HLHIP	Bera
San Donato HLHIP	Etxarri Aranatz
San Miguel HLHIP	Doneztebe
Luis Fuentes HLHIP	Lakuntza
Elizondo HLHIP	Elizondo
Otsagabiko HLHIP DBHI	Otsagabia
Irain HLHIP	Lesaka
Elorri HLHIP	Iruña
San Babil HLHIP	Ablitas
Mendigoiti HLHIP	Iruña
Santa Ana HLHIP	Buñuel

Roncal HLHIP DBHI	Erronkari
San Juan de Jerusalén HLHIP	Cabanillas
Xabier Zubiri HLHIP	Zubiri
Huertas Mayores HLHIP	Tutera
Hizkuntza Eskola Ofiziala.	Tutera
Arantza HLHIP	Arantza


Iturria: Ebaluazioaren eta Kalitatearen Atala

2016ko azken hiruhilekoan inskribatuko dira zerbitzu-gutunak politika eta zerbitzu publikoen ebaluazio-erregistroan, eta orduan argitaratuko da ere haien onarpena.

### Kalitate-sareetan egindako lanaren emaitzak

Kalitate-sareetan parte hartzen duten ikastetxeek sareko mintegia osatzen duten zazpi saio presentzialen balorazioa egin dute, bai eta sareko azken ebaluazio bat. Grafiko honetan bederatzi sareen azken ebaluazioan jasotako sei itemen emaitzak jaso dira. Lortutako emaitzak 8 edo hortik gorakoak izan dira.

123. grafikoa: Kalitate-sareetan egindako lanarekiko batez besteko gogobetetzea. 2015-2016




Iturria: Guk geuk egina, Ebaluazio eta Kalitate Atalaren datuekin

### Kadinetek emandako zerbitzuekiko gogobetetzea

Ikasturte amaieran Kadinetek emandako zerbitzuen inguruko gogobetetzeari buruzko inkesta bat egiten zaie kalitate-sareetan parte hartzen duten 124 ikastetxeei.

124. grafikoa: Kadinetek emandako zerbitzuekiko gogobetetzea 2015-2016




Iturria: Guk geuk egina, Ebaluazio eta Kalitate Atalaren datuekin

### Kanpoko berrikuspenarekiko gogobetetzea

Ikastetxean egin den kanpoko berrikuspen-prozedurarekiko gogobetetze-maila ezagutzeko galdetegiaren emaitzak.

125. grafikoa: Kanpoko berrikuspenarekiko gogobetetze-maila. 2015-2016



Iturria: Guk geuk egina, Ebaluazio eta Kalitate Atalaren datuekin

**Kalitate Bulegoaren eta Kadineten 2015-2019 aldirako plan estrategikoaren jarraipena**

Kalitate Bulegoak plan estrategiko bat zehaztu du 2015-2019 aldirako Kadinetekin batera, interes-taldeen beharrak eta espektatibak oinarri hartuta. Ondoko taulan jaso dira 2015-2019 aldirako plan estrategikoaren adierazleen jarraipen eta neurketatik lortutako emaitzak. Horiek aztertuta, sistemaren etengabeko hobekuntzarekin aurrera jarraitzeko alorrak ebalua daitezke.

**161. taula: Plan Estrategikoaren helburuak. 2015-2016ko emaitzak**

Helburu estrategikoa	Xedea	Emaitza 2015-2016
1.1. 7,5eko puntuazioa lortzea ikastetxeko aholkularitzaren gogobetetzean	7,5	8,2
1.2. Pertsonen % 95 aholkularitzarekin pozik egotea lortzea	95	97
2.1. IKKS Arauaren baldintza bakoitzerako dokumentazioko baliabideak sortzea	100	19
3.1. Koordinatzaileentzako berariazko prestakuntza, ikasturteko 30 ordukoa	30	32,36
3.2. Sareetan dauden ikastetxeetako irakasleen % 70ek oinarrizko <i>driveri</i> buruzko prestakuntza jasotzea lortzea.	70	35,6
3.3. Ikasturte bakoitzean antolatzen den kalitateari buruzko berariazko prestakuntzan ikastetxe autonomoen % 80k baino gehiagok parte hartzea lortzea.	80	61,22
3.4. Ikasturte bakoitzean ikastetxeen lehenetsuneko 5 beharrei buruzko berariazko prestakuntza antolatzea.	100	80
4.1. Kadinetek eskainitako dokumentazioko baliabideen irisgarritasunaren gogobetetzean 8tik gorako puntuazioa lortzea	8	8,5
4.2. Kadinetek eskainitako dokumentazioko baliabideen irisgarritasunean % 90etik gorako gogobetetzea lortzea	90	100
4.3. Kadinetek eskainitako informazioaren gogobetetzean 8tik gorako puntuazioa lortzea	8	8,1
4.4. Pertsonen % 90 pozik egotea Kadinetek eskainitako informazioarekin	90	99
5.1. Ikasturte akademiko bakoitzean gutxienez kudeaketako 4 tresna digital diseinatzea	4	5
5.2. Eskainitako tresna digitalen erabilgarritasun praktikoan 8tik gorako gogobetetze-maila lortzea.	8	8,4
5.3. Pertsonen % 95 pozik geratzea eskainitako tresna digitalen erabilgarritasun praktikoarekin	95	98
5.4. Sareko ikastetxeen % 80k tresna digitalak erabiltzea lortzea.	80	90,57
5.5. Sareetako ikastetxeen % 50ek Kadineten webgunean argitaratutako bost tresna erabiltzea lortzea, gutxienez	50	62,26
6.1. Ikastetxeak sarean emandako urteen arabera, ikastetxearen funtzionamendurekin pozik dauden irakasleen ehunekoak goranzko joera izatea	1	0
6.2. Ikastetxeak sarean emandako urteen arabera, ikastetxeko elkarbizitzarekin pozik dauden irakasleen ehunekoak goranzko joera izatea	1	0
7.1. IKKSrekin lotutako beste erakunde batzuen antolatutako 5 ekitaldi berritzailetan parte hartzea	5	2
8.1. Kalitate-arduradunaren lanarekin 7 puntuko gogobetetzea lortzea	7	7,3
8.2. Kalitate-arduradunaren lanarekin % 85eko gogobetetzea lortzea.	85	61
9.1. Urtero sarera batez beste 3 ikastetxe gehitzea lortzea	3	1,8

*Iturria: Ebaluazioaren eta Kalitatearen Atala*

- **Ikastetxe itunduak**

Ikastetxe pribatuek kanpoko aitoren hauek lortu dituzte:

162. taula: Ikastetxe itunduek kalitateagatik lortutako kanpoko aitopenak. 2015-2016

Aitopen mota	Luzatzen duen erakundea	Ikastetxeak
PCI-KEI Kalitate Egitasmo Integratua	Horreum Fundazioa, Deustuko Unibertsitatea eta Ikastolen Elkartea	Vianako Erentzun Ikastola

*Iturria: Nafarroako Bikaintasunerako Fundazioa eta Nafarroako Ikastolen Elkartea.*

#### 4.6.3. Irakasleen etengabeko prestakuntza

Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoak esaten du etengabeko prestakuntza irakasle guztien eskubidea eta betebeharrak dela, eta hezkuntza administrazioen eta ikastetxeen ardura. Halaber, Europar Batasunaren gomendioekin bat, helburu gisa ezartzen du hezkuntza sistemaren kalitatea eta eraginkortasuna hobetzea. Irakasleen etengabeko prestakuntza funtsezko tresna da helburu hori lortu ahal izateko, ezagutzaren gizartean sortzen diren hezkuntza-premia berriei erantzutea ahalbidetzen baitu.

Irakasleen Prestakuntza Plana hauteman diren ikastetxeen eta hezkuntza etapa desberdinetako irakasleen beharren arabera diseinatzen da. Ikasturtearen hasieran Hezkuntza Departamentuaren web orrian argitaratzen da. Zortzi irakaskuntza gaitasunetan egituratzen da:

- Zientziarako gaitasuna
- Gaitasun pertsonala eta soziala
- Gaitasun didaktikoa
- Antolaketaren eta ikastetxea kudeatzeko sistemen gaitasuna
- Bizikidetzaren kudeatzeko gaitasuna
- Berrikuntza eta hobekuntza gaitasuna
- Komunikazio-gaitasuna
- Gaitasun digitala (IKTak curriculumean txertatzea)

Haren diseinuak talde prestakuntzarako aukerak eskaini ditu, ikastetxe bakoitzean edo ikastetxeen sareetan, betiere hausnarketa baliatuz eta ebaluazioan hautemandako hobekuntza arloekin bat eta hezkuntza berrikuntzarekin lotuta.

2015-2016 ikasturtean zehar, irakasleen etengabeko prestakuntza Nafarroako Gobernuak Hezkuntza Departamentuaren Irakasleentzako Laguntza Zentroen Sarearen eta entitate laguntzaileen bidez egin da.

Irakasleen Prestakuntza Planaren helburu nagusiak dira Nafarroako hezkuntza sistemaren kalitatea bultzatzea, ikastetxeek eta irakasleek antzemandako beharrei erantzutea, eta irakaskuntzako gaitasunak hobetzea. Hori guztia ikasturte bakoitzerako ezarri diren jarduerak ildoen eta berariazko prestakuntza-programen bidez egituratzen da.

Ebaluazio, Prestakuntza eta Elkarbizitza Atalak, Irakasleentzako Laguntza Zentroek (ILZ) eta Jarraipen eta Ebaluazio Batzorde Teknikoek osatzen duten sareak diseinatu, koordinatu eta zuzendu du irakasleen etengabeko prestakuntza. Irakasleen prestakuntza programetan inplikaturik dauden Hezkuntza Departamentuko unitate organikoek ere lagundu dute diseinuan eta koordinazio lanetan.

Irakasleen Prestakuntzako Atalak Urteko Prestakuntza Plana prestatzen du eta planeko programek jarraituko dituzten irizpide orokorrak proposatzen ditu.

ILZen lehentasunezko jardueretako bat da Urteko Prestakuntza Planean jasotako jardueren antolaketaren eta garapenaren ardura beren gain hartzea beren ardurapeko eskualdean, betiere, prestakuntza prozesuen ardatz gisa ikastetxea harturik. Eskualde jakin bateko ikastetxeak ILZ bati atxikirik daude eta bakoitzari erreferentziako aholkularitza bat dagokio.

Nafarroan bost ILZ daude, eskualde ezberdinetan banaturik: Lizarra, Lekaroz, Iruña, Tafalla eta Tuter. Horrez gain, prestakuntzako 5 koordinatzaile daude, ondoko eremuetan lan egiten dutenak:

- Altsasu, Iruñeko ILZren mende.
- Corella, Tuterako ILZren mende.
- Garralda-Otsagabia-Erronkari, Iruñeko ILZren mende.
- Irunberri-Zangoza, Iruñeko ILZren mende.
- San Adrián, Lizarrako ILZren mende.

Jarraipen eta Ebaluazio Batzorde Teknikoaren eginkizun nagusia prestakuntza planen jarraipena eta ebaluazioa bermatzea da. Hezkuntzako Ikuskapen Zerbitzuko kide batek, orientatzaile batek, ILZko zuzendaritzak eta talde pedagogikoak osatzen dute.

Prestakuntza-sareak 5 zuzendaritza eta aholkularitza izan ditu 2014-2015 ikasturtean, eta azpiko taulan adierazten den moduan banatzen dira horiek zentroen artean.

**163. taula: Irakasleentzako laguntza zentroak eta haiei atxikitako aholkularien kopurua, 2015-2016 ikasturtea**

ILZ	Aholkularien kopurua
Lizarra	3
Lekaroz	2
Iruña	12
Tafalla	2,5
Tutera	3,5
Guztira	23

*Iturria: Prestakuntza Atala*

Hezkuntza Departamentuarekin lankidetzan hitzarmenak dituzten entitateek beraien prestakuntza planak aurkeztu zituzten, horretarako aurreikusitako epean. Irakasleen Prestakuntzako Atalak onartzen eta ikuskatzen ditu plan horiek, irakasleen etengabeko prestakuntzaren planari aplikatzen zaizkion irizpide bertsuekin. Ondoko koadroan entitate laguntzaileen datuak azaltzen dira, zehazki, egindako jarduerari, parte-hartzaileei eta luzatutako ziurtagiriei buruzkoak.

**164. taula: Irakasleen prestakuntzan laguntzen duten erakundeen datuak: jarduera homologatuak, parte-hartzaileak eta ziurtagiriak. 2015-2016**

Erakunde kolaboratzaileak	Jarduerak	Parte-	Ziurtagiriak
Arista Fundazioa			
FETE – UGT			
Nafarroako Bikaintasunerako Fundazioa	1	18	
Sarasate Fundazioa	Daturik ez	Daturik ez	Daturik ez
Xilema Fundazioa			0
Nafarroako Ikastolen Elkarte	Daturik ez	Daturik ez	Daturik ez
Itxaropenaren Telefonoa	10	Daturik ez	Daturik ez
Udako Euskal Unibertsitatea	Daturik ez	Daturik ez	Daturik ez
USO			
APS	Daturik ez	Daturik ez	Daturik ez
Psikologia holistikoa	Daturik ez	Daturik ez	Daturik ez
Guztira	Daturik ez	Daturik ez	Daturik ez

*Iturria: Prestakuntza Atala*

2015-2016 ikasturtean Hezkuntza Departamentuko irakasleen etengabeko prestakuntzaren sarearen bidez egin den irakasleen etengabeko prestakuntza aurkezten da ondoko koadroan. Ziurtagiriak gabeko jarduerak ere jaso dira.

**165. taula: Irakasleentzako Laguntza Zentroetan (ILZ) aurkeztutako prestakuntza-jarduerei buruzko datuak, prestakuntza-orduak, parte-hartzaileak eta ziurtagiriak. 2015-2016**

ILZ	Jarduerak	Parte-hartzaileak	Ziurtagiriak
Lizarra	66	833	753
Lekaroz	79	643	560
Iruña	557	9.014	7.771
Tafalla	60	756	693
Tutera	80	1.530	1.336
Guztira	842	12.776	11.113

*Iturria: Prestakuntza Atala*

Datu orokor hauek hainbat irizpideren arabera banatzen ahal dira. Lehenengo datu multzoa jasotzen du ondoko koadroak: Irakasleentzako Laguntza Zentroen sareak etapentzako diseinatu eta antolatu dituen berariazko prestakuntza jardueri buruzko datuak.

**166. taula: Etapentzako berariazko prestakuntza jardueren datuak 2015-2016**

Etapak	Irakasleentzako Laguntza Zentroak					Jarduerak
	Lizarra	Lekaroz	Iruña	Tafalla	Tutera	
Haur Hezkuntzako 1.	2	0	4	1	1	8
Haur Hezkuntzako 2.	4	6	16	1	2	29
Lehen Hezkuntza	25	35	131	16	17	224
DBH	2	12	10	4	1	29
Batxilergoa	0	0	7	0	0	7
Bigarren Hezkuntza	7	6	131	8	15	167
Lanbide H	1	2	81	5	5	94
Guztira	41	61	380	35	41	558

*Iturria: Prestakuntza Atala*

Bigarren datu multzoa jasotzen du hurrengo koadroak: Irakasleentzako Laguntza Zentroen sareak etapa bateko baino gehiagoko irakasleentzako diseinatu eta antolatu dituen prestakuntza jardueri buruzko datuak.

**167. taula: Etapa bateko baino gehiagoko irakasleentzako prestakuntza-jardueren datuak. 2015-2016**

	Irakasleentzako Laguntza Zentroak				Jarduerak
	Lekaroz	Iruña	Tafalla	Tutera	
Etapen artekoa	24	18	167	24	36

*Iturria: Prestakuntza Atala*

Hirugarren datu multzoa jasotzen du hurrengo koadroak: Hezkuntza Departamentuko unitateek diseinatu eta Irakasleentzako Laguntza Zentroetan antolatu diren prestakuntza jardueri buruzko datuak.

168. taula: ILZetan antolatu diren eta Departamentuko administrazio unitateek diseinatu dituzten prestakuntza-jarduerei buruzko datuak. 2015-2016

Programak	Irakasleentzako Laguntza Zentroak					Jarduerak
	Lizarra	Lekaroz	Iruña	Tafalla	Tutera	
Haur Hezkuntzako 1. zikloa	2	1	3			6
Eskolako liburutegia, irakurketa	3	3	10	3	1	20
Kalitatea	1	2	24	5	5	37
Bizikidetza	2	5	45	4	5	61
Balioetan heztea	1	4	22	1	1	29
Zuzendaritza-taldeak			11	1	1	13
Berdintasuna			5		2	7
Hezkuntza premia bereziak		1	15		3	19
Kultur aniztasuna			1			1
Eskola-orientazioa			4	1	1	6
Lanbide Heziketa	1		24	1	3	29
Helduentzako hezkuntza			2			2
Hizkuntza-eskola			4		2	6
Laneko osasuna	7	3	23	5	6	44
Hezk. Berezia	1		7		2	10
Araubide bereziko ikask.						
EIBZ						18
Robotika						
Teknologia berriak	14	10	89	25	24	162
Guztira	32	29	289	46	56	452

Iturria: Prestakuntza Atala

Azkenik, modalitatearen arabera banatuta ematen dira irakasleentzako laguntza zentroetan antolatutako prestakuntza jardueren datuak. Jarduera horiek ILZetako prestakuntza sareak koordinatu ditu edo/eta Hezkuntza Departamentuko administrazioekin lankidetzan koordinatu dira.

169. taula: Irakasleentzako Laguntza Zentroetan antolatutako jardueren datuak, prestakuntza-modalitatearen arabera. 2015-2016

ILZ	Lizarra	Lekaroz	Iruña	Tafalla	Tutera	Guztira
Mintegia	31	23	165	30	45	294
Ikastaroak	10	4	222	19	22	277
Informazio saioak	8	3	36	0	0	47
Mintzataldeak	0	2	6	0	0	8
Jardunaldiak	0	0	24	0	3	27
Lantaldeak	12	45	70	9	7	143
Tailerrak	2	0	30	0	1	33
Guztira	63	77	553	58	78	829

Iturria: Prestakuntza Atala



Irakasleentzako Laguntza Zentroyen sarearen bidez garatutako etengabeko prestakuntzaren datu orokorrean gain, beste bi koadro aurkezten dira jarraian, Hezkuntza Departamentuko beste unitate batzuek antolatu eta diseinatutako irakasleen etengabeko prestakuntzaren datuekin.

**170. taula: Berariazko programetako prestakuntza-jardueren datuak. Ebaluazioaren, Kalitatearen, Prestakuntzaren eta Bizikidetzaren Zerbitzuari atxikitako unitateek antolatu eta diseinatutako jarduerak. 2015-2016**

Berariazko programak	Jarduerak	Parte-hartzaileak	Ziurtagiriak
Berrikuntza programak			Tramitatze
Osasunerako eskolak			455
Aste berdea, urdina eta zuria			361
Guztira	0	0	816*

\*Behin-behineko datuak  
Iturria: Prestakuntza Atala

Azkenik, 2015-2016 ikasturteari dagozkion irakasleen etengabeko prestakuntzari buruzko datu totalak jasotzen ditugu (Irakasleentzako Laguntza Zentroetakoak, administrazioko beste unitateenak eta entitate laguntzaileenak).

Irakasleen etengabeko prestakuntzarako aurrekontuan ezarritako gastuaren bilakaera, osatu gabe, 2010eko ekitalditik 2016kora, ondoko taulan jaso da.

**171. taula: Irakasleentzako prestakuntza-jardueretarako aurrekontuan ezarritako gastuaren bilakaera. 2011-2016**

	2011	2012	2013	2014	2015	2016
Irakasleen prestakuntza jarduerak (prestakuntza programa orokorrak)	240.689,09	135.372,59	212.122,12	223.609,52	319.654,9	413.425,78
Hezkuntza berrikuntzako programak/Erreforma	15.565,85	21.159,13	16.800	0	39.700	59.079,22
Irakasleen prestakuntza hizkuntzetan (irakasleak hizkuntza modernoetan birziklatzeko programak)	198.738,05	178.400,00	27.342,51	20.394,29	67.798,34	
Lanbide Heziketako irakasleen hobekuntza eta eguneratzea (Lanbide Heziketako irakasleak birziklatzeko programak)	24.335,28	25.899,71	11.921,77*	11.597,84*		

**HEZKUNTZA-PROZESUAK ETA -POLITIKAK**

Irakasleen euskara mailaren hobekuntza (irakasleek euskara hobetzeko programak)	19.866,96	16.895,95	5.538,35	8538,35	60	
Irakasleentzako urrutiko prestakuntza (teknologia berrien programak)	158.655,92	131.153,00	85.000	85.000	85.000	
Argitalpenak, ikerlanak eta hezkuntza esperientziak	5.536,55	9.383,27	0	0	0	
Irakasleen prestakuntzarako banakako diru-laguntzak	0	0	0	0	0	
Irakurketa eta idazketa plana			2.590	12.088,41		
Kalitatea			34.869,17	42.864,95	35.000	Erantzunaren zain
Guztira	663.387,70	518.263,65	384.262,15	392.495,7	479.414,90	472.505,00**

\* Irakasleentzako prestakuntza jardueretarako kontu-sail orokorraren kargura egin da gastua eta 212.122,12 euroko zenbatekoan sartuta dago.

\*\* Behin-behineko datuak  
Iturria: Prestakuntza Atala


Azkenik, irakasleen etengabeko prestakuntzari buruzko atal hau bukatzeko, irakasleen prestakuntza-programen bilakaeraren laburpena ematen da. Bertan 2008-2009 ikasturtetik 2015-2016 ikasturtera bitarteko jardueren, parte-hartzaileen eta luzatutako ziurtagiriaren kopurua eta gauzatutako aurrekontuaren datuak (milaka eurotan) jasotzen dira.

**172. taula: Irakasleen prestakuntza-programen laburpena. 2008-2016**

Ikastaroak	Jarduera kopurua	Parte-hartzaileak	Ziurtagiriak	Aurrekontua (milaka eurotan)
2008-2009	683	12.235	9.912	1.290
2009-2010	797	17.388	14.092	1.108
2010-2011	797	15.123	12.320	663
2011-2012	662	13.056	10.656	518
2012-2013	1.223	20.001	13.897	384
2013-2014	1.365	20.100	15.120	392
2014-2015	1.415	20.130	15.135	392
2015-2016	1.106	17.616	15.349	406
Guztira	8048	135.649	106.481	5.153

Iturria: Prestakuntza Atala

126. grafikoa: Irakasleen prestakuntza-programen laburpena. 2008-2016



Iturria: Guk geuk egina, Prestakuntza Atalaren datuekin

### Irakasleen euskarazko hizkuntza-prestakuntza

Irakasleen hasierako hizkuntza-prestakuntzari dagokionez, lan-baimenik gabeko autoikaskuntzako ikastaroak antolatu dira, Zubiarte Euskaltegi Publikoan eta Euskarabidean eman direnak. Gainerako modalitateetako ikastaroak Zubiarte Euskaltegian eman dira.

Ikastaro horietan hainbat mailatako irakasleek hartu dute parte:

173. taula: Irakasleen hasierako prestakuntzarako autoikaskuntza-ikastaroak. 2015-2016

Maila		A1	A2	B1	B2	C1	Guztira
Zubiarte Euskaltegia	Ikasleak	10	6	4	6	10	36
Euskarabidea, autokudeatua	Ikasleak						10
Euskarabidea, tutorearekin	Ikasleak	3	0	2	2	1	8
	Guztira						54

Iturria: Euskarabidea, Zubiarte Euskaltegia

174. taula: Euskara ikasteko irakasleentzako prestakuntza-ikastaroak, gainerako modalitateetan. 2015-2016.

Maila		A1	A2	B1	B2	C1	Guztira
Zubiarte Euskaltegia	Ikasleak	16	6	11	12	20	16
	Guztira						65

Iturria: Zubiarte Euskaltegia

Euskarazko irakasleen etengabeko prestakuntza eskolak euskaraz ematen dituzten unibertsitatekanpoko irakasleei zuzenduta dago, eta prestakuntza-jarduera hauek antolatuta dituzten Euskararen Irakaskuntzako Baliabide Zentroak (EIBZ) Hezkuntza Departamentuko Euskara Atalarekin batera.

175. taula: Euskara hobetzeko ikastaro teknikoak. 2015-2016

2014-2015 Jarduera	Modalitatea	Orduak, guztira	Kopurua, jardueraren hasieran	Luzatutako ziturtagiriak		Balioespena 1-5 eskala (1-10 eskala 3 ikasturtetan)	Balioespena Pertsona-kopurua
				Kop.	%		
Euskara hobetzeko on-line ikastaroa I	Online ikastaroa	35	47	36	76,59	3,98	33
EHOI 2: oinarritzko kontsultak	Online ikastaroa	20	14	11	78,57	4,38	11
EHOI 2: kontsultak sakontzen	Online erako ikastaroa	25	17	11	64,70	4,42	11
Ohiko akatsak zuzentzen I, on-line	Online erako ikastaroa	30	27	23	85,18	4,66	22
Idatzizko ekoizpenak hobetzeko estrategiak	Online erako ikastaroa	25	20	10	50	4,39	10
ESB (1. lauhilekoa)	Online erako ikastaroa	35	20	17	85	4,13	16
ESB (San Frantzisko IP) (prestakuntza instituzionala)	Blended	20/12	30	27	90	3,62	12
AHI	Online erako ikastaroa	35	4	4	100	4,066	3
AHI (Agoizko San Miguel IP) (prestakuntza instituzionala)	Blended	20	13	12	92,3	3,48	8
AHI (Doneztebeko San Miguel IP) (prestakuntza instituzionala)	Blended	20	24	24	100	3,775	20
AHI (Atargi IP) (prestakuntza instituzionala)	Blended	35	28	28	100	4	22
AHI jarraipena (Altsasu)	Lan-taldea (blended)	35/ 50	20	20	100	4,07	7
AHI (Mogel Ikastola) (3)	Blended	35	55	55	100	7,91 (1-10 eskala)	35
AGH	Online erako ikastaroa	35	15	13	86	4,33	13
Adimen gaitasun handiak, zer da hori? Informazio	Sesión informativa	1,5	23	23	100	Ona	--

saioa Alaitz IP							
Wikiak	Online erako ikastaroa	20	19	12	63,15	4,76	12
Google baliabideak	Online erako ikastaroa	35	33	24	72,72	4,69	23
Praktika gogoetatsua-Altsasuko BHI	Presentziala	20/35	21	21	100	7,7 (1-10 eskala)	10
Praktika gogoetatsua-Amair Ikastola	Presentziala	20/35	14	14	100	7,4 (1-10 eskala)	10
GUZTIRA			464	385	Batezbestekoa 81,27	Batezbestekoa 4,18 7,67	278

Iturria: Euskararen Irakaskuntzarako Baliabide Zentroa (EIBZ). Euskara Atala

## 4.7. Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologiak

### 4.7.1. Teknologia Berriak eta Hezkuntza Programa (PNTE)

Hezkuntzako Teknologien Atalaren ardurapean dago, duela hamar urte baino gehiagotik, PNTE bezala ezagutzen den Teknologia Berriak eta Hezkuntza Programaren kudeaketa. Bertan biltzen dira Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentuak Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologien (IKT) esparruan garatzen dituen hainbat helburu, jarduera, baliabide eta zerbitzu.

PNTE Nafarroako Gobernuaren ekimen berezia da, izan ere, Nafarroako Gobernuaren sare, ekipamendu eta baliabide informatikoen kudeaketa korporatiboan integraturik ez dauden hainbat baliabide sartzen dira PNTEren jarduera esparruaren barruan. PNTEren ezaugarri bereizgarriak hauek dira:

- Atalaren eskumeneko alorretan berriazko prestakuntza duten irakaskuntzako eta irakaskuntzatik kanpoko langileen jarduerak: zerbitzarien administrazioa eta kudeaketa, sareen kudeaketa, aplikazioen garapena, hezkuntza zerbitzuak instalatzea eta kudeatzea, ikastetxe eta irakasleendako laguntza, sareen eta ekipamendu informatikoen mantentze-lanak, eta abar.
- Ikastetxeetako komunikazio sarearen planifikazioa, kudeaketa eta mantentze-lanak, Nafarroako Gobernuko sare korporatibotik kanpo, eta baita hainbat zerbitzurenak ere: DNS, posta elektronikoaren zerbitzaria, web zerbitzariak, aplikazioen eta datu-baseen zerbitzariak eta abar.
- Datu lanketarako bi zentro berezitu administratzea.
- IKTak curriculumean integratzeko programak, proiektuak eta prestakuntza garatzea

EDUCA, Nafarroako Gobernuaren sare korporatiboarekin partekatua. PNTE, soilik Hezkuntzako Teknologien Ataleko langileek kudeatua.

- IKTak irakaskuntzako curriculumean integratzeko ildo eta programa espezifikoak diseinatzea eta garatzea: IKTen gaineko eta bidezko urrutiko prestakuntza programa, Prestakuntzaren koordinazioa eta plangintza IKT aholkularien bidez, Teknologia berrien proiektuak, Integra IKT-Eskola 2.0, Digital-Puntu Neutroa ikasgela, PNTE Apps, web tresnen, esperientzien eta berrien hedapena, etab.

- Hezkuntza Departamentuaren ordezkariak IKTen eta Hezkuntzaren inguruko alderdien gainean eta abarretan hezkuntza administrazio publiko eta pribatuen artean antolatzen diren proiektuetan, batzordeetan eta foroetan.
- Software librearen eta teknologia irekien lehentasunezko erabilera bere ardurapeko esparru guztietan. Horrekin kostuak asko aurrezten dira eta gure interesen eta beharren arabera hornitzaileak aukeratzeko askatasun teknologikoa dago.

Jarraian Hezkuntzako Teknologien Atalaren jarduerako lan-ildo edo -esparru nagusiak aipatzen dira. Haietako bakoitza labur azaldu edo definitzen da eta kasu bakoitzean datu eta zifrarik adierazgarrienak emanen dira.

### 4.7.2 Konektagarritasuna

Konektagarritasuna funtsezko garrantzia duen faktorea da ikastetxeak, irakasleak, ikasleak eta hezkuntza erkidegoko gainerako kideak Informazioaren Gizartean sartzeko eta eskaintzen dituen produktu eta zerbitzuak eskura izan ditzaten. Konektagarritasun egokirako ezinbestekoa da behar bezala diseinatzea sareen azpiegitura eta topologia, banda zabalera ongi kalkulatzeko, konexio lineen mantentze eraginkorra, eta esparru honetan gertatu daitezkeen arazoak gainean azkar eta eraginkortasunez esku hartzeko aukera ematen duen sistema. Horregatik ematen dio hain garrantzi handia PNTEK lan-ildo horri, jarraian azalduko diren ekimenen eta jardueren bitartez.

### Ikastetxeen egoera

Ia ikastetxe publiko guztiek dute Interneteko banda zabala, teknologia desberdinetako konexio berezietuekin:

- konexioak ADSL, FrameRelay edo irrati (WiMax) bidez.
- konexioak zuntz optiko bidez.

Halaber, instalazio hori teknikoki bideragarria den egoitzetan zuntz optiko bidezko konexioak zabaltzen joan dira 2008. urtetik aurrera. Espero dugu telekomunikazioen lehiaketa berriak egoera hori aldatzea, eta banda zabal ultralasterreko konektagarritasuna ahalik eta ikastetxe gehienetara zabaltzea.

### Trenza proiektua eta WIFI sareak

PNTEk epe luzerako hartu duen helburua ikastetxeen konektagarritasun unibertsala da; hau da, irakaskuntzarako edo kudeaketarako edozein espaziorik izan dezala sarerako eta Interneterako konexioa. Helburu hori lortzeko tresna nagusia kableatu egituratuko Trenza proiektua izeneko da. Proiektu horren bidez, sare kableatuaren azpiegitura zentralizatua ematen zaie ikastetxeei: komunikazio-armairua, urrutetik kudeatu daitezkeen elektronika, segmentazioa azpisareetan, proxy-suebaki zerbitzaria eta, zenbait kasutan, zerbitzari bereziak (aplikazioetarako, fitxategietarako, segurtasun kopietarako, etab.).

Kableatu egituratuko Trenza proiektua zabaltzearen ondorioz, 2013ko irailaren 1erako ia guztiz osaturik gelditu zen instalazio mota hori gomendagarria zen ikastetxeen katalogoa (100 ikastetxe gorako ikastetxeak). Salbuespenak oso gutxi izan ziren, eta horretarako arrazoiak ere bereziak; esate baterako, zaharberitzeko lanak behar zituzten ikastetxeak edo beste egoitza berri batzuek ordezkaturiko zituzten ikastetxeak izatea.

176. taula: Unibertsitatez kanpoko 244 ikastetxe publikoetako datu sareen profila. 2016-2017 ikasturteko datuak.

Instalazio mota	Instalazio kopurua
-----------------	--------------------

Kableatu egituratuko Trenza proiektua komunikazio-armairuarekin, elektronika kudeagarriarekin, sare segmentazioarekin eta suebakiarekin	184*
Trenza proiektuaren estandarrekin bat ez datozen sare kableatuak	64*
(*) Kontuan izan behar da instalazioen eta ikastetxeen kopuruak ez dutela guztiz bat egiten, hainbat egoera direla eta ezinezkoa baita zenbaitetan baliokidetasun hori ezartzea: egoitza bakar batean kableatu egituratu komuna duten eskola publiko bat eta DBHI bat egotea, elkarrekin konektatuta ez dauden bi zentro dituzten eskolak egotea, bakoitza bere instalazioarekin, etab.	

Iturria: Hezkuntzako Teknologien Atala

Gainera, gero eta handiagoa da konektagarritasunaren eskaria, bai ikastetxeen bai irakasleen aldetik, eta horrek bultzatuta WiFi konexioa instalatu da ikastetxeetako kableatu egituratuko proiektuetan integraturik, base kontrolatzaileen bidez kudeatzen diren hariarik gabeko sarbide puntu-multzoen bitartez. Azken urteotan instalazioak egiteaz gainera jadanik daudenak handitu eta hobetu egin dira; ia ehun ikastetxetan Wifi konexioa dute irakasleek eta ikasleek. 2013-2014 ikasturtean zehar ikerketa bat egin zen Wifi konexioen kudeaketa zentralizatua proposatzeko helburuarekin eta 2014-2015 ikasturtean zehar eredu hori abian jartzen hasi ziren.

### Sarearen gaineko jarduerak

Hezkuntzako Teknologien Atalaren lanik handienetako bat ikastetxeek egindako eskaerei erantzutea da, ikastetxeen konektagarritasuna hobetzearekin eta sareak handitzearekin eta modernizatzearrekin loturik. Eskaerak dira:

- Ikastetxe sortu berrietan edo jadanik existitzen diren ikastetxeen egoitza berrietan kableatu egituratu integrala zerbitzuan jartzea (Trenza proiektua),
- sare-handitzeak, WIFI instalazioen handitzeak edo hobekuntzak barne,
- konektagarritasuna handitzea ikastetxeetan,
- sareko sarguneen aktibazioak,
- sareko sarguneen esleipen-aldaketak,
- sareko osagarri elektronikoen konponketak edo ordezkapenak,
- Suebaki/proxyen instalazioak edo ordezkapenak,
- hainbat konponketa, etab.

#### 4.7.3. Informatikako ekipamendua

Ikastetxeen ekipamendu informatikoari buruzko eskumena Hezkuntza Azpiegituren Zerbitzuaren mendeko Erosketa Bulegoarena da. Testuinguru horretan, datu batzuk emanen ditugu, dotazioak hainbat autonomia-erkidegotan eta Nafarroan zer egoeratan dauden ikusteko, eskura dauden azkeneko datu orokorrekin.

177. taula: Batez besteko ikasle kopurua irakaskuntza/ikaskuntza lanetara bideraturiko ordenagailu bakoitzeko, autonomia-erkidegoaren eta ikastetxearen titulartasunaren/motaren arabera. 2014-2015

	Guztira	Ikastetxe publikoak - Guztira	Ikastetxe publikoak - Lehen Hezkuntzako ikastetxeak	Ikastetxe publikoak - Bigarren Hezkuntzako eta lanbide-heziketako ikastetxeak	Ikastetxe pribatuak
GUZTIRA	3	2,8	3	2,6	3,9
Andaluzia	2,3	2,1	3,2	1,6	3,4

**HEZKUNTZA-PROZESUAK ETA -POLITIKAK**

Aragoi	2,5	2,3	2,5	2,2	2,9
Asturias	2,4	2,1	2,2	2	3,5
Balear Uharteak	2	1,8	1,9	1,8	2,4
Kanariak	3,8	3,4	2,5	4,8	6,3
Kantabria	2,8	2,3	1,9	3	5
Gaztela eta Leon	3,5	3	2,4	4	5
Gaztela-Mantxa	2,5	2,3	1,8	3	3,5
Katalunia	3,7	3,4	3,2	3,6	4,4
Valentzia	5	4,5	4,5	4,6	6,3
Extremadura	1,6	1,4	2,4	1	6,8
Galizia	2,5	2,3	2,5	2,1	3,4
Madril	5,2	5,5	6,2	5	4,9
Murtzia	5,6	5,2	5,9	4,7	7,2
Nafarroa	4,4	4,1	4,9	3,6	5
Euskadi	1,7	1,6	1,7	1,5	1,8
Errioxa	2,9	2,6	2,6	2,5	3,9
Ceuta	2,5	2,4	2,1	2,9	2,9
Melilla	2,9	2,9	2,2	3,9	3

\* Irakasleendako eta ikasleei irakasteko erabiltzen diren ordenagailuak hartu dira kontuan batez ere.  
Iturria: Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioiko Estatistikako Zuzendariorde Nagusia


**178. taula: Batez besteko ordenagailu kopurua unitate/talde\* bakoitzeko, autonomia-erkidegoaren eta ikastetxearen titulartasunaren/motaren arabera. 2014-2015**

	Guztira	Ikastetxe publikoak	Ikastetxe publikoak - Lehen Hezkuntzako ikastetxeak	Ikastetxe publikoak - Bigarren Hezkuntzako eta lanbide-heziketako ikastetxeak	Ikastetxe pribatuak
GUZTIRA	6,4	6,9	5,8	8	5,3
Andaluzia	9,3	9,9	5,8	14,7	7
Aragoi	6,7	6,9	6	7,8	6,2
Asturias	7,7	8,4	7,5	9,4	5,7
Balear Uharteak	10,9	11,4	11,2	11,6	9,8
Kanariak	5,1	5,7	7,5	3,9	3
Kantabria	6,4	7,6	9,1	5,7	3,8
Gaztela eta Leon	4,8	5,2	6,1	4,2	3,7
Gaztela-Mantxa	6,1	6,1	7,8	4,5	6
Katalunia	5,8	6,2	6,2	6,3	5
Valentzia	3,9	4,3	3,9	4,7	3,2
Extremadura	9,5	10,8	5,6	15,5	2,5
Galizia	7,2	7,7	6,5	8,8	5,8
Madril	3,7	3,5	2,7	4,3	3,9
Murtzia	3,3	3,7	3	4,4	2,3
Nafarroa	3,9	3,8	3,1	4,8	4,1
Euskadi	11,5	11,1	10,56	12,2	12
Errioxa	6	6,4	9,6	7,2	5,1
Ceuta	8	7,8	9,9	6,3	8,7
Melilla	7,4	7,3		5,2	8

\* Ikasleei irakasteko erabiltzen diren ordenagailuak hartu dira kontuan batez ere.  
Iturria: Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioiko Estatistikako Zuzendariorde Nagusia



127. grafikoa: Ordenagailu bakoitzeko ikasleen batez besteko kopurua\* ikastetxe publikoetan, autonomia-erkidegoaren arabera. 2014-2015



\* Irakasleendako eta ikasleei irakasteko erabiltzen diren ordenagailuak hartu dira kontuan batez ere.  
Iturria: Guk geuk egina Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioaren datuekin

179. taula: Ordenagailu bakoitzeko batez besteko irakasleen kopurua, autonomia-erkidegoaren eta ikastetxearen titulartasunaren/motaren arabera. 2014-2015

	Guztira	Ikastetxe publikoak	Ikastetxe publikoak - Lehen Hezkuntzako ikastetxeak	Ikastetxe publikoak - Bigarren Hezkuntzako eta lanbide-heziketako ikastetxeak	Ikastetxe pribatuak
GUZTIRA	2	1,9	2,2	1,6	2,2
Andaluzia	1,9	1,9	2,4	1,5	2,2
Aragoi	1,6	1,5	1,7	1,3	1,9
Asturias	2,2	2,1	2,2	2	2,4
Balear Uharteak	3,2	3,1	4,1	2,4	3,5
Kanariak	2,1	2,1	2,1	2,1	2,2
Kantabria	2,3	2	2,5	1,7	3,2
Gaztela eta Leon	2,1	2	2,1	1,9	2,2
Gaztela-Mantxa	0,9	0,8	0,9	0,7	2
Katalunia	2,3	2,3	3,1	1,7	2,4
Valentzia	2,7	2,7	2,6	2,7	2,6
Extremadura	1	1	1,4	0,7	1,8
Galizia	2,5	2,4	2,9	2,1	2,9
Madril	2	2	2,2	1,9	1,9
Murtzia	2,9	3,4	5,4	2,3	2
Nafarroa	2,5	2,7	4,1	1,9	2,2
Euskadi	1,9	1,9	2,6	1,5	1,8
Errioxa	1,4	1,3	1,3	1,4	1,8

## HEZKUNTZA-PROZESUAK ETA -POLITIKAK

Ceuta	1,2	1,1	0,9	1,3	2,2
Melilla	1,3	1,2	1,1	1,3	2,2

\* Irakasleendako eta ikasleei irakasteko erabiltzen diren ordenagailuak hartu dira kontuan batez ere.  
Iturria: Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioko Estatistikako Zuzendariorde Nagusia

**180. taula: Internet-konexioa\* duten ikastetxeen ehunekoa, ikastetxearen titulartasunaren/motaren, autonomia erkidegoaren eta konexio motaren arabera. 2014-2015**

	Internet-konexioa		RDSI		ADSL		TV - kablea		Beste konexio mota bat	
	Ikastetxe publikoak	Ikastetxe pribatuak	Ikastetxe publikoak	Ikastetxe pribatuak	Ikastetxe publikoak	Ikastetxe pribatuak	Ikastetxe publikoak	Ikastetxe pribatuak	Ikastetxe publikoak	Ikastetxe pribatuak
GUZTIRA	99,9	99,6	4,7	4	77,3	80,6	4,1	6,7	23	20,5
Andaluzia	99,9	99,7	4,8	1,7	84,2	88,8	1,8	2,8	9,3	6,8
Aragoi	99,5	100	4,7	4,3	95,3	84,5	4	10,3	11,4	13,8
Asturias	100	100	0,3	3,3	86,3	61,5	29,4	39,6	28,1	9,9
Balear Uharteak	99,7	100	8,6	10,6	97,3	86,7	1,7	6,2	4,5	17,7
Kanariak	100	100	0,9	4,8	85	77,4	0,9	2,7	13	21,9
Kantabria	100	100	8,7	0	96,5	88,2	1,2	16,2	1,7	4,4
Gaztela eta Leon	100	100	4,7	6,5	96,4	89,8	2,4	9,3	5,6	5,6
Gaztela-Mantxa	99,9	100	6,1	5,2	95,3	94,1	0	0	10,6	8,9
Katalunia	100	99,8	0,6	0,6	27,7	54,6	0,7	1,6	86,2	65,1
Valentzia	99,7	97,7	1,7	3,4	95,7	85,1	1,3	7,3	9,1	13,8
Extremadura	100	100	11,7	6,6	73,3	89,5	4,4	7,9	25	13,2
Galizia	100	99,6	0	2	72,9	80,2	25,3	19,4	1,7	2,8
Madril	100	100	17,3	9,4	94,1	84,2	4,2	7,3	7,4	16,1
Murtzia	100	100	4,3	4,4	95,1	84,4	0,6	8,9	1,2	12,6
Nafarroa	100	100	16,5	9	83	83,6	4,8	3	8,3	16,4
Euskadi**	100	100	0	0	11,2	89	0	0	98,2	22,4
Errioxa	100	100	4,8	0	85,7	89,3	8,3	10,7	9,5	3,6
Ceuta	100	100	0	0	90,9	100	0	0	9,1	0
Melilla	100	100	0	0	94,7	75	10,5	50	0	0

\* Ikastetxe batek konexio mota bat baino gehiago izaten ahal du.

\*\* Euskadin ADSLaren zutabeen beste konexio asimetriko mota batzuk ere sartzen dira: TB-Kablea, Kable-moderna.  
Iturria: Hezkuntzaren zifrak Espainian. 2012-2013 ikasturtea (2015eko edizioa)

**181. taula: WIFI konexioa duten ikastetxeen ehunekoa, autonomia-erkidegoaren eta ikastetxearen titulartasunaren/motaren arabera. 2014-2015**

	Ikastetxeak guztira	Ikastetxe publikoak	Ikastetxe publikoak - Lehen Hezkuntza	Ikastetxe publikoak - Bigarren Hezkuntzako eta lanbide-heziketako ikastetxeak	Ikastetxe pribatuak
GUZTIRA	86,8	85,7	84,4	89	90,1
Andaluzia	98	98,2	97,8	99,2	97,2
Aragoi*	89,6	89,1	86	97,3	91,4
Asturias	99,5	99,7	99,6	100	98,9
Balear Uharteak	90,5	90,3	87,7	97,4	91
Kanariak	58,1	53,1	54,7	48,3	85,6
Kantabria	79,7	77,4	75,2	84,6	86,4
Gaztela eta Leon	86,2	86,2	85,3	89	86

Gaztela-Mantxa	88,3	88,1	86,3	93,4	89,6
Katalunia	94,5	95,2	95,7	94,4	93,3
Valentzia	77,2	71,5	69,9	74,7	90,6
Extremadura	72,2	72,6	68	85,8	69,7
Galizia	98,5	100	100	100	92,8
Madril	78,2	75,2	69,9	87,5	83,3
Murtzia	85,3	84,5	87,9	73,3	88,1
Nafarroa	54,2	50,4	44,7	66,7	67,2
Euskadi	98	97,6	98,2	96,3	98,9
Errioxa	91,1	91,7	91,7	91,7	89,3
Ceuta	82,1	90,9	87,5	100	50
Melilla	78,3	73,7	66,7	85,7	100

\* Aragoi 2014-2015 ikasturteko datu batzuk 2012-2013 ikasturteko datuekin estimatu dira.  
Iturria: Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioko Estatistikako Zuzendariordetza Nagusia

#### 4.7.4. IKTak curriculumean txertzea

Hezkuntzako Teknologien Ataleko lan ildo nagusietako batek hezkuntzako prozesuetan eta ikasgeletako egunerokotasunean IKTak erabiltzearekin du zerikusia; atalak jarraian deskribatzen diren ekimenak eta jarduerak bultzatzen ditu.

Ikastetxe publikoetara bideraturiko proiektuak bultzatzen ditu eta haien xede nagusia da IKTen erabilera hezkuntza ikerketa egitea eta IKT baliabideak berekin dituzten hezkuntza materialak sortzea.

Proiektu hauen garapenean oso garrantzitsua da ILZetako hezkuntzako teknologietako aholkulariek egindako ikuskapena eta, hala behar denean, emandako laguntza eta prestakuntza; aholkulari horiek aipatutako ataleko irizpideekin elkarlan estuan aritzen dira.

Gainera, ikasgela digitala zehazten laguntzeko, ikastetxeetan esperientzia pilotuak ezarri dira, eduki digitalen eta ekipamenduaren alorretan. Ikastetxeetan egindako esperientzia pilotu horiek orain arte ezagutzen ziren teknologia berrien proiektuak ordezkatu dituzte eta hedapen azkarra duten arlo tematikoen gaineko ezagutza handitzeko eta ezagutza hori modu eraginkorragoan trukatzeko beharrari erantzuten diote.

2014-2015 ikasturtean INTEFekin elkarlanean aritu gara gelan gailu mugikorrek erabiltzen diren proiektu batean, Samsungen finantzaketarekin. Gaur egun, bi ikastetxe ari dira proiektu horretan lanean.

Aurtengo martxoan eskaintza bat egin ziguten ikasleen eta irakasleen gaitasun digitalei buruzko Europako proiektu batean kide bezala parte hartzeko. Proiektuaren proposamena uztailen onartu zen eta irail-urrian proiektua abiarazteko informazioa betetzeko urratsa bete da.

Ikasturte honetan, IntegraTE-HTu izeneko programa berri bat egiten da, fase pilotuan, Integratic Fase I-eko ikastetxeei zuzenduta.

Proiektu horretan eta azken urteetan garatu diren beste proiektu pilotu batzuetan ateratako ondorioak abiapuntu izanik, 2016-2017 ikasturtean, Integratic-en I. faseko ikastetxeek parte har dezakete hezkuntzako teknologiaren ikastetxeen sare batean (IntegraTE□IntegraHTu). Hartan, ikastetxeek beren proiektuak aurkez ditzakete irakasleen eta ikasleen gaitasun digitala hobetzeko, prozesu administratiboak hobetzeko eta informazio eta komunikazio sistemak hobetzeko. Hezkuntzako teknologia segurtasunez eta erantzukizunez erabiliz gauzatuko da arlo horietako hobekuntza.

## 4.8. Bizikidetza

### 4.8.1. Bizikidetzarako Aholkularitza

Eskola-bizikidetza hobetzeko jarduerak Bizikidetzako Aholkularitzatik antolatzen dira, oro har. Aholkularitza horrek, bere egitekoen artean, 204/2010 FA eta 47/2010 FD hedatzen jarraitu du, arau horiek garatzen eta ezartzen laguntzen duten materialekin batera. Era berean, fitxa bat diseinatu da arau horien garapena eta aplikazioa baloratzeko eta Hezkuntzako Ikuskapenera igorri da ikastetxeekin erabil dezaten. 47/2010 Foru Dekretua aldatzen duen 57/2014 Foru Dekretua hedatu da. Hezkuntza Departamentuak sortu zuen Bizikidetza Batzordea sustatu eta koordinatu da.

Bizikidetzarako Aholkularitzak eginkizun hauek izanen ditu (Cfr. 204/2010 FA, 8. art):

- Aholkularitza eta kasuei arreta ematea. Ikastetxeei, familiei eta ikasleei emandako aholkuak ondoko hauetan zehazten dira:
  - Hiru telefono linearekin (haietako bat doakoa).
  - Helbide elektronikoarekin.
  - Familiakoekin, ikasleekin, irakasleekin eta beste zerbitzuetakoekin elkarriketa zuzenak eginez. Elkarriketa hauek taldean edo bakarka egin daitezke.
  - Ikastetxeetara bisitaldiak eginez, aholkua emateko eta elkarlanean aritzeko.
- Bidezkoa denean, kanpoko zerbitzuekin koordinatuz (ikastetxeak, gizarte zerbitzuak, osasun mentala, fiskaltza, poliziak, aholkularitza juridikoa...).
- Hezkuntzako Ikuskapenarekin komunikatuz eta koordinatuz.
- Kudeaketak eta haien ondoriozko txostenak eginez.

182. taula: Bizikidetzarako Aholkularitza: kasuei arreta ematea. 2011-2012 ikasturtetik 2015-2016 ikasturtera

	Eskaera-kopurua					Erabilitako eredia		
	Guztira	Ikasleak	Familiak	Ikastetxeak	Beste batzuk	Telefonoa	Helbide elektronikoa	Presentziala
2011-12	262	2	77	141	42	179	20	63
2012-13	311	0	95	153	63	211	25	75
2013-14	286	11	78	142	54	198	21	61
2014-15	356	0	97	186	70	226	48	81
2015-16	385	1	93	236	55	272	44	69

*Iturria: Bizikidetza eta Hezkidetza Bulegoa*

Aurreko zifra horiei ikastetxeetan egindako zernahi aholkularitza saio gehitu behar zaizkie; saio horiek ikastetxean berean edo telefonoz egindakoak dira eta gaiak askotarikoak, batez ere prestakuntzarekin edo unean uneko gatazkak ebaztearekin lotura dutenak.

### Bizikidetza-planak

Aholkularitzak bere gain hartzen duen eginkizunetako bat da ikastetxeetako bizikidetza planak eta plan horien zehaztapenak eta urteko memoriak diseinatzeari eta aplikatzeari dagokienez sustapen eta orientazio lana egitea. Prestakuntza jardueren bitartez eta irakasleei, bizikidetza batzordeei zein bizikidetzako arduradunei telefono eta posta elektroniko bidez emandako aholkularitza pertsonalaren bidez burutzen da lan hori.

### **Irakasleen prestakuntza**

Aholkularitzak prestakuntza-jarduerak antolatzen ditu, Irakasleen Prestakuntza Planaren barruan. Prestakuntzan profesional askok parte hartu dute eta haien balorazioa ona izan da. Prestakuntzako 63 jarduera diseinatu eta koordinatu dira:

Mintegi orokor bat, 3 ikastaro, 5 informazio-saio orokor, 23 informazio-saio ikastetxeetan, ikastetxe arteko 25 ikastaro, 6 lantegi.

Gutxi-gorabehera 1350 irakaslek hartzen dute urtero bizikidetzari buruzko gairen baten inguruko prestakuntza, aipatutako prestakuntza-modalitateen bidez. Honako gai hauek lantzen dira prestakuntza horietan:

- Eskola-bizikidetzak: Gatazka-motak eta esku hartzeko estrategiak. Bizikidetzaren planak.
- Eskola-bitartekaritza formala zein informala.
- Indarkeriarik gabeko komunikazioa eta gatazkak konpontzeko prozesuak: Gatazkaren dinamika ikuspuntu konstruktibo batetik.
- Gaitasun sozialak, komunikazio-teknikak eta gatazkak konpontzeko moduak.
- Diziplina positiboa, klasearen etenaldiak, arauak eta ikasgelaren kudeaketa.
- Eskola-bizikidetzaren kudeatzeko eredu integratua.
- Eskola-jazarpenaren prebentzioa eta horren aurreko esku-hartzea.
- Hezkuntza emozionala eta psikologia positiboa, irakasleentzat eta ikasleentzat,
- Jarrera suiziden prebentzioa eta horren aurreko esku-hartzea, bai eta ikastetxeen krisialdietan laguntza ematea ere.
- Hezkuntza afektibo-sexuala berdinen arteko harremanen testuinguruan.
- Erresilientzia, coaching-a, gainbegiratzea, focusing-a, mindfulness-a eta antzerako gaiak.

### **Sentsibilizazio-kanpainak**

Aldian behin, eskola-bizikidetzak hobetzeko kanpainak sustatzen dira, gizarteari, oro har, eta ikastetxeen zuzendutara, bi helbururekin: indarkeriazko jarrerak prebenitzea eta eskoletako bizikidetzak hobetzen laguntzea. Horrela, honako hauek egin dira:

- «Zurekin jolasten bagara, ongi jolasten gara» izenekoak izan da azken kanpaina. Haren baitan, jolas kooperatiboen eta indarkeria eza sustatzeko jolasen lehiaketa bat antolatuz Lehen Hezkuntzako eta Bigarren Hezkuntzako lehen zikloko ikastetxeetan.
- Jarrera suizidak prebenitzeko protokolo berria argitaratzea eta hedatzea.
- Eskola-jazarpenari aurrea hartzeko eta hartan esku hartzeko «Laguntza» programa.
- Eskola-bitartekaritzari buruzko ikus-entzunezko materialen diseinua.

### **Erakunde arteko parte-hartzea**

Aholkularitzaren parte-hartzea edo lankidetzak duten askotariko programen zerrenda:

- Hitzarmena San Juan de Dios ospitalearekin.
- Irakasleei egindako erasoan lantaldea.
- Erakunde arteko batzordea jokaera suizidak prebenitzeko.
- Departamentu arteko batzordea haurrei eta nerabeei arreta emateko (Hezkuntza, Osasun eta Gizarte Eskubideen Departamentuek osaturikoa).
- Bitartekaritzaren sustapena (ikus-entzunezko material baten sorrera bultzatzea).
- Eskola sozioemozionalen programa (Prestakuntza Atalarekin elkarlanean).
- Nafarroako Nuevo Futuro elkartearen «Rupturas Educativas» programa. Gida Plana, Lizarrako «Tiempo Fuera» programa, droga-menpekotasunaren prebentzioa, Hitzarmena Itxaropenaren Telefonoa GKEarekin...
- Bake eta Bizikidetzako Departamentu arteko mahai teknikoak eta lankidetzak Bakearen, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Zuzendaritza Nagusiarekin.
- Hezkuntza Departamentuko langileek sufritutako kanpoko jazarpenak aztertzea lantaldea. Horren kide dira Laneko arriskuen Prebentzioko Atala, Bizikidetzaren Atala,

Hezkuntzako Ikuskaritza eta sindikatuetaiko prebentzio-ordezkariek.

- Koordinazioa instituzioen (Nafarroako Gobernuoko departamentuak, udalak, mankomunitateak, unibertsitateak, Bizikidetzaren Behatokia...) eta bizikidetzaren aldeko hezkuntzaren berariazko alorretan lan egiten duten erakundeen artean, dauden baliabideak ahalik eta hobekien erabiliz, eta ebaluazioa eta ikerketa egitea alor horretan.

### **4.8.2. Eskola barruko jazarpena**

Bizikidetzarako Aholkularitzaren jardueretako asko eskola-jazarpenari buruzkoak izan dira 2015-2016 ikasturtean. Horrela, jasotako 385 kontsultetatik, 166 jazarpenari buruzkoak izan dira. Esku hartzeko lanaz gain, ikasturte honetan prebentzio-programa bat era abiarazi da: «Eskola-jazarpenaren aurka egiteko prebentzioko eta jarduteko Laguntza programa». Horren bidez jazarpen edo ziberjazarpenaren aurrean beharrezko prebentzio eta esku-hartze tresnak erabiltzeko gonbita egiten zaie hezkuntza-komunitateei.

2016-2017 ikasturte honetan, zazpi ikastetxek aplikatuko dute «Laguntza» programa pilotua, Hezkuntza Departamentuko Bizikidetzarako Aholkularitzaren laguntzarekin. Ikastetxe bakoitzean, «gaitutako» irakasleek koordinatuko dute programa hori. Hautaturiko ikastetxeak hauek izan dira:

- Félix Zapatero IP - Valtierra
- Cerro de la Cruz IP- Cortes
- Altsasuko BHI
- Padre Moret-Irubide BHI - Iruña
- San Cernin ikastetxea - Iruña
- Virgen Blanca HLHIP - Uhartea
- Regina Pacis - Amor de Dios ikastetxea - Burlata

### **4.9. Landatasuna**

Landatasuna terminoak komunitate batek eremu jakin batekin duen lotura definitzen du. Leku zehatz batean bizitzeaz haratago doan kontzeptua da, eta eremu horrekin identifikatzeko modu bat ere bada. Landa-eskolak ekarpen garrantzitsua egiten du presente dagoen udalerrietan zerbitzu-espazio bat eta komunitate bat sortzeko.

Landa-eskolak familien eta ikasleen kolektibo baten hezkuntza-eskakizunei erantzuna ematen die. Kolektibo hori txikia izaten da, oro har, eta horren ondorioz ezin dute maila guztiak dituen ikastetxe oso bat izan. Maila anitzeko eskolak erantzun bat ematen dio egoera horri, alde batetik adin desberdineko ikasleak ikasgela berean bilduz eta, bestetik, ikasle horiei aldi berean irakasten dien irakasle bakar bat edukiz.

Nafarroako eremu guztietan landa-eskola osatuak eta osatugabeak daude. Horietan, ikasleak taldetan banatzen dira, une bakoitzean duten adinaren arabera. Landa-eskola osatugabe esaten zaie Haur eta Lehen Hezkuntzako maila guztiak ez dituztenei. Horietan, ikasleak taldetan banatzen dira, une bakoitzean duten adinaren arabera. Landa-eskola osatuek Haur eta Lehen Hezkuntzako maila guztiak dituzte eta maila anitzeko ikasgelak izaten dituzte baina, ikasle-kopuru txikia dela eta, ez du ikasgela bat irakaskuntza-maila bakoitzeko.

Landatasunaren eta biztanle-kolektibo horien beharrei erantzuten dien landa-eskolaren berezitasunen ondorioz, beharrezkoa da beste metodologia didaktiko bat erabiltzea, hirietan ohikoagoa den eskola mailakatuaren ordez.

Landatasunaren berezitasun horrek koordinazio- eta lankidetzaproiektuak sustatu ditu Nafarroako eremuen artean. Horiei esker, kasu batzuetan, ikastetxe arteko irakasle-taldeak sortu dira, heziketa-proiektu bera aurrera eramateko.

**183. taula Landa-eskola\* eremu geografikoaren arabera.**

Ikastetxearen izena	Herria	Eredua:	Ikasleak, 2014-2015	Ikasleak, 2015-2016
Oibar	G. V. Casamayor HLHIP	G	46	41
Abartzuza	Abartzuzako HLHIP	A,G,D	33	33
Almandoz (Baztan)	Almandozko HLHIP	D	13	9
Allo	La Cruz HLHIP	A,G	52	51
Altsasu	Zelandi HLHIP	D		
Amaiur (Baztan)	Amaiurko HLHIP	D	34	31
Antzin	San Fausto HLHIP	A,G	28	22
Añorbe	Añorbeko HLHIP	G - IIP	64	76
Arantza	Arantzako HLHIP	D (In + Fr)	55	62
Arbizu	Arbizuko HLHIP	D	21	30
Areso	Nazabal HLHIP	D	26	26
Arizkun (Baztan)	Arizkungo HLHIP	D	49	49
Arraioz (Baztan)	Arraiozko HLHIP	D	18	20
Arroitz	Arroizko HLHIP	A,G	51	59
Auritz	Aurizko HLHIP	D	19	14
Aurizberri (Erroibar)	Aurizberriko HLHIP	D	18	22
Azpilkueta (Baztan)	Azpilkuetako HLHIP	D	7	7
Beintza-Labaien	Beintza-Labaiengo HLHIP	D	9	9
Beire	Beireko HLHIP	G - IIP	15	13
Bera	Ricardo Baroja HLHIP	D	200	205
Berbintzana	Río Arga HLHIP	A	32	32
Betelu	Beteluko HLHIP	D	105	103
Cárcar	Carcarreko HLHIP	A,G-IIP	54	62
Kaseda	F. J. Saenz de Oiza HLHIP	G	49	45
Deikaztelu	Virgen de Nieves HLHIP	A,G	46	35
Doneztebe	San Miguel HLHIP	D		
Elizondo (Baztan)	S. F. Javier HLHIP	A		
Erratzu (Baztan)	Erratzuko HLHIP	D	40	38
Erro	S. Esteban HLHIP	D	22	23
Etxalar	Landagain HLHIP	D	78	77
Etxarri Aranatz	S. Donato HLHIP	D		
Figarol (Zarrakaztelu)	Nª Sra. de Ujué HLHIP	G	8	8
Fontellas	Fontellasko HLHIP	A,G,IIP	31	35
Garralda	Nª Sra. de Orreaga HLHIP	A	60	58
Gartzain (Baztan)	Gartzaingo HLHIP	D	14	17
Goizueta	Goizuetako HLHIP	D	64	73
Igantzi	Igantzikoko HLHIP	D	60	52
Irurita (Baztan)	Iruritako HLHIP	D	79	75
Ituren	Pulunpa HLHIP	D	65	66
Iturmendi	Arrano B. HLHIP	D	19	20
Jauntsarats (Basaburua)	Oihanzabal HLHIP	D	85	85

**HEZKUNTZA-PROZESUAK ETA -POLITIKAK**

Lakuntza	L. Fuentes HLHIP	D	101	107
Legasa (Bertizarana)	Legasako HLHIP	D	22	27
Leitza	Erleta HLHIP	D	267	278
Lesaka	Irain HLHIP	D	141	135
Lezaun	Lezaungo HLHIP	A,D	13	11
Irunberri	S. Juan HLHIP	A - IIP	48	45
Luzaide	Luzaideko HLHIP	D	10	12
Melida	Sta. Ana HLHIP	A	52	47
Mendigorría	J. M. Espinal Olcoz HLHIP	A	71	74
Miranda Arga	San Benito HLHIP	G	47	57
Elo	Eloko HLHIP	A, G	36	43
Monteagudo	Monteagudoko HLHIP	A,G, IIP	63	61
Murillo el Fruto	R. Lanas HLHIP	G - IIP	52	32
Narbarte (Bertizarana)	Arotzenea HLHIP	D	25	24
Obanos	Obanosko HLHIP	G - IIP	52	54
Otsagabia	Otsagabiko HLHIP	A, D	62	66
Olazti	D. Bados HLHIP	A	118	114
Ornoz (Baztan)	Ornozko HLHIP	D	44	39
Oteitza	San Salvador HLHIP	A,G	59	58
Pitillas	Pitillasko HLHIP	A	23	22
Arrada (Murillo el Cuende)	Ximenez de Rada HLHIP	G - IIP	56	60
Erronkari	J. Gayarre HLHIP	A,G,D	76	66
Zare	S. Nicolás HLHIP	A	6	6
Saldias	Saldiasko HLHIP	D	6	8
Santakara	Nª S. de la Asunción HLHIP	G	50	48
Sartaguda	Sartagudako HLHIP	A,G, IIP	74	74
Sesma	Sesmarko HLHIP	A,G	86	75
Sunbilla	Sunbillako HLHIP	D	89	93
Uharte Arakil	San Miguel HLHIP	A	62	74
Uxue	Uxueko HLHIP	A	5	7
Urdiain	Urdiaingo HLHIP	D	59	52
Urrotz-Hiria	Urrozko HLHIP	A	40	36
Villatuerta	San Veremundo HLHIP	A,G	90	93
Ziga (Baztan)	Zigako HLHIP	D	18	17
Zubiri (Esteribar)	Xabier Zubiri HLHIP	A		
Zudairi	Zudairiko HLHIP	A,G,D	61	74
Zugarramurdi	Zugarramurdi/Urdazubiko HLHIP	D	49	57

\* Taula honetako eskola batzuk (Altsasu, Doneztebe, Elizondo, etab.) ezin dira landa-eskola bezala sailkatu, baina taulan jaso ditugu eremuko landa-eskolekin duten harreman pedagogikoarengatik.  
Iturria: Antolamenduko eta Aukera Berdintasuneko Zerbitzua

**184. taula: Hizkuntza-ereduen araberako laburpena. 2015-2016**

Hizkuntza-ereduak	2013-2014		2014-2015		2015-2016	
	Ikasleak	Unitate kop.	Ikasleak	Unitate kop.	Ikasleak	Unitate kop.
D eredia	1340	121	1374	126	1431	134
IIP programa	57	5	64	5	19	2



G/A ereduak	1409	132	701	69	1087	106
D eta G/A ereduak	171	15	171	16	215	21
	59	7	51	6		
G/A ereduak eta IIP	49	5	208	18	354	35
	-	-	520	46		
Guztira	3085	285	3089	286	3106	298

Iturria: Antolamenduko eta Aukera Berdintasuneko Zerbitzua

185. taula: Nafarroako landa-eskolen taldeak 2015-2016

Eremua	Eskola osatuak	Eskola osatugabeak
1. EREMUA BAZTAN	Amaiur ( 1., 2. eta 3. / eta 4., 5., 6. ) Ornoz ( 1. eta 2. / 3. eta 4., 3. eta 4. / 5. eta 6.) Arizkun (1., 2., 3. / 4. eta 5. / eta 6. bakarrik) Irurita (1. bakarrik, 2. bakarrik, 3., 4. eta 5. bakarrik eta 6. bakarrik) Urdazubi/Zugarramurdi (1. bakarrik, 2. eta 3. batera, 4., 5. eta 6. batera)	Arraioz (1., 2., 3., 4. eta 5.; 6. ez dago) Ziga (1. ez dago, 2., 3., 4., 5., eta 6. batera) Azpilkueta (1. ez dago, 2., 3., 4., 5., eta 6. batera) Erratzu (1. eta 2. batera, 3. ez dago, 4. bakarrik eta 5. eta 6. batera) Gartzain (1. eta 4. ez daude, 2., 3., 5. eta 6. batera) Almandotz (1. eta 5. ez daude, 2., 3., 4. eta 6. batera)
2. EREMUA MALERREKA	Narbarte (1., 2. eta 3. batera / 4., 5. eta 6. batera) Ituren (1. eta 2. batera, 3. eta 4. batera, 5. eta 6. batera) Sunbilla (1., 2. eta 3. bakarrik; 4. eta 5. batera eta 6. bakarrik)	Beintza (2. eta 3. ez daude, 1., 4. 5. eta 6. batera) Saldias (2., 4. eta 5. ez daude; 1., 3. eta 6. batera) Legasa (5. ez dago, 1., 2., 3., 4. eta 6. batera)
3. EREMUA	Areso (1. eta 2. bakarrik; 3., 4. eta 5. batera eta 6. bakarrik) Goizueta (1. eta 2. batera, 3. eta 4. batera eta 5. eta 6. bakarrik) Betelu (maila bakoitza gela batean) Jauntsarats (1. eta 2. batera) Leitza	
4. EREMUA BORTZIRIAK CINCO VILLAS	Arantza (1. eta 2. batera, 3. eta 4. batera, 5. eta 6. batera) Igantzi (1. eta 2. batera, 3. eta 4. batera, 5. eta 6. batera) Lesaka (1. eta 2. batera, 3. eta 4. batera eta 5. eta 6. batera) Etxalar (1. eta 2. batera, 3. bakarrik, 4. bakarrik eta 5. eta 6. batera) Bera (maila bakoitza gela batean)	

**HEZKUNTZA-PROZESUAK ETA -POLITIKAK**

5. EREMUA ERRONKARI RONCAL	Erronkari (1., 2. eta 3. batera; 4., 5. eta 6. batera)	
6. EREMUA ZARAITZU SALAZAR	Otsagabia (1. eta 2. batera, 3. eta 4. batera, 5. eta 6. batera)	
7. EREMUA AEZKOA/ERRO ZUBIRI	Garralda (1. eta 2. batera, 3. eta 4. bakarrik eta 5. eta 6. batera) Erro (1. bakarrik, 2., 3., 4., eta 5. batera eta 6. ez dago) Urrotz (1. eta 2. batera, 3. eta 4. batera, 5. eta 6. batera) Zubiri (maila bakoitza gela batean)	Auritz (4. eta 5. ez daude; 1., 2., 3. eta 6. batera) Luzaide (3. eta 6. ez daude; 1., 2., 4. eta 5. batera)
8. EREMUA SAKANA BARRANCA	Etxarri (maila bakoitza gela batean) Iturmendi (1., 2. eta 3. batera; 4., 5. eta 6. batera) Lakuntza (maila bakoitza gela batean) Olazti (maila bakoitza gela batean) Uharte Arakil	Arbizu (1. eta 2. batera, gainerako mailarik ez dago) Urdiain (1. bakarrik, 2. eta 3. batera, 4. eta 5. batera eta 6. ez dago)
9. EREMUA ZANGOZA SANGÜESA	Kaseda (1. eta 2. batera, 3. eta 4. batera, 5. eta 6. batera) Irunberri (1. eta 2. batera, 3. eta 4. batera, 5. eta 6. batera)	Zare (1., 2. eta 3. batera, 4., 5. eta 6. ez dago) Oibar (1. eta 2. batera, 3. ez dago, 4., 5. eta 6. batera)
10. EREMUA	Añorbe (1. eta 2. batera, 3. eta 4. batera, 5. eta 6. batera) Obanos (1. eta 2. batera, 3. eta 4. batera eta 5. eta 6. bakarrik) Barasoain (maila bakoitza gela batean) Berbintzana (1., 2. eta 3. batera; 4., 5. eta 6. batera) Mendigorria (1. eta 2. batera, 3., 4., 5. eta 6. bakarrik) Miranda Arga (1. eta 2. batera, 3. eta 4. batera eta 5. eta 6. batera) Beire (1., 2. eta 3. batera; 4., 5. eta 6. batera)	Pitillas (2. ez dago; 1., 3. eta 4. batera; 5. eta 6. batera) Uxue (5. ez dago; 1., 2., 3., 4. eta 6. batera)
11. EREMUA	Mélida (1. eta 2. batera, 3. eta 4. batera, 5. eta 6. batera) Murillo el Fruto (1. bakarrik, 2. eta 3. batera eta 4., 5. eta 6. batera) Arrada (1. eta 2. batera, 3. eta 4. batera, 5. eta 6. batera) Santakara (1. eta 2. batera, 3. eta 4. batera, 5. eta 6. batera)	Figarol (6. ez dago; 1., 2., 3., 4. eta 5. batera)

<p>12. EREMUA</p>	<p>Abartzuza (1., 2. eta 3. batera; 4., 5. eta 6. batera)</p> <p>Allo (1. bakarrik, 2. eta 3. batera, 4. bakarrik, 5. eta 6. batera)</p> <p>Antzin (1., 2. eta 3. batera; 4., 5. eta 6. batera)</p> <p>Arroitz (1. eta 2. batera, 3. eta 4. batera, 5. eta 6. batera)</p> <p>Deikaztelu (1. eta 2. batera, 3. eta 4. batera, 5. eta 6. batera)</p> <p>Villatuerta (1. 2., eta 3. batera, 4., 5. eta 6. bakarrik)</p> <p>Cárcar (1. eta 2. batera, 3. bakarrik; 4. eta 5. batera eta 6. bakarrik)</p> <p>Sartaguda (1. eta 2. batera, 3. bakarrik; 4. eta 5. batera eta 6. bakarrik)</p> <p>Sesma (maila bakoitza gela batean)</p> <p>Zudairi (1. eta 2. batera, 3., 4., 5. eta 6. bakarrik)</p>	<p>Lezaun (5. eta 6. bakarrik)</p>
-------------------	---	------------------------------------

*Iturria: Antolamenduko eta Aukera Berdintasuneko Zerbitzua*


#### **4.10. Udalak eta hezkuntza**

Nafarroako toki-erakundeek badituzte hezkuntzaren alorreko eskumen batzuk, toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen legeak aitortutakoak. Aipatutako arau horren 25. artikulua honako hau dio, besteak beste: «Nahitaezko eskolatzea betetzeko zaintzan parte hartzea, eta dagozkien hezkuntza-administrazioekin lankidetzan jardutea, ikastetxe berriak eraikitze beharrezkoak diren orubeak lortzeko. Haur-hezkuntza, Lehen Hezkuntza edo hezkuntza bereziko zentro publikoetara xedaturiko toki-titulartasuneko eraikinen kontserbazioa, mantenua eta zaintza».

Arau-esparru horren baitan, Nafarroako udalak Lehen Hezkuntzako ikastetxeen titularrak dira eta haien mantentze-lanez arduratzen dira (atezaintza, argia, ura, eraikinaren mantentze-lanak...). Ikastetxe horietan beste herri batzuetako ikasleei ere zerbitzua ematen bazaie, Nafarroako Gobernuak gastu horien zati bat ordaintzen laguntzen du. Bestalde, ohikoa da ere udalek beste ekarpen batzuk egitea ikastetxeei, adibidez eskolako materiala erosteko.

Haur Hezkuntzako lehen zikloaren (0-3 urte) garrantzia nabarmendu beharra dago. Mende honen hasieran asko hedatu zen Nafarroa guztian eta haren oinarria, hein handi batean, eredu hau da: udalak dira ikastetxearen eta zerbitzuaren titularrak, eta gastuen zati bat ordaintzen laguntzen dute gurasoek eta Nafarroako Gobernuak, dagokion hitzarmena sinatu eta gero. Horren froga dira ikastetxe-kopurua eta eskaintzen diren eskola-plazak, datozen grafikoetan ikus daitekeen moduan.

128. grafikoa: Haur-eskolak. Nafarroa. 2015-2016




Iturria: Guk geuk egina, 0-3 urtekoen Atalaren datuekin

129. grafikoa: 0-3 urteko haurrentzako plazzen eta ikastetxe publikoen igoera. 2011-2016



Iturria: Guk geuk egina, 0-3 urtekoen Atalaren datuekin

130. grafikoa: Udalekin lotutako irakaskuntza publikoan gauzatutako aurrekontuen bilakaera. 0-3 urte (milaka eurotan). 2000-2015



Iturria: Guk geuk egina, Baliabide Ekonomikoen Atalaren datuekin

## 4.11. Parte-hartzea

Nafarroako gizarteak interes handia erakutsi du hezkuntzarekin lotutako gaien inguruan. Horren ondorioz, jarduera eta dinamismo handia dago, alor ugarian ikus daitekeena: Hezkuntzako Departamentuaren kudeaketan guztizko gardentasuna eskatzea; familien elkarteek, ikastetxeetako zuzendaritza-taldeek edo sindikatuek erabakiak hartzeko prozesuetan parte hartzeko exijentzia, Nafarroako Parlamentuan landutako gaien garrantzia edo eragile askok antolatutako hedapen- edo eztabaida-jarduerak, besteak beste.

Urteko txosten honen bidez, hainbat ataletan, prozesu horien ildo nagusiak ezagutarazi nahi izan ditugu baina, onartu beharra dago, hori ez da posible izan kasu guztietan. Horrela, ez dugu berrik jaso eskolatzeko-batzordeetatik, Prestakuntza Kontseilutik eta parte-hartzearen beste mahai batzuetatik. Hortaz, parte-hartzearen adierazle batzuk baino ez ditugu aurkeztuko, eta espero dugu txosten honen etorkizuneko argitalpenetan datu horiek osatzen joatea.

### 4.11.1. Nafarroako Eskola Kontseilua

Nafarroako Eskola Kontseilua, azaroaren 4ko 12/1997 Foru Legearen bidez sortua, hezkuntza erkidegoaren parte-hartze organo gorena da Nafarroako unibertsitatez kanpoko ikasketen planifikatzeari dagokionez. Bertan, hezkuntzarekin zerikusia duten sektore nagusiak daude ordezkatuta.

Eskola Kontseiluaren eginkizunik garrantzitsuena da Nafarroako Foru Komunitatean unibertsitatez kanpoko hezkuntza arautuko duten arauen egitasmoak aztertzea eta horien gainean eztabaidatzea, eta adostutako zuzenketak Hezkuntza Departamentuari jakinaraztea.

Gainera, hezkuntzaren alderdi adierazgarriak buruzko ikerketak eta txostenak prestatzen ditu, eta Estatuko Eskola Kontseiluan parte hartzen du.

Hona hemen haren eginkizunak:

- Hezkuntza Departamentuak igortzen dituen arauen egitasmoak aztertzea eta horiei buruz eztabaidatzea, irakaskuntzaren programazio orokorreko alderdi ezberdinen gainean legez ezinbestekoak diren irizpenak prestatzeko. Hauen inguruko egitasmoak dira:
  - Hezkuntzarekin loturiko gaiei dagokienez, Nafarroako Gobernuak onetsi beharreko erregelamendu exekutibo orokorrenzako egitasmoak edo foru legeentzako aurreproiektuak.
  - Planifikazio orokorrerako printzipioak, oinarriak eta irizpideak, ikastetxeen sorrera, aldaketa, kentzea eta lurralde banaketari dagokienez.
  - Ikastetxeen eta ikastetxeetako langile eta ekipamenduen ezaugarriak buruzko araudi orokorra.
  - Ikastetxe publikoen eta ikastetxe pribatu itunduen eta diruz lagunduen finantzaketari buruzko irizpide orokorrak.
  - Hizkuntza ereduen ezaugarriak eta ezarpenari buruzko xedapen orokorrak.
  - Bekei eta ikasketetarako laguntzei buruzko printzipio orokorrak.
  - Eskolaz kanpoko jarduerari eta zerbitzu osagarriari buruzko araudi orokorra.
  - Hezkuntza gaietan Estatuarekin edo beste autonomia erkidego batzuekin lankidetzak hitzarmenak edo akordioak egiteko egitasmoak.
  - Hezkuntzaren kalitatea hobetzea edo desberdintasun sozial eta indibidualak konpentsatzea helburu duten xedapenak.
- Txostenak egitea Hezkuntza Departamentuak eskatutako gaien gainean.
- Bere ekimenez ikerketak eta proposamenak egitea, irakaskuntzaren programazio orokorrarekin lotutako bestelako gaiei buruz, eta goragokoei igortzea.
- Urtero hau bezalako txosten bat prestatzea Nafarroako Foru Komunitateko hezkuntza sistemaren egoerari buruz.
- Urtero Nafarroako Eskola Kontseiluaren jardueren memoria prestatzea.
- IDEA aldizkaria prestatzea eta kaleratzea.
- Eskola kontseiluen topaketen jardunaldiak antolatzea.
- Parte hartzea Estatuko Eskola Kontseiluaren osoko bilkuraren eta erkidegoetako eskola kontseiluen parte-hartze batzordearen saioetan.

186. taula: 2015-2016 ikasturtean egindako jarduerak garrantzitsuenak

Jarduerak	Kopurua edo deskribapena
Osoko bilkuraren saioak	8
Batzorde iraunkorren saioak	10
Emandako irizpenak	35
Bere ekimenez egindako txostenak	Egokitasuna eta errepikapena Nafarroako hezkuntza sistemari (argitalpena eta hedapena). Familien parte-hartzea Nafarroako hezkuntza-sistemari (argitalpena eta hedapena).
Argitaratutako aldizkariak	44. zk: Zuzendaritzaren eginkizunak ikastetxeetan-La función directiva en los centros escolares. 45. zk: 0-6 Haur hezkuntza/0-6 Educación infantil.

Webgunea	Hezkuntzarekin lotutako albisteak jasotzea hemeroteca bat sortzeko, asteroko buletin bat bidaltzea Nafarroako ikastetxeei.
Jardunaldiak	XVII 0-6 Haur Hezkuntza-Educación infantil, Iruñean martxoan eta Tuteran maiatzean.
Nafarroako Eskola Kontseiluaren arratsaldeak. Hezkuntzari buruzko eztabaidak	Maddalena Tadeschiren hitzaldia, Nafarroako Parlamentuarekin batera antolatua. Izenburua: Hezkuntza politika eta haurtzaroa / Política educativa e infancia.
Estatuko eta erkidegoetako eskola kontseiluen Parte-hartze Batzordea eta Estatu mailako topaketak	Autonomien Parte-hartze Batzordearen bileretara eta Estatuaren Eskola Kontseiluaren bilkuretara joatea. Valenziako Erkidegoko Eskola Kontseiluak antolatutako Hezkuntzari buruzko udaberria.
Parte-hartzea	Nafarroako Parlamentua: ISEn aurkezpena eta beste jarduera batzuk. Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioko Haur Hezkuntzako Batzordea. Hezkuntza Departamentuaren IIP ebaluatzeko batzorde zientifikoa. Euskarabidea: Hizkuntza-politikaren plan estrategikoa.

Iturria: Nafarroako Eskola Kontseilua

#### 4.11.2. Ikastetxeetako eskola-kontseiluak

Eskola-kontseilurako hauteskundeak

- 91/2015 EBAZPENA, urriaren 21ekoa, Hezkuntzako zuzendari nagusiak emana, Nafarroako Foru Komunitateko lurraldean dauden Lehen Hezkuntzako ikastetxe publikoetako, Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxe publikoetako, Hezkuntza Bereziko ikastetxe publikoetako eta Helduen Oinarrizko Hezkuntzako ikastetxe publikoetako Eskola Kontseiluak hautatu, eratu eta haien zati bat berritzeko jarraibideak onesten dituen.
- 92/2015 EBAZPENA, urriaren 21ekoa, Hezkuntzako zuzendari nagusiak emana, Nafarroako Foru Komunitateko lurraldean dauden Bigarren Hezkuntzako institutueta eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako institutueta Eskola Kontseiluak hautatu, eratu eta haien zati bat berritzeko jarraibideak onesten dituen.
- 93/2015 EBAZPENA, urriaren 21ekoa, Hezkuntzako zuzendari nagusiak emana, Iruñeko eta Tuterako Hizkuntza Eskola Ofizialetako eta Nafarroako Urrutiko Hizkuntza Eskola Ofizialetako Eskola Kontseiluak hautatu, eratu eta haien zati bat berritzeko jarraibideak onesten dituen.
- 94/2015 EBAZPENA, urriaren 21ekoa, Hezkuntzako zuzendari nagusiak emana, Arte Irakaskuntzen ikastetxe publikoetako Eskola Kontseiluak hautatu, eratu eta haien zati bat berritzeko jarraibideak onesten dituen.
- 95/2015 EBAZPENA, urriaren 21ekoa, Hezkuntzako zuzendari nagusiak emana, ikastetxe itunduetako Eskola Kontseiluak hautatu, eratu eta haien zati bat berritzeko eta zuzendaria izendatzeko jarraibideak onesten dituen.

Ebazpen horien V.7 atalak zera dio: “Sektore batean aurkeztutako hautagai kopurua berri beharreko ordezkarien kopuruarekin alderatuz gero berbera edo txikiagoa bada, Hauteskunde Batzordeak besterik gabe aldarrikatuko ditu aurkeztu diren hautagaiak”.

187. taula: Eskola-kontseiluetarako hauteskundeak ikastetxe publikoetan. 2015-2016

	Ikastetxe-kopurua	Irakasleak		Gurasoak		Ikasleak		AZLak	
		Bozketak?		Bozketak?		Bozketak?		Bozketak?	
		Bai	Ez	Bai	Ez	Bai	Ez	Bai	Ez
<b>Lehen Hezkuntza</b>									
Eskola kontseilua berritu dute	30 <sup>1</sup> 22 <sup>3</sup>	13	9	8	14	1 <sup>2</sup>	1	2	5
Sektoreak osatu dituzten ikastetxeak, berritu beharrik ez badute ere	15								
<b>Bigarren Hezkuntza</b>									
Eskola kontseilua 1. aldiz hautatu dute	0								
Eskola kontseilua berritu dute	23 <sup>3 4</sup>	5	18	5	18	9	14	3	2 <sup>5</sup>
Sektoreak osatu dituzten ikastetxeak, berritu beharrik ez badute ere	6								
<b>Helduen Hezkuntza</b>									
Eskola kontseilua berritu dute	1 <sup>6</sup>	0	1	-	-	1	0	0	0
<b>Arte eskolak</b>									
Eskola kontseilua berritu dute	2		2		2	2	0	0	0
<b>Kontserbatorioak</b>									
Eskola kontseilua berritu dute	1	0	1	0	1	1	0	1	0
<b>Hezkuntza Berezia</b>									
Eskola kontseilua berritu dute	1 <sup>3</sup>		1		1				
<b>Hizkuntza eskolak</b>									
Eskola kontseilua berritu dute	0								

<sup>1</sup> 30 ikastetxe horietatik 8k unitate 1 edo 2 dituzte eta ikastetxe horietan eskola-kontseiluko kideak ikastetxeko zuzendaria, gurasoen elkarteko ordezkaria (gurasoen elkarteak zuzenean izendatzen duena) eta Udaleko ordezkaria dira. Hartara, ikastetxe horietan ez da bozketarik egin. Analisia gainerako 22 ikastetxeak kontuan hartuta egin da.

<sup>2</sup> HLHIPetan ikasleek ordezkariak izan ditzakete eskola kontseiluan, hitzarekin baina botorik gabe, Ikastetxeko Hezkuntza Proiektuak ezartzen dituen baldintzetan, baina oso gutxi dira eskola-kontseiluan ikasleen ordezkariak dituzten HLHIPak.

<sup>3</sup> Hezkuntza Bereziko berariazko ikastetxeetan eta Hezkuntza Bereziko unitateak dauzkatenetan hezkuntza-arreta osagarriko langileen ordezkari bat ere izanen da eskola-kontseiluko kide (LOMCE, 126.8 artikulua)

<sup>4</sup> BHLak eta DBHLak hartu dira kontuan

<sup>5</sup> AZLen sektorea ez da ikastetxe hauetan guztietan berritu behar, 2. erdia berritzea dagokien ikastetxeetan soilik berritu behar da.

<sup>6</sup> Helduentzako ikastetxeetan gurasoak ez dira eskola-kontseiluko kide.



Iturria: Ebaluazioaren eta Kalitatearen Atala

188. taula: Eskola-kontseiluetarako hauteskundeak ikastetxe itunduetan. 2015-2016

		Irakasleak		Gurasoak		Ikasleak		AZLak	
		Hauteskundeak		Hauteskundeak		Hauteskundeak		Hauteskundeak	
		BAI	EZ	BAI	EZ	BAI	EZ	BAI	EZ
Eskola kontseilua 1. aldiz hautatu dute	1	1	0	1	0	1	0	1	0
Eskola kontseilua berritu dute	8 <sup>1</sup> 6	3	3	2	4	0	3 <sup>2</sup>	0	1 <sup>3</sup>
Sektoreak osatu dituzten ikastetxeak, berritu beharrik ez badute ere	3								

<sup>1</sup> Eskola-kontseilua berritu behar zuten 8 ikastetxek. Horietako bik, alabaina, ez dute berritu, akats bat dela eta. *Hurrengo urtean berrituko dute. Analisia gainerako 6ekin egin da.*

<sup>2</sup> Lehen Hezkuntzako ikastetxeetan ikasleak ez dira ikastetxeko eskola-kontseiluko partaide.

<sup>3</sup> AZLen sektorea ez da ikastetxe hauetan guztietan berritu behar, 2. erdia berritzea dagokien ikastetxeetan soilik berritu behar da.

Iturria: Ebaluazioaren eta Kalitatearen Atala

Ikastetxeetako eskola kontseiluak bi urtean behin erdika berritzen dira. 2015-2016 ikasturtean ikastetxe gutxi batzuen eskola-kontseilua baino ez da berritu, baina lortutako ondorioak aurreko urteetakoen antzerakoak dira:

- Eskola kontseilua berritu behar duten ikastetxeen ehuneko handi batean ez da bozketarik egin aurkeztu diren hautagaitzen kopurua bete beharreko postuen bezainbestekoa edo txikiagoa izan delako.
- Bozketak egin diren tokietan, gurasoen sektorea da parte-hartzearen ehuneko txikiena izan duena.
- Eskola kontseilua berritzera beharturik ez badaude ere, ikastetxe batzuetan diote kontseiluaren osaera osoa mantendu nahi dutela eta, hartara, sektoreetako edozeinetan sortutako postu hutsak betetzeko prozedurari ekiten diote.

#### 4.11.3. Unibertsitatez kanpoko irakasleen Mahai Sektoriala eta 2001eko maiatzaren 31ko itunaren jarraipen batzordea

2015-2016 ikasturtean zehar Unibertsitatez kanpoko irakasleen mahai sektoriala 12 aldiz bildu da, eta gai hauek aztertu ditu:

- Unibertsitatez kanpoko irakasleen Mahai Sektoriala eratzea, 2015eko hauteskunde sindikaletan erdietsiriko emaitzen arabera.
- Irakasleentzako lan-eskaintza publikoari buruzko informazioa.
- Irakasleen lekualdatze lehiaketa 2015-2016 (autonomia-mailakoa).

- Irakasleen kontratazio-zerrendak kudeatzeko Foru Agindua.
- IIPren lehen ebaluazioa.
- Maisu-maistren eta espezialitate gehiago eskuratzeko oposizioen deialdia.
- 2016-2017 ikasturterako lantokiak esleitzeko jarraibideak
- Irakasleak aldi baterako kontratatuzko zerrenden kudeaketa.
- NHBBZn lanpostuak betetzeko deialdia, zerbitzu-eginkizunetan.
- ILZetan lanpostuak betetzeko deialdia, zerbitzu-eginkizunetan.
- Programa eta proiektuen zerbitzu-eginkizunen deialdia.

Unibertsitatez kanpoko mahai sektorialaren osaera ondoko taulan dago jasota.

**189. taula: Unibertsitatez kanpoko irakasleen Mahai Sektoriala. 2015-2016**

Sindikatura	Ordezkariek	%	
LAB	11	24,44	
STEE	10	22,22	
AFAPNA	8	17,78	
CCOO	6	13,33	
ANPE	6	13,33	
ELA	4	8,89	Mahai Orokorrean dagoelako, ez ehunekoagatik.
UGT	0	0,00	Mahai Orokorrean dagoelako, ez ehunekoagatik. Hitza bai baina botorik ez du.
Guztira	45	100	APS eta CSIF ez dira sartu ordezkaritzaren %10era iristen ez direlako eta ez daudelako Mahai Orokorrean.

*Iturria: Giza Baliabideen Zerbitzua*

#### 4.11.4. Gurasoen Mahaia

Nafarroako Foru Komunitateko Ikasleen Gurasoen Mahaia Hezkuntzako kontseilariak maiatzaren 28an emandako 79/2008 Foru Aginduaren bidez sortu zen. Aurrerago, foru agindu hura otsailaren 4ko 14/2010 Foru Aginduaren bidez aldatu zen, ikasleen gurasoen elkarteak biltzen dituzten federazioen bitartez guraso elkartearen parte-hartzea hezkuntzaren esparruan indartzeko xedez.

Kide anitzeko organo bat da, Nafarroako Foru Komunitateko hezkuntza sistemari dagozkion gaien gainean informatzeaz, aztertzeaz, eztabaidatzeaz eta jarraipena egiteaz arduratzen dena. Hautazko izaera du, hots, ez du erabakiak hartzeko eginkizunik, eta bere ondorioak eta proposamenak ez dira lotesleak Hezkuntza Departamentuarentzat.

Ikasleen Gurasoen Mahaiaren helburua da Nafarroako Foru Komunitatean hezkuntza sisteman interes sozial berezikotzat harturiko gaietan ikasleen aita, ama edo legezko tutoreen elkartearen lankidetzaren eta parte-hartzearen, horiek parte diren federazioen bitartez.

Honako hauek osatzen dute:

- Hezkuntzako kontseilaria, mahaiburua.
- Hezkuntza Departamentuko zuzendari nagusiak; horietako bat, Hezkuntzako kontseilariak izendatua, buruorde arituko da, mahaiburuaren eginkizunak betetzeko hura falta denean.
- Hezkuntza Departamentuaren bi ordezkariek, Hezkuntzako kontseilariak izendatuak landu beharreko gaien arabera.
- Nafarroako Foru Komunitatean familia gehien bazkidegurik dituzten ikasleen gurasoen elkartearen federazioetako ordezkariek bana, seira iritsi arte, betiere federazio horiek Hezkuntza Departamentuko Elkartearen eta Federazioen Zentsuan egon behar dutelarik.

- Irakasleen elkarteak eta sindikatuak
  - CCOO: Comisiones Obreras
  - FETE-UGT: Unión General de Trabajadores
  - ANPE: Asociación Nacional de Profesionales de la Enseñaza.
  - CSI-CSIF: Confederación de Sindicatos Independientes y Sindical de Funcionarios.
  - FSIE-SEPNA: Federación de Sindicatos Independientes de Enseñanza.
  - STEE-EILAS: Euskal Herriko Irakaskuntzako Langileen Sindikatua
  - AFAPNA: Nafarroako Administrazio Publikoetako Funtzionarioen Elkarte
  - LAB: Langile Abertzaleen Batzordea
  - ELA / STV: Eusko Langileen Alkartasuna
  - APS: Bigarren Hezkuntzako Irakasleen Elkarte
  - USO: Unión Sindical Obrera

#### 4.11.5. Ikasleen gurasoen elkarteak eta konfederazioak

2015-2016 ikasturtean ikasleen gurasoen elkarteek eta konfederazioek egin dituzten jarduerarik esanguratsuenak ondoko tauletan jaso dira.

190. taula: HERRIKOAK egindako jarduera nagusiak, 2015-2016 ikasturtea

Jardueraren izena	Hartzaileak
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Seme-alabei beren kabuz jarduten laguntzea</li> <li>• Bullyinga</li> <li>• Bullyinga II</li> <li>• Nola kudeatu jarrera desafiatzaileak?</li> <li>• Nola egin akatsak beren gain har ditzaten?</li> <li>• Familiaren eta eskolaren arteko komunikazioa</li> <li>• Nerabeen jarrerak</li> <li>• Zure seme-alabek jakitea nahiko zenukeen gauzak</li> <li>• Hazteko denbora ematea</li> <li>• Dolua</li> <li>• Emozioen semaforoa</li> <li>• ESIP</li> <li>• Esan behar ez diren esaldiak</li> <li>• Batzarren funtzionamendua</li> <li>• Haserrearen kudeaketa, seme-alabei esan behar ez zaizkien gauzak</li> <li>• Frustrazioa</li> <li>• Gatazkak</li> <li>• Gaizki-ulertuak</li> <li>• Jolasten diren umeek gehiago ikasten dute</li> <li>• Seme-alaben jarrerak hobetzea</li> <li>• Nire semeak/alabak araei aurre egiten die</li> <li>• Arauak eta mugak, hazteko lagungarri</li> <li>• Aisialdia eta lehiakortasuna</li> <li>• Zergatik galtzen dugu pazientzia?</li> <li>• Taldearen presioa</li> <li>• Sexu-abusuaren prebentzioa</li> <li>• Zer nahi dut nire seme-alabek ikastea nerabezaroaren aurretik?</li> <li>• Nola kudeatu haurren kasketak?</li> <li>• Amorrua eta haserrea kudeatzea</li> </ul>	Guraso elkarten eta familien prestakuntza
Zenbat ikastetxetara joan den: 69 Zenbat saio eman diren: 119 Emandako gaiak: 29 Prestakuntzan parte hartu dutenak, guztira: 2.747 Prestakuntzako aurrez aurreko orduak: 178	

Jardueraren izenburua: HERRIKOAREN parte-hartzea parte-hartze organoetan.	
Agerraldiak parlamentuan hezkuntza esparruarekin loturiko hainbat gaitarako.	HERRIKOAKO zuzendaritza-batzordea
Beken batzordea, hezkuntza administrazioarekin.	HERRIKOAKO zuzendaritza batzordeko kide 1
Hezkuntza itunen batzordea, hezkuntza administrazioarekin.	HERRIKOAKO zuzendaritza batzordeko kide 1
Eskolatzeko Batzorde Nagusia - Iruña	HERRIKOAKO zuzendaritza batzordeko kide 1
Tuterako Eskolatzeko Batzordea	HERRIKOAKO zuzendaritza batzordeko kide 1
CEAPAREN jardueretan parte hartzea	HERRIKOAKO zuzendaritzako kideak
Nafarroako Eskola Kontseiluaren jardueretan parte hartzea	HERRIKOAKO zuzendaritzako 2 kide
0-3 plataforma	HERRIKOAKO zuzendaritzako kideak
Gurasoen Mahaia	HERRIKOAKO zuzendaritzako 2 kide
Zuzendaritza-batzordearen bilerak	HERRIKOAKO zuzendaritza-batzordea
HERRIKOAKO kideen batzarra	Gurasoen elkarteak
Liburuen batzordea, testuliburuen doakotasuna	HERRIKOAKO zuzendaritza batzordeko kide 1
Prentsa oharrak eta prentsaurrekoak, hezkuntza gaien gainekoak	Hedabideak

Iturria: Herrikoa

**191. taula: SORTZENek egindako jardueren nagusiak, 2015-2016 ikasturtea**

Jardueraren izena	Hartzaileak
LOMCE eta Lehen Hezkuntzako 3. eta 6. mailako kanpoko azterketak: hitzaldi informatiboak Iruñerriko 10 ikastetxe baino gehiagoko ordezkariekin.	Gurasoak, irakasleak eta ikasleak.
Sexualitate-lantegiak SOLASEANekin eta Lastotanekin, hiru ikastetxetan.	Gurasoak eta irakasleak.
Mahai-ingurua Iruñeko Condestablen, D ereduan atzerriko hizkuntzek jasotzen duten tratamenduari buruzkoa, Sortzeneko eta Ikastolen Elkarteko ordezkari banarekin eta Richard Wendlyngekin.	Gurasoak eta irakasleak.
LOMCE, eta DBHn eta Batxilergoan duen eragina.	Gurasoak, irakasleak eta ikasleak.
D ereduaren aurrematrikulazio-kanpaina, lehen aldiz, eremu ez-euskaldunean: hitzaldiak, bideoak, proiektuak... Erriberrin, Caparroson, Cintruenigon, Mendigorrian, Alesbesen eta beste herri batzuetan.	Eremu ez-euskaldunean D ereduan interesa duten gurasoak.
D ereduari buruzko eskola-topaketak Iruñeko autobus-geltoki zaharretan.	Gizartea, oro har.
Aurrematrikulazioa D ereduan egiteko kanpaina.	Gizartea, oro har.

Besarkada solidarioa Tafallan, D eredia hautatu duten Tafalla, Caparroso eta Lodosako familientzat, eta D eredia herri eta herrixka guztietara zabaltzeko eskatzeko	Gizartea, oro har.
Irakaskuntza-sindikatuarekin batera egindako dinamika, euskarazko eskaintza lanbide-heziketara ere zabaltzeko	Gizartea, oro har.
Ikasgeletako ratioak txikitzeko dinamika: sinadura-bilketa, agerraldia Parlamentuan, prentsa-oharrak, bilera informatiboak alderdi politikoekin eta ikastetxeetan...	Gizartea, oro har, alderdi politikoak eta Nafarroako Gobernua.
Euskaraz Mintza programa, eskola ordutegian euskara aisialdian erabil dadin bultzatzeko, programa hori eman zen 19 ikastetxe publikoekin elkarlanean.	Lehen Hezkuntzako ikasleak.
Material pedagogikoa sortzea: Argazki-olinpiada Nafarroa guztiko D ereduko ikastetxeetan Proiektuak	D ereduko ikastetxeak, ikasleak eta gurasoak
D ereduko gurasoen elkarten koordinazioa	D ereduko gurasoen elkarteak
Sakanako ikastetxeen arteko topaketa Iruztunen	Sakanako herritarrak
Iruñerriko eta Gareseko D ereduko ikasleen arteko esku-pilota txapelketa.	D ereduko ikasleak
Etxeko lanen inguruko eztabaida-taldea sortzea. Gaiari buruzko txosten bat argitaratzea	Gurasoak eta irakasleak.
Etxeko lanen inguruko txostena aurkeztea hezkuntza-komunitateko eragileei eta aurkezpen bera egitea bi ikastetxetan	Gurasoak, irakasleak eta ikasleak.
Maskotan egitea Iruñerriko D ereduko 5 ikastetxetan	Gurasoak, irakasleak eta ikasleak.
Ikasle Euskaldun Eleaniztunak proiektuaren hasiera D ereduko Uharteko ikastetxe publikoan	Gurasoak, irakasleak, ikasleak eta gizartea oro har.

Iturria: SORTZEN

**192. taula: FAPACENAK egindako jarduerak nagusiak, 2015-2016 ikasturtea**

Jardueraren izena	Hartzaileak
Familia-orientazioko ikastaroa: «Lehen urratsak»	Haur Hezkuntzako 1. mailako ikasleen gurasoei zuzendua
Familia-orientazioko ikastaroa: «Lehen elkarrizketak»	Haur Hezkuntzako 2. eta 3. mailako ikasleen gurasoei zuzendua
Familia-orientazioko ikastaroa: «Lehen letrak»	Lehen Hezkuntzako 1. mailako ikasleen gurasoei zuzendua
Familia-orientazioko ikastaroa: «Nerabezaroaurrea»	DBHko 1.eko ikasleen gurasoei zuzendua
Familia-orientazioko ikastaroa: «Nerabearoa»	DBHko 2.eko ikasleen gurasoei zuzendua
Ongintzako afaria eta zozketa Eguberritan	Ikasleen gurasoei zuzendua
Haur txokolatada	Haur Hezkuntzako ikasleen gurasoei zuzendua

Hitzaldia: «Teknologia eta nerabeak. Smart erabiltzaileak heztearen erronka»	DBHko 1.eko ikasleen gurasoei eta hezitzaileei zuzendua
Familiako boluntariotza Profesionales Solidarios fundazioarekin eta Caritasekin	Ikasleen gurasoei zuzendua

Iturria: FAPACENA

**193. taula: FACCBRITISH-TIL-Ak egindako jarduera nagusiak, 2015-2016 ikasturtea**

Jardueraren izena	Hartzaileak
Halloween: marrazki lehiaketa, antzerkia ingelesez.	Haur eta Lehen Hezkuntzako ikasle guztiak
Ipuin-kontalariak ingelesez federatutako ikastetxeetan: askotariko emanaldiak, hezkuntza-zikloaren arabera.	Haur eta Lehen Hezkuntzako 1.450 haur (58 emanaldi)

Iturria: FACCBRITISH-TIL-A

**194. taula: Nafarroako CONCAPAK egindako jarduera nagusiak. 2015-2016**

Jardueraren izena	Norentzat:
XXXIV. Familiaren festa. Iruña 2016ko ekainaren 19an	Familiak eta herritarrak, oro har
Estatuko eta erkidegoetako eskola kontseiluen XXIV. topaketara joatea Pedro Baile Torrea federazioko presidentea eta Eduardo Mayor presidenteordea han izan ziren.	Estatu osoko Concapako presidenteak eta kideak. 2016ko apirila.
EMANDAKO HITZALDIAK	
Iruñeko Santo Tomás-Dominicas Ikastetxea. Eskolako ziberjazarpena  Nafarroako Concapak emanak, iCMedianetekin lankidetzan.	Haur Hezkuntzako, Lehen Hezkuntzako, DBHko eta Batxilergoko gurasoak. 2016ko apirila eta maiatza.
Compañía de María Ikastetxea (Tutera) Pribatutasun eta nortasun digitala kudeatzea Nafarroako Concapak emanak, iCMedianetekin lankidetzan.	Ikastetxeko 20 guraso joan ziren. 2016ko maiatza.
Santísimo Sacramento Ikastetxea (Iruña). Netiketa: webeko portaera.  Nafarroako Concapak emanak, iCMedianetekin lankidetzan.	Gurasoak, hezitzaileak eta formatzaileak. 26 pertsona bertaratu ziren. 2016ko maiatza.
Carmelitas Vedruna ikastetxea (Iruña). Eskolako ziberjazarpena.  Nafarroako Concapak emanak, iCMedianetekin lankidetzan.	Ikasleen gurasoak eta hezitzaileak. 19 pertsona bertaratu ziren. 2016ko apirila.
Sta. Luisa de Marillac ikastetxea (Barañain) Noiz da komenigarria nire semeak edo alabak mugikorra izatea? Nafarroako Concapak emana, Nafarroako Agearekin lankidetzan.	Ikasleen gurasoak eta hezitzaileak. 15 pertsona bertaratu ziren. 2016ko otsaila eta martxoa.
Carmelitas Vedruna Ikastetxea Familia-ikastetxea, nola egin lan elkarrekin seme-alaben hezkuntza hobetzeko. Nafarroako Concapak emana, Nafarroako Agearekin lankidetzan.	Ikasleen gurasoak, 18 pertsona bertaratu ziren. 2016ko martxoa.

«Adingabeen segurtasuna eta bizikidetzaren sare sozialetan» hitzaldia, Foruzaingoaren delitu informatikoen buru den Juan Santiagoren eskutik.	15 lagun bertaratu ziren. 2016ko urtarrilaren 21ean, Sarrigurengo Maristas ikastetxeko ekitaldi-aretoan.
---	--

Iturria: Nafarroako CONCAPA

Beren jarduerak aurrera eramateko gurasoen elkarte eta federazioek jaso dituzten diru-laguntzak bildu dira ondoko tauletan, eskuragarri dauden datuekin.

195. taula: Ikasleen gurasoen elkarteentzako eta federazioentzako diru-laguntzak. 2009-2014

Urtea	Guztira	Elkarteak				Federazioak
		Publikoak		Itunduak		
		Kopurua	Zenbatekoa			
2009	244.500	169	140.607	45	47.393	56.500
2010	218.000	157	114.534	33	29.966	73.500
2011*	0	179	0	31	0	0
2012	78.200	129	27.288	28	10.712	40.200
Egun beretan, ikastetxeek, Educa aplikazioaren bitartez, estatistikoaren txosten osoa eskuratu zuten. Hartan, honako hauek agertzen dira: batez besteko puntuazioa, desbideratze tipikoa, gaitasun-mailaren arabera ikasleen banaketa, itemetan zuzen erantzundakoen ehunekoak, ikastalde bakoitzeko batez besteko puntuazioa eta errendimenduaren eta ISEK indizearen (aldagai sozioekonomikoa) arteko erregresioaren informazioa. Ebaluaturiko gaitasunaren arabera informazioa tauletan eta grafikoetan eman zen.

### Ebaluazioaren izaera zentsala

2015-2016 ikasturtean, Lehen Hezkuntzako 6. ikasmilako matrikula, osotara, 6.686 ikaslekoa izan zen. Ikasle horiei zuzendu zaie etapa bukaerako ebaluazioa. Egokitzapen motaren bat behar duten hiru kasu hartu dira aintzat. Ikastetxeari dagokio behar diren egokitzapenak eta laguntzak eskaintzea, proba egokituak egiteko behar direnak barne.

284. taula: Lehen Hezkuntzako 6. mailako ebaluazioan matrikulatuen eta parte-hartzaileen datuak\*

Datu orokorrak	Kop.	%
Matrikula, guztira	6.686	100
Emaitzak EDUCAn dituzten ikasleak	6.334	94,74
Emaitzak EDUCAn ez dituzten ikasleak	352	5,26

\* Ikasturte hasieran matrikulatutakoak  
Iturria: Hezkuntzako Ikuskapen Zerbitzua

285. taula: Lehen Hezkuntzako 6. mailako ebaluazioko parte-hartzaileen datuak, ereduaren arabera

Ereduka	A/G eredia		B/D eredia	
	Kop.	%	Kop.	%
Matrikula, guztira	4.845	72,46	1.841	27,54
Proba egin duten ikasleak	4.561	94,14	1.773	96,31

Iturria: Hezkuntzako Ikuskapen Zerbitzua

286. taula: Lehen Hezkuntzako 6. mailako gaitasunen arabera ebaluazioko parte-hartzearen datuak

Gaitasunaren arabera	Proba egin dute Kop.
Gaztelaniazko hizkuntza-gaitasuna	6.295
Euskarazko hizkuntza-gaitasuna	1.749
Matematika-gaitasuna	6.317
Ingeleseko hizkuntza-gaitasuna	5.783

Iturria: Hezkuntza Ikuskaritzako Zerbitzua.

### Gaztelaniazko hizkuntza-gaitasuna

Probak bi zati izan ditu: irakurmena eta testuak ekoizteko gaitasuna. Testuak ekoizteko gaitasuna aztertzeke ikastetxeke urtebetetzeen antolamenduari buruzko iritzi artikulatu bat idatzi behar izan dute.

Idazlanean funtsezko lau alderdi hauek baloratu dira: egokitzapena eta aurkezpena, koherentzia, kohesioa eta zuzentasun gramatikala, guztiak ere berdindaztatuta.

### Gaztelaniazko irakurmena

Irakurketak lau testu edo estimulu izan ditu, eta horietatik irakurmeneko galderak atera ziren. 30 itemei zegozkien atazek etapa bukaerako ebaluazioaren esparruan finkaturiko irakurketa prozesuekin dute lotura.

Itemen zailtasuna ez da beti bera izan; batzuk oso errazak gertatu dira (zuzen ikasleen %93,40k erantzundakoak) eta beste batzuk zailak (ikasleen %19,50ek baino ez dituztenak zuzen erantzun).

### Emitza orokorrak

287. taula: Irakurmeneko emaitza orokorrak


Kopuru osoa	6.686
Gaitasun-proben kopurua	6295
Emakume kopurua	3003
Gizon kopurua	3292
Gutxieneko puntuazioa	1
Gehieneko puntuazioa	37
Batez besteko puntuazioa	23,11
Desbideratze tipikoa	6,15
Batezbestekoa emakumeetan	23,78
Batezbestekoa gizonetan	22,50
GU maila (%)	8,94
NA maila (%)	14,15
ON maila (%)	33,80
OO maila (%)	26,61
BI maila (%)	16,49

Iturria: Hezkuntzako Ikuskapen Zerbitzua

**Banaketa, mailaz maila**

Oso garrantzitsua da gaitasun-maila bakoitzean dagoen ikasleen ehunekoa jakitea, horren arabera zehaztu daitezkeelako benetako beharrianak eta gaitasun horretako errendimendua hobetzeko egin beharreko lanaren dimentsioa.

157. grafikoa: Gaztelaniazko hizkuntza-gaitasuna




Iturria: Guk geuk egina, Hezkuntzako Ikuskaritza Zerbitzuaren datuekin

**Alderdi azpimarragarriak**

Ikasleen hiru laurdenek baino gehixeagok (76,9) erdietsi dituzte desiratutako mailak (ON, OO eta BI), eta gai dira beren adinari dagozkion irakurketa prozesuak gauzatzeko. Ia 10 ikasletik 1ek neurri bereziak behar ditu, beheko mailan dagoelako.

Emakumeek gizonetako baino 0,6 puntu gehiago erdietsi dute. Alde hori arina dela esan daiteke, desbideratze tipikoaren 1/4 baino txikiagoa baita.

158. grafikoa: Gaztelaniaz irakurtzeko gaitasuna, sexuaren arabera



Iturria: Guk geuk egina, Hezkuntzako Ikuskaritza Zerbitzuaren datuekin

## Gaztelaniazko ekoizpen idatzia

Lau funtsezko alderdi baloratu dira ikasleen ekoizpen idatzian: Egokiera eta aurkezpena, istorioaren koherentzia, kohesioa eta zuzentasuna.

288. taula: Ekoizpen idatziaren puntuazioa

	1. puntuazioa	2. puntuazioa	3. puntuazioa	4. puntuazioa
Egokiera eta aurkezpena	Zeharo eskasa etapa bukaerarako. Ekoizpena ez dator bat eskatutako lanarekin, erregistro desegokia darabil (arrunkeiak, behar ez diren lagunarteko esamoldeak), gaizki aurkeztua dago edo letrak testuaren ulermena zailtzen du.	1. eta 3. puntuazioen artean maila ertaina erakutsi du. 3. mailako eskakizunetako hiru bete ditu.	<p>Etapa bukaerarako maila egokia du. Etapa bukaerako mailaren baldintzak hauek dira:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Eskatu zaion lana egin du, xedeari eta luzerari dagokionez.</li> <li>▪ Komunikazio egoerarako egokia den erregistroa erabili du.</li> <li>▪ Ekoizpena txukun eta espazioaren banaketa egokiarekin (izenburua, marjinak...) aurkeztu du.</li> <li>▪ Letra argia eta ulergarria da.</li> </ul>	Lehen Hezkuntzako curriculumeko ikaskuntzako estandarren arabera maila bikaina du. 3. puntuazioko lau baldintzak betetzen ditu eta testua egiteko orduan irudimena eta orijinaltasuna erakutsi ditu.
Koherentzia	Zeharo eskasa etapa bukaerarako. Testuak ez du zentzu orokorrik, ez ditu errespetatzen eskatutako testu generoaren oinarriko ezaugarriak, adierazpenean erakusten duen argitasun gabeziak zaildu egiten du testuaren ulermena, arrazoirik gabeko jauzi eta omisioak daude.	1. puntuazioaren eta 3. puntuazioaren arteko maila du. 3. mailako eskakizunetako hiru bete ditu.	<p>Etapa bukaerarako maila egokia du. Etapa bukaerako mailaren baldintzak hauek dira:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Ekoizpenak zentzu orokorra du, gai baten inguruan antolatzen da.</li> <li>▪ Eskatutako testu generoaren oinarriko ezaugarriak errespetatu ditu.</li> <li>▪ Aski argitasunez egin du azalpena (paragrafoa-idea) eta beharrezko informazioa sartu du.</li> <li>▪ Gaiari dagokionez progresioa dago, baina badaude gehienez ere bi jauzi edo omisio, progresio orokorra eragozten ez dutenak.</li> </ul>	Lehen Hezkuntzako curriculumeko ikaskuntzako estandarren arabera maila bikaina du. 3. puntuazioko baldintzak betetzen ditu eta, gainera, testu generoaren berezko ezaugarriak errespetatu ditu, argitasunez egin du azalpena, ez dago jauzi edo omisiorik eta bukaera ez du tarrapatuta egin.

Kohesioa	<p>Zeharo eskasa etapa bukaerarako. Oinarrizko puntuazio akatsak ditu (perpausak bereizteko ez du erabiltzen ez punturik ezta komarik ere enumerazioetan, galdera eta harridura ikurrak modu desegokian erabili ditu), ohiko lokailuak gaizki erabili ditu edo ez ditu erabili, hizkera errepikakorra darabil.</p>	<p>1. puntuazioaren eta 3. puntuazioaren arteko maila du. 3. mailako eskakizunetako bi bete ditu.</p>	<p>Eta bukaerarako maila egokia du. Etapa bukaerako mailaren baldintzak hauek dira:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Puntuazioa (puntua, koma, puntua eta koma, bi puntuak, gidoia, galdera eta harridura ikurrak, parentesia, etenpuntuak) zaindu ditu, nahiz eta gehienez ere bi akats izan ditzakeen.</li> <li>▪ Testua kohesionatzeko ohikoak diren lokailuak erabili ditu.</li> <li>▪ Beharrezkoak ez diren errepikapenak ekiditeko zenbait mekanismo badarabil (sinonimoak, izenordainak, substantibazioa...).</li> </ul>	<p>Lehen Hezkuntzako curriculumeko ikaskuntzako estandarren arabera maila bikaina du.</p> <p>3. puntuazioko baldintzak betetzen ditu eta, gainera, lokailu egokiak eta hizkera askotarikoa darabiltza.</p>
Zuzentasuna	<p>Zeharo eskasa etapa bukaerarako. Hiru ortografia akats baino gehiago egin ditu, komunztadura akatsak egin ditu, aditz denborak oker erabili ditu eta gehienez ere emendiozko perpaus koordinatuak darabiltza.</p>	<p>1. puntuazioaren eta 3. puntuazioaren arteko maila du. 3. mailako eskakizunetako hiru bete ditu.</p>	<p>Eta bukaerarako maila egokia du. Etapa bukaerako mailaren baldintzak hauek dira:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Oinarrizko ortografia menderatu du, nahiz eta hiru akats ortografiko ere egin ditzakeen.</li> <li>▪ Genero eta numero komunztadura egokitasunez aplikatu ditu, nahiz eta akats bat ere izan dezakeen.</li> <li>▪ Aditz denborak egoki erabili ditu, nahiz eta bi akats ere izan ditzakeen.</li> <li>▪ Ongi eraturiko mendeko hiru perpaus erabili ditu, gutxienez.</li> </ul>	<p>Lehen Hezkuntzako curriculumeko ikaskuntzako estandarren arabera maila bikaina du.</p> <p>3. puntuazioko baldintzak bete ditu eta, gainera, ez du ortografia akatsik eta morfosintaxia menderatu du, Lehen Hezkuntzako 6. mailakoa izateko.</p>

**Gaztelaniazko ekoizpen idatziaren emaitza orokorrak.**

289. taula: Ekoizpen idatzian lortutako emaitza orokorrak


Kopuru osoa	6.686
Gaitasun-proben kopurua	4.533
Emakume kopurua	2.184
Gizon kopurua	2.349
Puntuación mínima	2
Gehieneko puntuazioa	16
Batez besteko puntuazioa	9,91
Desbideratze tipikoa	3,23
Batezbestekoa emakumeetan	10,6



Batezbestekoa gizonetan	9,26
GU maila (%)	16,52
NA maila (%)	17,41
ON maila (%)	33,29
OO maila (%)	23,56
BI maila (%)	9,22

Iturria: Hezkuntzako Ikuskapen Zerbitzua

**159. grafikoa: Gaztelaniazko testuen ekoizpena**




Iturria: Guk geuk egina, Hezkuntzako Ikuskaritza Zerbitzuaren datuekin

**Alderdi azpimarragarriak**

Ikasleen %66,6ek erdietsi ditu nahi izatekoak diren ON, OO eta BI mailak eta, beraz, gai dira haien adinerako egokia den testu bat idazteko. Ikasleen %16,52 inguruk neurri bereziak behar dituzte, beheko mailan daudelako. Ikasleen %17,41 tarteko egoeran dira, testuen ekoizpena hobetu beharra dute.

Emakumeek gizonetaz baino 1,34 puntu gehiago erdietsi dute. Alde hori arina dela esan daiteke, desbideratze tipikoaren 1/3 baino gutxiago baita.

160. grafikoa: Gaztelaniazko ekoizpen idatzia, sexuaren arabera



Iturria: Guk geuk egina, Hezkuntzako Ikuskaritza Zerbitzuaren datuekin

### Euskarazko hizkuntza-gaitasuna

Probak bi zati izan ditu: irakurmena eta testuak ekoizteko gaitasuna. Testuak ekoizteko gaitasuna aztertzeke ikastetxeke urtebetetzeen antolamenduari buruzko iritzi artikulatu bat idatzi behar izan dute. Idazlanean funtsezko lau alderdi hauek baloratu dira: egokitzapena eta aurkezpena, koherentzia, kohesioa eta zuzentasun gramatikala, guztiak ere berdindaztatuta.

### Euskaraz irakurtzeko gaitasuna

Irakurketak lau testu edo estimulu izan ditu, eta horietatik irakurmeneko galderak atera ziren. 30 itemei zegozkien atazek etapa bukaerako ebaluazioaren esparruan finkaturiko irakurketa prozesuekin dute lotura.

### Emaita orokorrak

290. taula: Euskaraz irakurtzeko gaitasuna

Kopuru osoa	6.686
Gaitasun-proben kopurua	1.749
Emakume kopurua	821
Gizon kopurua	928
Gutxieneko puntuazioa	7
Gehieneko puntuazioa	32
Batez besteko puntuazioa	21,95
Desbideratze tipikoa	5,09
Batezbestekoa emakumeetan	22,87
Batezbestekoa gizonetan	21,13
GU maila (%)	8,58


NA maila (%)	15,55
ON maila (%)	34,19
OO maila (%)	26,82
BI maila (%)	14,87

Iturria: Hezkuntzako Ikuskapen Zerbitzua

### Banaketa, mailaz maila

Oso garrantzitsua da gaitasun-maila bakoitzean dagoen ikasleen ehunekoa jakitea, horren arabera zehaztu daitezkeelako benetako beharrianak eta gaitasun horretako errendimendua hobetzeko egin beharreko lanaren dimentsioa.

#### 161. grafikoa: Euskaraz irakurtzeko gaitasuna




Iturria: Guk geuk egina, Hezkuntzako Ikuskaritza Zerbitzuaren datuekin

### Alderdi azpimarragarriak

Alde handiak daude norbanakoen puntuazioen artean: puntuaziorik handiena 32 puntukoa izan da eta txikiena 7 puntukoa. Desbideratze tipikoa 5,09 da; hau da, batez besteko puntuazioaren % 23,18. Horrenbestez, ikasleen puntuazioak batez besteko puntuazioaren inguruan multzokatuta daude.

Emakumeek gizonetako baino 0,9 puntu gehiago erdietsi dute. Alde hori arina dela esan daiteke, desbideratze tipikoaren 1/4 baino txikiagoa baita.

162. grafikoa: Batez besteko puntuazioa euskaraz irakurtzeko gaitasunari dagokionez, sexuaren arabera



Iturria: Guk geuk egina, Hezkuntzako Ikuskaritza Zerbitzuaren datuekin

### Euskarazko ekoizpen idatzia

Ikasleek egindako lan idatzian ezinbesteko lau alderdi hauek baloratu dira: Egokiera eta aurkezpena, istorioaren koherentzia, kohesioa eta zuzentasuna. Puntuazioak emateko ebaluazio irizpideak ondoko hauek izan dira:

291. taula: Euskarazko ekoizpen idatziaren puntuazioa

	1. puntuazioa	2. puntuazioa	3. puntuazioa	4. puntuazioa
Egokitasuna eta aurkezpena	Zeharo eskasa etapa bukaerarako. Ekoizpena ez dator bat eskatutako lanarekin, erregistro desegokia darabil (arrunkeriak, behar ez diren lagunarteko esamoldeak), gaizki aurkeztua dago edo letrak testuaren ulermena zailtzen du.	1. eta 3. puntuazioen artean maila ertaina erakutsi du. 3. mailako eskakizunetako hiru bete ditu.	Etapa bukaerarako maila egokia du. Etapa bukaerako mailaren baldintzak hauek dira: <ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Eskatu zaion lana egin du, xedeari eta luzerari dagokionez.</li> <li>▪ Komunikazio egoerarako egokia den erregistroa erabili du.</li> <li>▪ Ekoizpena txukun eta espazioaren banaketa egokiarekin (izenburua, marjinak...) aurkeztu du.</li> <li>▪ Letra argia eta ulergarria da.</li> </ul>	Lehen Hezkuntzako 6. mailako curriculumeko ebaluazio irizpideen arabera maila bikaina du. 3. puntuazioko lau baldintzak betetzen ditu eta testua egiteko orduan irudimena eta orijinaltasuna erakutsi ditu.

Koherentzia	<p>Zeharo eskasa etapa bukaerarako. Testuak ez du zentzu orokorrik, ez ditu errespetatzen eskatutako testu generoaren oinarritzko ezaugarriak, adierazpenean erakusten duen argitasun gabeziak zaildu egiten du testuaren ulermena, arrazoirik gabeko jauzi eta omisioak daude.</p>	<p>1. puntuazioaren eta 3. puntuazioaren arteko maila du. 3. mailako eskakizunetako hiru bete ditu.</p>	<p>Etapa bukaerarako maila egokia du. Etapa bukaerako mailaren baldintzak hauek dira:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Ekoizpenak zentzu orokorra du, gai baten inguruan antolatzen da.</li> <li>▪ Eskatutako testu generoaren oinarritzko ezaugarriak errespetatu ditu.</li> <li>▪ Aski argitasunez egin du azalpena (paragrafoa-ideia) eta beharrezko informazioa sartu du.</li> <li>▪ Gaiari dagokionez progresioa dago, baina badaude gehienez ere bi jauzi edo omisio, progresio orokorra eragozten ez dutenak.</li> </ul>	<p>Lehen Hezkuntzako 6. mailako curriculumeko ebaluazio irizpideen arabera maila bikaina du. 3. puntuazioko baldintzak betetzen ditu eta, gainera, testu generoaren berezko ezaugarriak errespetatu ditu, argitasunez egin du azalpena, ez dago jauzi edo omisiorik eta bukaera ez du tarrapatuta egin.</p>
Kohesioa	<p>Zeharo eskasa etapa bukaerarako. Oinarritzko puntuazio akatsak ditu (perpausak bereizteko ez du erabiltzen ez punturik ezta komarrik ere enumerazioetan, galdera eta harridura ikurrak modu desegokian erabili ditu), ohiko lokailuak gaizki erabili ditu edo ez ditu erabili, hizkera errepikakorra darabil.</p>	<p>1. puntuazioaren eta 3. puntuazioaren arteko maila du. 3. mailaren eskakizunetako bi bete ditu.</p>	<p>Etapa bukaerarako maila egokia du. Etapa bukaerako mailaren baldintzak hauek dira:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Puntuazioa (puntu, koma, puntu eta koma, bi puntuak, gidoia, galdera eta harridura ikurrak, parentesia, etenpuntuak) zaindu ditu, nahiz eta gehienez ere bi akats izan ditzakeen.</li> <li>▪ Testua kohesionatzeko ohikoak diren lokailuak erabili ditu.</li> <li>▪ Beharrezkoak ez diren errepikapenak ekiditeko zenbait mekanismo badarabil (sinonimoak, izenordainak, substantibazioa...).</li> </ul>	<p>Lehen Hezkuntzako 6. mailako curriculumeko ebaluazio irizpideen arabera maila bikaina du. 3. puntuazioko baldintzak betetzen ditu eta, gainera, lokailu egokiak eta hizkera askotarikoa darabiltza.</p>

Zuzentasuna	Zeharo eskasa etapa bukaerarako. Hiru ortografia akats baino gehiago egin ditu, komuntadura akatsak egin ditu, aditz denborak oker erabili ditu eta gehienez ere emendiozko perpaus koordinatuak darabiltza.	1. puntuazioaren eta 3. puntuazioaren arteko maila du. 3. mailako eskakizunetako hiru bete ditu.	Etapa bukaerarako maila egokia du. Etapa bukaerako mailaren baldintzak hauek dira: <ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Oinarrizko ortografia menderatu du, nahiz eta hiru akats ortografiko ere egin ditzakeen.</li> <li>▪ Komuntadura egokitasunez aplikatu du, nahiz eta akats bat ere izan dezakeen.</li> <li>▪ Aditz denborak eta formak egoki erabili ditu, nahiz eta bi akats ere izan ditzakeen.</li> <li>▪ Deklinabide kasuak ongi erabili ditu, nahiz eta bi akats ere izan ditzakeen.</li> <li>▪ Ongi eraturiko mendeko hiru perpaus erabili ditu, gutxienez.</li> </ul>	Lehen Hezkuntzako 6. mailako curriculumeko ebaluazio irizpideen arabera maila bikaina du. 3. puntuazioko baldintzak bete ditu eta, gainera, ez du ortografia akatsik eta morfosintaxia menderatu du, Lehen Hezkuntzako 6. mailakoa izateko.
-------------	--	--	---	---

### Euskarazko ekoizpen idatziaren emaitza orokorrak

292. taula: Ekoizpen idatzian lortutako emaitza orokorrak


Kopuru osoa	6.686
Gaitasun-proben kopurua	1.716
Emakume kopurua	809
Gizon kopurua	907
Gutxieneko puntuazioa	4
Gehieneko puntuazioa	16
Batez besteko puntuazioa	10,11
Desbideratze tipikoa	3,22
Batezbestekoa emakumeetan	10,85
Batezbestekoa gizonetan	9,46
GU maila (%)	15,62
NA maila (%)	15,91
ON maila (%)	32,75
OO maila (%)	25,41
BI maila (%)	10,31

Iturria: Hezkuntzako Ikuskapen Zerbitzua

### Banaketa, mailaz maila

Oso garrantzitsua da idazmeneko maila bakoitzean dagoen ikasleen ehunekoa jakitea, horren arabera zehaztu daitezkeelako benetako beharrianak eta gaitasun horretako errendimendua hobetzeko egin beharreko lanaren dimentsioa.

163. grafikoa: Euskarazko ekoizpen idatzia




Iturria: Guk geuk egina, Hezkuntzako Ikuskaritza Zerbitzuaren datuekin

#### Alderdi azpimarragarriak

Ikasleen % 68,5ek lortzen dituzte ON, OO eta BI maila desiratuak, eta gai dira adinari dagozkion irakurketa-prozesuak gauzatzeko. Ikasleen %15 inguruk neurri bereziak behar dituzte, beheko mailan daudelako. Ikasleen % 15 tarteko mailan daude, eta ekoizpen idatzia hobetu behar dute.

Emakumeek gizonetako baino 1,39 puntu gehiago erdietsi dute. Alde esanguratsua da hori, desbideratze tipikoaren 1/3 baino handiagoa baita.

164. grafikoa: Euskarazko ekoizpen idatzia, sexuaren arabera



Iturria: Guk geuk egina, Hezkuntzako Ikuskaritza Zerbitzuaren datuekin

**Matematika-gaitasuna**

31 itemei zegozkien atazek etapa-bukaerako ebaluazioaren esparruan finkaturiko matematika-prozesuekin dute lotura.

**Emitza orokorrak**

Emitza orokorrak taula honetan ageri dira.

293. taula: Matematika-gaitasuna


Kopuru osoa	6.686
Gaitasun-proben kopurua	6.317
Emakume kopurua	3.014
Gizon kopurua	3.303
Gutxieneko puntuazioa	1
Gehieneko puntuazioa	38
Batez besteko puntuazioa	18,49
Desbideratze tipikoa	7,42
Batezbestekoa emakumeetan	18,47
Batezbestekoa gizonetan	18,52
GU maila (%)	12,19
NA maila (%)	16,16
ON maila (%)	32,63
OO maila (%)	28,56
BI maila (%)	10,46

Iturria: Hezkuntzako Ikuskapen Zerbitzua

**Banaketa, mailaz maila**

Oso garrantzitsua da gaitasun maila bakoitzean dagoen ikasleen ehunekoa jakitea, horren arabera zehaztu daitezkeelako benetako beharrianak eta gaitasun horretako errendimendua hobetzeko egin beharreko lanaren dimentsioa.

165. grafikoa: Ehunekoak, mailaka



Iturria: Guk geuk egina, Hezkuntzako Ikuskaritza Zerbitzuaren datuekin




### Alderdi azpimarragarriak

Hamar ikasletik zazpik erdietsi dituzte ON, OO edo BI mailak, eta gai dira beraien adinari dagozkion matematika prozesuak gauzatzeko. Ikasleen %12 beheko mailan daude eta neurri bereziak behar dituzte.

Gizonen puntuazioa emakumeena baino 0,05 puntu hobea da. Desberdintasun horrek desbideratze tipikoaren %0,6 suposatzen du eta, kasu honetan, esan daiteke sexuaren arabera diferentzia ez dela esanguratsua.

166. grafikoa: Batez besteko puntuazioa, sexuaren arabera



Iturria: Guk geuk egina, Hezkuntzako Ikuskaritza Zerbitzuaren datuekin

### Ingeleseko hizkuntza-gaitasuna

Ikasturte honetan, 2015-2016, 6.mailan Ingelesa Ikasteko Programa (IIP) egin duten ikasleek ingeles-proba egin dute programa horren beraren barnean. Hezkuntza Departamentuko Ebaluazio Zerbitzua arduratu da ebaluazioaz. Lehen Hezkuntzako 6. mailan IIPa ezarrita ez duten ikastetxe batzuetako ikasleek ere egin dute aipatutako proba. Ikastetxe talde honi «kontrol-ikastetxe» izena eman zaio azterketan. IIP ezarria duten ikastetxeek zein kontrol ikastetxeek aplikatu ahal izan dute etapa bukaerako ingeles proba borondatez. Erabaki hori ikastetxearen esku egon da.

Proba egin duten ikasle guztiendako, ingelesezko gaitasunean baloratu diren trebetasunak irakurriaren ulermena, idatziaren ulermena eta idazmena izan dira.

294. taula: Ingeleseko hizkuntza-gaitasuna ebaluatu zaien ikasleak

IIP programa gabe	5.548
IIP programa	235
Guztira	5.783

Iturria: Hezkuntzako Ikuskapen Zerbitzua

### Ingeleseko irakurmena

Probak hiru trebetasunetako galderak izan ditu: ahozkoaren ulermena, "Listening", 6 galderarekin; irakurriaren ulermena, "Reading", 13 galderarekin; eta idazmena, "Writing",

idatzizko bi ekoizpen egiteko lanarekin. Hiru hizkuntza-trebetasun horiek ez dira probaren guztizko puntuazioan berdin puntuatzen; hona, taula honetan, dagokien puntuazioa.

295. taula: Ingeleseko hizkuntza-gaitasuna. Ebaluatutako trebetasunak eta haien pisua puntuazio osoan

Ahozkoaren ulermena	25
Idatziaren ulermena.	40
Ekoizpen idatzia	35

Iturria: Hezkuntzako Ikuskapen Zerbitzua

## Emaitza orokorrak

296. taula: Ingeles-gaitasuna


Kopuru osoa	6.686
Gaitasun-proben kopurua	5.783
Emakume kopurua	2.777
Gizon kopurua	3.006
Gutxieneko puntuazioa	7
Gehieneko puntuazioa	63
Batez besteko puntuazioa	44,72
Desbideratze tipikoa	11,11
Batezbestekoa emakumeetan	46,43
Batezbestekoa gizonetan	43,13
GU maila (%)	11,83
NA maila (%)	16,65
ON maila (%)	33,43
OO maila (%)	21,68
BI maila (%)	16,41

Iturria: Hezkuntza Ikuskaritzako Zerbitzua.

## Banaketa, mailaz maila

Oso garrantzitsua da gaitasun maila bakoitzean dagoen ikasleen ehunekoa jakitea, horren arabera zehaztu daitezkeelako benetako beharrianak eta gaitasun horretako errendimendua hobetzeko egin beharreko lanaren dimentsioa.

167. grafikoa: Ingelesez irakurtzeko gaitasunaren araberako ehunekoa




Iturria: Guk geuk egina, Hezkuntzako Ikuskaritza Zerbitzuaren datuekin

### Alderdi azpimarragarriak

Ikasleen % 71k ON, OO edo BI maila desiratua lortzen du. Gai dira beraien adinari dagozkion hizkuntza prozesuak gauzatzeko. Hamar ikasletik batek behar ditu neurri bereziak, beheko mailan daudelako. Tarteko egoeran daude % 16, eskola-mailari dagozkion egitekoak gai denez.

Emakumeek gizonezkoek baino 3,3 puntu gehiago erdietsi dute. Alde hori esanguratsua dela esan daiteke, desbideratze tipikoaren 1/4 baino handiagoa baita.

168. grafikoa: Irakurtzeko gaitasunaren batez besteko puntuazioa, sexuaren arabera



Iturria: Guk geuk egina, Hezkuntzako Ikuskaritza Zerbitzuaren datuekin

### Aldagai sozioekonomiko eta kulturala (ISEK)

Aurtengo edizioan, ikasleei aldagai sozioekonomiko eta kulturei buruzko galdetegi bat eman zaie, informazioa bildu eta indize sozioekonomiko eta kulturala (ISEK) kalkulatzeko.

### ISEK indizea

Galdetegiaren xede nagusia zen informazioa biltzea indize sozioekonomiko eta kulturala (ISEK) osatzeko. Indize honek kontuan hartzen ditu nazioarteko PISA proiektuan erabilitako aldagai berdinak, eta Hezkuntza Ebaluazioaren Espainiako Institutuak autonomia-erkidegoekin elkarlanean egindako diagnostiko-ebaluazio orokorretakoak.

Indizea prestatzeko aldagaiak ondokoak dira:

- Gurasoen ikasketa-maila (maila handienekoa hartzen da aintzat).
- Gurasoen lanbidea (kategoria handienekoa hartzen da aintzat).
- Etxean elementu jakin batzuk egotea. Lau hauek hartu dira kontuan: ordenagailu eramangarria, mahaiko ordenagailua, entziklopediak, ikasketetan laguntzeko kontsultaliburuak eta aldizkari espezializatuak (informatika, natura, literatura, etab.).
- Etxeko liburu kopurua.

Lau aldagaiak berdin haztatu dira, eta puntuazioak banaketa normal baten eran eman dira: batezbestekoa=0 eta desbideratze tipikoa=1. Hala, Nafarroako batez bestekoa 0 da.

Ikastetxe bakoitzari ISEK balio bat esleitu zaio; hots, ikastetxe horretako ikasleen puntuazioen batez bestekoa. Ikastetxeek -1,70 eta +1,07 arteko ISEK balioak dituzte; horrek agerian uzten du ikastetxeen batez besteko baldintza sozioekonomikoak askotarikoak direla.

Ebaluazio azterlan guztietan egiaztatzen ari da ikasleek probetan duten errendimenduaren eta haien maila soziokulturalaren arteko korrelazioa moderatua dela. Txosten honetan ematen dira ikastetxeetako batez besteko puntuazioen eta batez besteko ISEK balioen arteko korrelazioak, gaitasun bakoitzaren arabera banatuta, eta aldagai horien arteko erregresio-grafikoak. Erregresio-grafikoak aztertuta, jarraian azalduko ditugun emaitza orokor hauek lortu dira.

297. taula: ISEKaren eta gaitasunen arteko korrelazio indizea

Gaitasuna	Korrelazio indizea
Gaztelaniazko irakurmena	0,16
Gaztelaniazko ekoizpen idatzia	0,17
Euskarazko irakurmena	0,03
Euskarazko ekoizpen idatzia	0,00
Matematika	0,20
Ingeleseko irakurmena	0,30

Iturria: Hezkuntzako Ikuskapen Zerbitzua

ISEK-errendimendua izeneko erregresio-zuzenek malda positiboa dute; horrek esan nahi du ISEKa handitu ahala batez besteko errendimenduak ere gora egiten duela. Espero izatekoa den eraginaren intentsitatea gaitasun batetik bestera aldatzen da: 500 puntuko eskalan ISEKaren balioa igotzen den unitate bakoitza loturik dago, kasuan kasuko gaitasunerako, ikastetxearen batez besteko puntuazioaren igoerarekin, maldak adierazten duen neurrian. Adibidez, matematika gaitasunean ISEKa desbideratze tipikoa adina handitzen bada, aurreikus daiteke gaitasun horretan 34,90 puntuko igoera izan den dela.

298. taula: Erregresio-zuzenaren malda - Gaitasuna

Gaitasuna	Zuzenaren malda
Gaztelaniazko irakurmena	27,14
Gaztelaniazko ekoizpen idatzia	27,79
Euskarazko irakurmena	7,95
Euskarazko ekoizpen idatzia	0,08
Matematika	34,9
Ingeleseko irakurmena	53,51

Iturria: Hezkuntzako Ikuskapen Zerbitzua

ISEKak ikastetxeen batez bestekoen arteko bariantzaren edo aldeen parte bat azaltzen du. Ondoko biderkadurak ematen du bariantza azalduaren ehunekoa:  $100 * R^2$ , non  $R^2$  erregresio-grafikoetan ageri den determinazio-koefizientea den; biderkadura hori gaitasunaren arabera aldatzen da.

299. taula: Esplicitutako bariantza %-a -  $R^2$  - Gaitasuna

Gaitasuna	$R^2$
Gaztelaniazko irakurmena	0,16
Gaztelaniazko ekoizpen idatzia	0,17
Euskarazko irakurmena	-0,01
Euskarazko ekoizpen idatzia	-0,01
Matematika	0,13
Ingeleseko irakurmena	0,31

Iturria: Hezkuntzako Ikuskapen Zerbitzua

ISEK indizea aldagai iragarle modura erabiltzen da; hau da, ikastetxeei puntuazioak eman dakizkieke beren ISEKaren arabera, eta, gero, ikastetxeak lortutako balio hori benetan lortutako emaitzarekin konparatu. Ikastetxeetako txostenetan ikastetxeko puntuazioa errendimenduaren eta ISEKaren arteko erregresio-grafikoan irudikatu da eta, horri esker, lortutako puntuazioa ISEK balioaren arabera iragarritakoarekin erka dezakegu. Grafiko horretan ikastetxeek duten posizioari dagokionez, 3 kasu desberdin ditugu:

- Erregresio-zuzena baino gorago dauden ikastetxeak: haien maila sozioekonomikoaren eta kulturalaren (ISEK) arabera iragarritakoa baino batez besteko handiagoa lortu dutenak.
- Erregresio-zuzena baino beheago dauden ikastetxeak: haien maila sozioekonomikoaren eta kulturalaren (ISEK) arabera iragarritakoa baino batez besteko txikiagoa lortu dutenak.
- Erregresio-zuzenean berean dauden ikastetxeak: iragarritako puntuazioa lortu dutenak.

Grafiko hauetako informazioak ikastetxeen emaitza globalak testuinguruan kokatzen ditu, ikastetxeko ikasleen batez besteko ezaugarri soziokulturalen arabera, eta haien emaitzak Nafarroako batez bestekoarekin modu justuagoan erkatzeko aukera ematen du: ISEKa 0 baino handiagoa duen ikastetxe batek batez besteko puntuazioa (500 puntu) baino puntuazio handiagoa lortu beharko luke eta ISEKa 0 baino baxuagoa duen ikastetxe batek 500 puntutik beheko batez besteko puntuazioa lortzea espero izatekoa da. Baina ez da beti iragarpen generiko hori betetzen, eskolako errendimenduan izaten baitira beste aldagai batzuk, hala nola, norberaren lana, ikasteko estrategiak, familiako itxaropenak, irakasleen itxaropenak, etab.

Ikastetxe bakoitzak dituen ISEK balioa eta erregresio-zuzenarekiko kokapena gorabehera, guztietan hobetu daiteke lortutako emaitza, bi aldagai horien arteko erlazioa ez baita

determinista edo funtzionala; izan badira ikasleen errendimenduan eragiten duten beste aldagai batzuk. Ondorio hori atera daiteke erregresio-grafikoei erreparatuta, ISEK berdina duten ikastetxeek emaitza desberdinak lortzen dituzte eta; ekitate edo gaitasun desberdina dute hasierako desabantailak konpentsatzeko, ikasleen maila sozioekonomiko eta kultural txikiagoaren ondorioz.


Ikastetxeko zer aldagaik eragiten duten modu batera edo bestera ikertzea interesgarria da ikastetxean bertan hobekuntza-neurriak hartzeko, horrek hezkuntza-sistema osoari ekarriko bailioke onura.

### Erregresio-zuzenak

Ikastetxeen tamaina askotarikoa denez, erregresio-zuzenaren koefizienteak lortu dira ikastetxe bakoitzaren datuak haztatuz, ikastetxe horietako bakoitzean ebaluatutako ikasmilian probak egin dituzten ikasleen kopuruaren arabera. Haztapan horrek grafikoetan azaldutako koefizienteak adierazgarriago egiten ditu eta, beraz, ondorio fidagarriak ateratzen laguntzen du.

Jarraian, gaitasun bakoitzerako grafikoak prestatu dira. Haietako bakoitzean puntu bakoitza ikastetxe bat da eta erdiko puntua (0-500) Nafarroako batez bestekoari dagokiona da.


**300. grafikoa eta taula: Gaztelaniazko irakurmenaren batez besteko puntuazioaren erregresioa, ikastetxez ikastetxe. 2016**



R2 determinazio-koefizientea	0,16
Azaldutako bariantzaren (100*R2) ehunekoa (%)	%16
Gradientea	27,14 puntu/ISEK unitatea
R korrelazio-koefizientea	0,16

*Iturria: Hezkuntzako Ikuskapen Zerbitzua*


301. grafikoa eta taula: Gaztelaniako ekoizpen idatziaren batez besteko puntuazioaren erregresioa, ikastetxez ikastetxe. 2016



R2 determinazio-koefizientea	0,17
Azaldutako bariantzaren (100*R2) ehunekoa (%)	%17
Gradientea	27,79
R korrelazio-koefizientea	0,17

Iturria: Hezkuntzako Ikuskapen Zerbitzua


302. grafikoa eta taula: Euskarazko irakurmenaren batez besteko puntuazioaren erregresioa, ikastetxez ikastetxe. 2016



R2 determinazio-koefizientea	0,001
Azaldutako bariantzaren (100*R2) ehunekoa (%)	1
Gradientea	7,95 puntu/ISEK unitatea
R korrelazio-koefizientea	0,03

Iturria: Hezkuntzako Ikuskapen Zerbitzua


303. grafikoa eta taula: Euskarazko ekoizpen idatziaren batez besteko puntuazioaren erregresioa, ikastetxez ikastetxe. 2016



R2 determinazio-koefizientea	0,01
Azaldutako bariantzaren (100*R2) ehunekoa (%)	%1
Gradientea	0,08 puntu/ISEK unitatea
R korrelazio-koefizientea	0,0

Iturria: Hezkuntzako Ikuskapen Zerbitzua

304. grafikoa eta taula: Matematikako batez besteko puntuazioaren erregresioa, ikastetxez ikastetxe. 2016




R2 determinazio-koefizientea	0,13
Azaldutako bariantzaren (100*R2) ehunekoa (%)	+% 13
Gradientea	34,9 puntu/ISEK unitatea



R korrelazio-koefizientea	0,20
---------------------------	------

Iturria: Hezkuntzako Ikuskapen Zerbitzua

305. grafikoa eta taula: Ingelesezko irakurmenaren batez besteko puntuazioaren erregresioa, ikastetxez ikastetxe. 2016



R2 determinazio-koefizientea	0,31
Azaldutako bariantzaren (100*R2) ehunekoa (%)	%31
Gradientea	53,51 puntu/ISEK unitatea
R korrelazio-koefizientea	0,30

Iturria: Hezkuntzako Ikuskapen Zerbitzua

### 5.3.3. IIPren ebaluazioa lehen hezkuntzako 6. mailan

Kalitate, Prestakuntza eta Bizikidetzak Zerbitzuak IIPren ebaluazioa gauzatu du 2015-2016 ikasturtean. Bertan erabilitako oinarriko dokumentuak publikoak dira eta eskuragarri daude Hezkuntza Departamentuaren webgunean. Horrenbestez, egindako lana laburbildu da «Amaierako txostena eta hobekuntza-proposamenak» dokumentuan.

Ebaluazio-prozesu hori martxan jarrita, Hezkuntza Departamentuak hezkuntza-politikak bideratu nahi ditu atzerriko hizkuntzak ikasteko programak –aipagai duguna eta gainerakoak– hobetzeko eta ordenatzeko.

Horretarako, Hezkuntza Departamentuak ingelesa ikasteko programen ebaluazioa egin du, eta, horri esker, hobekuntza-proposamenen sorta bat osatu du, 110/2011 Foru Aginduan ezarritakoarekin bat etorriz (ingelesa ikasteko programen oinarriko alderdiak arautzen ditu Nafarroako Gobernuaren Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxe publikoetan). Izan ere, arau horren arabera, kanpo-probak aplikatu behar dira, hobekuntza-planak diseinatzeko tresna eraginkorra direnez.

Ingelesa ikasteko programen ebaluazioa eta horren ondoriozko hobekuntza-proposamenak kontuan hartuta, prozesua erabilgarria gertatu da, bai diagnostiko zehatza egiteko, bai hautemandako hutsuneen araberrako neurri zuzentzaileak ezarri ahal izateko.

Ebaluazioan hautemandako gabezia nabarmenetako bat da plangintzarik eta antolaketarik gabe modu masiboan aplikatu izana ikastetxeetan ingelesa ikasteko programa 2012-2013 ikasturteetik aurrera. Esaterako, ikastetxe publiko gehienek programa hori ezarri dute, departamentuko teknikariek horren aurkako txostenak eman dituzten arren. Gainera, ebaluazio-tresnek honako behar hauek hauteman dituzte:

- irakasleen prestakuntza eta egonkortasuna hobetzea,
- aniztasunarekiko arreta birpentsatzea,
- ikastetxeei emandako aholkularitza hobetzea, ikastetxeko hizkuntza-proiektua osatzeko.

Ebaluazio-prozesuaren objektibotasuna bermatzeko, kanpo-enpresetara eta -ikerlariengana jo da.

Diagnostiko horretan oinarrituko dira ondorengo ikasturteetan egingen diren ebaluazioak, eredu ere izanen denez. Ebaluazio-prozesu horren jarraipenari esker, programaren hobekuntza-proposamenak errazago egokituko dira, emaitzen bilakaeraren arabera. Gainera, ezinbestekoa da, ikasleen gaitasunak eta trebetasunak ebaluatzeko fasea Lehen Hezkuntzako seigarren mailako ikasleetara mugatu delako –alegia, British/IIP egin dutenen lehen promoziora–, eta horien eta ondorengo promozioen ezaugarriak arras desberdinak dira, ondorengoek programa ikastetxeetan ezartzeko baliabide gutxiago eta zailtasun gehiago izan zituztelako.

### **Ebaluazioaren diseinua eta gauzapena**

IIPren ebaluazioa egin ahal izateko, 2 batzorde diseinatu dira (Batzorde TEKNIKOA eta JARRAIPEN Batzordea), baita 3 tresna ere (INFO-IIP, DIS-IIP eta ECD-IIP). Batzordekideak eta horien egitekoak honako hauek dira:

#### **Batzorde Teknikoa**

- Kideak: Ebaluazio eta Kalitate Atala eta NUPEk ikerketa-taldea.
- Egitekoak: ebaluazioa diseinatzea, koordinatzea, zuzentzea eta burutzea. Ebaluazio-irizpideak, tresnak eta adierazleak ezartzea.

#### **Jarraipen Batzordea**

- Kideak: Ikastetxeko programaren koordinatzailea eta irakasle espezialista, aholkulari aditua, irakasle espezialista, NUPEko irakaslea, NUko profesionala, UHUNeko profesionala eta Eskola Kontseilua.
- Eginkizunak: Prozesuaren gardentasuna bermatzea, prozesuaren garapenean aholku ematea, prozesuaren bilakaera eta emaitzak aztertzea eta hobekuntza-proposamenak egitea.

Ebaluazioa egiteko, honako tresna hauek erabili dira:

- INFO-PAI, ebaluazio deskriptibo eta kuantitatiboa, Hezkuntza Departamentuaren barne-dokumentazioaren analisisian eta bilketan oinarritua. Tresna horren bitartez egin da honako hauen ebaluazioa: diseinua eta programaren ezaugarriak, prozedura eta ikastetxeen ezarpen-maila, ikastetxeen egungo egoera, gaiari buruzko dokumentazio teknikoa eta araudia.
- DIS-PAI, Ingelesa Ikasteko Programaren diagnosi-ikerketa soziologikoa. Programaren alderdi guztiak ebaluatzen ditu, honako hauen arabera: hezkuntza-komunitateko sektoreak (IIP duten eta ez duten ikastetxeetako zuzendariak, irakasleak eta gurasoak) eta lotura zuzena duten Hezkuntza Departamentuko teknikariak (ikuskatzaileak, Ingelesa eta bestelako Atzerriko Hizkuntzak Ataleko teknikariak). Tresna horren bitartez, beraz, hezkuntza-komunitateko sektoreen ekarpenak jaso ditzake ebaluazioak.

- ECD-IIPren bitartez, nagusiki, lehen hezkuntzako seigarren mailako ikasleek ingelesezko hizkuntza-gaitasunaren lau trebetasunetan lortutako emaitzen analisi konparatiboa eginen da, British edo IIP programa duten ikastetxeetakoak eta gainerako ikasleak konparatuta. Erabilitako erreferentzia-mailak Hizkuntzen Europako Erreferentzia Esparru Bateratuan erabilitako berak dira, ikasleen adinera egokituta. Halaber, tresna horren bitartez, zientzia-gaitasunaren eskuratzeko-mailaren jarraipena egiten da, British edo IIP programa duten ikastetxeetako ikasleak eta gainerakoak bereizita.

### **Emaitzen laburpena**

- **INFO-IIP hasierako diagnostikoaren ondorioen laburpena**

Hezkuntza Departamentuaren dokumentazioa aztertu ondoren, esan daiteke azken hiru urteetan IIP programa Nafarroako ikastetxeetan ezartzeko prozesuak ez duela zehaztasun formal txikiena ere izan; alegia, ikastetxeetan inolako araudi-kontrolik gabe ezarri da programa, Bigarren Hezkuntzako atal elebidunetako gainerako programetan ez bezala.

Ingelesa eta Atzerriko Hizkuntzen Ataleko teknikariek egiten zituzten doitasun-txostenei dagokionez, nabarmendu behar da azken bi ikasturteetan (2014-2015 eta 2015-2016) ikastetxe publikoen % 76k (21etik 16k) aurretiaz jasotako balorazioan programa ez ezartzea gomendatzen zela. Gainera, ikastetxeen heren batek Ikuskaritza Zerbitzuaren kontrako txostena ere jaso zuen. Bistan denez, aldeko txosten teknikoak ez zen ezinbesteko betekizuna Hezkuntza Departamentuarentzat ikastetxe batean edo bestean IIP programa ezartzeko.

Programaren egungo egoerari dagokionez, INFO-IIPren ondorio hauek nabarmenduko ditugu:

- British edo IIP programa ezarri da 106 ikastetxetan (80 publiko eta 26 itundu),
- IIP duten ikastetxe publikoen erdian azken hiru ikasturteetan ezarri da programa (80tik 40),
- IIP duten ikastetxe itundu guztietan azken hiru ikasturteetan ezarri da programa (26),
- ikastetxe publikoen ia erdian dagoeneko ezarri da British edo IIP programa (% 47),
- alde handia dago IIPren ezarpenean, ikastetxe publikoaren hizkuntza-eredua gorabehera (D ereduko ikastetxe publikoen % 7an eta A/G ereduko % 66an),
- haur edo lehen hezkuntzako ikasleen % 29 ikasketa-programa horren arabera ikasten ari dira.

INFO-IIPk, era berean, ingelesezko curriculum-ikasgaiak ematen dituen irakasleen egoera aztertzen du. Ondorio hauek atera daitezke:

- irakasle gehienek C1 profila dute (% 87k, B2 dute % 13k),
- erdia baino gehiago bitartekoak dira (% 54),
- haur-hezkuntzakoak da B2 profila duten bitarteko langileen ehunekorik handiena (% 22).

Azkenik, INFO-IIPren eskutik programaren diseinuari buruzko ondorioak ere atera daitezke:

- ez dira behar beste zehaztu ezaugarriak,
- ez da helbururik ezarri,

- ikastetxe publikoen % 19k baino ez du egin ikastetxeko hizkuntza-proiektua,
- irakasleek baliabide eta prestakuntza-plan egokirik ez dute,
- Hezkuntza Departamentuaren plangintza hutsaren hurrengoa da.

- **DIS-IIP ikerketa soziologikoaren ondorioen laburpena**

Ikerketa soziologikoa, hein handi batean, iritzi pertsonaletan oinarritzen da, eta ez da erraza ondorio orokorrik ateratzea, ikastetxe jakin batzuk aztertu direlako, eta ondorio kontrajarriak ere atera baitaitezke. Heterogenotasun hori guztia, bistan da, ikastetxeek programa nork bere baliabideen eta irizpideen arabera garatu izanaren ondorio da. Hala ere, ikerlanak izan duen parte-hartzeari esker, oso lagin adierazgarria lortu da, baita ideia nagusien sorta zabala ere, ahultasunak eta indarguneak hauteman ahal izateko baliagarria dena.

Txosten horiek bi ondorio eztabaidaekin dituzte: hezkuntza-komunitatearen gehiengo zabal handi bat IIPri jarraipena ematearen alde dago eta beharrezkoa iruditzen zaio programa berrikustea, ezinbestekoak diren hobekuntzak eta zuzenketak abian jarri, eta garapena behar bezalakoa izateko.

Honako hauek dira hobekuntza-alderdi nabarmenenak:

- irakasleek ez dute prestakuntza-maila nahikoa ingelesezko hizkuntza-egiaztapena lortzeko,
- arazoak daude aniztasunari emandako erantzunean,
- ordu gehiago behar dira koordinazio-lanetarako,
- irakasleen egonkortasuna handitu behar da,
- garrantzitsua da Hezkuntza Departamentuak aholku ematea ikastetxeei, ikastetxeko hizkuntza-proiektua egin dezaten; izan ere, gehienek ez dute halakorik.

- **ECD-IIP gaitasunen eta abilezien ebaluazioaren ondorioen laburpena**

Aurkeztu diren ondorio guztiak lehen hezkuntzako seigarren mailako ikasleei baino ez dagozkie, lagineko ikasleak lehen British-IIP programak (2005-06 eta 2007-08 ikasturteen artean) ezarri ziren ikastetxeetakoak direlako. Ebaluazioa egindako 9 ikastetxetik 6k dute British programa; Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioak eta British Council-ek hitzartutako lankidetzak hitzarmenari atxikita daude. Ikastetxe publiko horiek ebaluatzen ditu British Council-ek berak, eta irakasle adituak dituzte, berariazko prestakuntza jaso dutenak. Lehen promozio horietan British-IIP programak ezartzeko jarraitu ziren kalitate- eta zehaztasun-bermeak ez dira ziurtatu ikastetxeek azken urteetan ezarritako programetan.

Ikerlan honetan ingelesezko lau abilezietan eta gaitasun zientifikoan lortutako emaitzak konparatu dira British-IIP duten ikastetxeetako lehen hezkuntzako seigarren mailako ikasleen eta programa hori jarraitzen ez duten ikasleen lagin baten artean. IIP programaren azterlanean parte hartu duten ikastetxeak jarraian zerrendatu dira.

306. taula: IIP programaren azterlanean parte hartu duten ikastetxeak. 6. maila. 2015-2016

IIP ikastetxeak		Kontrol-ikastetxeak	
Añorbeko HLHIP	Añorbe	Zelandi HLHIP	Altsasu
Cardenal Ilundáin HLHIP	Iruña	San Miguel HLHIP	Agoitz
Doña Mayor de Navarra HLHIP	Iruña	Los Sauces HLHIP	Barañain
Azpilagaña HLHIP	Iruña	Ricardo Baroja HLHIP	Bera

José M <sup>a</sup> Huarte HLHIP	Iruña	Hilarión Eslava HLHIP	Burlata
Elvira España HLHIP	Tutera	San Miguel HLHIP	Doneztebe Doneztebe
Lorenzo Goikoa HLHIP	Atarrabia	Virgen Blanca HLHIP	Uharte
Catalina de Foix HLHIP	Zizur Nagusia	San Jorge HLHIP	Iruña
Camino de Santiago HLHIP	Zizur Nagusia	Iturrama HLHIP	Iruña
		Ermitagaña HLHIP	Iruña
		Mendillorriko HLHIP	Iruña
		San Francisco HLHIP	Iruña
		Rochapea HLHIP	Iruña
		El Lago de Mendillorri HLHIP	Iruña
		Griseras HLHIP	Tutera

*Iturria: Ebaluazio eta Kalitate Atala*

Bi talde horien ezaugarrien artean, desberdintasun estatistiko aipagarriak daude, egiaztatu denaren arabera, eta eragina dute lortutako emaitzetan. British/IIP programa ezarrita daukaten ikastetxeetako ikasleen ezaugarriak:

- bertako ikasle gehiago dago,
- lehen hezkuntza osoa ikastetxe batean egiten dute,
- hezkuntza-sisteman sartze berantiarra eta/edo egoera soziokultural ahuleko familia izatearen ondoriozko hezkuntza-premia gutxiago dituzte,
- handiagoa da adinari dagokion moduko maila duten ikasleen ehunekoa,
- gehiago dira banakako indize sozioekonomiko eta kultural (ISEK) ertain-altua duten ikasleak.

Ikasleen ezaugarri horiek eragin handia dute ingelesezko hizkuntza-gaitasunean eta zientzia-gaitasunean lortutako emaitzetan. Ondorioak, horrenbestez, ebaluatutako bi ikasle-taldean ezaugarri desberdinak kontuan hartuta interpretatu behar dira.

Ingelesezko hizkuntza-gaitasunari buruzko ondorioak:

- Hizkuntzen Europako Erreferentzia Esparru Bateratuaren erreferentzia-maila egokituetan oinarrituta, British/IIP programa jarraitzen duten ikasleek zein jarraitzen ez dutenek emaitza hobekak lortzen dituzte ulermen-abilezian adierazpenean baino, eta ordena honetan: lehenik, idatzizkoaren ulermena; bigarrenik, hitzezkoaren ulermena; hirugarrenik, hitzezko adierazpena; eta laugarrenik, adierazpen idatzia.
- British/IIP duten bost ikasletik lauk A1 maila gainditzen du idatzizko ulermenean; ia bi herenek A1 maila gainditzen du hitzezko ulermenean; erdia baino gutxi gehiagok gainditzen du hitzezko adierazpeneko A1 maila; eta ia heren bat dira idatzizko adierazpenean A1 maila gainditzen dutenak.
- Ikaslearen jatorriak, ikastetxean egindako lehen ikasmilak, hezkuntza-sisteman sartze berantiarra izateari loturiko hezkuntza-premiei, adin-egokitasunak, banakako ISEK mailak eta British/IIP programa jarraitzeak eragin handia dute ebaluatutako lau abilezian. Horrenbestez, emaitza hobekak lortzen dituztenek ezaugarri hauek dituzte: bertakoak dira, Lehen Hezkuntza osoa ikastetxe berean egin dute, ez dute sartze berantiarraren ondoriozko hezkuntza-premiarik, adinari dagokion ikasmilan daude, banakako ISEK ertain-altua dute eta British/IIP programa jarraitzen dute.
- Aztertutako ezaugarri guztietan, ingelesezko hizkuntza-gaitasunean ebaluatutako lau trebetasunen artean eragin handiena duena British/IIP programa jarraitzea da; emaitza hobekak lortu dituzte, kasu guztietan.
- British/IIP programa jarraitzen dutenen barnean, hitzezko ulermeneko emaitzetan eragin handiena duen aldagaia da sartze berantiarrari loturiko hezkuntza-premiak izatea; sartze

berantiarrari loturiko hezkuntza-premiak dituztenek emaitza okerragoak dituzte. Gainerako abileziei dagokienez, emaitzetan eragin handiena duen aldagaia banakako ISEK maila da; zenbat eta ISEK maila baxuagoa, orduan eta emaitza kaskarragoak.

Zientzia-gaitasunari buruzko ondorioak:

- Ikerlan honetan erreferentzia gisa erabili diren zientzia-gaitasunaren mailak kontuan hartuta, ikasleen ia bi herenek adinari dagokion moduko garapena dute zientzia-gaitasunean.
- Ikaslearen jatorriak, hezkuntza-sisteman sartze berantiarra izateari loturiko hezkuntza-premiak, adin-egokitasunak eta banakako ISEK mailak eragin handia dute zientzia-gaitasunaren emaitzetan. Horrenbestez, emaitza onenak lortzen dituztenek ezaugarri hauek dituzte: bertako ikasleak dira, ez dute sartze berantiarrari loturiko hezkuntza-premiarik, adinari dagokion ikasmilian daude eta banakako ISEK maila ertain/altua dute.
- Lau ezaugarri horietan, zientzia-gaitasunean eragin handiena duena da banakako ISEK maila; zenbat eta ISEK maila altuagoa, orduan eta emaitza hobekiak.
- Ikastetxean sartzeko ikasmilak ez dauka eragin aipagarririk zientzia-gaitasunean.
- Zientzia-gaitasuneko emaitzetan (errendimendua eta batez besteko puntuazioak), ez dago desberdintasun nabarmenik, ikasleak British/IIP programa jarraitzen duen gorabehera. Edonola ere, ez da ahaztu behar interes-taldeko eta kontrol-taldeko ikasleen ezaugarriak desberdinak direla.

ECD-IIPn lortu diren emaitzak eta laginek ezaugarriak kontuan hartuta, IIP jarraitzen duten gaitasunen eta trebetasunen ebaluazioekin jarraitzea komeni da, beste gaitasun adierazgarri batzuk ere ebaluatuta. Era berean, ingelesez emandako hizkuntza-arlokoak ez diren gaitasunetan atzera ez egiteko hurrengo promozioetan, ikasleen errendimendu-mailaren segimendua egin beharko litzateke.

• **Programa hobetzeko proposamenak**

Ingelesa ikasteko programen hiru ebaluazio-faseak funtsezkoak izan dira programa horiek egoki garatzeko hobekuntza-proposamenak proposatzerakoan. Proposamen horiek, aldi berean, beste atzerriko hizkuntza batzuk ikasteko programetan ere aplikatu daitezke.

Hezkuntza-sistemako Lanbide Heziketako ikasketei eta Arte Plastikoetako eta Diseinuko lanbide-ikasketei dagozkien sari bereziak arautzen ditu 29/2013 Foru Aginduak, martxoaren 4koak, Hezkuntzako kontseilariarenak. Heziketa-zikloa 2014-2015 ikasturtean amaitu duten ikasleentzako sarien deialdia egin da 2015-2016 ikasturtean, Hezkuntzako zuzendari orokorraren 132/2015 Ebazpenaren, azaroaren 11koaren, bidez.

23/2016 Ebazpena, otsailaren 12koa, Hezkuntzako zuzendari nagusiarena, Nafarroako Foru Komunitatean heziketa-zikloa 2014-2015 ikasturtean bukatu duten ikasleei hezkuntza-sistemako lanbide-heziketako ikasketen eta arte plastikoetako eta diseinuko lanbide-ikasketen sari bereziak emateko deialdia egiten duena.

- **Erdi-mailako heziketa-zikloak**

Bederatzi sari esleitu zitzaizkien ondoko ikasleei:

- Carlos Julio Azpillaga Vera, Ostalaritza eta Turismoa lanbide-arloko Sukaldaritza eta Gastronomiako teknikaria, Burlatako LHko ikastetxe bateratukoa.
- José Ignacio Gorrindo Tabuenca, Instalatze- eta Mantentze-lanak lanbide-arloko Mantentze-lan Elektromekanikoetako teknikaria, Tuterako ETI Ikastetxe Bateratu Politeknikokoa.
- Sara Gurucharri Hernández, Irudi pertsonala lanbide-arloko Ile-apainketako teknikaria, Burlatako LH Ikastetxe Bateratukoa.
- Mikel Lerga Armendáriz, Garraioa eta Ibilgailuen mantentze-lanak lanbide-arloko Karrozeriako teknikaria, Iruñeko Donapea Ikastetxe Bateratukoa.
- María José Navarro López, Administrazioa eta Kudeaketa lanbide-arloko Administrazio-kudeaketako teknikaria, Iruñeko Cuatrovientos Ikastetxe Bateratu Pribatukoa.
- María José Pérez Leoz, Osasuna lanbide-arloko Erizaintzako zaintza osagarrietako teknikaria, Iruñeko Nafarroako Lanbide Eskola Tekniko Sanitarioa–ESTNA.
- Martín Javier Repáraz Pernaut, Elektrizitatea eta Elektronika lanbide-arloko Instalazio elektrikoetako eta automatikoetako teknikaria, Iruñeko Salesianos Ikastetxe Bateratu Politekniko Pribatukoa.
- Liana María Sandoval Benavides, Gizarte- eta Kultur-zerbitzuak eta Komunitatearentzako Zerbitzuak lanbide-arloko Mendekotasun egoeran dauden pertsonen arreta egiteko teknikaria, Iruñeko María Inmaculada Lanbide Heziketako Ikastetxe Pribatukoa.
- Áureo Filipe Teixeira Salgado, Fabrikazio Mekanikoa lanbide-arloko Mekanizazioko teknikaria, Elizondoko Lanbide Eskola Ikastetxe Bateratu Politeknikokoa.

- **Goi-mailako heziketa-zikloak**

Hamar ikasle hauek jaso zuten saria:

- María Mercedes Andrés Garraza, Gizarte- eta Kultur-zerbitzuak eta Komunitatearentzako zerbitzuak lanbide-arloko Gizarteratzeko goi mailako teknikaria, Iruñeko Hezitzaile Eskola Ikastetxe Bateratukoa.
- Nerea Ayúcar Astiz, Osasuna lanbide-arloko Diagnostiko Klinikoko Laborategiko goi mailako teknikaria, Iruñeko Nafarroako Lanbide Eskola Tekniko Sanitarioa–ESTNA.
- Victoria Eva García Aikman, Administrazioa eta Kudeaketa lanbide-arloko Administrazio eta Finantzako goi mailako teknikaria, Iruñeko Donapea Ikastetxe Bateratu Politeknikokoa.
- Alejandro García Sánchez, Elektrizitatea eta Elektronika lanbide-arloko Automatizazioko eta Robotika industrialeko goi mailako teknikaria, Iruñeko Salesianos Ikastetxe Bateratu Politekniko Pribatukoa.
- Ana García Senosiain, Arte Plastikoak eta Diseinua lanbide-ikasketetako Grabaketa eta estanzio-teknetako goi mailako teknikaria, Iruñeko Arte Eskolakoa.
- Iñigo González Etayo, Instalatze- eta Mantentze-lanak lanbide-arloko Mekatronika Industrialeko goi mailako teknikaria, Altsasuko Sakana LHko Ikastetxe Bateratukoa.
- Francisco Javier Goñi Jordán, Merkataritza eta Marketina lanbide-arloko Merkataritza-kudeaketa eta Marketineko goi mailako teknikaria Iruñeko Administrazio, Merkataritza eta Informatikako María Ana Sanz Ikastetxe Bateratukoa.
- María Elena Lozano Echarri, Nekazaritza lanbide-arloko Abeltzaintzako eta Abere-osasunari laguntzeko goi mailako teknikaria, Iruñeko Nekazaritzako eta Basogintzako Ikastetxe Bateratukoa.
- Rubén Martínez Lamana, Informatika eta Komunikazioak lanbide-arloko Sareko Informatika-sistemen administrazioa goi mailako teknikaria, Tuterako ETI Ikastetxe Bateratu Politeknikokoa.
- María Stupnikova, Ostalaritza eta Turismoa lanbide-arloko Sukalde-zuzendaritzako goi mailako teknikaria, Burlatako LHko Ikastetxe Bateratukoa.



#### **2.4.2. Hezkuntzaren interesa alor instituzionalean**

- **Nafarroako Parlamentua**

##### **Parlamentuko osoko bilkuran azterturiko gaiak**

##### **Foru-legeak**

Nafarroako Parlamentuko osoko bilkurak 16 foru-lege onetsi zituen, eta horietatik bat da hezkuntzari buruzkoa:

– Foru-legea; horren bidez, gehienez 1.378.683 euroko zenbatekoa duen aparteko kreditu bat ematen da, Tuterako Benjamín BHIrako sarbidearen % 85 finantzatzeko. Foru-legearen proiektua argitaratu zen (NPAO, 78. zk., 2016-05-27).

##### **Ebazpenak**

Onartutako 133 ebazpenetatik 25 hezkuntzaren alorrekoak dira:

- Ebazpen honen bidez Nafarroako Gobernuari eskatzen zaio Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko curriculumak ezartzen dituen foru-dekretuak azter ditzala. 2015eko irailaren 17a.
- Ebazpen honen bidez eskatzen zaio Espainiako Gobernuari eska diezaiola oinarritzko LH araudia alda dezala.. 2015eko urriaren 22a.
- Ebazpen honen bidez Nafarroako Gobernuari eskatzen zaio baterako hezkuntzarako eta genero-indarkeria prebenitzeko plan bat egin dezala. 2015eko azaroaren 5a.
- Ebazpen honen bidez Parlamentuak baztertu egiten du ekimen militaristak sustatzea hezkuntzaren alorrean. 2015eko azaroaren 19a.
- Ebazpen honen bidez Nafarroako Gobernuari eskatzen zaio neurri zehatzak har ditzala Hezkuntzako EPE bat eskaintzeko. 2015eko abenduaren 10a.
- Ebazpen honen bidez Nafarroako Gobernuari eskatzen zaio sare sozialen erabilerarako prebentzio programa bat martxan jartzea. 2016ko otsailaren 25a.
- Ebazpen gonon bidez Hezkuntza ministerioari eskatzen zaio irakasleen kidegoetarako sarbidea alda dezala. 2016ko otsailaren 25a.
- Ebazpen honen bidez Nafarroako Parlamentuak konpromisoa hartu du eskola-jazarpenaren aurka egiteko. 2016ko apirilaren 7a.
- Ebazpen honen bidez Nafarroako Gobernuari eskatzen zaio Félix Urabayen NHBHIko ikasleei prestakuntza osagarria eskaini diezaiela. 2016ko apirilaren 7a.
- Ebazpen honen bidez Nafarroako Gobernuari eskatzen zaio Erriberan irakaskuntza publikoa gara dezala eta batez ere Tuteran. 2016ko apirilaren 12a.
- Ebazpen honen bidez, Nafarroako Gobernuari eskatzen zaio berehala hasi ditzala Sunbillan ikastetxe publiko berri bat eraikitzeko behar diren aurretiazko izapide guztiak. 2016ko apirilaren 12a.
- Ebazpen honen bidez, Nafarroako Gobernuari eskatzen zaio eskola publiko anitz, inklusibo eta ondo hornitua dagoen eredu bat susta dezala. 2016ko apirilaren 21a.
- Ebazpen honen bidez, Nafarroako Gobernuari eskatzen zaio landa-eskola mantentzea. 2016ko maiatzaren 5a.

- Ebazpen honen bidez, Nafarroako Gobernuari eskatzen zaio Ermitagañako IPn bi IIP lerroak mantentzea. 2016ko maiatzaren 13a.
- Ebazpen honen bidez, Nafarroako Gobernuari eskatzen zaio Tuterako Monte San Julián IPn Haur Hezkuntzako lehenengo mailako bigarren lerro bat ezar dezala. 2016ko maiatzaren 13a.
- Ebazpen honen bidez, Nafarroako Gobernuari eskatzen zaio Beriainen ikastetxe publikoak berritzeko edo berri bat eraikitzeko egokitasuna azter dezala. 2016ko maiatzaren 18a.
- Ebazpen honen bidez, Nafarroako Gobernuari eskatzen zaio Hezkuntzako Mahai sektorialean negoziazio-prozesu bat has dezala. 2016ko maiatzaren 18a.
- Ebazpen honen bidez, Hezkuntza Departamentuari eskatzen zaio Torre Monreal Hezkuntza Bereziko ZPn beharren azterketa bat egin dezala. 2016ko maiatzaren 24a.
- Ebazpen honen bidez, «Nafarroako hezkuntza-sistema»ri buruzko saio monografikoan onartutako 17 ebazpenen zerrenda egiten da. 2016ko maiatzaren 27a.
- Ebazpen honen bidez, Hezkuntza Departamentuari eskatzen zaio Nafarroako Doña Mayor ikastetxe publikoko ikasleak British Programako Padre Moret-Irubide Institutuan matrikulatzea erraz dezala. 2016ko ekainaren 1a.
- Ebazpen honen bidez, Nafarroako Gobernuari eskatzen zaio Nafarroako Doña Mayor ikastetxe publikoko ikasleak Padre Moret-Irubide Institutuan matrikulatzea erraz dezala. 2016ko ekainaren 1a.
- Ebazpen honen bidez, Nafarroako Gobernuari eskatzen zaio Baztan-Bidasoa-Urdazubi-Zugarramurdi Lanbide Heziketako ikastetxe bateratu berri bat eraiki dezala. Ekainaren 16a.
- Ebazpen honen bidez, Nafarroako Gobernuari eskatzen zaio Aniztasunarekiko Arretarako Plan Estrategiko bat aurkez dezala. 2016ko ekainaren 16a.
- Ebazpen honen bidez, Nafarroako Gobernuari eskatzen zaio ikastetxe publiko eta pribatuetako eskolazte-irizpideak alda ditzala. 2016ko ekainaren 16a.
- Ebazpen honen bidez, Nafarroako Gobernuari eskatzen zaio Paderborn-Víctor Pradera HLHIP lekuz alda dezala, Iruñeko Milagrosa auzoaren barnean, José Vila ikastetxeko instalazioetara. 2016ko ekainaren 22a.

### **Erakunde-mailako adierazpenak**

Onetsitako 118 adierazpen instituzionaletatik, ondoko hauek hezkuntzari buruzkoak dira:

- Nafarroako Gobernuak hezkuntza-alarreko mahai sektorialari aurkeztutako enplegu publikoaren proposamena atzera botatzen duen deklarazioa. Mahaian eta bozeramaileen batzordean onartu da. 2015eko azaroaren 9a.
- Nafarroako Gobernuak hezkuntza-alarreko mahai sektorialari aurkeztutako enplegu publikoaren proposamena atzera botatzea eskatzen duen deklarazioa. Mahaian eta bozeramaileen batzordean onartu da. 2015eko azaroaren 9a.
- Hezkuntza-sistemari buruzko deklarazio instituzional bat onartzen duen deklarazioa. Mahaian eta bozeramaileen batzordean onartu da. 2015eko abenduaren 14a.
- Bakerako eta indarkeriarik gabeko hezkuntzari buruzko edukiak eskola curriculumean txertatzea ezinbestekotzat jotzen duen deklarazioa. Mahaian eta bozeramaileen batzordean onartu da. 2016ko otsailaren 1a.

**320. taula: Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak hezkuntza-alorrari buruz tratatu dituen gaien kopurua**

Ekimen mota	Kopurua
Foru-legea	1
Onetsitako ebazpenak	25
Erakunde-mailako adierazpenak	4

**Hezkuntza batzordeak landutako gaiak**

**Agerraldiak**

Ondoko hauen agerraldiak izan dira, bertan adierazitakoek eskaturik:

Irailaren 22an:

- Nafarroako Alderdi Sozialistaren TPk Hezkuntzako kontseilariaren agerraldia eskatu zuen bere Departamentuak jarraituko dituen helburuak eta lan-ildoak azal zitzaiz.

Unión del Pueblo Navarro alderdiaren TPk Hezkuntzako kontseilariaren agerraldia eskatu zuen aurreikusitako lan-ildoen berri eman zezan.

- Nafarroako Alderdi Popularraren FPEk Hezkuntzako kontseilariaren agerraldia eskatu zuen aurreikusitako lan-ildoen berri eman zezan.

- Nafarroako Gobernuak Hezkuntzako kontseilariaren agerraldia eskatu zuen bere Departamentuko jarduketa-ildoen berri eman zezan.

Azaroaren 3an:

- Nafarroako Gobernuak Hezkuntzako kontseilariaren agerraldia eskatu zuen Ingeleseko Ikaskuntza Programaren lehenengo ebaluazio-datuen berri eman zezan.

- Alberto Catalán Higuera jaunak Hezkuntzako kontseilariaren agerraldia eskatu zuen 2015-2016 ikasturtearen hasieran izandako datu eta gorabeheren berri eman zezan.

Azaroaren 20an:

- Carlos Gimeno Gurpegi jaunak Hezkuntzako kontseilariaren agerraldia eskatu zuen 320 maisu-plazen (horietatik 228 euskaraz) deialdia egiteko proposamena azal zezan.

- Alberto Catalán Higuera jaunak Hezkuntzako kontseilariaren agerraldia eskatu zuen gaztelaniazko eta euskarazko maisu-plazen enplegu-eskaintza publikoaren berri eman zezan.

- Nafarroako Alderdi Popularraren FPEk Hezkuntzako kontseilariaren agerraldia eskatu zuen maisuen eta ikuskatzaileen enplegu-eskaintza publikoaren berri eman zezan.

Abenduaren 16an:

- Alberto Catalán Higuera jaunak Hezkuntzako kontseilariaren agerraldia eskatu zuen azaroaren 17an izandako bileran ikastetxeetako zuzendarien aurrean egin zituen adierazpenak, D ereduaren eskaintza eta ikastetxe publikoetako plantilletan izanzen duen ondorioa azal zitzaiz.

Otsailaren 2an:

- Alberto Catalán Higuera jaunak Hezkuntzako kontseilariaren agerraldia eskatu zuen Ingeleseko Ikaskuntza Programari buruzko ebaluazioaren aurreikuspenen eta asmoen berri eman zezan eta gainerako hizkuntza-ereduak ebaluatzeko aurreikuspenen berri eman zezan.

- Carlos Gimeno Gurpegi jaunak Hezkuntzako kontseilariaren agerraldia eskatu zuen Ingeleseko Ikaskuntza Programaren ezarpenari buruzko lehen diagnostikoaren berri eman zezan.

- Javier García Jiménez jaunak Hezkuntzako kontseilariaren agerraldia eskatu zuen IIP ez zabaltzeko luzamendua mantentzeko erabakia hartu izanaren arrazoiak azal zitzaizkien.

Otsailaren 12an:

- Alberto Catalán Higuera jaunak Hezkuntzako kontseilariaren agerraldia eskatu zuen 2016-2017 ikasturterako aurretiko izen-ematearen edukien berri eman zezan, baita dagokion kanpaina zabaltzeko erabilitako baliabideen berri ere.

Otsailaren 16an:

- Nafarroako Eskola Kontseiluak Nafarroako Eskola Kontseiluaren lehendakariaren agerraldia eskatu zuen azal zezan Nafarroako Hezkuntza Sistemaren txostena.

Martxoaren 15ean:

- Javier García Jiménez jaunak Hezkuntzako kontseilariaren agerraldia eskatu zuen Departamentuaren jarrera azal zezan Noaingo San Miguel ZPko D eredu irakasle eta ikasleen guraso batzuk eskola berri bat eraikitzeko egin duten eskaerari dagokionez.

Apirilaren 5ean:

- Javier García Jiménez jaunak Hezkuntzako kontseilariaren agerraldia eskatu zuen bere Departamentuko jarduketa- eta plangintza-ildoak azal zitzaizkien, hurrengo ikasturteko aurrematrikularen arabera.

Apirilaren 26an:

- Nafarroako Gobernuak Hezkuntzako kontseilariaren agerraldia eskatu zuen Ingeleseko Ikaskuntza Programaren kanpoko azken ebaluazio-datuaren eta bigarren hezkuntza eleaniztunaren plangintzaren berri eman zezan.

Maiatzaren 11n:

- Javier García Jiménez jaunak Hezkuntzako kontseilariaren agerraldia eskatu zuen Departamentuaren jarduketa-ildoak azal zitzaizkien Arartekoak Ermitagaña IPn 2016-2017 ikasturterako hasiera batean ezarri ziren plaza-kopurua eta hezkuntza-unitate jakinak mantentzeko emandako ebazpenaren ondoren.

Ekainaren 7an:

- Alberto Catalán Higuera jaunak Hezkuntzako kontseilariaren agerraldia eskatu zuen ikastetxeetan irakasleei egindako erasoengatik irakaskuntzako sindikatuek jarritako salaketaren eta Departamentuak hartutako neurrien berri eman zezan eta balora zitzaizkien.

- Alberto Catalán Higuera jaunak Hezkuntzako kontseilariaren agerraldia eskatu zuen Nafarroako Unibertsitate Publikoaren Kontseilu Sozialeko kideen berritzean izan duen parte-hartzearen berri eman zezan eta kontseilu horretako gaur egungo lehendakaria hautatzeko modu eta epeak balora zitzaizkien.

Ekainaren 21ean:

- Javier García Jiménez jaunak Hezkuntzako kontseilariaren agerraldia eskatu zuen bere Departamentuak zazpi ikastetxetan Ingeleseko Ikaskuntza Programako lerroak zabaltzea ez onartu izana azal zezan.

Ekainaren 29an:

- Alberto Catalán Higuera jaunak Hezkuntzako kontseilariaren agerraldia eskatu zuen Gobernuak 2016ko Aurrekontu Orokorrei egindako blokeoak Departamentuari nola eragin dion azal zezan.

### Lan-saioak

Hainbat lan-saio egin dira, zehazki, gai hauek jorratzeko:

Urriaren 20an:

- Castejongo 2 de Mayo HLHIPren guraso elkartearen eta zuzendaritzaren ordezkariak batek eta udaleko ordezkariak batek hezkuntza-etapa honetako azpiegitura eta proposamenei dagokienez Gobernuak eskaintako irtenbideak balora zitzaten.

- Sortzen Ikasbatuaz Elkarreak, ratioei dagokienez, hainbat ikastetxetan bizitzen ari diren egoera azal zezan.

Azaroaren 10ean:

- Gaz Kaló elkartearen ordezkariak batek azal zezan eskola-laguntzaren hezkuntza-proiektuari eta dagoen egoerari buruz egiten duen balorazioa.

- Ker Kali ijitoen elkarteko ordezkariak eta Nafarroako ijitoen elkarteen Gaz Kaló federazioko ordezkariak azal zitzaten Lizarrako Udalak Eskola Laguntzarako Plana gelditzeko zituen arrazoiak eta zeuden zirkunstantziak.

- Nafarroako British IIP ikastetxeetako Guraso Elkarteen Federazioko ordezkariak bere jardueraren berri eman zezaten eta Ingeleseko Ikaskuntzako Programaren ezarpena eta garapena balora zezaten.

Azaroaren 13an:

- HERRIKOIA guraso-elkarteen federazioaren ordezkariak batek azal zitzaizkion Nafarroako unibertsitatez kanpoko irakaskuntzako ikastetxe publikoetako ikasturte hasierari buruzko analisia eta balorazioa, baita zituzten hobekuntza-proposamenak ere.

- Larraintzar ikastetxeko zuzendaritza-taldeko kideek, Sustraiak guraso-elkarreak eta Udaleko ordezkariak ikastetxeak behar dituen mantentze-obra eta -lanen berri eman zezaten.

Azaroaren 18an:

- Nafarroako haur- eta lehen hezkuntzako ikastetxe publikoetako zuzendarien elkarteko ordezkariak batek azal zitzaizkion haur-hezkuntza eta lehen hezkuntzako curriculumean atzerriko hizkuntzaren tratamenduari buruz zituzten balorazioa eta proposamenak, baita ikastetxe publikoetan ezartzen ari diren programen egoera ere.

- Hezkuntza bereziko Andrés Muñoz Garde ikastetxe publikoko ordezkariak azal zezaten zentro berri bat zero kosturekin egiteko balizko aukera.

Abenduaren 15ean:

- Arantzako ikastetxe publikoko zuzendaritzako, gurasoen elkarteko eta Udaleko ordezkariak ikastetxean egin beharreko obren eta ikastetxea mantentzeko obren berri eman zezaten.



- Iturrama BHIko ordezkariak batek azalpenak eman zitzaizkien Iturrama BHI Sahararekin proiektuari buruz.

Urtarrilaren 27an:

- Stee-Eilas, LAB eta ELA sindikatuek informatu zezaten IIP eta EPEaren inguruan egin duten azterlan akademiko eta teknikoari buruz.
- Fiteroko guraso elkartearen ordezkariak batek Ingeleseko Ikaskuntzaren Programari helarazi zizkion.
- CCOOren Irakaskuntza Federazioko ordezkariak azal zezaten maisu-maistren kidegorako EPEaren proposamenaren analisia eta balorazioa.

Otsailaren 2an:

- Nafarroako Administrazio Publikoko Funtzionarioen Elkartek azal zitzaizkien maisu-maistren kidegoaren eta ikuskatzaileen enplegu publikoaren eskaintzari buruzko irizpidea eta balorazioa.
- Félix Urabayen Nafarroako Helduentzako Bigarren Hezkuntzako Institutuko ordezkariak batek informatu zezan ikastetxeko gaur egungo egoerari buruz.

Otsailaren 16an:

- San Franciscoko guraso elkartearen ordezkariak batek informatu zezan eskoletan wifi bidez Internet banatzeari buruz duen kezka eta proposamena.

Otsailaren 23an:

- Amabizia-Madreviva elkarteak informatu zezan, Hezkuntza Batzordearen aurrean, hezkuntza-arloan pertsonen zaintzari buruz eta dituen proposamenei buruz.

Martxoaren 1ean:

- Hizkuntza-ereduaren aldaketak eragin dien haur-eskoleko gurasoen ordezkariak batek beren egoera azal zezan.
- Hizkuntza-ereduaren aldaketak eragin dien haur-eskoleko langileen ordezkariak batek beren egoera azal zezan.

Martxoaren 8an:

- Euskalgintzako ordezkariak informatu zezaten 0 urtetik 3 urtera bitarteko haurrentzako haur-eskolen inguruan sortutako polemikari buruz.
- Zaintzaileen elkarteak azal zitzaizkien beren gaur egungo lan-egoera eta izan zitzaizkien eskaerak.

Apirilaren 12an:

- «Levántate contra el bullying» izeneko elkarteko ordezkariak beren egoera eta lan-ildoak azal zitzaizkien.

Apirilaren 22an:

- Ermitagaña ikastetxe publikoko guraso elkartearen lehendakariak azal zezan hainbat ikaslek zuten egoera, aurretiko izen-emateetan aukeraturako ikastetxeetatik kanpo gelditu ostean.

Apirilaren 27an:

- Tuterako La Anunciata eta Monte San Julián ikastetxeetako gurasoen ordezkariak batek azal zezan hainbat ikasleren egoera, aurretiazko izen-emateetan aukeratutako ikastetxeetatik kanpo gelditu ondoren.

Maiatzaren 3an:

- Nafarroako Goi-mailako Musika Kontserbatorioko ordezkariak batek informatu zezan ikastetxeko egoerari buruz, ikastetxeko plantillaren ezegonkortasuna eta antolamendua azpimarratuz.

Maiatzaren 18an:

- IIP edo British Council ezarrita duten ikastetxeetatik datozen eta DBHn matrikulatu behar duten seme-alabak dituzten gurasoen ordezkariak batek azal dezan Padre Moret-Irubide BHIIn sortutako egoera.

Maiatzaren 31n:

- Arte Plastikoen batxilergoan sartzeko itxaron-zerrendan gelditu diren seme-alabak dituzten familien ordezkariak batek haien egoeraren berri eman dezan.

- SEPNA-FSIE, UGT, ELA eta LAB sindikatuen ordezkariak batek azal dezan Nafarroako itunpeko irakaskuntzako irakasleen egoera.

- SEPNA-FSIE, UGT, ELA eta LAB sindikatuen ordezkariak batek azal dezan itunpeko irakaskuntzako soldata-egoera publikoko egoerarekin alderatuta.

Ekainaren 1ean:

- Lodosako Pablo Sarasate BHIko ordezkariak batek informa dezan ikastetxearen gaur egungo egoeraz, berriki lerro bat kenduko dela iragarri ondoren.

Ekainaren 8an:

- Carlos Beriain Yoldi, Miren Edurne Moreno de Gracia eta Mariana Jáuregui Realek informa dezaten Hezkuntza Departamentuak M. B. bigarren hezkuntzan eskolatzearen inguruan egindako proposamenari buruz eta desgaitasun intelektuala duten ikasleak eskolatzeko orokorrean dagoen problematikari buruz.

Ekainaren 22an:

- AFAPNA, ANPE eta APS sindikatuetakako ordezkariak batek bere iritzia eman dezan Nafarroako Foru Komunitateko ikastetxeetan irakasleei egin zaizkien erasoei buruz.

### **Mozioak**

Hainbat mozio onetsi dira eta, zehazki, horien bidez:

Irailaren 17an:

- Nafarroako Gobernuari eskatu zitzaion behar diren tramiteak susta zitzala Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko irakaskuntzen curriculumak ezartzen duten hainbat foru-dekreturen alderdi juridiko, funtsezko, formal eta legaltasunekoen analisiari ekiteko, Nafarroako Sozialisten Alderdiaren TPk aurkeztua..

- Nafarroako Gobernuari eskatu zitzaion mantentzea Ingeleseko Ikaskuntzako Programa (IIP) Nafarroako ikastetxe publikoetan, Ana Beltrán Villalba andreak aurkeztua.

- Nafarroako Gobernuari eskatu zitzaion ez zezala luzamendurik aplikatu Ingeleseko Ikaskuntzako Programan (IIP), Alberto Catalán Higuera jaunak aurkeztua.

Urriaren 22an:

- Nafarroako Gobernuari eskatu zitzaion Espainiako Gobernuari eska ziezaiola otsailaren 28ko 127/2014 Errege Dekretua alda dezala (dekretu horren bidez Oinarrizko Lanbide Heziketaren alderdi espezifikoak arautzen dira), Nafarroako Alderdi Sozialistaren TPK aurkeztua.

Azaroaren 5ean:

- Nafarroako Gobernuari eskatu zitzaion urgentziaz baterako hezkuntzarako eta genero-indarkeriaren prebentziorako plan bat egin zezala Nafarroako hezkuntza-sisteman, Nafarroako Alderdi Sozialistaren TPK aurkeztua.

Azaroaren 19an:

- Nafarroako Parlamentuak irmoki baztertu zituen erakunde militarrek eta segurtasun-indarrek hezkuntza-alorrean eragiteko martxan jarritako ekimenak, Nafarroako EH Bilduk aurkeztua.

Abenduaren 10ean:

- Nafarroako Gobernuari eskatu zitzaion alda zezala Nafarroako Foru Komunitatean unibertsitatez kanpoko irakaskuntza eskaintzen duten ikastetxe publiko eta pribatuetan ikasleak onartzeko gaur egungo araudia, funts publikoekin mantentzen diren zentro guztietan ikasleak era orekatuan eskolatzeko helburuarekin; hala, sarbidean berdintasun-baldintzak betetzen direla bermatuz, Nafarroako Alderdi Sozialistaren TPK aurkeztua.

- Nafarroako Gobernuari eskatu zitzaion neurri zehatzak har zitzala gaztelaniako eta Ingeleseko Irakaskuntzaren Programako beharrei erantzuteko Enplegu Publikoaren Eskaintza bat egiteko, Alberto Catalán Higuera jaunak aurkeztua.

Otsailaren 25ean:

- Hezkuntza Ministerioari eskatu zitzaion irakasleen kidegoetako sartzea arautzen duen 276/2007 Errege Dekretua alda dezala, María Roncesvalles Solana Arana andreak aurkeztua.

- Nafarroako Parlamentuak onartu du Nafarroako hezkuntza-sistemaren ezaugarriak izan behar dutela pluraltasun, askatasun, ekitate eta berdintasunaren balioak, Hezkuntzako kontseilaria gaitzetsi du eta kargua utz dezala eskatu dio, Nafarroako Alderdi Popularraren FPEk aurkeztua.

- Nafarroako Parlamentuak politikoki gaitzetsi du Hezkuntzako kontseilaria Hezkuntza Departamentuan Enplegu Publikoaren Eskaintzaren deialdian egindako kudeaketa eta hartutako erabakiengatik, Unión del Pueblo Navarro alderdiaren TPK aurkeztua.

- Nafarroako Gobernuari eskatu zitzaion ikastetxe, institutu eta LHko zentroetan hezkuntza-programa bat martxan jar zezala haurrek eta gazteek sare sozialak erabiltzean sortzen diren pribatutasun- eta segurtasun-arriskuak prebenitzeko, Iñaki Iriarte López jaunak aurkeztua.

- Nafarroako Gobernuari eskatu zitzaion sor zezala Lan Mahai bat Nafarroan Hezkuntzaren aldeko hitzarmen sozial eta politiko bat lortzeko helburuarekin, Nafarroako Alderdi Sozialistaren TPK aurkeztua.

Martxoaren 10ean:

- Nafarroako Gobernuari eskatu zitzaion jarraibideak eman zitzala ikastetxe publiko, ospitale, egoitza eta gainerako zentro publikoetarako elikagai eta elikadura-zerbitzuak kontratazio publikoa gertukoa eta ekologikoa izan dadin, María Teresa Sáez Barrao andreak aurkeztua.

Apirilaren 7an:

- Nafarroako Gobernuari eskatu zitzaion azter, garatu eta ezar dezala plan bat Félix Urabayen NHBHlko ikasleei prestakuntza osagarria eskaintzeko; hala, prestakuntza horrek lan-munduaren ezagutza eskainiko die eta enplegurako sarbidea erraztuko die. Alberto Catalán Higuera jaunak aurkeztua.

- Nafarroako Parlamentuak adierazi zuen konprometituta dagoela eskola-jazarpenaren aurka egiteko, Cristina Altuna Ochotorena andreak aurkeztua.

Apirilaren 12an:

- Nafarroako Gobernuaren Hezkuntza Departamentuari eskatu zitzaion susta dezala Erriberako irakaskuntza publikoaren garapena eta, batik bat, Tuteran; hala, aurrematrikularen gaur egungo prozesuko eskaera guztia kontuan hartu beharko da. Izquierda-Ezkerra alderdiaren FPEk aurkeztua.

- Nafarroako Gobernuari eskatu zitzaion berehala hasi zitzala Sunbillan ikastetxe publiko berri bat eraikitzeko behar diren aurretiazko izapide guztiak, Geroa Bai alderdiaren TPk, EH Bildu Nafarroa alderdiaren TPk, Podemos-Ahal Dugu alderdiaren TPk, Nafarroako Alderdi Sozialistaren TPk, Nafarroako Alderdi Popularraren FPEk eta Izquierda-Ezkerraren FPEk aurkeztua.

Apirilaren 21ean:

- Nafarroako Gobernuari eskatu zitzaion susta dezala ikastetxe plural, inklusibo, ez-segregatzaile, koedukatiboa, hurbileneko ingurune sozialean inkardinatua eta kalitatezko baldintzetan beren funtzioez baliatzeko beharrezkoak diren baliabide guztiak dituen, Izquierda-Ezkerra alderdiaren FPE.

- Nafarroako Gobernuari eskatu zitzaion hizkuntza-eredu desberdinetan ikasketak egiten ari diren ikasleak bizikide izateko eta hezkuntza-esperientziak partekatzeko ikastetxeak eratu ditzala, Nafarroako Alderdi Sozialistaren TPk aurkeztua.

Maiatzaren 5ean:

- Nafarroako Gobernuari eskatu zitzaion neurri egokiak har zitzala landa-eskola hezkuntza-erakunde gisa mantentzeko, duen antolamendu-egitura heterogeneo eta bereziarekin; era berean, eskatu zitzaion beharrezkoak diren baliabideak jar ditzala eskolak eratzen dituzten eskola-unitateen sarea mantendu eta ezartzeko, Nafarroako Alderdi Sozialistaren TPk aurkeztua.

Maiatzaren 13an:

- Nafarroako Gobernuari eskatu zitzaion Ermitagañako ikastetxe publikoko bi IIP lerroak gaituta mantentzea zitzala 2016-2017 ikasturterako, Unión del Pueblo Navarro alderdiaren TPk eta Nafarroako Alderdi Popularraren FPEk aurkeztua.

- Nafarroako Gobernuaren Hezkuntza Departamentuari eskatu zitzaion ezar zezala haur-hezkuntzako lehen mailan bigarren unitate bat berehala Tuterako Monte San Julián ikastetxe publikoan, Unión del Pueblo Navarro alderdiaren TPk eta Nafarroako Alderdi Popularraren FPEk aurkeztua.

Maiatzaren 18an:

- Nafarroako Gobernuari eskatu zitzaion has zezala eta denboralizatu zezala hezkuntzako Mahai Sektorialean negoziazio-prozesu bat Nafarroan hezkuntza-sistema publikoaren kalitatezko hobekuntzarako akordio berri bat lortzeko, María Teresa Sáez Barrao andreak aurkeztua.

- Nafarroako Gobernuari eskatu zitzaion azterlan bat egin zezala Beraingo ikastetxe publikoaren eraikinaren gaur egungo egoerari buruz eta ikastetxe berri bat eraikitzea egokia den ala ez jakiteko, Geroa Bai alderdiaren TPK, EH Bildu Nafarroa alderdiaren TPK, Podemos-Ahal Dugu alderdiaren TPK, Izquierda-Ezkerra alderdiaren FPEk aurkeztua.

Maiatzaren 24an:

- Hezkuntza Departamentuari eskatu zitzaion egin zezala Tuterako Torre Monreal hezkuntza bereziko eskolak dituen beharren azterlan bat, Alberto Catalán Higuera jaunak aurkeztua.

Ekainaren 1ean:

- Nafarroako Gobernuari eskatu zitzaion erraz ziezaiola Nafarroako Doña Mayor ikastetxe publikoko ikasleei Padre Moret BHI n matrikulatzea, bigarren hezkuntza jaso dezaten British programa elebidunean, Javier García Jiménez jaunak aurkeztua.

- Hezkuntza Departamentuari eskatu zitzaion erraz dezala Nafarroako Doña Mayor ikastetxe publikoko ikasleak Padre Moret-Irubide Institutuko British programan matrikulatzea, Alberto Catalán Higuera jaunak aurkeztua.

Ekainaren 2an:

- Nafarroako Gobernuari eskatu zitzaion susta zitzala egokitzat jotzen diren behar beste neurri funts publikoekin mantentzen diren ikastetxe guztien erabateko doakotasuna eta unibertsaltasuna lortzeko, María Teresa Sáez Barrao andreak aurkeztua.

- Nafarroako Gobernuari eskatu zitzaion amaiera eman ziezaiola 2016-2017 ikasturterako ezarritako Ingelesko Ikaskuntzako Programaren luzapenean luzamendua ezartzeari eta berrezar zezala programa 2017-18 ikasturterako, Nafarroako Alderdi Sozialistaren TPK aurkeztua.

Ekainaren 16an:

- Nafarroako Gobernuari eskatu zitzaion alda zitzala Nafarroako Foru Komunitateko ikastetxe publiko eta pribatuetako eskolatzea arautzen duten araudiak ekitate, sozializazio eta ez-diskriminazioaren irizpideak kontuan hartuta, Izquierda-Ezkerra alderdiaren FPEk aurkeztua.

- Nafarroako Gobernuari eskatu zitzaion aurkez eta eztabaida zezala hezkuntza-komunitatean Aniztasunarekiko Hezkuntza Arretaren Plan Estrategikoaren proposamen bat eskola inklusibo baten esparruan, Nafarroako Alderdi Sozialistaren TPK aurkeztua.

- Nafarroako Gobernuari eskatu zitzaion igo zezala Nafarroako itunpeko irakaskuntzako irakasleen eta irakasleak ez diren langileen soldata % 1, Alberto Catalán Higuera jaunak aurkeztua.

- Nafarroako Gobernuari eskatu zitzaion batera landu zitzala lanbide-heziketa eta enplegu-politikak, eta lanbide-heziketako ikastetxe bateratu berri bat eraiki zezala Baztan-Bidasoa-Urdazubi-Zugarramurdi eskualderako Geroa Bai alderdiaren TPK, EH Bildu Nafarroa alderdiaren TPK, Podemos-Ahal Dugu alderdiaren TPK, Izquierda-Ezkerra alderdiaren FPEk aurkeztua.

Ekainaren 22an:

- Nafarroako Gobernuari eskatu zitzaion KIVA metodoa azter zezala gure irakaskuntza-sisteman ezarri ahal izateko, María Esther Korres Bengoetxea andreak aurkeztua.

- Nafarroako Gobernuari eskatu zitzaion Paderborn-Víctor Pradera HLHIP lekuz alda zezala, Iruñeko Milagrosa auzoaren barnean, José Vila ikastetxeko instalazioetara, Nafarroako Alderdi Sozialistaren TPK aurkeztua.

- Nafarroako Gobernuari eskatu zitzaion Ingeleseko Ikaskuntzako Programa (IIP) ezar dezala, hezkuntza-eskaintza zabal dezala eta eraikin berri bat eraiki dezala Cintruenigoko La Paz institutuan, Javier García Jiménez jaunak aurkeztua.

### **Galderak**

Gai hauei buruz egindako galderak:

Irailaren 17an:

- IIP luzamenduari buruz, Carlos Gimeno Gurpegui jaunak aurkeztua.

Urriaren 8an:

- Eremu ez-euskalduneko ikastolei buruz, Carlos Gimeno Gurpegui jaunak aurkeztua.

- Ikastetxe pribatu jakin batzuk sare publikoan integratzeari buruz, Alberto Catalán Higuera jaunak aurkeztua.

Urriaren 29an:

- Ikastetxe jakin batzuk azpiegitura berriez hornitzeko aurreikusitako epeei buruz, Javier García Jiménez jaunak aurkeztua.

- Hobekuntza-beharrei, eskola-eraikin berriei, hezkuntza-azpiegitura publikoen egoeraren diagnostikoari eta legegintzaldi honetarako eskola-azpiegituren planari buruz, María Luisa De Simón Caballero andreak aurkeztua.

- América 66 armadako batailoiak eskola eta ikastetxeetara bidali dituen gonbidapenei buruz, Miren Aranoa Astigarraga andreak aurkeztua.

Azaroaren 3an:

- Izandako sutearen ondoren Altsasuko haur-eskolari behin betiko irtenbidea emateko eman diren edo emanen diren pausoei buruz, Miren Aranoa Astigarraga andreak aurkeztua.

- Garesko ikastetxe publikoan lehen hezkuntzako 5. mailan banatu zen gaztelaniazko gizarte-zientzien liburuari buruz, Alberto Catalán Higuera jaunak aurkeztua.

Azaroaren 12an:

- Deitutako maisu-plazen hamar plazetatik zazpi euskarazkoak izan daitezela justifikatzeko irizpideei buruz, Carlos Gimeno Gurpegui jaunak aurkeztua.

- Irakasleen Enplegu Publikoaren Eskaintzari buruz, María Luisa De Simón Caballero andreak aurkeztua.

- Euskarazko maisu-plazen enplegu publikoaren eskaintzari buruz, Ana María Beltrán Villalba andreak aurkeztua.

- Barkos andreak Nafarroako hezkuntza-sistemaren benetako beharri erantzuten ez dion enplegu-eskaintza bat sustatzen jarraituko duen galdetu zuen José Javier Esparza Abaurrea jaunak.

Azaroaren 26an:

- Haur-hezkuntzako eta lehen hezkuntzako ikastetxe publikoetako zuzendariei Hezkuntzako kontseilariak deskribatu eta azaldutako informazioa lehendakariak berresten ote zuen galdetu zuen María Victoria Chivite Navascués andreak.

Abenduaren 17an:

- Nafarroako Gobernuak gaztelaniako eta ingeleseko irakasle premiari erantzuteko Parlamentuaren nahia onartuko duen galdetu zuen María Victoria Chivite Navascués andreak.

- Hizkuntzak ikasteko programaren ebaluazioari buruz, Carlos Gimeno Gurpegui jaunak aurkeztua.

- Nafarroako derrigorrezko hezkuntzako eskola-porrotari buruz, María Luisa De Simón Caballero andreak aurkeztua.

- Hezkuntza Departamentuak Ingeleseko Ikaskuntzako Programa eskaintzen den ikastetxeetan banatu duen idatzi bati buruz; bertan, familiek onura eta zailtasunei buruzko iritzia eman zezaketen. Alberto Catalán Higuera jaunak eta Udalak aurkeztua.

Urtarrilaren 21ean:

- Enplegu publikoaren eskaintzan maisu-maistren euskarako 228 plazaren eta gaztelaniako 92 plazaren deialdia egiteari buruz, Alberto Catalán Higuera jaunak aurkeztua.

- Tuterako Institutuko bideari buruz, María Carmen Segura Moreno andreak aurkeztua.

- Iruñeko Andrés Muñoz Garde HBIPk ikastetxe berri bat eraikitzeke egindako proposamenaren gainean Hezkuntza Departamentuak dituen planei buruz, María Teresa Sáez Barrao aurkeztua.

- NHBBZko etxek etxeko hezkuntza-arretako irakasleei buruz, María Teresa Sáez Barrao aurkeztua.

- Hezkuntza-eskaintzako berritasunei buruz eta 2016-2017 ikasturterako ikasleak onartzea arautuko duen eskolatze-araudiari buruz, Carlos Gimeno Gurpegui jaunak aurkeztua.

Otsailaren 4an:

- IIP programaren ebaluazioari buruz, Miren Aranoa Astigarraga andreak aurkeztua.

- Hezkuntza Departamentuak eskola-jazarpen kasuetan ezarriko duen protokoloari eta eskola-jazarpenaren aurka lan egiteko aplikatuko dituen neurriei buruz, María Roncesvalles Solana Arana andreak aurkeztua.

Otsailaren 18an:

- Nafarroako eremu ez-euskaldunean D eredu ezartzeak duen kostuari buruz, Javier García Jiménez jaunak aurkeztua.

- Sarriguren IPko D ereduko gurasoek A eta D ereduak eraikin desberdinetan bereizteke egindako eskaerari buruz, María Esther Korres Bengoetxea andreak aurkeztua.

- Landa-eskolen mantentze eta sustapenari eta aurreko legegintzaldian onartutako dekalogo martxan jartzeari buruz, Miren Aranoa Astigarragak aurkeztua.

- Hezkuntza Departamentuak ikastetxe publikoetan hizkuntz-eredu desberdinak elkarrekin izatea onartuko duen edo eredu horiek bereiztea erraztuko duen galdetu zuen Carlos Gimeno Gurpegui jaunak.

Martxoaren 3an:

- Hezkuntza Departamentuak 2016-2017 ikasturterako eremu ez-euskaldunean D ereduko matrikulazioa baloratzeari buruz, Carlos Gimeno Gurpegui jaunak aurkeztua.

- Ingeleseko Irakaskuntzako Programa duten zentroetan edo ingelesa ikasteari lehentasuna ematen dion curriculum proiektua duten zentroetan egindako aurretiko izen-emateetako eskaerei buruz, José Javier Esparza Abaurrea jaunak aurkeztua.

- Nafarroako Gobernuak hurrengo ikasturtean LOMCE garatzeari dagokionez dituen aurreikuspenei buruz, María Luisa De Simón Caballero andreak aurkeztua.

Martxoaren 15ean:

- 2016-2017 ikasturterako lanbide-heziketako goi-mailako graduatan ikasleak sartzeko sistemari buruz, María Luisa De Simón Caballero andreak aurkeztua.

- Lehen Hezkuntzako 5. mailako ikasle-taldeentzako English Week hizkuntza-murgiltzerako programari buruz, María Luisa De Simón Caballero andreak aurkeztua.

Martxoaren 17an:

- Sarrigurenen gaur egun dagoen haur eta lehen hezkuntzako ikastetxe publikoa hizkuntz-ereduen araberrako bi zentrotan banatzeari buruz, María Luisa De Simón Caballero andreak aurkeztua.

- Hurrengo ikasturtean D eredia eskatzen duten herritarren beharrei erantzuteko Hezkuntza Departamentuak aplikatuko dituen irizpide eta neurriei buruz, María Esther Korres Bengoetxea andreak aurkeztua.

- Eremu ez-euskaldunean dauden eta euskarazko irakaskuntza eskaintzen duten itunpeko ikastetxeetako ikasleentzako garraio eta jantokirako laguntzak edo diru-laguntzak ezartzeari buruz, Alberto Catalán Higuera jaunak aurkeztua.

- Hezkuntza Departamentuak duen posizioari buruz gurasoek aukeratutako ikastetxeetatik kanpo gelditu diren ikasleak D ereduak izan balira, Javier García Jiménez jaunak aurkeztua.

Apirilaren 5ean:

- Hezkuntza Departamentuak Nafarroako Gobernurako Akordio Programatikoa esparru legaltzat jotzen duen galdetu zuen Alberto Catalán Higuera jaunak.

Apirilaren 14an:

- Hezkuntza Departamentuaren politika orokorrari buruzko interpelazioa, Nafarroako irakaskuntza publikoko eskaintzaren finantzaketari eta antolamenduari dagokienez, Izquierda-Ezkerra alderdiaren FPEk aurkeztua.

- Nafarroan Ingeleseko Irakaskuntzako Programa ebaluatzeko ikastetxeetara igorri diren probei buruz, Carlos Gimeno Gurpegui jaunak aurkeztua.

- Tuterako eskola publikoetan bi lerro ixteari buruz, María Teresa Sáez Barrao andreak aurkeztua.

- 2016-2017 ikasturterako LOMCE ezartzeko egutegiari buruz eta Gobernuak LOMCE indargabetzeko duen posizioari buruz, María Luisa De Simón Caballero andreak aurkeztua.

Apirilaren 28an:

- Maisu-maistren kidegoan sartzeko hautatze-prozedurari buruz, Miren Aranoa Astigarraga andreak aurkeztua.



- Nafarroako hezkuntza-sisteman ezarritako hizkuntza-ereduen ebaluazioa egiteari buruz, Alberto Catalán Higuera jaunak aurkeztua.
- Hezkuntza Departamentuak bitarteko irakasleen oporrak ordaintzearen inguruan jarraituko dituen irizpideei buruz, María Roncesvalles Solana Arana andreak aurkeztua.
- 2016-2017an haur-hezkuntzaren lehen zikloa eskainiko duten zentroek izan beharko dituzten baldintza fisikoei buruz, Carlos Gimeno Gurpeguik aurkeztua.
- Hezkuntza Departamentuak dituen arrazoiei buruz LOMCEk ezartzen duen lehen hezkuntzako 6. mailako ebaluazio-proba ez egiteko, Javier García Jiménez jaunak aurkeztua.

Maiatzaren 12an:

- Garesen Izarbeibarrerako bigarren hezkuntzako institutu bat eraikitzeke aukerari buruz, Javier García Jiménez jaunak aurkeztua.
- Ingeleseko Ikaskuntza Programa eta British eskaintzen duten ikastetxe publikoei 2016-2017 ikasturterako 3 urteko haurrentzako lerro berdinak ez emateari buruzko arrazoiei buruz, Alberto Catalán Higuera jaunak aurkeztua.
- Hezkuntza Departamentuak bitarteko irakasleen oporrak ordaintzearen inguruan jarraituko dituen irizpideei buruz, María Roncesvalles Solana Arana andreak aurkeztua.
- Haur-hezkuntzako etapako bigarren zikloan hasteko ikasleen adina malgutzeko aukerari buruz, Carlos Gimeno Gurpegui jaunak aurkeztua.
- Martzillako Marqués de Villena Bigarren Hezkuntzako Institutua hobetzeko planari buruz, Carlos Gimeno Gurpegui jaunak aurkeztua.

Maiatzaren 26an:

- Cintruenigoko La Paz BHIk Ingeleseko Ikaskuntzako Plana ezartzeko eta eraikin berri bat eraikitzeke egindako eskaerei erantzuteko aurreikusitako jarduketa-ildoari buruz, Javier García Jiménez jaunak aurkeztua.
- Sarriguren Ikastetxe Publikorako elkarbizitza-protokoloa ezartzeko Batzordeari buruz eta Sarrigurenen bigarren hezkuntza eta batxilergoko institutu bat eraikitzekeari buruz, María Teresa Sáez Barrao andreak aurkeztua.
- Eremu ez-euskaldunean dauden zentroetako euskarazko haur-hezkuntzako eta lehen hezkuntzako plazei buruz, Carlos Gimeno Gurpegui jaunak aurkeztua.

Ekainaren 9an:

- Ofizialak ez diren hizkuntzen profilak dituzten maisu eta irakasleen plazen deialdia egoteko murriztuko diren espezialitate eta hizkuntz-profilei buruz, María Esther Korres Bengoetxea andreak aurkeztua.
- Andrés Muñoz Garde hezkuntza bereziko eskola publikoak zentroa lekuz aldatzekeari buruz planteatutako proposamenaren inguruan, María Teresa Sáez Barrao andreak aurkeztua.
- Hezkuntza Departamentuan blokeatutako aurrekontu-partidei buruz, Javier García Jiménez jaunak aurkeztua.

Ekainaren 23an:

- Hezkuntza Departamentuaren jantoki-bekari buruz eta familia behartsuei eskola-material guztia emanen dien beka-sistema bati buruz, María Teresa Sáez Barrao andreak aurkeztua.

- Hezkuntza Departamentuko goi-karguetan eta egituran eginen diren aldaketei eta horien zergatiari buruz, Alberto Catalán Higuera jaunak aurkeztua.

Ekainaren 29an:

- Lodosako BHI n D ereduaren ez eskaintzeko arrazoiei buruz, María Teresa Sáez Barrao andreak aurkeztua.

- Ikastetxeen hezkuntza-eskaintzan hizkuntza-eredu guztiak sartu daitezkeen ikastetxeak eraikitzeko proiektuetan erabilitako prozedurei buruz, Carlos Gimeno Gurpegui jaunak aurkeztua.

### **Bisitak**

Hezkuntza Batzordeak egindako bisitak:

Urriaren 15ean:

- Bisita Burlatako lanbide-heziketako ikastetxe bateratura.

Urriaren 20an:

- Bisita Nafarroako Unibertsitate Publikora.

Urriaren 21ean:

- Bisita Sarrigurengo haur eta lehen hezkuntzako ikastetxe publikoaren instalazioetara.

Urriaren 27an:

- Bisita Andrés Muñoz Garde hezkuntza bereziko ikastetxe publikora.

Azaroaren 25ean:

- Bisita Tuterako ETI Ikastetxe Bateratu Politeknikora.

Abenduaren 9an:

- Bisita Larrainzarko haur eta lehen hezkuntzako ikastetxe publikora.

Urtarrilaren 26an:

- Bisita Tuterako Benjamín bigarren hezkuntzako institutura.

Otsailaren 16an:

- Bisita Azpilagaña eta Noingo haur eta lehen hezkuntzako ikastetxe publikoetara.

Martxoaren 9an:

- Bisita Iruñeko Julio Caro Baroja BHIra.

Martxoaren 11n:

- Bisita Sunbillako haur eta lehen hezkuntzako ikastetxe publikora.

Martxoaren 23an:

- Bisita Martzillako Marqués de Villena bigarren hezkuntzako institutura.

Apirilaren 6an:

- Bisita Iruñeko Basoko bigarren hezkuntzako institutura.

Apirilaren 22an:

- Bisita Beriaingo eskualdeko haur eta lehen hezkuntzako ikastetxe publikora.

Apirilaren 29an:

- Bisita Tuterako Torre Monreal hezkuntza bereziko eskola publikora.

Maiatzaren 6an:

- Bisita Paderborn Victor Pradera haur eta lehen hezkuntzako ikastetxe publikora.

Maiatzaren 10ean:

- Bisita Cintruenigoko La Paz derrigorrezko bigarren hezkuntzako institutura.

Ekainaren 8an:

- Bisita Iruñeko San Jorge haur eta lehen hezkuntzako ikastetxe publikora.

Ekainaren 15ean:

- Bisita San Adriango Alfonso X El Sabio haur eta lehen hezkuntzako ikastetxe publikora.

### **Beste ekintza batzuk**

Urriaren 17an:

- NUPeko batxilergoko debatearen Ligaren finala izan zen.

Urriaren 19an:

- Nafarroako Eskola Kontseiluan ordezkaria izateko hautagaien aurkezpena izan zen.

Azaroaren 3an:

- Nafarroako Eskola Kontseilurako hauteskundeak izan ziren eta hautatutako karguak izendatu ziren.

Azaroaren 25ean:

- Liburu-aurkezpena: Cerrando Círculos en Educación: Pasado y futuro de la escolarización.

Apirilaren 15ean:

- Maddalena Tedeschi. Hezkuntza politika eta haurtzaroa. Nafarroako Eskola Kontseilua.

Maiatzaren 3an:

- Hezkuntzaren aldeko Munduko Ekintzaren Astearen ekitaldi nagusia.

Maiatzaren 27an:

- Kontrol eta zuzendaritza politika, Nafarroako hezkuntza-sistemari buruzko aparteko osoko bilkura monografikoa.

**321. taula: Nafarroako Parlamentuko Hezkuntza Batzordeak landutako gaien kopurua**

Ekimen mota	Kopurua
Foru-lege proiektuak	
Agerraldiak	23
Lan-saioak	33
Mozioak	37
Galderak	62
Bisitak	18
Beste egintza batzuk	7

Txosten honek aipatzen duen Nafarroako Parlamentuaren memoria osoa webgune honetan kontsulta daiteke:

<http://www.parlamentodenavarra.es/hasiera/argitalpenak/jardueren-oroit-idazkiak.aspx>



#### **2.4.2. Hezkuntzaren interesa alor instituzionalean**

- **Nafarroako Arartekoa**

##### **Aurkeztutako kexak**

Nafarroako Arartekoaren instituzioaren memorian 2015-2016 ikasturteko hezkuntzari buruzko 61 kexa jaso dira.

Honako hauek dira kexak eragin dituzten gertakari nagusiak:

##### **2015ean hezkuntzaren alorrean aurkeztutako kexak**

#### **1. Hezkuntza-plangintzarekin lotuta:**

- Hezkuntza Departamentuak Nafarroako ikastetxeetan Euskara irakasgairako Erlijio irakasgairako baino ikasle-ratio handiagoa ezarri duelako desadostasuna dago (2 kexa).
- Guraso-talde bat ez dago ados Sarrigurengo ikastetxe publikoko zuzendaritzak hurrengo ikasturterako instalazio berrietan haur-hezkuntzako bigarren zikloko taldeak banatu dituen moduarekin; izan ere, haien ustez, ikasturtearen martxa normala oztopatzen du eta ez da ikasleen segurtasun fisikoa bermatzen.

#### **2. Haur Hezkuntzako lehenengo zikloarekin (0-3 urte) lotutakoak:**

- Ez dago adostasunik haur-hezkuntzan ikasleak onartzeko baremoari dagokionez, ez baitu kontuan hartzen familia-unitatea osatzen duten kideen kopurua, errenta kalkulatzeko orduan.
- Ablitasko Udalak irregulartasunak egin ditu Ablitasko haur-eskolaren kontratazio-prozeduran, ez baitu errespetatu aurretiazko kontratua amaitzeko adostutako epea.
- Barañaingo haur-eskola publikoan kanpoko pertsonak sartzea eragozten duen segurtasun-neurririk ez dago.
- Ez dute bere haurra onartu Beteluko haur-eskolan, ustez ez zegoelako behar beste plaza, bi urtez jarraian.
- Desadostasuna, Uharteko Udalak 0-3 urte bitarteko haur-eskolaren zerbitzua aurreko enpresa adjudikaziodunari esleitu diolako eta ez dizkielako matrikulak itzuliko hala eskatu duten gurasoei.

#### **3. Hezkuntza-zentro eta programetan onartzeari dagokionez:**

- Ikastetxe batek bere bi alaba bikiak ikasgela banatan bereizteko erabakiarekin ez dago ados.
- Hezkuntza Departamentuak ez du onartu bere semea aparteko arrazoiengatik ikastetxez aldatzeko eskaera.
